

Jakintza-arloa: Filosofia

Denbora eta arrazoimena

Esperientziaren batasuna eta
jarraitasuna filosofia
transzendentalaren sisteman

Egilea: **IBON URIBARRI ZENEKORTA**

Urtea: 1996

Zuzendaria: VICTOR GOMEZ PIN

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-199-0

Hitzaurrea

Ikerketa lan honetan Mendebaldeko pentsamenduaren gailurretako bat, Immanuel Kant, aztertzen da. Horretarako, argitaratu gabe geratu zen eskuizkribu berantiar batetik abiatzen gara, *Opus postumum* gisa ezagutzen den zirriborro luzetik, eta hortik Kanten filosofiaren garapen jarraitu eta irekia berreraikitzen dugu. Horrela, frogatzen dugu bere filosofia ez zela geratu itxita lan handietan, alegia, hiru kritiketan, baizik eta azken urteetan ere bere pentsamendua zehazteko lanean jardun zuela. Higidura da aztertzen den adigai eta arazo nagusia, baina hortik abiatuta Kantek azken urte horietan funtsezko ideia gehienak birpentsatu zituela eta sakonkiago aztertu zituela argitzen da.

Kanten azken eskuizkribu hori gutxi aztertu da (Félix Duque, Eckart Förster, Vittorio Mathieu), alde batetik; gainera, azterketa urri horiek ez dira erabili Kanten filosofiaren balioespen berri bat egiteko. Hori izan da gure ahalegina. Ahalegin horretan Víctor Gómez Pin zuzendariaren eta Joxe Azurmendiren laguntza izan genuen Donostian; Rudolf Malter irakaslearena Mainzeko unibertsitateko *Kant Forschungsstellen*, eta Burkhard Tuschling, Reinhard Brandt eta Peter Janich irakasleena Marburgeko unibertsitatean. Azken unibertsitate horretan Kanten lan osoen aldaera elektronikoa erabiltzeko aukera izan nuen, eta han idatzi nuen tesia.

Tesia euskaraz pentsatu eta idatzi nuen zuzenean Alemanian. Ikerketa maila ona mantentzea zen niretzat garrantzitsua. Hori gainera euskaraz egitea lan handia izan zen, ia aurrekaririk ez nuelako alor horretan. Tesiaren defentsa egin genuenean, aurrerantzean zabalkunde lana egitea falta zela adierazi nuen, euskarazko materialak sortuz. Une hartan ez zegoen argi bide horretatik jarraitzeko aukerarik izango ote nuen, Eusko Jaurlaritzari eskatu nion beka postdoktorala (Marburgen ikasten jarraitzeko) ukatu egin baitzidaten. Epaimahaikide batek, gainera, ikerketa asmo hain interesgarriak euskaraz burutu nahi izatea kontraesankorra zela ere aipatu zuen. Zorionez epaimahaikide haren aurreiritziak ez dira bermatu eta azken urteotan filosofia (alemana) euskaraz ere bizi daitekeela ikusi dugu.

Denbora eta Arrazoimena

Esperientziaren Batasuna eta Jarraitasuna
Filosofia Transzentalaren Sistematan

Ibon Uribarri Zenekorta

Euskal Herriko Unibertsitatea

Nire familia eta lagunei

Aurkibidea

Ohar teknikoa.....	9
Hitzaurrea.....	11
Sarrera.....	19
A. Eskuizkribua eta bere argitalpenaren historia.....	21
B. Testigantza garaikideak.....	34
C. Eskuizkribuaren Deskribapen Orokorra.....	39
I. Kanten Filosofia Kritikoaren Bilakaera.....	73
1. Arrazoimen Hutsaren Kritikako zenbait hutsune eta arazo.....	75
a. Propedeutika eta sistemaren arazo.....	75
b. Higiduraren ulermen kritiko baterako lehen urratsak.....	78
c. Begiespena eta adimena.....	83
d. Dinamikaren eraiketa.....	86
2. Maren eznahikotasuna.....	96
a. Lanaren aurrekariak.....	96
b. Lanaren egitura.....	98
3. Kritikaren bigarren argitalpeneko berritasun garrantzitsuak.....	111
a. Adimenaren nagusitasuna.....	111
b. Higidura.....	112
c. Autoafekzioa.....	114
4. Nola Juzgamenaren Kritikarekin Kanten Filosofia ez den bukatzen, eta beraz, gutxiago oraindik osatzen.....	120
a. Sistemaren osaketaren porrota.....	120
b. Beste hainbat arazo.....	122
c. Gorputz organikoa.....	130
5. 90eko hamarkada harrigarria.....	133
II. Sistemaren batasunaren bila.....	161
1. Materiaren indar higitzaileak eta hauen oinarria.....	163
a. Indar higitzaileak.....	163
b. Eterraren ezaugarri orokorrak.....	173
c. Eterraren existentziaren frogapena.....	178
2. Azterketa transzendentalaren bila.....	182
3. Higiduraren teoria kritikoaren azken forma.....	202
-Higidura berezi bat: Organismoaren gaia.....	208
III. Sistematizazio saiakera.....	215

1. Philosophia naturalis.	217
2. Philosophia mathematica.	230
3. Philosophia experimentalis.	234
4. Philosophia instrumentalis.	238
5. Philosophia transcendentalis.	246
Eranskina.	257
Bibliografia.	293
Izenen aurkibidea.	309
Kontzeptuen aurkibidea.	310

Ohar teknikoak:

Aipamenak oso ugariak dira lan honetan. Horrelako lan akademiko batean ulergarria delakoan nago. Testuetan zehazki oinarritutako gogoetak egiten saiatu naiz eta batzuetan gainera lortzen zailak diren testuak biltzen ditut. Horregatik, testuak bertan ematea zentzuzkoa iruditu zait, irakurlearentzat gauzak errazteko. Kanten eskuizkribuen idazkera errespetatu dut oro har. Soilik 'n' eta 'm'-ak bikoiztu ditut. Itzulpen guztiak neureak dira.

-Kritik der reinen Vernunft, bi argitalpenen arabera aipatzen da, A eta B, ondoren orria emanez zenbaki arabiarretan.

-Kanten beste testuak oro har Akademiaren argitalpenaren arabera. Hauetan, 'AA'-ri liburukiak zenbaki erromatarretan eta orriak-lerroak arabiarretan jarraiki zaizkio, datorren eskemaren arabera: AA XXI 245, 23 - 246, 7. Eskutitzen liburukiak, AA X-XII, bigarren argitalpenaren arabera aipatzen dira.

-Bigarren mailako literatura egilearen edo argitaratzailearen izena, urtea eta orria emanez egiten da, datorren eskemaren arabera: Stark 1993, 46. Ondoren, bibliografian informazio osoagoa aurki daiteke.

Laburpen nagusiak:

Gedanken von der wahren Schätzung der lebendigen Kräfte...: Gedanken

Allgemeine Naturgeschichte und Theorie des Himmels: Himmel

Nova dilucidatio: Nova

Monadologia physica: Monad.

Einzig möglichen Beweisgrund...: Beweisgrund

Versuch, den negativen Grössen in die Weltweisheit einzuführen: Neg.

Beobachtungen über das Gefühl des Schönen und Erhabenen: Beobacht.

Träume eines Geistersehers, erläutert durch Träume der Metaphysik: Träume

Von dem ersten Grunde des Unterschiedes der Gegenden im Raume: Gegenden

De mundi sensibilis atque intelligibilis forma et principiis: Diss.

Kritik der reinen Vernunft: KrV

Prolegomena zu einer jeder künftigen Metaphysik: Prol.

Grundlegung der Metaphysik der Sitten: GMS

Metaphysischen Anfangsgründe der Naturwissenschaft: MA

Kritik der praktischen Vernunft: KpV

Erste Einleitung in die Kritik der Urteilskraft: EE

Kritik der Urteilskraft: KU

Über eine Entdeckung...: Entd.

Religion innerhalb der Grenzen der blossen Vernunft: Rel.

Metaphysik der Sitten: MS

Der Streit der Fakultäten: Streit

Anthropologie in pragmatischer Hinsicht: Anthr.

Übergang von den MA zur Physik: Igarobidea (edo Opus postumum)

Kant-Studien: KS

Kant-Studien Ergänzungsheft: KS EH

Kant-Forschungen: KF

Hitzaurrea

"Nil actum reputans,
si quid superesset agendum", KrV, B
XXIV

Orain aurkezten dudana lana arazo konkretu batek sortu duen urtetako landualdia da. Oraindik ikasle soila nintzela Arrazoimen Hutsaren Kritikako B155eko oin-oharrarekin topo egin nuen. Bertan higiduraz hitz egiten zuen Kantek, zentzu transzendentalean. Ohar horrek zuen sakoneraz ziur, baina Kritikako beste inon eta ondorengo lanetan ere merezi zuen lanketa bat aurkitu ezinean, azkenean, zera ulertu nuen: Kanten Filosofiak dituen arazoak gai honen landualdi sakonago baten gabeziarekin zuzenki loturik daude. Ondoren, Felix Duqueren Igarobidearen itzulpena ezagutu nuenean, ez zitzaidan harrigarria gertatu Kantek bere zahartzaroan Sistema osatugabe uzteko izuak bultzatuta Metafisika eta Fisikaren arteko Igarobidea lantzeko erabakia hartu izana. Garbi zegoen nire gaia hor berriro agertuko zela eta nire ikerketaren azpigituluak agerpen horren historia adierazi nahi du. Geroago, Kanten higiduraren kontzeptua Kaulbachek sakonki aztertu zuela ikusi nuen¹, baina honek Igarobideko testuak erabili bazituen ere, eskuizkribua ez zuen bere ikuspuntu fruitukorraz baliatuz inoiz sistematikoki aztertu², eta nire lana hori egiten saiatzen da. Nire ikerketak, beraz, higiduraz dihardu zentzu transzendentalean eta horregatik izendatu dut "Denbora eta Arrazoimena", subjektuaren dinamismoaren ikerketa filosofikoa baita.

Fenomeno oso zabaldua bihurtu da Kanten Filosofiaren azterketen sarreretan Igarobidea aipatzea, bere balioaz iritzia ematea, baina ondoren beraz ezer gehiago ez esatea. Eskuizkribu honetaz oraindik iritzi erabat ezkorrak badaude ere³, horien ondoan baikorrak ez dira falta: Kantek aurrelanak argitaratu izan balitu, emaitza Kritikaren hirugarren edizio bat bihurtuko litzatekeela dio Vleeschauwer-ek⁴, eta Pinski berea sistemak bere osotasuna lortzen duela gaineratzen du erabat baikorki⁵. Egia azken iritzi hauetatik hurbilago dagoela uste dut. Berezi zera azpimarratuko nuke Kanten azken ahaleginen ezagutzan oinarriturik, bere Filosofia hirugarren Kritikari osatutzat ematen duen irakurketa⁶ atzera bota behar dela.

Lan hau bultzatu duen arazoari Heidegger-ek egiten duen Kanten interpretazioaren eznahikotasuna gehitu zitzaion. Hala ere, azkenean arazo berri hau ez dut zehazki landu. Materialeak pilatu zaizkit eta hauek lantzeak

¹"Kant hat im Gegensatz zu Aristoteles die Bewegung nicht zum selbständigen Thema gemacht und nur in impliziter Weise eine Theorie von der Bewegung gegeben. Dem Interpreten ergibt sich daher die Aufgabe, diese Theorie aus einer gewissen Verborgenheit ans Licht zu bringen", Kaulbach 1963a 7.

²"Es ist im Rahmen dieses Aufsatzes nicht möglich zu zeigen, daß sich das Bewegungsprinzip im weiteren Gedankengang der Vernunftkritik und noch darüber hinaus besonders des postumen Opus als durchgängiger Leitfaden der Interpretation erweist", Kaulbach 1963a 15; "Und wenn es erlaubt ist, über das schwierige Problemgeflecht des Opus postumum in einer kurzen Bemerkung etwas auszusagen, so scheint mir hier der Begriff der Bewegung bestimmend zu sein", idem.

³"Al morir, en 1804, lo único que nos deja es un fardo voluminoso de notas y hojas manuscritas que no guardan relación entre sí", Arrillaga 1979, 229.

⁴"L'*Opus postumum* est, pour nous, une troisième édition de la Critique de la raison pure, introduite et déterminée par une doctrine physico-métaphysique de la matière", Vleeschauwer 1937, 465.

⁵"Die nötige Vervollständigung des Systems und die Zusammenfassung des Ganzen ist durch das Manuskript gegeben", Pinski 1911, 147.

⁶1992an oraindik En la cumbre del criticismo: Simposio sobre la Crítica del Juicio de Kant izenburua zuen liburua agertu zen. Baina horren aurrean: "Daß die Aufnahme von Fragestellungen der Vernunftkritik im *Opus postumum* das systematische Gewicht der 'Kritik der Urteilskraft' schmälert hat, hat sich längst ergeben", Ritzel 1977, 454.

beste lan berri bat eskatuko luke. Horregatik, lanean aipamen puntualak soilik egin ditut. Dena den, nire ikerketak Kanten bilakaera azaltzen duen neurrian, aldi berean Heidegger-en ikuspegiaren aldebakartasuna kritikatzeko oinarria jartzen duela uste dut. Egia da Heidegger-ek Kantengan denborazkotasunak duen garrantzia azpimarratu duela, baina berak ematen duen irakurketa motza geratzen da. Pisu guztia denboran jarri beharrean, higidura jarri behar da erdigunean, denbora eta espazioaren elkarlotura gisa⁷.

Azpimarratu nahi dudana beste puntua zera da, ikerketa aipatutako jatorrizko arazoaren arabera sistematikoki jarraituz gain, berari forma egoki bat ematen saiatu naizela. Kanten eskuizkribua egitan liburu baten prestaketarako aurrelanean besterik ez da osatzen, zenbait urte bitartean idatzi zituenak gainera. Ni egoera honi egokitzen saiatu naiz. Dakigunez, Kantek luma eskuan zuela pentsatzen zuen⁸, eta hemen daukaguna horixe da, Kanten pentsamenduaren garapen askea, argitaratutako lanetan topatu ezin daitekeen araztasunean. Horregatik, aurrean hauen bilakaera kronologikoa aintzat hartzea ezinbestekoa iruditu zait eta gaien sistematika garapen horri egokitzen saiatu naiz⁹.

Liburuaren sarreran Igarobidearen eskuizkribuak osatzen duen kaosa deskribatzen saiatu naiz. Alde batetik, bere historia aldrebesa eta bere itxura sakabanatuak argitalpen bat prestatzeko unean izugarritzko arazoak sortu ditu. Zailtasun horiek deskribatzeaz gain, gaur egun eskuizkribua osatzen duten orriei buruzko informazio berriena ere bildu dut. Hala ere, gai honetan gaur egun oraindik mantentzen den egoera txarra aipatu behar da. Edizio kritiko berri batez hitz egiten bada ere, hau egiteko ahalegin serioirik ez da ikusten oraindik. Beste aldetik, lehen une honetan testuen lehen deskribapen orokor bat egin dut, gaien bilakaera azpimarratuz. Sarreraren ondorioa gure aurrean testuen eta edukien nahaspila handi xamarra dugula litzateke eta honek hurrengo ataletan burutu beharreko lana iragartzen du.

Lanaren lehen zatian Filosofia kritikoak izan duen garapena aztertu dut. Hau egitean, Kantek lortutako emaitzez baino gehiago, bere arazoez arduratu naiz. Jakina da Kantek inoiz ez zuela "**Filosofia Kritikoaren Sistema**" edo antzeko izenburua daraman libururik idatzi. Sistema osatzea arazotsua izan zen azkenera arte. Bertan Fisikak eduki beharreko kokapena gai nagusitzat zuen Kantek, eta jakina da higiduraren kontzeptuak Fisikaren muina osatzen duela. Baina beste alde batetik ere, arazo nagusiak nabaritzen dira, alegia, Filosofia kritikoaren bihotzean dauden denbora eta espazioa, zentzumena eta adimenaren arteko harremanenak eta abar. Gai hauek Kritika idatzi ondoren ere arazoz beteak zirauten, eta arazo hauen azterketa egoki batek higiduraren kontzeptuarekin zerikusia duela argi dago. Zati honetan garbi geratuko da Kantek ez zuela atsedetik hartu

⁷"So verdienstvoll es z. B. von Heidegger war, die Transzendentalphilosophie auf die Zeitlichkeit zu begründen, so einseitig war es auch: das Ursprüngliche ist die Bewegung, welche Zeit und Raum zugleich hervorgehen läßt", Kaulbach 1960, 152. Egia esan, Heidegger berak gerora ikuspegia nolabait aldatu zuen.

⁸"Kant dachte, wie wir aus seinem handschriftlichen Nachlaß ersehen, mit der Feder in der Hand", Adickes 1896, 53.

⁹"C'è un problema di organizzazione strutturale, che può essere risolto solo con un criterio cronologico e sistematico al tempo stesso", Mathieu 1963, 9.

objektibitatearen arazoaren konponketa baten bilaketan. Oraindik arazoak zeuden, horren jabe zen eta bukaera arte hauek gainditzen saiatu zen.

Bigarren zatian, beti ere aurrelanen kronologia jarraituz, Igarobidearen edukiak bigarren hurbilketa batean zehazkiago ikertu ditut. Lehenengoz, indar higitzaileen eta materiaren ezaugarrien azterketa eta sistematizazioa landu ditut. Horrek "Übergang 1-14" zatian bere oinarria topatzen du eterraren izatearen frogapenarekin. Ordura arteko saiakerek ezin zuten fruitu gehiegirik eman, Newton gainditzeko ahaleginek garaiko Fisikan oinarririk ezin zutelako aurkitu. Baina une honetatik aurrera Kantek indar higitzaileen arazo orokorra bere Filosofiako puntu nagusiekin lotu nahiko du. Eta hori egitean bere Filosofiaren oinarri kritiko berberak berritzen ditu. Neurri batean Igarobidean egitasmoa garai aurrekritikoko naturaren ikuspegi dinamikoari oinarri kritiko bat ematea bada, eztaba daezina da horrexek oinarri kritiko hauen berritzea bultzatu zuela¹⁰. Metafisikatik Fisikarako bidean Filosofia Transzendentalerantz itzuli beharra Kant berak aipatzen du. Indar higitzaileen arazoan afekzioaren ahalgarritasuna jasotzen da eta honek autoafekzioa, fenomenoaren fenomeno eta, azkenik, autoezarpenaren ideia Kant garapen jarrai batean. Hemen, Kritikako gai batzuen ikerketa sakontzen da eta ikuspuntu erabat berriak ere irekitzen dira¹¹. Honek, gainera, ezagutza eta ekintza etikoaren arteko harremanaren lotura hobeto ulertzea dakar. Horrela, azkenean, Sistema baten hastapenez hitz egin daitekeela uste dut¹², hori Sistema Kritiko gisa ulertzen bada, ez Metafisiko gisa. Zati honen bukaeran berriro ere testu osoen bilakaera aztertzen dut, oraingoan garapen osoa higiduraren kontzeptuaren oinarritzapen baten ikuspegitik ikertuz. Indar higitzailetatik eterrera eta honetatik autoezarpenaren ideia dihoan bidea higiduraren argiketa baten bilaketan kokatu behar da.

Hirugarren zatian higiduraren ulermen berri honek dituen inplikazio sistematikoak garatu ditut, berak iraultza kopernikarrarekin duen harremana bereziki landuz. Nire azterketa oinarritzako puntuetan geratu da, sakonketa batek egitan Matematika eta Fisikako ezagutza sendoagoak eskatzen baititu. Hala ere, sakonketa horretarako bide zuzena irekitzen dudalakoan nago. Bestalde, Kant azken asmoak protofisikarekin alderatzea oso interesgarria iruditzen zaidala nago. Protofisika gaur egun egin daitekeen Filosofiaren zientzia emankorra dela pentsatzen dut eta bere oinarri kantiarrak uste baino sakonagoak agertzen dira Igarobidetik begiratuta. Gainera, Kantengan protofisikaren zenbait eznahikotasun edo hutsune betetzeko oinarriak aurki daitezkeela iruditzen zait.

Eranskinean, bukatzeko, Jainkoaren ideia aztertu dut. Igarobideko testuak oso egokiak dira amaigabeak diruditen Kant irakurketa dogmatikoei aurre egiteko. Benetan deskribapen labur bat egin nahi nuen, baina

¹⁰"In the course of the *Transition* project Kant's conception of the faculties of the mind and their relation (...) is one again fundamentally transformed", Friedmann 1992 xv.

¹¹"Il y a une profonde unité de la pensée kantienne, et nous irons même jusqu'à dire que l'*Esthétique* appelle aussi nécessairement l'*Analytique*, que l'*Analytique* appelle nécessairement les développements ultérieurs que nous pouvons connaître par l'*Opus postumum*", Daval 1951, 27.

¹²"Le grand mérite de l'*Uebergang* est précisément de mettre le système en accord avec lui-même", Lachièze-Rey 1950, 473.

Kanten ideien garapen sakon bat erakusten duten materiale asko aurkitu ditut, Igarobidean topatu daitezkeen emaitzek argitaratutako liburuen interpretazioa argitzen baitute. Eranskin honetan lortutakoa laburtzekotan, zera esan beharko litzateke, Kantek 1790eko hamarkadan zehar bere postulatuaren teoriaren ahulezia igarri eta ondorioz alde batera utzi zuela. Beraz, teoria honen oinarrian zegoen ongi gorenaren gaiak erlijio mailan zentzu oro galdu zuen; aldi berean, ongi gorenaren kontzeptu honek etorkizun politiko-sozial hobekoaren oinarritzapenean erabilpen egokia lortu zuen.

Lan honek Kanten asmoa Newtonen zientzia eta erlijio pietista oinarritzea zela dioen ohiko (aurre-)iritziaren behin-betiko ukapenerako laguntzen badu, nire lanak bere eginkizuna bete duela esan nahiko du horrek.

*

*

*

Lan hau burutzean Kanten Filosofiaren muineraino sartu naizela sentitu dut. Hala ere, bere Filosofiak duen erakarpen-indar handiak ez nau itxutu, baizik bere Filosofiak formulazio klasikoan dituen zenbait hutsune kritikatzeko gai izan naiz eta letran geratu beharrean izpirituari zentzu berria ematen saiatu naiz. Gainera, horixe da Kant berak modu autokritikoan etengabeki egin zuena. Egia esan, Kanten Filosofia metodo transzendentala zehazteko borroka jarraikor gisa ulertu behar da, ez aurretik onartutako edukien legeztapen modura. Alde horretatik, Kanti onartu behar diot "**behin kritika dastatu duenak, lelokeria dogmatikoei betirako nazka diela**"¹³. Filosofo baten handiaz zera ulertzen bada, bere Filosofiaren erdiguneak kritiketan zehar erakusten duen iraupena, nire lana ere proposamen baikorrak bilatzen dituen kitikan kokatzen da, lehenago hemen Marburgen ikasi zuen Ortegak dioen zentzu berean:

"Hamar urtez pentsamendu kantiarraren barnean bizi izan naiz: eguratsa bailitzan arnastu dut eta nire etxea eta espetxea izan da aldi berean. Zalantzan jartzen dut horrelakorik egin ez duenak gure denboraren zentzua argitasunez ikus dezakeenik. (...) Espetxe kantiar bikainetik bera irentsiz soilik ihes egin daiteke. Norberaren barreneraino kantiarra izan behar da, eta gero, digestioz, izpiritu berri batera jaio. Ideien munduan, Hegelek irakasten duen gisa, gaindipen oro ukapen bat da; baina benetako ukapen oro kontserbatze bat da. Kanten Filosofia beste gauza bat izateko kontserbatu behar den irabazi horietako bat da"¹⁴.

*

*

*

¹³"So viel ist gewiß: wer einmal Kritik gekostet hat, den ekelt auf immer alles dogmatische Gewäsche, womit er vorher aus Noth vorlieb nahm, weil seine Vernunft etwas bedurfte und nichts Besseres zu ihrer Unterhaltung finden konnte. Die Kritik verhält zur gewöhnlichen Schulmetaphysik gerade wie C h e m i e zur A l c h e m i e , oder wie A s t r o n o m i e zur wahrsagenden A s t r o l o g i e ", Prol., AA IV 366.

¹⁴"Durante diez años he vivido dentro del pensamiento kantiano: lo he respirado como una atmósfera y ha sido a la vez mi casa y mi prisión. Yo dudo mucho que quien no haya hecho cosa parecida pueda ver con claridad el sentido de nuestro tiempo. (...) De la magnífica prisión kantiana sólo es posible evadirse ingiriéndola. Es preciso ser kantiano hasta el fondo de sí mismo, y luego, por digestión, renacer a un nuevo espíritu. En el mundo de las ideas, como Hegel enseña, toda superación es negación; pero toda verdadera negación es una conservación. La filosofía de Kant es una de esas adquisiciones eternas que es preciso conservar para poder ser otra cosa más allá", Ortega 1962 IV 25-6.

Eskerrak eman nahi dizkiet azkenengo urtetan lan honetan lagundu didaten pertsona eta erakunde guztiei. Zerrenda bat egitea luzea litzateke, eta gainera, horrek norbait ahazteko arriskua luke. Aurrerantzean denekin ahal den neurrian harremanean jarraitzeko asmoa baino ezin dut adierazi. Kasu batean hori ezinezkoa da, Rudolf Malter irakaslea tamalez bapatean hil baitzen Mainz-en berekin ikasten ari nintzela.

Marburg-en, 1996ko Ekainean.

Sarrera

A. Eskuizkribua eta bere argitalpenaren historia.

Kant 1804eko otsailaren 12an hil zenean, Wasianskik Schulzi eman zizkion azken urteetan hark idatzi zituen orriak, azken honek hauen balioa azter zezan. Schulzen judizioa ezkorra izan zen¹⁵ eta eskuizkribua Karl Christian Schoenek jaso zuen, Kanten anaiaren suhiak. Schoenek eskuizkribua Dürben-era eraman zuen. 1805eko apirilaren 11n irtendako "Der Freimüthige, oder Ernst und Scherz" aldizkarian Friedrich Buchholzek "Über Kants letztes Werk" artikuluan Kanten azken lana argitaratzea eskatu zuen iadanik¹⁶. Agian eskakizun honi erantzuteko Schoenek orrietan oinarritutako berridazketa saioa egin zuen, baina bere ahaleginak horretan geratu ziren¹⁷ eta Buchholzen deiak ez zuen erantzunik jaso. Bi arrazoi aipa daitezke: batetik, lan osatugabe eta nahasi batekin Kanten izen ona zikindu nahi ez izatea, jarrera benetan okerra eta eskuizkribua urtetan zehar jarraitu duena; beste arrazoa, Kanten 1785-1795 arteko eragin erabakigarria igaro zela. Idealista gazteen bultzadak maisua azkar ahaztarazi zuen. Ondorioz, Kanten azken edizioak ez ziren ondo saldu eta, beraz, ekonomikoki ere eskuizkribuaren argitalpenak ez zuen zentzu gehiegirik¹⁸.

Schoen 1854ean hiltzean bere alabak arazoa eguneratu zuen. Eskuizkribua saltzeko asmoa zuen, baina bere balioa zehaztu behar zen lehenago. Schuberti bidali zitzaion eskuizkribua Berlinera 1857 inguruan, bere Kanten lanen bere argitalpen handian iadanik haren desagerpena arreguratu zuen pertsona berari beraz¹⁹. Honek 1858an "Neuen Preußischen Provinzialblättern" aldizkarian Kanten azken orrien "birraurkipena" ezagutarazi eta edukiaren laburpena egin zuen, nahiko iritzi baikorrarekin gainera. Urte berean Rudolf Haymek argitaratzen zuen "Preußische Jahrbücher" aldizkarian beste txosten baikorragoa azaldu zen, sinadurarik gabe, baina ziurrenik Haym berak idatzi zuena. Baliteke bitartean eskuizkribua beste eskuetatik ere igaro izatea.

¹⁵Wasianski eta Hasse dira lehen gertakizun hauen berri ematen dutenak. Honela dio lehenak: "Ich hatte es [eskuizkribua] seinem Freunde Hr. H.P.S. [Schulz] zur Beurteilung vorgelegt, einem Gelehrten, den *Kant* nächst sich selbst für den besten Dolmetscher seiner Schriften erklärte. Sein Urteil ist dahin ausgefallen, daß es nur der erste Anfang eines Werkes sei, dessen Einleitung noch nicht vollendet und das der Redaktion nicht fähig sei", Malter 1993, 260. Bigarrenak honela dio eskuizkribuari buruz: "Jetzt ist es vorläufig dem Hrn. Hofpred. S c h u l z (Kants Commentator, einem competenten Richter) zur Beurteilung communicirt, der mich aber versicherte, daß er darinne nicht fände, was der Titel verspräche, und zu der Herausgabe desselben nicht rathen könne", Buchenau/Lehmann 1925, 24oh.

¹⁶"Betrachtet man Kants sämtliche Werk(e) als lauter einzelne Fulgurationen seines unendlich reichen Genies, so ist jenes Werk die letzte. Stark oder schwach - sie ist die letzte, d. h. diejenige, welche in dem Leben eines Mannes, der nur denkend existirte, den Beschluß macht, und dem, der einstens Kants Leben beschreibt, unentbehrlich ist. Mit einem Wort, sie gehört zur Geschichte seines Geistes. Ist also das Kantische Werk nicht vernichtet, sondern nur zurückgelegt, so gebe man es heraus als der Welt angehörig", Blasche 1991, 1.

¹⁷Honela idatzen dio Wasianskik Schoeni 1806ko martxoaren 14ean: "Wie weit sind sie mein Theuer mit der Bearbeitung des Manuskripts gekommen? Ist aus demselben noch Etwas, und Was zu machen?", Lehmann 1980, 201.

¹⁸Rosenkranz-en arabera 1832an Nicolovius editorearen liburuak enkantatu zirenean Logikaren 210 eta Pedagogiaren 1460 liburu bertan zeuden oraindik saldu gabe (Stark 1993, 63).

¹⁹"Dies Manuskript ist aber bis jetzt spurlos verschwunden", Rosenkranz, K./Schubert, F. W. 1838hh., XI-2, 161. Kuno Fischer-ek eskuizkribua galdu eta berriro aurkitzea ipuintzat du arrazoiz eta besterik gabe ahaztua izan zela aipatzen du: "Das nachgelassene Werk Kants war nie verloren, nicht einmal verborgen. Es hat nur an der Nachfrage gefehlt", Fischer 1909, 142.

Ondoren, Rudolf Reicke "Altpreußische Monatsschrift" aldizkarian 1864ean orrien edukiaren katalogoa aurkeztu eta lana bera argitaratzeko interesa erakutsi zuen. Badirudi hurrengo urtean eskuizkribua iadanik berekin zuela Königsbergen. Hala ere, urte batzuk gehiago igaro ziren Emil Arnoldten laguntzarekin argitalpena hasi arte²⁰. 1882-1884 artean "Altpreußischen Monatsschrift", zabalpen gutxiko aldizkari errejonalean agertu zen, XIX. (1882), XX. (1883) eta XXI. (1884) zenbakietan. Lehenengoan eskuizkribuaren XII. eta X/XI. sortak, bigarrenengoan II., IX. eta III. sortak eta hirugarrenengoan V., I. eta VII. sortak azaldu ziren²¹. Orri guztien argitalpena osatu gabe geratu zen beraz (IV., VI. eta VIII. sortak ez zeuden; X/XI sorta garrantzitsuetako zati asko falta ziren); gainera, argitalpenak ez zuen inongo ordenarik jarraitu eta Kanten testua 'hobetu' edo 'txukundu' egin zen²². Hala ere, Reicke Kanten eskuizkribu hau eta beste hainbaten igorpenean eta argitalpenean izan zuen zerikusi nabarmena aipatu behar da.

Argitalpenak ez zuen Kanten testu ezezagun baten agerpenak merezi beharreko oihartzunik lortu. Hori bere inguruan sortutako polemika baten bidez soilik gertatu zen geroago. 1860an Kuno Fischer Heidelberg-eko filosofo ezagunak azken lan saiakera honek baliorik ezin zuela izan idatzi zuen, eskuizkribua inolaz ere irakurri gabe: Kanten bere Filosofia Kritiketan erabat osatua azaldu omen zuen²³. Aurreritzi hau ez zen erantzunik gabe geratu, ikusiko dugun moduan. Une hartan Paul Haensellek, Schoen-en bilobak, orriak saldu nahi zituen, agian British Museumi. Orriak atzerrira ateratzea ekiditzeko Albrecht Krausek erosi zituen 800 markoren truke 1883/4 urte aldaketa inguruan eta Hamburgera postaz bidalarazi zituen, hasiera batean Reickeren edizioa bukatzen uzteko asmoarekin²⁴.

Baina berehala, 1884ean, Kanten azken lan saiakera hauek erabiliz Immanuel Kant wider Kuno Fischer liburua idatzi zuen Fischer-en aurreritzi apurtu nahian ("zum ersten Male mit Hülfe des verloren gewesenen kantischen Hauptwerkes: Vom Übergang von der Metaphysik zur Physik", jarraitzen du izenburu luzeak). Ordurako, Fischer-ek Reickeren edizioa ezagutzen zuen, baina inolaz ere ez zuen atzera egin; alderantziz,

²⁰"Bei der Herausgabe des Manuskripts hat Reicke nach meiner Ansicht ohne alle Frage die Hauptarbeit gemacht, indem er die schwer lesbaren Bogen selbst kopierte, die leichter lesbaren durch seinen ältesten Sohn, die unschwer lesbaren durch seine Cousine kopieren liess, alles Kopierte aber sorgfältig mit dem Original kollationierte", Arnoldt 1911, 379. Arnoldtek kopia hori gero berriro zuzendu zuen.

²¹Vaihinger-ek Zu Kants Widerlegung des Idealismus 1884eko idazkian argitalpen hau aipatzen du eta Opus postumum izenburu kaskarrarekin bataiatuko du, Kant berarena errespetatu beharrean, eta ordutik izen tekniko gisa mantentzen da: "In ausgedehntester Weise macht Kant von der empirischen Affektion Gebrauch in seinem gegenwärtig zur Veröffentlichung gelangenen Opus postumum", Vaihinger 1884, 154.

²²Arnoldt berak 1884eko ekainaren 20an K. Fischer-i idatzitako eskutitz egitasmoan edizioaren balioa zalantzan jartzen zuen (Arnoldt 1911, 380-1).

²³Horrela, "System der reinen Vernunft" osatu bati buruz idazten du (Fischer 1909, 88-90).

²⁴Eskuizkribuko zati gehienak zuzenean bidali zitzaizkion. Krausek 1884eko urtarrilaren 18an erantzuten dio eskuizkribua jaso ondoren. Baina XII. sorta Paul Haensellek Parisen eduki zuen 1883ko bukaera aldera arte eta Krausek 1884-I-20an jaso zuen. Starkek diotenaren aurka, Arnoldten arabera Reicke bere argitalpenerako erabiltzen ari zen I. eta VII. sortak ez zizkion berehala bidali eta Königsbergen geratu ziren. 1892/3an Reicke Paul Haenselli eman zizkion. Honek Krauseren abokatuak eskatuta 1895-I-14ean bidali zituen Hamburgera. Eskuizkribuak, ondoren, Krause familiaren esku egon dira beti eta gaur egun, Bad Godesbergen, Bonn inguruan daude. Honekiko eta ondorengo datu askorekiko Starcken 1993ko liburua ezinbestekoa da, bertan jasotzen dituen materiale askogatik, bereziki Ingelheimen berak aurkitutako Adickesen paperak, berak Marburgera ekarritako Lehmannen paperak eta bereziki Kant Komisioaren 1894-1946 arteko aktak ("Seit Jahrzehnten zugänglich, freilich fast unbenutzten, Akten der Berliner Kant-Kommission", Stark 1993, 6).

berehala erantzun zuen Das Streber - und Gründerthum in der Literatur. Vade mecum für Herrn Pastor Krause in Hamburg idatziz. Bertan testuen balio eza baieztatu eta Krauseri kritika pertsonal gogorra egiten zion. Reickerekin desadostasunak zituela²⁵ eta Fischer-ekin polemikak berotuta, Krausek ez zuen Reickeren edizioa jarraitu, baizik 1888an bere argitalpena prestatu zuen: Das nachgelassene Werk Immanuel Kants: Vom Übergange von den metaphysischen Anfangsgründe der Naturwissenschaft zur Physik, mit Belegen populärwissenschaftlich dargestellt. Honek ez zuen Reickeren edizioa hobetu, testu berri batzuk ezagutarazi zituen arren. Orri ez-paretan Kantentestua jasotzen zuen, bere kasa ordenatua, aldatua, 'hobekuntzekin', beraz, testua berean emateko asmoa jarraitu gabe, eta paretan Krause beraren iruzkina zuen. Oraingoan Fischer-ek ez zuen zuzenki erantzun, baina aipatutako bere liburuaren ondorengo argitalpenetan polemikaren laburpen bat idatzi zuen, 1888ko Krauseren saiakera "Wischi-Waschi"-tzat joz²⁶. Gainera, Kantentestua eskuizkribuarekiko bere aurreko jarrera ez zuen batere aldatu²⁷.

Horrela, mende hasieran, lanaren zati handi bat argitaratua zegoen eta lehen ikerketa garrantzitsuak Reicke eta Krauseren argitalpenen arabera egin ziren. Baina hori ezin zitekeen azken hitza izan. Testuak ez zeuden ez tematikoki, ez eta kronologikoki ere ordenatuak, eta hori lortzea ere ia ezinezkoa zirudien. Hau Berlingo Zientzien Akademiak egindako Kantentestua idatzi osoen argitalpenaren testuinguruan lortu zen. 1895ean, Dilthey argitalpen honen ideari forma ematen hasi zitzaionean, honek lanaren zati zailenerako -III. zatia osatu behar zuen eskuizkribuen bildumarako- pertsona egokia behar zuen. Bere aurreko lanengatik Benno Erdmann izan zitekeen pertsona hori, baina bere aurreko lanen oihartzun eskasagatik egitasmoan ez zuen parte hartu nahi

²⁵Krausek Reickeregandik orriak jaso eta honen edizioarekin alderatzean, berehala idatzi zion 1884eko urtarrilaren 18an, zera esanaz: "Eine solche Herausgabe eine falsche Meinung über das Erbe Kants verbreitet" (Stark 1993, 57). 13 egun beranduago Reicke Haenselli idatzi zion Krausek eskatzen zuena, hau da, dena eskuizkribuan zegoen arabera argitaratzea argazki batek soilik lor zezakeela eta bera makina bat ez zela esanaz (Stark 1993, 58). Honela adierazten du Arnoldtek arazoaren jatorria 1884eko ekainaren 6/7an: "Reicke hat um die Weihnachtszeit, damit das Manuskript nicht nach England gehe, sondern in Deutschland bleibe, Krause vorgeschlagen, es für 800 Mark zu kaufen, natürlich aber bis zur Beendigung der Edition desselben in der Altp. Monatsschrift in Königsberg zu belassen. Krause ist dazu geneigt gewesen; Reicke hat dem Eigenthümer H[aensell]. den Pastor K. eventualiter als Käufer namhaft gemacht; beide sind miteinander in Verbindung getreten. K. hat vor dem Ankauf das ganze Manuskript sehen wollen; H. die in seinen befindlichen edierten Konvolute ihm übersandt, ebenso R. die noch nicht edierten mit Ausnahme zweier, die er gerade kopierte; alsdann hat K. an H., der mittlerweile nach Paris gegangen, sofort 800 Mark gesandt und ist damit Eigentümer des Manuskripts geworden unter der Verpflichtung, die von R. noch nicht publizierten Konvolute ihm zurückzusenden und etwa drei Jahre lang in Händen zu lassen; gleich darauf aber hat K. in bezug auf die Rücklieferung Winkelzüge gemacht, auch die ihm von H. proponierte Rückgangigmachung des Geschäfts abgelehnt und unterdessen öffentlich ankündigen lassen, dass er das letzte Werk aus Kants Feder erworben habe und demnächst edieren werde", Arnoldt 1911, 371-2. Falta ziren sortak lortuz gero, dena liburu gisa argitaratzeko aukeraz hitz egiten du, baina Krauseren jarrerak asmo hori apurtu zuen. Urte batzuk geroago, Diltheyri 1889ko urtarrilaren 12an Reicke idatzitako eskutitzean Opus postumumaren bere edizioaz honela idatzi zuen: "..., Fortsetzung u. Schluss zu geben aber leider in Folge von Zerwürfnissen mit dem jetzigen Besitzer zur Zeit behindert bin" (Stark 1993, 74).

²⁶Fischer 1909, 143.

²⁷"Noch war er mit der Ausarbeitung eines umfassenden Werks beschäftigt, welches er mit der Vorliebe eines Greises für das späteste Kind gern als sein Hauptwerk bezeichnete: es sollte den Übergang von der Metaphysik (von den Anfangsgründen der Naturwissenschaft) zur Physik, gleichsam die Brücke zwischen beiden, bilden, er nannte es auch wohl 'das System der reinen Philosophie nach ihrem ganzen Umfange'", Fischer 1909, 106; "Die Wiederholungen sind endlos und ein wirklicher Fortschritt in der Untersuchung und Darstellung, so daß die Sache von der Stelle rückt, ist so gut wie nirgends", idem, 141. Iritzi honen faltsutasuna erabat frogatua geratuko da lanean zehar.

izan²⁸. Horrela, Vaihinger-engan pentsatu zuen Diltheyk, Hallen bisitatu zuen eta hasiera batean ados zeudela bazirudien ere, azkenean ez zen ulermenik izan. Vaihinger-ek "Kant-Studien" aldizkaria sortu nahi zuen eta aldi berean Akademiarentzat lan egin. Diltheyk, ordea, Akademiaren argitalpenaren lehentasuna babestu nahi zuen kompetentzia gisa ikusten zuen aldizkaritik.

Gauzak horrela, 1896ko hasieran Adickes izan zen aukeratua eta otsailean kontratua sinatu zen²⁹. Honela dio Diltheyk 1896ko urtarrileko 27an: "Adickes jaunak bete beharreko lana, hau da, Kanten eskuzko anotazioen argitalpena eta ordenaketa, Kant-argitalpenaren zati *garrantzitsuena* da"³⁰. Adickes berehala Kanten eskuizkribuen aditu nagusia bihurtu zen eta halako lana egiteko gai izan zitekeen pertsona bakarra ere bai. Kanten eskuizkribuen kronologia zehatz baten sistema lortu zuen 33 fase ezberdin bereiziz.

Bitartean Akademiak Krausengana jo zuen azken eskuizkribua ere argitaratu ahal izateko. Krausek, ordea, ez zuen nahi hori besterik gabe onartu. Akademiak auzitegitara jo zuen, Reickek argitaratu gabeko IV., VI. eta VIII. sortak espreski aipatuz. Lehenengo erabakia, 1901-IV-25ean Krauseren aurkakoa izan bazen ere, errekurtsioa berak irabazi zuen 1902-II-1ean eta behin betiko erabakia ere bai 1902-VII-7an³¹. Gainera, Krausek 1902an eskuizkribuko azken papersortako testuak argitaratu zituen, Die letzten Gedanken Immanuel Kants. Der Transcendentalphilosophie höchster Standpunkt: Vom Gott, der Welt und dem Menschen, welcher beide verbindet, oraingoan iruzkinik gabe. Zati hau 1888ko argitalpenean sartu beharrean orain aparte argitaratu zuen, eskuizkribuak bi lan ezberdin jasotzen zituelakoan. Krause bere azken argitalpeneko urte berean hil zen.

Adickesek 1911n Akademiaren edizioiko III. zatiko lehen emaitzak argitaratu zituenean Kanten azken eskuizkribua ere argitalpen bertan jasotzeko aukerarik ez zuen ikusten³². Hala ere, 1915eko maiatzean Krause-n alargunarekin harremanetan jarri zen eta azkenean eskuizkribua aztertze baimena lortu zuen; baina kronologia aztertze soilik. Horrela, 1916ko abuztua eta irailaren artean, Hamburgin egin zuen lau asteetako egonaldian,

²⁸"Meine Kantstudien habe ich für die nächste Zeit liegen gelassen, nicht zum wenigsten dazu durch die volle Gleichgiltigkeit bestimmt, mit der es aufgenommen worden ist", dio 1886-XI-7ko eskutitzean Vaihinger-i (Stark 1993, 70). Ondoren, 1903an antzeko iritziak azaltzen ditu Vaihinger-i bidalitako eskutitzetan. Eta garrantzitsuago dena, eskuizkribuetan oinarritutako ikerketen balioa gero eta gehiago gutxien du (Erdmann 1917, 4). 1911 eta 1921 artean Akademiaren Kant Komisioko lehendakaria izan zenez, jarrera horrek eskuizkribuaren argitalpenean eragina izan zuen.

²⁹Aukera honen zuzentasuna zikindu nahiean edo, honela dio Lehmannek Adickesi buruz: "Damals [1796] noch einfacher Realschullehrer in Bremen", Lehmann 1969, 7 (antzerka AA XXIV 967). Hasteko ez zen Brementen aritu, Kielen baizik. Gainera, Adickesen lanaz dioena egia bada ere, 1895/96ko urterdian Kieleko unibertsitatean Kanten KrVri buruzko klaseak eman zituela ere egia da. Horretaz gain, 1887an eta 1895ean Kanti buruzko liburuak argitaratu zituen iadanik.

³⁰"Die Arbeit welche Herr Adickes leisten soll, nämlich die Edition und Anordnung der handschriftlichen Aufzeichnungen Kants, bildet den *wichtigsten* Teil der Kantausgabe", Lehmann 1969, 34.

³¹Stark 1993, 54-55.

³²"Das grosse unvollendete Manuscript, an dem Kant in den letzten Jahren seines Lebens arbeitete, und von dem R. Reicke in der Altpreuussischen Monatschrift (Bd. XIX-XXI, 1882-1884) den grösseren Theil veröffentlichte, war der Ausgabe nicht zugänglich und scheint deshalb nicht in ihrem Rahmen", AA XIV, xxv. Vorländer-ek 1924ean bere Kant-liburu nagusia argitaratzean, antzeko iritzia du, benetan egoera aldatzeko lehen urratsak emanda bazeuden ere: "Auf jeden Fall aber ist im Interesse der Wissenschaft aufs tiefste zu bedauern, daß anscheinend auch für die Zukunft keine Aussicht besteht, den gesamten Text des Nachlaßwerkes in authentischer Form der großen Akademie-Ausgabe von Kants 'Gesammelten Schriften' einverleibt zu sehen", Vorländer 1977 II 287oh.

Kant berak idatzitako zeinuak, datu biografikoak eta tinta ezberdinak kontuan hartuz, testuak kronologikoki ordenatu zituen, eta gaur egun ere aldaketatxo batzuekin baliagarritzat onartzen den eran gainera³³. Emaitzek indarberrituta, testua Akademiaren argitalpenean jasotzea eskatu zuen. Hala ere, Dilthey 1911n hil zen, garaiko Kant-Komisioaren lehendakaria Benno Erdmann zen eta Adickes-ekin oso harreman txarra zuen. Honek sarritan lana uzteko asmoa azaldu zuen, azkar lan egiteko presioaz eta bere iritzia kontuan ez hartzeaz nazkatuta. Baina, gainera, Erdmann ez zegoen eskuizkribu hau argitaratzearen alde³⁴. Adickesek, ordea, berean jarraitu zuen, hasieran arrakastarik gabe, baina itxaropentsu³⁵.

Adickesen asmoa "Kant-Studien"-entzako 30 orrialdeko gehigarri batean bere emaitzak jasotzea zen, baina benetan 1920an 855 orriko liburukotea azaldu zen, Kants Opus postumum dargestellt und beurtheilt. Hemen argi uzten zuen Kant-en lehen aurrelanak 1796koak zirela beranduenez eta honek berriro interesa erakarri zuen³⁶. Hala ere, Adickesen lan handi hau interes historikoak soilik bultzatu zuen³⁷, edukia ondo ezagutu arren hau ikuspegi enpirizista hutsetik juzgatu eta baliogabetzat baitzuen. Gainera, edukiaren azterketan ez zaio jarraiki berak zuzenki zehaztutako ordena kronologikoari, horrela Kant-en pentsamenduaren bilakaera erabat ulertezina bihurtzen delarik.

Dena bere bidetik joan izan balitz Adickes berak egin ahal izango zukeen eskuizkribuaren Akademiaren argitalpena. Aurreko eskuizkribuak berak argitaratu zituen eta azken honetan aditu onena zen zalantzarik gabe. Baina berriro arazoak sortu ziren. Erdmann 1921eko urtarrilaren 7an hil zen. Maier jarraitzaileak argitalpenari buruz jarrera irekiagoa bazuen ere, berehala gauzak erraztu beharrean 1923an azkenik dena nahastuko zuen zerbait gertatu zen. Akademiaren argitaletxea, de Gruyter, Krause familiarekin harremanean jarri zen argitalpen eskubideak erosteko asmoarekin. Familiak 1000 dolar nahi zituen. Argitaletxeak hau Kant-Komisioari jakinarazi zion, baina honek ezin zuen ordaindu, bere finantzak Alemaniako egoera ekonomiko txarraren menpe baitzeuden. Azkenean, argitaletxe berak erosi zituen eskubideak urrezko 1000 markuren truke. Honek eskuizkribuaren argitalpena neurri batean Kant-Komisioaren kontroletik ihestea eragin zuen.

³³"Diese Ergebnisse sind bis heute mit nur geringfügigen Korrekturen von der Forschung anerkannt", Stark 1993, 102oh.

³⁴"In dem vollständigen Abdruck aber eines Werks, das nach den Bedingungen seines Ursprungs und seinem inhaltlichen Bestande mit allen Zeichen gedanklicher Senilität behaftet ist, kann ich nur den Ausdruck einer irre geführten Pietät erblicken", (1916.12.20) Stark 1993, 101. Gainera Erdmannek iadanik 1876an zuen jarrera hau: "Weder die Memorienzettel Kants, noch sein letztes Werk, das den Titel 'Uebergang der Metaphysik zur Physik' führen sollte, verdienen einen Abdruck", Stark 1993, 101oh.

³⁵Horrela, Diels-ek 1919ko maiatzaren 13an bidaltzen dion eskutitzean: "Die Meinung unserer Akademiker geht überhaupt dahin, daß die meisten Opera postuma der Gelehrten besser ungedruckt geblieben wären, da sie meist nur für den engsten Kreis der Spezialforscher ein psychologisches (oder pathologisches) Interesse darbieten", Stark 1993, 102. Baina Kant-komisioa eskuizkribuari buruz prestatzen ari den liburuaren zain geratzen dela gaineratzen du jarraian.

³⁶"Angesichts dieses Tatbestandes kann kein Kant-Forscher mehr an dem Opus postumum vorübergehn, man kann es nicht länger nach Art Kuno Fischers mit vornehmer Handbewegung als gänzlich senil summarisch ablehnen", Adickes 1920 iv.

³⁷"Was mich bewegt, seine [Krause] Forderung wieder aufzunehmen, ist ein *rein historisches* Interesse, zugleich aber ein Gefühl der *Verpflichtung* gegenüber Kant", Adickes 1920, 34.

Argitaletxeak Buchenau jarri zuen lanean, Lehmann laguntzailearekin. Adickesek Maier-en 1923ko azaroaren 9ko eskutitzaren bitartez jakin zuen hau. Hasiera batean, Adickesek lanen berrikuспенarekin jarraitzen zuen Akademiarentzat ("Oberleitung"-i buruz hitz egiten du Maier-ek. Menzer-ek Adickes zuen argitaratzailetzat 1924ean³⁸, Akademia eta argitaletxearen arteko hitzarmenean horrelako ezer zehazten ez bazen ere). Hala ere, bera Tübingenen zen irakasle eta lana Berlinen egin behar zen argitaletxeak 12.000 urrezko marku ordaindu zituelako aseguruagatik³⁹. Gainera, Adickesek ez zuen argitaletxearekin harreman zuzenik, Akademiaren bitartez baizik, eta egoera horretan gutxi egin zezakeen⁴⁰. Berehala sortu ziren argitalpenaren irizpideez eztabaidak: Lehmann eta Buchenauk ez zuten jarraitu nahi Adickesek ordura arteko lanetan arrakastatsuki hartutako bide zorrotza⁴¹. Buchenauren asmoa Adickes bidetik kentzea besterik ez zen eta horrela 1926-VI-15eko eskutitzean Kant ulertu ez duen filologoa izatea eta lana diruagatik soilik egitea aurpegiratu zion⁴². Hiru egun beranduago erantzun zion Adickesek: bere lana oinazetsua izatera iritsi zela aipatuz, dimisioarekin bukatzen zuen eskutitza. Hurrengo egunean erabakia Kant-Komisioari jakinarazi zion. Horrela, Arthur Buchenau eta Gerhard Lehmannek hartu zuten erantzukizun osoa. Hortik aurrera, minbiziak jota egon arren, Adickesek 1927ko erdialdera arte lanean jarraitu zuen Akademiaren argitalpeneko III. zatiaeren osaketan⁴³. Bere heriotzak 1928ko uztailaren 8an Kanten eskuizkribuen argitalpen akademikoan erabateko eragin ezkorra izan zuen⁴⁴.

³⁸Stark 1993, 107.

³⁹Egoera nahasi honek Copleston erabat nahastu du: alde batetik, Adickesen 1920ko idatzia *Opus postumumaren* edizio kritikotzat du (Copleston 1984, 182), eta bestetik, liburu hori Akademiaren edizioarekin nahasten du (idem, 354).

⁴⁰"Der einzig Sachkompetente, Adickes, konnte an diesem Spiel kaum mitwirken", Stark 1993, 105. Alde batetik, Buchenauk Adickesi eskutitzez zera aitortzen dio 1925ean: "Dr. Lehmann war zwar anfangs in den philologischen Dingen (als Naturwissenschaftler) noch zu sehr Neuling, aber ich habe ihn mir nun herangezogen und ihn in die Methode eingeführt, die ich als Philologe von Koschwitz und später von Natorp gelernt habe", Stark 1993, 113. Bestetik, Stark berak orri bereko lehen oharrean Buchenau berari buruz: "Mit der Edition der Manuskripten ist Buchenau meines Wissens weder in Marburg noch sonst konfrontiert worden. Seine Arbeit im Op. p. war für ihn offenbar die erste in dieser Art". Buchenau eta Lehmannen ezgaitasun teknikoari buruz, ikusi Stark 1993, 199-200.

⁴¹Beraien arteko eskutitzetan argitzen da, baina ofizialki beranduago (1932-VII-13). Kant Komisioaren aktetan jasotzen den Lehmannen txostenean zera irakur daiteke: "Das Manuskript ist bekanntlich aus der Ordnung gekommen, die Kant ihm erteilt hat, sodass sich aus den Verbindungszeichen oft ein anderer Zusammenhang ergibt als aus der vorliegenden Anordnung. Andererseits sollte und durfte der Weg von *Adickes*, sich allein auf die handschriftlichen Kriterien und die von Kant vorgenommenen Beziehungszeichen zu verlassen, nicht beschritten werden, weil diese Kriterien und Indizien nicht ausreichen, um vor subjektiver Willkür in der Anordnung zu bewahren. So dass also im ganzen das Prinzip der blossen Reproduktion der vorliegenden Anordnung beibehalten werden musste", Stark 1993, 160.

⁴²Starkek hau erabat faltsua dela argitzen du, Adickesek jasotako diru kopurua zehazki aztertuz (Stark 1993, 119-122).

⁴³"Mit Schreiben vom 7. 4. 1928 teilt Adickes dem Vorsitzenden der KK mit, daß seine schon längere Zeit andauernde Erkrankung nicht wie bisher angenommen 'rheumatische Arthritis, sondern Krebs an Wirbelsäule und Becken ist, der in ziemlich raschem Fortschreiten begriffen zu sein scheint. Ich werde also die Kantausgabe auf keinen Fall zu Ende führen können, bin aber bereit, ihr meine letzten Kräfte zu widmen, falls die Akademie mir eine Hilfskraft stellt", Stark 1993, 130. Azken hilabeteetan Friedrich Berger-i dena erakutsi zion eta Akademiak bere jarraitzaile ofizialtzat onartu zuen XIX. liburukia bukatu eta ahal bazen XX.a ere berak egin beharko zuelarik. Hala ere, ez zen inoiz kontraturik sinatu; Berger-ek 1929ko udaran AA XIX Akademiari bidali zion bukatuta. Gainera Adickesek Kanten beste argitalpenetarako hainbat aurrelan utzi zituen.

⁴⁴Hala ere, Lehmannek bere lana kritikatzin jarraitu zuen, oinarririk gabe, arazoan funtsera inoiz etorri gabe, eta okerragoa dena, hori ahalbidetuko luketen agiriaren izatea isildu edo eskutatuz. Hori dena Lehmann beraren lana, batez ere honen atzerapena justifikatzeko ahaleginean kokatu behar da. Honek beste aditu batzuekin ere gatazkak sortu ditu, adibidez Hinskerekin, Juzgamenaren Kritikaren lehen sarreraren edizio facsimil bati buruz. Zentzu berdina dute Bayerer edo Starcken kritikei emandako erantzun desegokiak.

Orduan, Lehmannek hartu zituen lanak bere gain. Gauzak aurrera nola joan ziren zehazteko une horretan nola zeuden jakin behar da. Buchenauk Adickesi 1925eko maiatzaren 25ean bidalitako eskutitz batetik zera dakigu: eskuizkribuaren lehen kopia bat Lehmannek 1924ean prest zuen, eta Buchenau berak zuzendutako bigarren kopia eskutitza idaztean ia prest zegoen⁴⁵. Lehmannek ez zuen inoiz kontraturik sinatu, baina hasieran argitaletxetik jaso zuen dirua. Hala ere, 1929tik prest zegoen 'AA XIX' ez zion eman Akademiari hau presionatzeko⁴⁶ eta horrela 1930etik aurrera honek beka bat eman zion. Akademia emaitzen gabeziaz haserretzen hasi zenean soilik eman zuen 'AA XIX' argitalpenerako 1934ean. Hala ere, Igarobidea osatzen zuten 'AA XXI' eta 'AA XXII' ez zituen ematen, prest bazeuden ere⁴⁷, eta Akademiak ez zion gehiago ordaindu; orduan ministeriotik jaso zuen laguntza 1936tik 1940ra arte⁴⁸. Honek Kant-Komisioak oraindik zuen kontrol eskasa galtzea eta edizioa agintari nazien menpe geratzea erakarri zuen.

Akademiaren edizioa azkenean bi liburukietan, 1936 eta 1938an agertu zen, guda mundiala gainean zela eta, ondorioz, bere eragin zuzena murrizta izan zen. Aurretik egin zuen moduan, Lehmannek atzerapenetatik lortutako dirua eta denbora bere argitalpenak egiteko erabili zituen⁴⁹. Horrela, 'AA XXII' eman eta hilabete batzuk geroago bere habilitazio tesia aurkeztu zuen. Gainera, Akademiaren argitalpeneko III. zatiko 'AA XX' 1941ean argitaratu zuen egoera erabat penagarrian⁵⁰. Ondoren, 'AA XXIII' prestatu beharrean 575 orriko liburukotea argitaratu zuen 1943an, Die Deutsche Philosophie der Gegenwart, eta horrela Akademiaren eskuizkribu argitalpeneko azken liburuak 1955 arte zai egon behar izan zuen.

Lehmannen lan kaskarra hobeto ulertzeko Kanten azken lan hau osatzen duten orrien deskribapena egin behar da. Hainbeste leku eta eskutatik pasa eta gero, orriak 13 papersortetan banatuak daude, bakoitza bere azalarekin, Kanten hauetan ere idatzi zuelarik. Sorten edukia orri tolestuak dira gehienbat, bakoitzak lau orrialde dituela normalki; batzuetan orriardiak dira, bi orrialde beraz, eta gainera orri solte txikiak daude, gehinbat

⁴⁵Stark 1993, 109. Baina era ulertezinean, ondoren, lehen kopiaren gainean egin zen lan guztia, jatorrizko testua aurrean eduki gabe!

⁴⁶Stark 1993, 153hh. Honela dio Buchenau berak Spranger-i 1936ko martxoaren 14ean: "So wie er die Sicherheit hat, Zahlungen zu bekommen, wird der Gummi bei ihm gedehnt", Stark 1993, 165.

⁴⁷"Das opus postumum lag schon im April 1933 der Druckerei fertig vor", Buchenau, 1934. I. 2 (Stark 1993, 161).

⁴⁸Alemaniko egoera politikoak zeregin handia izan zuen hau guztian. Lehmannek oso harreman onak lortu zituen autoritate naziekin eta lana luzatzen joan zen. Aktiboki parte hartu zuen nazien aldizkarietan, adibidez Spranger, Kant-Komisioko lehendakariaren jarrera politikoaren hoztasuna kritikatu haurtebeterako Japoiara joan zenean eta Frantziaren inbasioa hasi eta berehala juduek Frantziako kulturaren izandako eragin txarra kritikatu (bi testu hauek, Lehmann 1938 eta 1940, Lehmannek 1980an bere bibliografia osoa prestatzean "ahaztu" egin zituen). 1938ko bere Nietzscheren edizioaren sarreran autore honen interpretazio nazia egiten zuen. Horrela, habilitazioaren Baeumler ministroa eta Hartmanni eskerrak ematen dizkie, eta ondoren Unibertsitatean irakasle gisa hasi zen bigarrenaren laguntzaile moduan, horrela beti nahi izan zuena lortuz (hala ere, 1935eko maiatzaren 28an honela zioen oraindik Baeumler-ek: "Aus dem beiliegenden 'Lebenslauf' geht hervor, daß Herr Lehmann auf eine Laufbahn als Universitätslehrer rechnet. Nach Kenntnis seiner Person und seiner philosophischen Arbeiten halte ich diese Laufbahn unter den heutigen Umständen für ausgeschlossen", Stark 1993, 166). Harrigarria egiten da zera pentsatzea, bere ezgaitasunaz gainera Husserlen aurkako eta orokorrean juduen aurkako idazki arrazistak sortu zituen pertsonai honek, unibertsitateko plaza galdu arren, guda ondoren Akademiaren lanekin jarraitu zuela.

⁴⁹1926-35 artean 8 liburu idatzi zituen; 1925-39 artean Hasse, Juzgamenaren Kritika, Descartes eta Nietzscheren edizioak prestatu zituen; 1924-38 artean 26 artikulua argitaratu zituen (Lehmann 1980 277; 278; 279-80). Honi zerrendan jartzea 'ahaztu' egin zitzaizkion bi testuak gehitu behar zaizkio.

⁵⁰Stark 1993, 179-81.

"Oktaventwurf" izenarekin ezagutzen den lehen garaikoak. Orrialde bakoitzean Kantek garbi idatzitako zati zentrala dago gehienetan ("Schönschrift"), nahiz apenas puntuaziorik gabe, ortografia eta sintasi irregularrez idatzia izan. Alboetan, gainera, oharrak pilatzen dira, batzuetan zirriborro soilak, hizki txikiagoz eta zuzenketez beteak. Azken garaiko sortetara iritsi arte ez dira nahasten bi zati hauek.

Lehmann eta Buchenauek hau dena hartu eta transkripzio zehatza egin zuten, irakurketa ezberdinak idatziz, albotako esaldi, hitz eta zeinu guztiak jasoz, 'facsimil' bat egiteko asmoarekin edo, eta kontzeptuen aurkibide zabal bat eginez gainera. Hala ere, Adickesen irizpide zorrotzak jarraitu beharrean eta, batez ere, honek Kant beraren zeinuk jarraituz berreraikitako ordena kronologikoa⁵¹ jarraitu beharrean, eskuizkribua jaso zuten bezala argitaratu zuten. Ondorioz, Kantek jarraikorki egindako eta markatutako gogoetak edizio honetan ehundaka orrialdez banatuta edo bi liburuki ezberdinetan sakabanatuta agertzen dira. Horrela, edizio lehen orriak irekitzen dituenak, hiru lerrotik gora luzatzen diren zentzuzko pentsamendu gutxi topatuko ditu, eta beste gauzen artean, "Coma Vigil", edo lo ezin eginarekikoak, bere 80. urtebetetzekoaren aipamena, "Zoroaster", goxokiei buruzkoak, urdailaren handituak sortutako mina, elikadurari buruzkoak, eta ardoa, emakumeak eta kantatzea maite ez dituenak argel bat dela dioen abesti antzeko bat⁵² topa ditzake, Filosofia transzendentala, Matematika, Jainkoa eta mundua, espazioa eta denbora moduko gai ezagunekin batera nahaspila izugarrian. Hau edozein atzera botatzekoa da. Hain zuzen Kantek 79 urterekin idatzi zituen azkenengo burutazioak dira, indarrak erabat ahituta zituela, eta azkenak izateagatik lehen papersortan kokatzen direnak.

Zorionez, Akademiaren argitalpenaren azken orria taula bat da, eta honetan Adickesek ezarritako kronologia zehatza daukagu. Taula hau gabe Lehmannen edizioak ez du ezertarako balio⁵³. Bestalde, XIII. papersorta, orri bakar batez osatua, Kantek 1798an argitaratutako Streit der Fakultäten libururako aurrelana da nabarmenki, argitaratzaileek ere onartzen duten arabera, baina hor ematen dute, Kanten beste lanetarako aurrelanak jasotzen dituen 'AA XXIII'-rako utzi beharrean. Berdina esan daiteke orrietan zehar tartekatuta dauden ia 30 pasarteekiko, gehienak etika edo antropologiako gaiak lantzen dituztenak edo eskutitz zirriborroak direnak⁵⁴. Akademiaren argitalpeneko XXIII. liburukian, Igarobideari dagozkion eta bitartean azaldu ziren 11 orri solte gehiago agertu ziren⁵⁵, baina Reickeren edizioa edo Adickesen 1920ko liburuan jasotako pasarte batzuk oraindik Akademiaren ediziotik kanpo dira.

Ondoren beste orri solte batzuk ere agertu dira. Horrela, Bayerer-ek 1967an eta 1981ean elkarrekin harremana duten bi orri solte ezagutarazi zituen. Gainera, lehenak 'a' eta 'b', bigarrenak 'e' eta 'f' Kant beraren

⁵¹Begiratu sarrera honen ondorengo "Sarrerari Eranskina 2".

⁵²"Wer nicht liebt Wein, Weiber und Gesang der bleibt ein Narr...", AA XXI 6, 21.

⁵³Marburgeko Unibertsitateko liburutegi nagusian gertatzen den moduan. Norbaitek taula hau kendu dio liburuari!

⁵⁴Begiratu sarrera honen bukaeran datorren "Sarrerari Eranskina 1".

⁵⁵Lehmann berak aipatu zuen Akademiaren argitalpenerako sarreraren eskuizkribuak orain dauzkan baino orri solte gehiago zituela hasiera batean, AA XXII 760.

zeinuak dituztenez tarteko orri solte ezezagun baten izatea aipa daiteke⁵⁶. Geroago, 1987an, H.-J. Waschkies-ek "Leningrad 2" izena duen orri soltea ezagutzera eman eta gainera zehazki identifikatu zuen Akademiaren argitalpeneko XXI 555, 4-18 pasartearen aurrezirriborrotzat⁵⁷. Azkenik, aurreko orri soltea aurkitu zuen pertsona berak, Werner Starkek, bigarren bat ere aurkitu zuen eta 1991ean "Leipzig 1" izenarekin argitaratu zuen⁵⁸.

Beraz, hauexek dira gaur egun erabil ditzakegun argitalpen⁵⁹ eta gainerako materialeak. Hala ere, orain arteko emaitzak ezin dira ontzat eman. Stark jauna Akademiaren argitalpenaren erabilgarrtasun bera zalantzan jartzera iritsi da⁶⁰, baina oraingoz ez daukagu beste aukerarik⁶¹. Edizio kritiko baten beharra oraindik betetzeko dago.

Honekin eskuizkribuaren eta bere argitalpenaren historia utzi eta bere sorreraren testuingurua zehazten saiatuko naiz, Kant bera eta zenbait garaikideen testigantzez baliatuz.

⁵⁶Bayerer 1967, 277-84 eta 1981, 127-31.

⁵⁷Waschkies 1987, 229-78.

⁵⁸Blasche 1991, 146-155. Geroago Waschkies 1993, 197-227 ere bai iruzkin luzeagoarekin.

⁵⁹Ondoren italierara, frantsesera, gaztelerara eta inglesera itzulpen partzialak egin dira. Zalantzarik gabe osoena Félix Duquerena da, kronologia jarraituz gain pasarteei argibide zehatzak gaineratzen dizkielako oro har.

⁶⁰"Es galt zu prüfen, ob die Bände Nr. XX-XXIII der Akademie-Ausgabe wissenschaftlichen Standards in so weit genügen, daß sie ohne Revision in der interpretativen Sekundärliteratur benutzt werden können. Das Ergebnis ist eindeutig: Nein!", Stark 1993, 330.

⁶¹Tuschling irakasleak Baum irakaslearekin batera edizio berri bat prestatzeko asmoa aipatu dit, eskuizkribua esku pribatuetan egoteak zailtzen badu ere.

B. Testigantza garaikideak

Lan berri bat idazteko asmoaren lehen berria 1795-VI-8an Kiesewetter-ek Kanti bidalitako eskutitzean aurkitzen dugu. Bertan urte batzuk lehenago Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoetatik Fisikarako Igarobidea lantzeko agindua gogoratzen dio Kanti⁶². Eta benetan garai honetan honek oraindik egitasmo asko zituela, Humboldt-ek Schiller-i bidalitako eskutitz baten bitartez dakigu⁶³. Baina 1798-VII-1ean Lichtenbergi idazten dion eskutitzera arte ez daukagu berri gehiago. Bertan, eskuartearen duen zerbaite aipatzen du, bukatu ahal izango duen zalantzan jarriz⁶⁴. Hala ere, azkenengo urteak pakean bukatu beharrean lan hori egiteko saioan ahituko ditu Kant agureak bere indar ahulak⁶⁵. 1798-IX-21ean Garveri bidalitako eskutitzean, hau da, hilabete gutxi batzuk beranduago, bere osasunaz kezka da, Igarobidearen lana Tantaloren oinazetat du, baina sistemako zulo bat gaintu eta sistemaren batasuna bermatzeko bete behar dela aipatzen du⁶⁶. Eta pentsamendu bera adierazten du 1798-X-19an Kiesewetter-i idatzitako eskutitzean: zeregin kritikoa bukatua dagoela espreski ukatuz, lan berria sistema kritikoko beharrezko ataltzat du⁶⁷. Hurrengo urteko bukaera aldera Lehmanek 99-XI-13an Kanten 99-X-2ko eskutitz galdua erantzutean, honek Igarobidea sistema kritikokoaren koroatzat zuela irakur daiteke⁶⁸. 1800-

⁶²"Ihre Handbücher der Metaphysik und Moral werden wir freilich wohl noch eine Zeitlang erwarten müssen, aber Sie haben schon seit einigen Jahren einige Bogen dem Publika schenken wollen, die den Übergang von Ihren metaph. Anfangsgründen der Naturwissenschaft zur Physik selbst enthalten sollten und auf die ich sehr begierig bin", AA XII 23. Eskutitzaren jarraipena oso interesgarria da eta aurrerago aztertuko dut zehazki.

⁶³"Jeder Leser dieser Kantischen Aufzeichnungen [Igarobidea] wird erkennen, wie recht ein Professor Mehmel aus Erlangen hatte, wenn er nach seiner Rückkehr aus Königsberg Wilhelm von Humboldt erzählte, der 71jährige Denker habe 'noch eine ungeheuer große Menge unbearbeiteter Ideen im Kopfe, die er noch ... alle in einer gewissen Reihe bearbeiten wolle'" (Humboldt-ek Schiller-i, 1795-X-1), Vorländer 1977 II 294.

⁶⁴"...indessen, was ich nun unter der Feder habe, ob es völlig zu Stande kommen werde mich Zweifel läßt", AA XII 247.

⁶⁵"Er[Kant] will den kleinen Überrest seines Lebens dazu verwenden, seine Papiere in Ordnung zu bringen und seinen literarischen Nachlaß dem Verleger übergeben", Johann Julius Goeschenek 1797ko otsailean bere seme Johann Friedrich Ludwigi bidalitako eskutitza, Vorländer 1924, II 270. Gauzak bestela izan zirela garbi geratuko da.

⁶⁶"... nämlich für Geistesarbeiten, bey sonst ziemlichen körperlichen Wohlseyn, wie gelähmt zu seyn: den völligen Abschlus meiner Rechnung, in Sachen welche das Ganze der Philosophie (so wohl Zweck als Mittel anlagend) betreffend, vor sich liegen und es noch immer nicht vollendet zu sehen; obwohl ich mir der Thunlichkeit dieser Aufgabe bewusst bin: ein Tantalischer Schmerz, der indessen doch nicht hoffnungslos ist. - Die Aufgabe, mit der ich mich jetzt beschäftige, betrifft den 'Übergang von den metaphys. Anf.Gr.d.N.W. zur Physik'. Sie will aufgelöset seyn; weil sonst im System der crit. Philos. eine Lücke seyn würde. Die Ansprüche der Vernunft daraus lassen nicht nach: das Bewustseyn des Vermögens dazu gleichfalls nicht; aber die Befriedigung derselben wird, wenn gleich nicht durch völlige Lähmung der Lebenskraft, doch durch immer sich einstellende Hemmungen derselben bis zur höchsten Ungeduld aufgeschoben", AA XII 257.

⁶⁷"Mein Gesundheitszustand ist der eines alten, nicht kranken, aber doch invaliden; vornehmlich für eigentliche und öffentliche Amtspflichten ausgedienten Mannes, der dennoch ein kleines Maas von Kräften in sich fühlt, um eine Arbeit, die er unter Händen hat, noch zu Stande zu bringen; womit er das critische Geschäfte zu beschließen und eine noch übrige Lücke auszufüllen denckt; nämlich 'den Übergang von den metaph. A. Gr. der N. W. zur Physik', als einen eigenen Theil der philosophia naturalis, der im System nicht mangeln darf, auszuarbeiten", AA XII 258.

⁶⁸"Was mich aber sehr traurig macht, ist die Beschwerde, welche Ew. Wohgeborn einfließen lassen, über eine spastische Kopf-Beedrückung Ihrer Nerven; theils des äußerst unangenehmen Zustandes wegen in Ihren Jahren; theils aber auch weil Sie dadurch sehr gehindert werden, den Plan Ihrer Philosophie zu vollenden und Ihrem System den Kranz aufzusetzen", AA XII 289.

VII-8an berriro Kiesewetter-i idazten dio Kantek, bere adinaz eta osasunaz kexu, baina bere egoera fisikoak azken lana bukatzea ez ziola oztopatuko adieraziz⁶⁹.

Gordetzen diren ondorengo testigantzak zeharkakoak dira. Horrela, Rinkek Villersi 1801-IV-18an Kant idazki berri horretan lanean ari zela zioen, baina lana mantso zihoala eta Kantek osatzeko aukera gutxi zituela ere bai; gainera, aurrelanak zeuden egoeran argitaraezinak zirela gaineratzen zuen⁷⁰. Hala ere, Rink berak 1802-3an Kanten Geografia fisiko argitaratzean, 34. paragrafoan topatzen dugun argiaren statusari buruzko oharrean Kantek bere azkenengo lan hori bukatzeko desioa azaltzen du⁷¹.

Geratzen diren testigantzak bera hil ondorengoak dira, bereziki bere biografo guztiek jasotzen dituztenak. Horrela, Borowski eta Jachmannek hitz bera erabiltzen dute, "giltzarria", lanari buruz hitz egitean, bukatu gabe geratu zela aipatuz⁷². Wasianski kritikagoa da lan saiakerari buruz eta bere balioa zalantzan jartzen du⁷³. Hassek, azkenengoz, orrien edukiaz eta Kanten asmoez berri gehiago ematen du, Kanten gaitasunaz jarrera baikorragoa erakutsiz eta lanaren argitalpenari buruzkoak ere gaineratuz. Ikuspegi kritikoa, ordea, ez du guztiz ahazten⁷⁴. Iritzi hauetan dago zalantzarik gabe eskuizkribuaren historia zailaren oinarria. Kant hil zenean inork

⁶⁹"Das Geschenk: der Widerlegung der Herderschen Metakritik nunmehr in 2 Bänden (welches Ihrem Kopf und Herzen gleiche Ehre macht) frisch in mir die angenehmen Tage auf, die wir einstens in Belebung dessen, was wahr und gut und beide unvergänglich ist, zusammen genossen; welches jetzt in meinem 77ten Jahre, wo Leibesschwächen (die gleichwohl noch nicht auf ein nahes Hinscheiden deuten) meine letzte Bearbeitung erschweren, aber, wie ich hoffe, nicht rückgängig machen sollen -keine gringe Stärkung ist- in dieser meiner Lage, sage ich, ist mir dieses Geschenk doppelt angenehm", AA XII 315.

⁷⁰"Gegenwärtig arbeitet unser Kant an einem Übergange von der Metaphysik zur Physik der Natur; aber es geht langsam, und ich glaube nicht, daß er die Beendigung dieser Arbeit erleben wird. Auf keinen Fall kann sie so, wie sie itzt ist, in das Publikum treten", Vaihinger 1880, 290. Hemen bi gauza aipatu nahiko nituzke. Alde batetik, Lehmannek AA XXII 753an eskutitzaren data gaizki ematen du; berak ematen duen data Vaihinger-ek jasotzen duen beste eskutitz bati dagokio. Bestetik, Vaihinger-ek hor jasotzen dituen eskutitzen artean Beck-ek Pörschkeri 1800-III-30ean idatzitako eskutitza ere badago. Bertan, Kantek bere jarrera zela-eta zuen haserrearen jatorria Schulzengan jarri ondoren, Igarobidearen inguruko informazioa eskatzen dio: "Ich hörte einmal von einer Arbeit Kants, welche die Metaphysik der Natur betreffen sollte. Ist etwas daran?", Vaihinger 1880, 299. Eskutitz hau Igarobidearen inguruko lanetan ez dut inoiz aipatua aurkitu eta nahiko garrantzitsua dela uste dut, Beck baita Kanteekin jarraikorki bere inguruko arazoan gain eztabaidatu zuen pertsona bakarra.

⁷¹"Gelänge es doch dem ehrwürdigen Urheber dieser phys. Geographie noch seinen Übergang von der Metaphysik der Natur zur Physik bekannt zu machen! Auch über diesen Gegenstand würde man dort, wie ich bestimmt weiß, manche scharfsinnige Bemerkungen vorfinden", AA IX 221.

⁷²"Er konnte auch das lange projektierte Werk 'Übergang der Physik zur Metaphysik', welches der Schlußstein seiner philosophischen Arbeiten sein sollte, nicht beenden", Malter 1993, 75; "Mit einer wahren Begeisterung pflegte der unsterbliche Mann oft mit mir über sein letztes Werk zu sprechen, welches nach seiner Äußerung der Schlußstein seines ganzen Lehrgebäudes sein und die Haltbarkeit und reelle Anwendbarkeit seiner Philosophie vollgültig dokumentieren sollte. Es sollte den Übergang der Metaphysik zur eigentlichen Physik darstellen und auch diesen Titel führen", idem, 112-113. Bigarrena gutxienez ez da nahasten izenburuan!

⁷³Honela lehenengo oharrean aipatzen genuen zatiaren aurretik eta ondoren: "Sein letztes Werk und einziges Manuskript, das vom Übergange von der Metaphysik der Natur zur Physik handeln sollte, hat er unvollendet hinterlassen. So frei ich von seinem Tode und allem dem, was er nach demselben von mir wünschte, sprechen konnte, so ungerne schien er sich darüber erklären zu wollen, wie es mit diesem Manuskript gehalten werden sollte. Bald glaubte er, da er das Geschriebene selbst nicht mehr beurteilen konnte, es wäre vollendet und bedürfe nur noch der letzten Feile, bald war wieder sein Wille, daß es nach seinem Tode verbrannt werden sollte. (...) Die Anstrengungen, die Kant auf die Ausarbeitung dieses Werkes verwandte, hat den Rest seiner Kräfte schneller verzehrt. Er gab es für sein wichtigstes Werk aus; wahrscheinlich aber hat seine Schwäche an diesem Urteil großen Anteil", Malter 1993, 260.

⁷⁴"Schon seit mehreren Jahren lag auf seinem Arbeitstische ein handschriftliches Werk von mehr als Hundert Folio-Bogen, dicht beschrieben, unter dem Titel: S y s t e m d e r r e i n e n P h i l o s o p h i e , i n i h r e m g a n z e n I n b e g r i f f e, an dem ich ihn oft, wenn ich zum Essen kam, noch schreibend antraf. Er ließ mich es mit Willen mehrere

ez zuen zehazki Kanten azken asmoei berri Königsberg-en eta inork ezin izan zuen eskuizkribua ulertu eta estimatu. Aurrelanen jatorriaren informazio zehatzena Kiesewetter-ek zuen eta 1807an Berlin utzi eta eskuizkribua bilatu zuen Königsbergen, baina inork ezin eman izan zion berri zehatzik.

Azkenik, testigantza berezi baten aipamena egin behar da, Kanten ingurukoa ez dena, baina bai filosofikoki garrantzitsuagoa, Schellingena hain zuzen. Kant hiltzean berari buruzko artikulua idazten duenean, Igarobidearen egitasmoa aipatzen du edukiaren nolabaiteko ezagutza orokorra adieraziz eta Kantek lan hau bukatu ahal izan balu, benetako interesa lukeela gaineratuz⁷⁵.

Orain arteko azterketatik lor daitezkeen behin behineko emaitzak hauek lirateke:

- Eskuizkribuaren lehen aurrelan zabala 1796an idatzi zen, lehen orri solteak iadanik aurreko urteetan idatzi ziren eta lanaren beharraren kontzientzia urte batzuk aurrerago bilatu behar da;

-Eskuizkribuaren zati handiena 1798 eta 1801 artean idatzi zen;

-Kantek testu gehienak ordenatu eta zeinuekin markatu zituen zehazki. Hasierako orrialde solteetan, tarteko orrialde batzuetan eta azken papersortako zati gutxitan soilik falta dira erreferentzia zehatzak;

-Lan berriak sistema kritikoaren osaketan leku berezia bete beharko luke Kanten eta bere inguruko lekuko askoren iritziz.

Beraz, azken puntua, hau da, eskuizkribuaren balio filosofikoa sakonki aztertze beharra nabarmena dela deritzot.

male an- und einsehen, und durchblättern. Da fand ich denn, daß es sich mit sehr wichtigen Gegenständen: Philosophie, Gott, Freyheit, und wie ich hörte, hauptsächlich mit dem Uebergange der Physik zur Metaphysik beschäftige". Eta puntu honetan ohar bat idazten du: "Dieses Werk pflegte Kant im vertraulichen Gespräche 'sein Hauptwerk, ein Chef d'oeuvre' zu nennen, und davon zu sagen, daß es ein (absolutes) sein System vollendendes Ganze, völlig bearbeitet, und nur noch zu redigiren sey, (welches letztere er immer noch selbst zu thun hoffte). Gleichwohl wird sich der etwanige Herausgeber desselben in Acht nehmen müssen, weil K. in den letzten Jahren oft das austrich, was besser was als das, was er überschrieb, und auch viele Allotria (z.B. die Gerichte die für denselben Tag bestimmt waren) dazwischen setzte. Damahls hieß es, daß es unserm Hrn. Prof. Gensichen (dem K. auch seine Bibliothek und 500 Rthlr. Geld vermacht hat) zur Herausgabe übergeben werden sollte", Buchenau/Lehmann 1925, 23-24. Ohar hau jarraian sarrerako lehenengo oharrean aipatutako zatiarekin bukatzen da.

⁷⁵"Seiner theoretischen Vernunftkritik als der formellen Seite fügte er später seine metaphysischen Anfangsgründe der Naturwissenschaft gewissermaßen als die reelle zu, aber ohne daß es nach dieser Absonderung zur wahren Einheit der Grundsätze beider Theile gediehen und seine Naturwissenschaft Naturphilosophie werden konnte, und ohne daß ihm auch hier gelang, das Allgemeine bis zur vollkommenen Harmonie mit dem Besonderen fortzuführen. Noch im Jahre 1801 arbeitete er in den wenigen Stunden freier Denkkraft an einem Werk: Uebergang von der Metaphysik zur Physik, welches, hätte das Alter ihm die Vollendung gegönnt, ohne Zweifel von dem höchsten Interesse hätte seyn müssen. Seine Ansichten über organische Natur waren ihm von der allgemeinen Naturwissenschaft getrennt, und sind in seiner Kritik der teleologischen Urtheilskraft, ohne Verbindung mit jener, niedergelegt", Schelling 1804, 591-2.

C. Eskuizkribuaren Deskribapen Orokorra

Igarobidearen argitalpenen egoerak izugarri zailtzen du hauen irakurketa eta ikerketa. Horregatik, Akademiaren argitalpenean oinarritutako deskribapen kronologiko zehatza ezinbesteko baldintza dela iruditzen zait beste edozein azterketa hasi aurretik. Lehen deskribapen honetan eskuizkribuan berritasunak agertzen diren uneak azpimarratuko ditut bereziki.

IV. papersortan 1786-1795 arteko zenbait orri solte biltzen dira (baita geroagokoak diren beste gutxi batzuk ere). Testu hauek Igarobideko zati ote diren gai eztabaidatua izan da. Adickesek ukatu egin zuen, bertako pentsamendu gehienek elkarrekin harreman zuzenik ez zutelako erakusten eta Fisikako erreflexioen antza izugarria zutelako. Hala ere, ni aurkako iritzikoa naiz. Testu zaharrenak⁷⁶ "Göttingische Anzeigen" aldizkarian agertutako Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-en kritika jasotzen du. Bi puntu nagusi aipatzen dira bertan: 1. Foronomiatik aurrera nola egin litekeen, hau da, higidura hutsetik indar higitzaileetarako igarobidea; 2. Erakarpina eta aldarapena, batez ere bigarren honen ahalgarritasun arazotsua⁷⁷. Ondorengo orri solteetan kohesioa, zurruntasuna, malgutasuna, pisagarritasuna eta sargarritasuna, jarraitasuna, Hidraulika, Kimika⁷⁸, elektrizitatea, magnetismoa, beroa, argia eta antzeko gai fisikoekin batera, higiduraren momentua matematikoki edo filosofikoki aztertzeko aukera edo atomismoaren kritika agertzen dira; eta azkenik, eterraren batasun kolektiboa espazioaren beteketaren oinarritzat hartzeko ideiarekin aurrekariak aurkitzen ditugu⁷⁹.

Gainera, nire iritziaren aldeko oinarri sendoagoak ere badaude. 36 orri solteko bigarren orrialdeko izenburua "Übergang von der Met: d. Nat. zur Physik" eta 22 orri soltekoa "Überschritt von der Metaphysik der körperlichen Natur zur Physik"⁸⁰ dira. Igarobidea aipatzen duen izenburua Kantek Kiesewetter-i aipatutako egitasmoari dagokio guztiz, edukia, ordea, aurreko orri solteetan aurkitu dugun berbera da. Beraz, arazo multzo hori jarraian datorren 6 orri soltean lehenengoz adierazten den egitasmo orokorraren prestaketa gisa ikusi behar da. Bertan, Kantek Natur Zientziaren hastapen metafisikoak eta Fisikaren arteko zuloa onartu eta Natur Zientzien zabalpenaren beharra aitortzen du Fisika sistematikoki osatu ahal izateko. Horretarako oinarria indar higitzaileen azterketaren bidez bilatu beharko litzateke. Hemen kategorien bidezko sistematizazio saiakerarik oraindik ez

⁷⁶25 orri soltea, AA XXI 415-6.

⁷⁷Gai hau behin eta berriz dator, kohesioa, dentsitatea, materien ezberdintasunak argitzeko asmotan. Ondoren ikusiko dugun moduan, Newtonen eskema estetik ihesten saiatuko da, hemen aurreratzen den gisa: "Die Frage ist ob ausser der Allgemeinen Anziehung dem Grade nach noch eine andere gebe die nach anderen Gesetzen ursprünglich wirke", AA XXI 430, 10-12.

⁷⁸Kimikari buruzko jarrera baikorrak, bere aurreko iritzia aldatuz: "Was ist Chemie Die Wissenschaft der inneren Kräfte der Materie", AA XXI 453, 19. Orain Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en baino fenomeno fisiko gehiagon duela interesa nabarmena da.

⁷⁹AA XXI 418, 21-23; 424, 3-6; 428, 26-28; 459, 17-8; 467, 14.

⁸⁰AA XXI 463, 9-10; 465, 2-4.

badaukagu ere, ideia beraren aurrerapena azaltzen da⁸¹. Kantek Matematikak eta organismoaren arazoak egitasmoan ea zer leku ote luketen ere eztabaidatzen du laburki.

Honekin Adickes-ek orri solteez duen iritzia baztertua geratzen delakoan nago. Baina, gainera, berak aipatzen duen Fisikari buruzko erreflexioekin harremana beste era batera ulertuko nuke. Bemerkungen⁸² eta ondoren batez ere 44, 45, 45a eta 46 erreflexioetan⁸³ agertzen diren edukiek zera frogatzen dute, Kant aspalditik interesatu zela Fisikako gai berri horietaz, ez zuela inoiz jakinmina galdu eta azkenean Fisikako gai hauek sisteman jasotzeko aukera edo beharra ikusi zuela, 1786an ezinezkoa izan zena. Gainera, era berean lehenago konpondu gabe geratu zen organismoaren arazoa ere berehala agertzen da eskuizkribuan eta hasierako jarrera ezkorra gainditu ondoren landualdi oso interesgarria jasoko du.

Eskuizkribuaren hasierako gogoetak Fisikari oso lotuak egongo badira ere, Kantek ez du inoiz ahazten arazo hauek Filosofia kritikoaren erdigunearekin duten lotura. Horrela, higiduraren arazoa espazioa⁸⁴ edo sentsazioarekin⁸⁵ lotzen duten gogoetak agertuko dira. Honekin, bada, hasierako orri solteek nolabait egitasmo osoa isladatzen eta aurreratzen dutela ikus daiteke. Orain egitekoa beraietan aurreikusten den arazo multzoak ondoren duen bilakaera batua aztertzea da.

"Oktaventwurf" deitzen den zatian topatzen dugu Igarobidearen lehenengo idazketa jarraia. IV. papersortan kokatzen da eta izen hori duen formagatik jaso du, Kantek 1etik 21era zenbatutako orri erdiak dira. Hemen hasieratik dugu izenburua: "Übergang von den metaph. Anf. Gr. der Naturwissenschaft zur Physik"⁸⁶. Gogoetak bi gai nagusien inguruan biltzen dira: alde batetik, kohesioa (eta ondorioz, dentsitatea, etab.), bestetik, higikortasuna (eta ondorioz, pisagarritasuna, jariakortasuna, etab.). Kantek materiaren ezaugarri sintetiko orokor batzuen bilaketa aipatzen badu ere⁸⁷, bere landualdiak ez du oraindik batasunik, ematen dituen adibideak biltzeko oinarria falta baitzaio. Egia da eterraren beharrezkotasuna zehazki finkatzen duela, ideia eta hipotesi gisa⁸⁸, espazioaren beteketa, gorputzen eraketa eta higiduraren argipenarekin lotuz, baina gai hau aurretik eman dituen adibideekin zehazki elkartzea lortu gabe.

Kontuan izan behar dira Kantek tartean aipatzen dituen gai solteak: materia organikoa, magnetismoa ulertzeko arazoak, eterra eta beroa, eta hauei lotuta, argia, eta azkenik grabitazioa ere bai.

⁸¹"Also die categorien (die physische) der Materie überhaupt der Größe der qualitaet der relation (der Substanz) u. der modalitaet", AA XXI 445, 26-27. Hau 27 orri soltean dator. Hurrengoetan kantitatea eta kualitatea lantzen ditu banaka eta 39/40 orrian, AA XXI 455, 17-25, berriro kategorien aplikapenaren inguruko gogoetak aurkitzen ditugu.

⁸²AA XX 80-3; 110-11; 121; 169-70, 171-2; 178.

⁸³AA XIV 287-430.

⁸⁴"Wahre Bewegung ist also diejenige die nur in dem Körper allein in Ansehung des Raumes bestimbar ist", AA XXI 445, 15-16.

⁸⁵"Äußere Empfindungen können nichts andres als Bewegungen aufgelöset werden", AA XXI 452, 1-2.

⁸⁶AA XXI 373, 2-3 eta hurrengo lerroan honela dio: "Von den Bewegkräften wodurch Materie überhaupt möglich ist".

⁸⁷"Allgemeine synthetische Eigenschaften d. Materie", AA XXI 376, 6.

⁸⁸AA XXI 378, 9-18; AA XXI 392, 16-20.

13. orrian lantzen du Kantek zuzenki izenburuan aipatutako Igarobidearen egitasmoa, baina materiaren ezaugarrien lista soila ematen du. Hala ere, hurrengo orrialdeetan edukia garatzen doa eta azkenean Igarobidearen kantitatea, kualitatea, erlazioa eta modalitateaz hitz egiten du. Oraindik orri batzuetan ohiko gogoeta fisiko sakabanatuekin jarraitu ondoren, 18. orrialdetik aurrera bapatean kantitatea, kualitatea eta erlazioaren araberako sailkapen bat zehazteko lehen saiakera aurkitzen dugu⁸⁹. Kategoriak hartzen ditu sailkapen gidatzat eta ordura arteko gogoetak gida honen arabera biltzen saiatzen da, baina indar gehiegirik gabe egiten du eta berehala aurreko gogoetekin eta Fisikako adibideekin jarraitzen du. 20. orrialdean berdin jarraitzen du, bapatean "hitzaurrea" hasten duen arte, Natur Zientzien zentzuaz galdetuz eta Igarobidearen programa orokorra zirriborratuz. Jarraian lau kategorien arabera antolatutako materiaren ezaugarrien sailkaketa laburra gaineratzen du. Azkenengo orrierdian kantitatea sakonkiago aztertzen saiatzen da, baina berehala gai orokorragoetara jotzen du: organismoa ez da Igarobideko gaia; Laplace-n puntu fisikoaren, eta beraz, atomismoaren ezintasuna, orri hauetan behin eta berriz errepikatuko den gaia⁹⁰. Ondoren, berriro "hitzaurre" bat idazten du eta bertan Kantek bere Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-en mugak azaltzen dituen autokritika nabarmena idazten du⁹¹. Jarraian eta zati hau bukatu bitartean lau kategorien arabera garatzen diren gogoeta berriak daude. Modalitatearen barnean askoz geroago indarrez nagusituko diren existentziari buruzko ideia berriak aurreratzen ditu⁹².

Ondoren hirugarren papersortako azken hiru orrietara igarotzen gara. Orri hauek Kant berak "A-B-C" gotikoz markatu zituen. Zati honek lau paragrafo zenbatu ditu eta materiaren indar higitzaileetarako sarrera batekin hasten da. Bertan bere egitasmoari buruz apalki idazten du, bere asmoen objektibitatea ez dauka guztiz argi, hauen balio heuristikoa da gehinbat azpimarratzen duena⁹³. Indar hil eta bizien bereizketa aipatzen du hemen ere Kantek; lehenengoetan geratzearen eznahikotasuna behin eta berriz errepikatzen duen gaia da. Gainera, Igarobidearen egitasmoa agertzen da berriro Metafisika eta Fisikaren erdigunetzat eta bitarteko kontzeptuak ("Mittelbegriffe") aipatzen ditu apriorizko kontzeptuak esperientzian aplikatu ahal izateko baldintza gisa. Arrazoimen Hutsaren Kritikan landutako filosofia kritikaren arazo nagusienekin lotura nabarmena da, beraz. Aurrerago, kategorien erabileraren lehen legeztapen teoriko argia egiten du⁹⁴.

⁸⁹AA XXI 394, 11-398, 19.

⁹⁰Orri erdi bertan pixka bat aurrerago: "Es sind nicht 2 einander abstoßende oder anziehende theilchen als materielle nachste Punkte sondern zwischen jeden ist immer ein anderer Punct u. die Materie ist ein continuum", AA XXI 411, 9-11; "Alle Materie ist ein Quantum d. i. keine Materie besteht aus einfachen Theilen (physischen Punkten)", AA XXI 412, 8-9.

⁹¹"Meine Metaphysische Anfangsgr. hatten schon einige Schritte in diesem Felde angeführt aber blos als Beyspiele einer möglichen Anwendung derselben auf Falle der Erfahrung um das abstrahirt gesagte durch Beyspiele verstandlich zu machen", AA XXI 408, 6-9.

⁹²"Das Princip der Erkenntnis a priori vom Daseyn der Dinge (actualitaet der Existenz) d. i. der Erfahrung überhaupt in der durchgängigen Bestimmung gemäß der Dyadik Leibnitzens omnibus ex nihilo ducendis sufficit unum, wodurch die Einheit aller Bestimmungen im Verhältnisse aller Dinge entspringt", AA XXI 411, 4-8.

⁹³"Der übergang enthält blos Begriffe von denkbaren bewegenden Kräften der Materie und Gesetzen derselben deren objective realität noch unausgemacht gelassen wird und ein System von Begriffen der Form nach gründet welchem man die Erfahrung anpassen kann", AA XXI 309, 17-20.

⁹⁴"Ich glaube in der Abfassung dieser Schrift die Vollständigkeit eines Systems nicht besser erreichen zu können als wenn ich auch hier dem Leitfaden der Categorien folge und die bewegende Kräfte der Materie nach dieser ihrer Quantität, Qualität,

Jarraian, VI. orriko 3. orrialdetik aurrera Kantek lehenengo aldiz egitura formal zehatz bat erabiltzen du: "Lehen atal nagusia"-k kantitatea lantzen du hiru paragrafo zenbatuetan (pisagarritasuna, indar hil/biziak, higiduraren momentua); "Bigarren atal nagusia"-k kualitatearen gaia ikutzen du beste bost paragrafo zenbatuetan (jariakortasuna, indar hil/biziak, jariakortasuna esplikatu ahal izateko berogaia hipotetikoki postulatu beharra, baina asmo horren arazoak ere aipatuz⁹⁵); "Hirugarren zati nagusia"-k erlazioa aztertzen du sei paragrafo zenbatuetan. Gai asko jasotzen ditu zati honek, erakarpen-aldarapena, zurruntasuna, kohesioa, marruskadura, eta abar. Hala ere, ez dago garbi kontzeptu bakoitza kategoria konkretu baten pean agertzea legeztatuko lukeen printzipioa, eta horrela materiaren ezaugarri batzuk kategoria ezberdinen menpe agertzen dira. Gai hauetaz ari dela, bapatean Kantek bere programaren definizio zehatz baina arazotsua tartekatzen du:

"Naturaren Objektuen apriorizko ezagutzatik Fisikara dihoan igarobideak Fisikaren legeen aniztasuna arrazoimenaren bitartez aurretik determinatu beharko lituzkeen printzipioak ditu bere baitan esperientzia bidean jartzearen"⁹⁶.

Jarraipena, Kant berak " α - ϵ " markatua, IX. papersortako lehen orrian, II. sortako 12 eta 13 orrietan eta V. sortako lehen eta laugarren orrietan sakabanatua dugu Akademiaren argitalpenean. "Atal nagusietan" egindako aurreko sailkaketa berdina topatzen dugu, paragrafoetan bereizita, baina oraingoan Kantek azterketa kantitatea eta kualitatean geratzen da. Zati guztian ezagunak diren osagaiak errepikatzen dira, pisagarritasuna eta jariakortasuna bereziki, azken gai hau bereziki luze landua gainera eta Hidrodinamikako adibideez betea.

Hala ere, aipamena merezi duten berritasunak ere badaude. Laplace-n aurka puntu fisikoen ezintasuna azpimarratzen du berriro: hau Fisika erabat matematikoki aztertzeko nahia litzateke, materia benetan dinamikoa denean. Fisika egitean Matematika hutsa nahikoa ez dela ondoren gai nagusia bihurtuko da. Gero eterrari buruzko lehen gogoeta sakonak datoz. Jariakortasuna eta erakarpen-aldarapena bikotea argitzeko erabiltzen du⁹⁷ eta jatorrizko materiatzat du⁹⁸. Hipotetikoki bada ere onartu behar da⁹⁹, materia ororen higikortasunaren oinarria delako¹⁰⁰. Eter horren ezaugarriak aztertzen ere saiatzen da. Bestalde, Igarobidea-ren egitasmoa definitzen du berriro eta Natur Zientzia metafisikoa, Fisika eta batetik besterako Igarobidearen arteko eremuak zehazki

Relation und Modalität nach einander ins Spiel setze wobey die Entgegensetzungen die man sich bey jeder derselben denkt nicht logisch (wie zwischen A und non A) sondern als real (wie zwischen A und -A) gedacht werden weil es im Raum wirksame Kräfte seyn sollen die (wie Anziehung und Abstoßung) durch entgegengesetzte Direction der Bewegung unter einander wirksam sind", AA XXI 311, 16-25.

⁹⁵"Wir haben zwar den Begriff von der Wärme als einer an sich elastischen Flüssigkeit aber wir haben keine Erfahrung davon weil alle Flüssigkeit die wir durch Erfahrung kennen nur durch die Wärme selbst elastisch ist", AA XXI 322, 6-8.

⁹⁶"Der Übergang von einem Erkenntnis der Objecte der Natur a priori zur Physik enthält die Principien nach welchen man das Mannigfaltige der Gesetze derselben voraus durch Vernunft bestimmen soll um Erfahrung anzustellen", AA XXI 330, 19-22.

⁹⁷"Eine beständig wechselnde Anziehung und Abstoßung als von den uranfänglichen Bildungen der Materie herrührend (undulatio, vibratio) wäre das dritte und die Materie dazu der Aether", AA XXII 211, 23-25.

⁹⁸"Primitive Materie", AA XXI 252, 23.

⁹⁹"Diese ursprünglich//elastische Materie ist nun der Aether ein hypothetisches Ding wohin gleichwohl die Vernunft um zu einem obersten Grunde der Phänomene der Körperwelt zu gelangen greifen muß", AA XXI 253, 8-10; "Schicklichste Hypothese zur Erklärung der Phänomene mit recht angenommen wird", AA XXI 255, 19-20.

¹⁰⁰"Grund der Beweglichkeit aller Theile einer Materie", AA XXI 257, 17.

bereizten eta honetan kategoriak erabiltzeko aukera legeztazen saiatzen da higiduraren apriorizko osagaietan oinarrituz¹⁰¹. Interesgarria da era berean Kantek mekanika, dinamika, bizitza eta etika jasotzen dituen sailkaketa aipatzea, Filosofiaren sistema orokorra ere ikusmiran zuela kontuan izan dezagun, eta horrela ondorengo bilakaerak ezusteko handiegirik sor ez dezan¹⁰².

Hurrengo zatia IV. sortako azal gisa erabilitako orrian daukagu, eta honekin 1798ko erdialdean gaude. Hemen ez dago ordena jakinik, gainera Streit der Fakultäten prestatzeko testu bat aurkitzen da bertan eta lehenengo aldiz gai nagusiarekin zuzenean zerikusirik ez duten ohar asko daude. Hala ere, oso gauza interesgarriak aurkitzen ditugu. Materia eta higiduraren loturaz diharduen arazo ezaguna agertzen da, baina orain oinarrizko higikortasun batekin harremanean gertatzen da hori: "**espazioan higigarria dena, berez mugitzen den neurrian, materia da**"¹⁰³. Horrela, lehenengo aldiz eskuizkribuan materiaren higidura espazioa eta denborarekin lotuko du, egitan ideia berria ez dena. Gainera, espazioa eta denboraren idealtasunaren froga eta afekzioaren gaia apriorizko esaldi sintetikoek lotuak agertzen dira¹⁰⁴. Lehenengo aldiz, beraz, higiduraren ulermen saiakerak Filosofia transzendentaleko kontzeptu nagusietara bidea irekitzen du.

Ondoren IV. sortako 3/4, 5 eta 7 orri solteak datoz eta oso interesgarriak dira. Hauetan programa osoaz diharduen gogoeta teorikoa nagusitzen da. Indar higikorrek esperientzian bakarrik topa daitezkeen arren, Fisikak sistema bat eratu behar badu, indar higitzaile horien topika bat aitzinatu behar da, alegia, naturaren ikerketa zuzentzeko kategorien araberako taula bat¹⁰⁵. Berogaia hipotesi soila baino zerbait gehiago izango ote den aurreratzen du orain Kantek¹⁰⁶. Newtonekin polemika ere hasten du, ondoren behin eta berriz errepikatu eta sakonduko duena. Lehen une honetan Newton-en liburu nagusiaren izenburua aitzakitzat hartuz hasten da kritika. Doktrinaren/munduaren sistema bereizketaren gaia ere ukitzen du. Eta azkenik, Filosofia transzentalaren bidean ere zerbait gehitzen du, hau da, nabarmenki esaten du indar higitzaileen kategoriaripeko sailkapenarekin batera higiduraren baldintza formalak aztertu behar direla, hura apriorizko printzipioen araberakoa den

¹⁰¹Honela dio eduki autokritiko sakona duen zatiak: "In der Metaphysischen Naturlehre war die Materie bloß als das Bewegliche im Raum wie es a priori bestimmbar ist in der Physik werden die bewegende Kräfte wie sie in der Erfahrung lehrt in dem Überschnitt von der Metaphysik zur Physik aber wird das Bewegliche mit seinen bewegenden Kräften als in einem System der Natur aufgestellt so wie aus diesen Elementen die Form eines solchen den Erfahrungsgesetzen gemäß im Allgemeinen geformt werden kann", AA XXI 526, 14-20; Kategorien erabilpenaren legeztapena: "Weil aber Bewegung als Veränderung der Ortsverhältnisse im Raum überhaupt auch Principien a priori unterworfen ist so werden die bewegende Kräfte der Materie auch nach der von der Metaphysik vorgezeichneten Classification ihrer Functionen der Ordnung der Kategorien gemäß am besten aufgestellt werden um sie dem Formalen der Zusammensetzung nach in ein Ganzes des Systems selbst empirischer Principien zu bringen", AA XXI 527, 19-25.

¹⁰²"Vis mortua, vis viua, vis vitalis, vis vivifica die todte, lebendige, Lebenskraft, belebende Kraft/ a. des Moments der Bewegung, b. des Stoßes, c. der Organisation, d. der spontaneität (der Willkühr). Animati", AA XXI 264, 1-4.

¹⁰³"Das Bewegliche im Raum, sofern es selbst für sich bewegend ist ist die Materie", AA XXI 337, 17-8.

¹⁰⁴AA XXI 337, 23-338, 3; 351, 3-9.

¹⁰⁵"Der Übergang ist eigentlich eine doctrine der Naturforschung", AA XXI 478, 25-6; "Ich muß vorher wissen wie ich in der Natur forschen soll um zur Physik zu gelangen", AA XXI 488, 5-6.

¹⁰⁶"Wärmestoff nicht ganz hypothetisch", AA XXI 480, 25.

neurrian¹⁰⁷. Beraz, geroago egingo duen Filosofia transzendentalera itzulia hasieratik dauka gogoan Kantek, eta une honetan kontzientziaren eta niaren gaia berriro aztertzea horren beste froga da¹⁰⁸.

Ondoren II. sortako 3. orria dator, Kantek markatu gabe utzi zuena. Hemen egitasmoaren izenburuarekin hasten da eta hiru sarrera saiakera daude. Lehenengo aldiz sarrera hauek lerro askotako gogoeta jarraikor eta txukun batean luzatzen dira eta nolabait programa finkatzen dute. Eduki aldetik berritasun gehiegirik ez dago. Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-en zuen jokaera argiki kritikatu du, bertan arrazoimenak diktatu zituelako materiaren ezaugarriak, esperientziak soilik emandako indar higitzaileetan bilatu beharrean¹⁰⁹. Kategoripeko sailkapenak binakakoa izan behar duela idazten du, a eta -a arabera, hemen dinamikarekin ari garelako, benetako indarrekin; baina ez du aurrera egiten, eta zereginaren zailtasun handia aipatzen du¹¹⁰. Zati honetan ere Filosofia transzendentalerako bidea erakusten duen testu laburra aurki daiteke¹¹¹. Aipatzekoa da, ohar batean Igarobidearen arazo estrukturala, hau da, arrazonaletik enpirikorako bidea, zuzenbideari aplikatzen diola, Metaphysik der Sitten-en hilabete batzuk lehenago alderantziz egin zuen antzera¹¹².

Hurrengo zatia, Kantek "a-c" gotiko txikian markatua, III. sortako lehen hiru orriek osatzen dute. Hemen alderantzizko bidea dugu, kategoripeko sailkapenekin hasiz eta hitzaurre eta sarrera saiakera batekin bukatuz. Paragrafo zenbatuekin hasten da Kant, lehen bietan kantitatea landuz eta hurrengo lauretan kualitatea. Adibide asko ematen ditu, baina berritasun aipagarri bakarria konposizioa ("Zusammensetzung") eta konposatuaren ("Zusammengesetzte") arteko bereizketa lehenengoz agertzea da. Gero, erlazioa era nahasian aztertzen du hiru paragrafo zenbatugabeetan, baina bukaera aldera eterraren ezaugarrietara itzultzen da berriro, eterraren alde negatiboa azpimarratuz¹¹³. Ondoren, hitzaurre saiakera dator a priori eta enpirikoaren arteko bitartekaritza gai nagusi bihurtzen da: bitarteko kontzeptuak a priori dira, baina bere gauzapenean esperientziari lotuak daude; indar higitzaileak esperientzian emanak lirateke, baina hauen espazioko harreman formalak aitzina litezke; lege enpirikoak apriorizko printzipioen arabera lotu behar dira.

¹⁰⁷"Es ist also zwischen den metaphys. Anfangs. Gr. d. N. W. u. der Physik noch eine Lücke auszufüllen deren Ausfüllung ein Übergang von der einen zur anderen genannt wird./ 1.) Die bewegende Kräfte der Materie nach der Quantität der Materie x. summa nach den categorien/ 2.) Die formale Bedingungen dieser Bewegung so fern sie auf Principien a priori beruht", AA XXI 482, 25-31.

¹⁰⁸"Daß das Bewusstseyn ein Gefühl sey ist falsch denn die Vorstellung meiner selbst ist bloß logisch um ein Object (an mir selbst) zu haben. Das Wort sum", AA XXI 484, 15-16.

¹⁰⁹"Diese sind für uns ursprüngliche Eigenschaften der Materie, nicht wie sie die Vernunft (wie in den metaph. Anf. Gr.) dictirte sondern wie sie sich auf die bewegende Kräfte welche uns die Erfahrung an die Hand giebt zurück führen lassen", AA XXI 177, 13-15.

¹¹⁰Orrialde batzuk lehenago egitasmo guztiaren aurkako lerro autokritikoak irakur daitezke: "Die bewegende Kräfte, d.i. die Ursache der Bewegung erklärt nichts sondern ist qualitas occulta Etwas was Bewegung wirkt und was wir nicht kennen", AA XXI 175, 26-31.

¹¹¹"Die Lehre von den Bewegenden Kräften der Materie nach subjectiven Principien a priori", AA XXI 180, 24-25.

¹¹²AA XXI 178, 13-30.

¹¹³"Der Wärmestoff ist keine Flüssigkeit macht aber doch alles flüßig. Ist nicht elastisch u. doch Ursache aller Elasticität. Durchdringt alles incoërcibel ist aber nicht für sich subsistirende sondern nur inhärirende Materie", AA XXI 282, 22-25.

Orain arte 4. kategoria, modalitatearena, ez badu inoiz benetan aztertu, orain bertan berogaia oro har ikertu behar dela dio bertan¹¹⁴. Gainera, gero errepikatuko den sailkapen berria agertzen da, norabidea, gradua, kanpoko eta barneko harremanaren arabera. Gero sarrera baten saiakera dator eta hemen egitasmoa zehazten du Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft kritikatu. Lan honetan materiaren kontzeptuari espazioan higikortasuna soilik zegokion, orain materia indar higitzaileak dituen neurrian aztertu behar da, horrela jartzen baikara alde a priori eta alde enpirikoa den eremuan. Era honetan Fisika sistema gisa garatzeko oinarria lortzen dugu. Zati honetan gainera Newtonekin eztabaida berreskuratzen du Kantek. Natura organikoa aztertzeko zailtasunak ere errepikatzen ditu. Filosofia transzendentalarekin harremana juzgamenaren eskematismoa aipatzean azaltzen da, Ohituren Metafisikan idatzitakoarekin bat eginez¹¹⁵.

Ondoren, Kant berak "n^o1-n^o3η" markatu zuen zatia dator, 98ko iraila eta urriaren artean idatzia, baina tamalez sei papersorta ezberdinetan sakabanatua dagoena, horrek Akademiaren argitalpenean sortzen duen nahasketarekin. Lehen zatia II. sortako bi lehen orriek osatzen dute eta gogoeta narrats baina aurrerakorrak ditu.

Newtoni eginiko kritika errepikatzen da: Matematikaren mugatasunari buruzko gogoetez gain, zera kritikatu dio zuzenki, higidura suposatuta ondoren azaldu izatea bere legeak, bere jatorria indar higitzaileen bidez argitu beharrean.

Kategorien ordena jarraitu behar dela aipatzen du, baina hori lortzeko ahaleginean arazo handiak sortzen zaizkio eta ez da ideia hori osatzeko gai. Kategoriez gain bitarteko kontzeptu edo predikagarrien beharra ere azpimarratzen du, eta eskematismoa hiru aldiz agertzen da: bidea garbi ikusten ez bada ere honek Filosofia transzendentalaren kontzeptu nagusien birlanketara eraman behar duela garbi dago. Gainera, kategoriak erabiltzen ez dituen indar higitzaileen bi sailkaketa saio daude zati honetan.

Gainera, konposatua ez da begiespen hutsarekin lortzen, aitzitik, kontzientziaren batasunarekin sortu behar da, eta hau eskematismoarekin lotzen du. azkenik, puntu oso garrantzitsua aurreratzen du zati honetan: Fisika sistema izateko oinarria hautemapenen aitzinapena ("prolepsis") da, eta hautemapenen sistemaz hitz egiten du honi aurrekoa lotuz, konposizioaren kontzientzia, hau berezkotasunak jartzen duelarik, ez harmenak.

Hurrengo zatia, "n^o3" (beraz "n^o2" falta da), IV. sortako bigarren orria da eta edukia aski nahasia da. Newtoni egindako kritika ezagunarekin hasten da, indar higitzaileen formaltasunean geratzea kritikatu dio, beraien alde dinamikoa ahaztuz, eta 'energia' hitza erabiltzen du dinamikotasun hau definitzeko. Gero, kantitatea aztertu hasten da, "A" gisa markatuta, baina gauza ezagunak soilik esaten ditu eta gogoeta moztu egiten da indar higitzaileen sailkaketa bat saiatzeko. Hala ere, hau lehenago egindakoen oso antzekoa da. Eterra pasadan soilik aipatzen du eta organismoaren gaia oraingoz egitasmo orokorretik baztertu du. Programa osoaren irudi

¹¹⁴"4te Cat. vom Wärmestoff überhaupt ob er subsistierend oder inhärend sey. Princip der Modalität", AA XXI 288, 28-29.

¹¹⁵"Nach den Kategorien, der Schematism der Urtheilskraft für die bewegende Kräfte der Materie", AA XXI 291, 15-16.

orokor bat begien aurrean badu ere, garbi dago oraindik ez dakiela nola eraiki. Fisikara igarotzeko bide hori kontzeptuak eraikiz egin behar dela aipatzea interesgarria da. Hau konposizioaren gaiarekin lotua dago eta funtzionalismo eraikitzailearen indartzea adierazten du. Geroago, naturaren araketarako a priori beharrezkoak diren "conceptus factitii"-ri buruz hitz egiten du, Fisikara enpirikoki iristeko behar den propedeutikaren osagai gisa.

Jarraian, "n° 3α", IX. sortako bost eta seigarren orriak dira, kualitatearekin hasten direnak "B" ikurrak markatuta. Zati honek ez du gauza berririk ekartzen, baina bai adibide pila eta airearen malgutasuna neurtuko lukeen tresnaren asmakuntza; eta ondoren "C" gisa datorren erlazioak ere ez du berritasunik, eterraren kontzeptuak sortzen dituen arazoak nabarmentzen dira bertan. Bukaeran, modalitateari buruzko ohartxoan, materia zentzuen bidez bitartegabe hauteman edo bere izatea arrazionalki frogatu egin behar den galdetzen du¹¹⁶, eta hemen eterraren dedukzioaren lehen aztarna ikusiko nuke nik. Ondoren, berriro kantitatea eta kualitatearekin hasten da, eta palanka eta antzeko makina sinpleei buruz hitz egiten du, aurrerantzean behin eta berriz azalduko den gaia. Hemen Igarobideari buruzko bi ideia orokor azaltzen dira, bata, Fisikan ez duela sartu behar, eta bestea, naturaren araketa erregulatu egin behar duela arkitektonika bat osatuz, hau da, printzipio erregulatzailuez osatzen dela. Honez gain, indar higitzaileen konposizioaren eskematismoaz hitz egiten du. Ikerketan aurrera ezin egitearen arrazoa garbi agertzen duen pasartea ere idazten du Kantek: ezin da indar higitzailerik a priori aurreuposatu sistema osatzeko, baizik sistemaren ideia eduki behar dut niregan a priori gida gisa¹¹⁷. Eta zati honen bukaeran bidea aurkitu duela dirudi, eterra hartu behar da indar higitzaileen oinarritzat¹¹⁸.

Hurrengo zatia, Kantek "n°3β" markatua, IX. sortako 2. orria da. Hemen kantitatea, kualitatea eta erlazioa ukitzen ditu berritasunik gabe. Hala ere, eterra oinarri gisa finkatzeko gogoetak egiten ditu. Pisakaitza dela soilik esan beharrean, hori nolatan izan daitekeen ulertzen saiatzen da. Horrela, eterra Deluc-en "fluidum deferens"-ekin parekatzen du.

Ondoren Kantek "n°3γ" gisa markatutako zatia dator, IV. sortako 3. orria da. Gogoeta solte batzuen ondoren egitasmo orokorra naturaren araketarako eskematismoaren printzipio subjektiboarekin lotzen du. Eterraren dedukzioaren alde arazotsua agertzen da: materia pisakaitz bat ezin daiteke frogatu¹¹⁹. Bestalde, kantitatea eta kualitateari buruz modu ezagunean idazten du eta sarrera saiakera batean programa betetzeko bi

¹¹⁶"Da die Materie entweder unmittelbar durch den Sinn wargenommen oder nur geschlossen werden kann sammt ihren Eigenschaften", AA XXII 257, 24-25. Hurrengo orrian gainera: "Die modalitaet besteht hier darin ob sie[Materie] ein Gegenstand der Erfahrung seyn kann", AA XXII 258, 22-3. Hala ere, honek ez du berehalako eraginik, bi orrialde geroago "hypothetisches Ding" buruz hitz egiten jarraitzen baitu, AA XXII 259, 15-16.

¹¹⁷"... folglich können wir keine bewegende Kräfte a priori voraussetzen von denen wir doch anfangen wollten um ein System derselben die Physik zu begründen sondern die Idee eines Systems muß vorher im Plane (oder für mich) a priori vorausliegen ausgebreitet", AA XXII 264, 17-20.

¹¹⁸"Einheit des activen Principis der Verbindung aller bewegenden Kräfte der Materie./ Die bewegende Kräfte der Materie gründen sich zuletzt auf dem allverbreiteten Warmstoff", AA XXII 267, 5-9.

¹¹⁹"Eine imponderabele Materie ist zwar denkbar aber würde uns keinen Beweisgrund von ihrem Daseyn geben", AA XXI 363, 16-17.

oinarri jartzen ditu: kategorien ordenari jarraitzea eta indar higitzaileen jatorrizko hautemapenak lege bihurtzea. Ondoren, indar higitzaileen sailkaketa bat egiten du. Hemen berritasuna bi eskemen arabera egitean datza, eraginaren agerpenen arabera, orain arte eginikoei dagokiona -nahiz laugarren momentuan denbora sartu-, eta kausa eragilearen arabera, eta hemen higidura motak sartzen ditu, hil/bizi, oszilazio, uhindura, eta abar.

Jarraian Kantek "n°3δ" markatutako testua dator, V. sortako 5. orria. Igarobideak bere mugak dituen bitartean, Fisikak beti naturako indar berriak eta bere legeak aurkitzen ditu. Lehenengo aldiz materiaren ezaugarriak eta indar higitzaileak batera agertzen dira. Lehena ondo egituratua: kantitatea, pisagarri/pisakaitz; kualitatea, lotugarri/lotezin; erlazioa, bildugarri/bildugaitz; modalitatea, agorgarri/agorgaitz; indar higitzaileak ez hain ondo. Baina eskema oso hau eman arren, Kantek berari buruzko jarrera nahiko eszeptikoa du. Eskema hau objektibitate zalantzarria duen naturaren araketarako aitzinapen arazotsua da¹²⁰. Ondoren, ordea, bapatean, "materiaren indar higitzaileen sistema elementala" izenburupean garbian idazten hasten da eta paragrafoak zenbatzen ditu¹²¹. Batan sailkaketa kategorien arabera egingo duela esatera murrizten da; baina kantitatearekin hasten da eta hiruan jarraitzen du, baina indarra galdu eta gogoeta solteak eginez amaitzen da zati hau. Hauetan Kästner aipatzen du, aurrerantzean berekin izango duen eztabaidaren hasiera da: pisatzeko tresna posible izateko erakarpena soilik ez da nahikoa, besoen zurruntasuna eta beste ezaugarri fisikoak behar dira.

Ondorengo testua, Kantek "n°3ε" markatua, III. sortako lau eta bosgarren orrietan azaltzen dena da. Bertan Kästner-ekin eztabaidan jarraitzen du. Honek palankaren legeak erabat matematikoki eman nahi ditu¹²², hori ezin dela konturatu gabe, dinamika behar baita. Gero 4. paragrafoan kualitatea jorritzen du eta eterraren dedukzioaren arazoa nabarmentzen da berriro¹²³. Ondoren, zenbatugabeko beste paragrafo batean jarraitzen du berritasunik gabe eta erlaziora pasatzen da, hiru paragrafo zenbatugabeetan lantzen duena. Modalitatea labur aipatzen du, baina garbi geratzen da eterraren statusaren eztabaida kategoria horren baitan emango dela¹²⁴. Azkenik, organismoen arazoa berriro Igarobidetik baztertzen duela aipatu behar da.

Datorren zatia, V. sortako 2. orri erdia, zeharkako erreferentziengatik kokatzen da hor, ez baitu Kanten markarik. Hemen programa bera definitzen saiatzen da batez ere, gaiari mila bira emanez eta alderdi ezberdin asko laburki ukituz. Alde batetik, indar higitzaileak materiaren indar propioak lirakeke, baina materiaren

¹²⁰"Alles problematische Anticipationen der Naturforschung nach den Kategorien", AA XXI 531, 8-12.

¹²¹"Der allgemeinen physiologischen Kräftenlehre. Erster Theil. Vom Elementarsystem der bewegenden Kräfte der Materie", AA XXI 533, 20-23.

¹²²Estatika osoa Matematikan oinarritzeko Kästner-ek zuen asmoa Gehler-en hiztegiko "Hebel" hitzean agertzen da. Kantek garbi dauka, ordea, pisua ez dela ez analitiko, ezta enpirikoa ere, baizik materiaren kantitatearen esperientziaren baldintza: "Also ist die Wägbarkeit (ponderabilitas) die erste Function der bewegenden Kräfte der Kategorie der Quantität nach und sowohl zur Metaph. der Natur als zur Physik gehörend und dadurch zum Übergange vom ersteren zum zweyten", AA XXI 307, 4-7.

¹²³Eterrarekin duen eztabaida eta nahasmena nabaritzen dira: "Sie[Wärmematerie] kann nicht für einen bloß hypothetischen Stoff angesehen werden und dennoch läßt sich diese Materie nicht abgesondert darstellen", AA XXI 297, 10-11.

¹²⁴"Der Modalität nach ist die Nothwendigkeit und ihre empirische Function die Permanenz der bewegenden Kräfte vermittelt des Wärmestoffs", AA XXI 303, 18-20.

kontzeptu beran jasota egon gabe. Hauek espazioaren ezaugarriekin duten harremana aipatzen du. Bestetik, indar guztiak erakarpen eta aldarapenera murrizten ditu. Zati honetan berriro berogaia izaki hipotetikotzat jotzen du. Sistema elementala eta munduaren sistemaren arteko bereizketa aipatzen du, eta organismoaren gaia egitasmoaren barnean onartzeko lehen aztarna topatzen dugu: indar organikoki higitzaileak Fisika erabat bereziaren objektuak dira¹²⁵. Azkenik, emankorra izango den puntua aipatzen du Kantek. Lehenago ere hautemapena aipatu izan arren, gehiegi landu gabe utzi zuen; orain, berriz, zentzuak zuzenki aipatzen ditu indar higitzaileei lotuta eta horrekin nabarmenki afekzioaren arazoa planteiatzen da berriro¹²⁶.

Ondoren VIII. sorta osoa dator, Kantek "Elem. Syst. 1-7" markatua eta 1798ko bukaerako eskutitzetako egoera etsitua isladatzen duena, nahiz eta testuaren amaieran argi pixka bat badagoela dirudien. Izenburu orokorretatik konketuagoetara doa Kant, kantitatea, kualitatea, erlazioa eta modalitatea lantzen ditu paragrafo zenbatuetan hasiera batean, baina gogoetak indarra galdu eta pentsamendu solteetan barreiatzen denean, paragrafoak zenbatugabeak eta edukia nahasia bihurtzen dira. Sarrera saiakerak bat bestean atzean pilatzen dira, lau denera. Gainera, ohar kritikoa idazten du Igarobidea landu beharrean Fisikan erortzeko arriskua azpimarratuz¹²⁷. Igarobidearen tarteko kokapena zaila gertatzen da, Metafisika eta Fisikaren arteko hutsuneak bertan etxean ez sentitzeko arriskua eragiten du¹²⁸. Igarobide bera era kontraesankorrean, edo gutxienez bitarteko egoera oso zailean agertzen da, a priori eta enpirikoa lotzeko ahaleginean nahastua¹²⁹, eta hori eterraren statusetan nabarmetzen da: pisakaitza izanik aldi berean kantitateari lotu behar zaio¹³⁰. Oraindik eter hipotetikoaz mintzatzen da, baina arrazoiketaz bere izatea frogatzeari buruz jarrera baikorra azaltzen du¹³¹.

¹²⁵Hemendik aurrera gai hau indartuko da eta Mathieu, Lehmann eta beste ikertzaileek Juzgamenaren Kritikarekin lotura ikusi dute hor. Hala ere, Gehler-en hiztegiko "Hebel" hitzean abereen giharrak palanka gisa, eta beraz, indar higitzaileekin analogian aztertzea jatorri zuzenago eta fidagarriagoa izan daiteke.

¹²⁶"Die Theorie von dem System der bewegenden Kräfte der Materie so fern sie auch unseren Sinn bewegen", AA XXI 508, 27-28.

¹²⁷"Critische Anmerkung" hasten den parrafoak honela jarraitzen du: "Es scheint gar sehr, daß in diesem Abschnitt über die Grenze der Begriffe a priori von den bewegenden Kräften der Materie welche für sich ein System ausmachen sollen weit weggeschritten und in die Physik als empirischer Wissenschaft (z. B. in die Chemie) abgeschweift worden", AA XXII 149, 1-6. Berriro, "Zwey Cautelen sind hier nöthig a. daß man nicht philosophische vorbegehend mathematische principien für die b e w e g e n d e Kräfte annehme die der Materie eigen sind. Zweytens daß man sich nicht in die Physik verlaufe und eine invasion mache", AA XXII 150, 3-6.

¹²⁸"Die Naturwissenschaft so fern sie ein System der bewegenden Kräfte der Materie enthält nenne ich den Ü b e r g a n g von einem Lehrsystem zum anderen welches befremden kann weil man da Gefahr läuft dadurch daß man von einem Territorium zum andern geht nirgend zu Hause zu seyn und gleichwohl ist dieser Wechsel doch die eigentlich der Naturwissenschaft angemessene Art einen bleibenden Aufenthalt im System zu haben", AA XXII 165, 13-19.

¹²⁹"Übergang ist die systematische Vorstellung aller bewegenden Kräfte der Materie die vor der Bewegung vorhergehen und a priori als Elementarbegrieffe für die Physik in der Erfahrung aufgefunden werden müssen", AA XXII 152, 19-22; "Die Idee des a priori erkennbaren Systems der empirisch gegebenen bewegenden Kräfte der Materie als Ausfüllung einer Lücke durch das regulative Princip der synthet. Erkenntnis", AA XXII 182, 22-24; "Wie ist es möglich synthetische Erkenntnis a priori von dem zu haben was sich nur auf Erfahrung gründen kann?", AA XXII 187, 19-20.

¹³⁰"Eine a b s o l u t //imponderabele Materie läßt sich also nicht denken; denn das wäre eine Materie ohne Quantität aber sie kann es doch b e d i n g t e r w e i s e seyn wenn sie nämlich nur als Theil einer im ganzen Weltraum verbreiteten Materie (des Wärmestoffs) da es dann von ihr heißt: daß die Körper in ihrem eigenen Element nicht wiegen", AA XXII 139, 8-12.

¹³¹"Ein hypothetischer Stoff ist der den man nicht den Sinnen darstellen aber doch auf seine Existenz aus den Phänomenen schließen kann", AA XXII 154, 15-16; "Ein vielleicht nur hypothetischer Stoff der aber zur Erklärung der Erscheinungen höchst annehmungswürdig ist", AA XXII 160, 28-161, 2.

Honek Filosofia transzendentalaren birlanketa bat ekarri beharko du, halako aukera bat Jainkoaren kasuan baztertua geratu baitzen. Bestalde, arazo orokorra higikortasunaren argiketa dela gero eta garbiago dago¹³². Alde objetiboa hartuz, "primum movens" bati buruz hitz egiten du, jatorriz higitzailea den oinarritzko osagaia¹³³. Horrek, ordea, berehala higiduraren alde subjektiboa aztertzea darama¹³⁴. Konposizioaren arazoa agertzen da, esaldi a priori sintetikoen ahalbidea, eta espazioa eta denboraren azterketa jarriko du indar higitzaileen oinarrian¹³⁵, espazio hutsaren ezintasuna berriro azpimarratuz. Horrela, azkenean, eterrak ezaugarri negatiboak soilik baditu ere¹³⁶, bere existentzia a priori postulatu behar dela baieztatzen du Kantek, indar higitzaileen higiduraren oinarria esplikatuz ahal izateko¹³⁷.

Jarraian VI. sorta osoa dator, lau orri guztira, Kant berak "Farrago 1-4" markatua eta 1798 eta 1799 arteko bueltan idatzia izan zena. Sorta hau besteak baino laburragoa da, izenburu gutxiago agertzen dira bertan eta forma sistematiko bat lortzeko asmoa ahulagoa da. Hasiera bera berezia da, 'farrago' hitz horren esplikazioa ematen baitu Kantek. Hau kontzeptuen bilduma hutsa litzateke, sistemaren batasunera iritsi gabe. Beraz, bere lana "Farrago ante redactionem systematis" deitzean, oraindik lanaren aurreko mailan dagoela onartzen du, eta ez hori soilik, autokritika zorrotzeko uneak ere badaude. Orain, Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-eko zuloak ezezik, oro har sistemakoak direnak bete behar dituela onartzen du¹³⁸. Hasieran ugariak ziren Fisika soileko gaiak desagertu egin dira. Kästner eta Newtonekin polemika jarraitzen du, eta azken honen lan nagusiaren izenburuak adierazten duena nabarmenki ezinezkotzat jotzen du. Gainera, Filosofia

¹³²"Subjectives Bewegungsvermögen und objective Bewegbarkeit sind principien a priori welche tendenz auf Physik haben aber noch nicht zu ihrem System gehören", AA XXII 140, 24-26. Sortaren bukaera aldera berriro: "Die Aufgabe ist: Was ists was die bewegende Kräfte der Materie zuerst und zwar dieser ihr Ganzes in Bewegung setzt?", AA XXII 200, 8-9. Hau lanean zehar sakonki aztertuko dugu.

¹³³"Es ist eine uranfängliche (primitive) i n n e r e Bewegung der Weltmaterie als Einheit der Ursache der Gemeinschaft zum Grunde zu legen denn sonst würden die Bewegungen bey der Einheit des Raumes und den Verhältnissen der Materie in Ansehung ihrer bewegendes Kräfte nicht unter Gesetzen stehen", AA XXII 195, 20-24.

¹³⁴"Was ein Gegenstand äußerer Wahrnehmung ist, ein jeder Körper der auf unsere Sinne wirkt giebt uns irgend eine bewegende Kraft der Materie -diese also empirisch- zu erkennen, indessen daß die metaphysische Anf. Gr. nur das was a priori von der Bewegung der Materie gedacht werden kann der Vernunft nur das Formale der Bewegungen darbieten", AA XXII 189, 6-10.

¹³⁵"Die bewegendes Kräfte der Materie stehen unter den Formen von Raum und Zeit", AA XXII 187, 8-9; "Die mathematische E i n h e i t d e s R a u m e s u n d d e r Z e i t welche a priori die formale Bedingungen der Möglichkeit der Erfahrung als eines Systems der Wahrnehmungen enthalten mithin nicht t h e i l w e i s e (sparsim) sondern als zu E i n e m G a n z e n gehörend (coniunctim) verbunden gedacht werden müssen begründen den Begriff eines Elementarsystems der bewegendes Kräfte der Materie", AA XXII 193, 17-194, 3; "Raum u. Zeit realisirt", AA XXII 200, 20. Baina zentzumena soilik ez da nahikoa: "Die Bestimmbarkeit des Raumes und der Zeit durch den Verstand a priori in Ansehung der bewegendes Kräfte der Materie ist die Tendenz der Metaph. A.Gr. der NW. zur Physik und der Übergang zu ihr ist die Erfüllung des Leeren durch die Formen welche alle mögliche Gegenstände der Erfahrung in ihrer Einheit betrachten", AA XXII 193, 8-12.

¹³⁶"Der Urstoff des Beweglichen im Raum der bewegende Kraft hat ist imponderabel, incoercibel, incohaesibel, und inexhaustibel nach den Kategorien der Quantitat (...) der Qualität (...) der Relation...", AA XXII 196, 6-14.

¹³⁷"Mann kann aber a priori die Existenz einer solchen alldurchdringenden, innerlich expansiven imponderabelen Materie postulieren aus der Idee einer sich im Anfange aller Bewegung zu einem nie aufhörenden Spiel der bewegendes Kräfte derselben vereinigenden Materie", AA XXII 197, 10-13.

¹³⁸"Daß diese Abhandlung dazu bestimmt ist das was in der reinen Naturlehre und überhaupt in dem System aus principien a priori noch Lücke ist auszufüllen und so meine metaphys: Arbeit vollständig zu verrichten", AA XXI 626, 8-11.

transzendentaleko gaietarako bidean aurrerapenak egiten ditu. Higidura a priori azter daitekeela onartu¹³⁹ eta ondoren horren oinarri kritikoak jartzeko bidea hartzen du argiki¹⁴⁰. Eta ohar batean, konposatua eta konposizioa aipatzen duen unean, 'Forma dat esse rei', ondoren errepikakorra bihurtuko den espresioa lehenengo aldiz azaltzen da. Hau guztiaz gain, zati honetan gorputzaren kontzeptua sakontasun pixka batekin aztertzen du, eta horrekin batera organismoarena ere bai, oraindik erantzun baikorrik ez badauka ere¹⁴¹.

Hurrengo zatia IX. sortako hirugarren eta laugarren orriek osatzen dute, 1799ko bi lehen hilabetetan idatziak eta Kantek "A Übergang" eta "B Übergang" markatuak. Izenburu luze batekin hasten da, Igarobidea sistema elementala eta munduaren sisteman banatuz, eta lana kategorien arabera egin behar dela aipatzen du ondoren. Horrela, kantitatea lantzen du hiru paragrafo zenbatuetan. Bertan idazkera ziurrarekin pisagarritasuna, palankaren adibidea, Kästner-i kritika eta eterraren beharra esplikatzeko ditu. Jarraian kualitatea lantzen du laugarren paragrafotik hasita, baina berehala pentsamenduak hasierako ziurtasuna galdu eta Kant gogoeta solteetan nahasten da, haria galduz. Ondorioz, 8. paragrafoaren ondoren zenbatugabeko paragrafo bat dator eta ez da erlazioa lantzerantz iristen. Horren ordean, 'Igarobidea' izenburuarekin egitasmoaren definiziora itzultzen da. Organismoaren gaia berriro ere topatu ondoren, berritasun garrantzitsu bat aurkitzen dugu: hain arazotsua den sistema elementala Arrazoimen Hutsaren Kritikako analitikako printzipioekin elkartzen du orain¹⁴². Bestalde, arazoa konpontzeko Filosofia transzendentaleko kontzeptuetara itzulia burutzen hasten da:

"Igarobideak bere baitan hautemapenaren (enpirikoa) baldintza subjektiboa apertzepzioarekin (a priori sintetikoa) lotua dauka Fisikaren kontzeptuan sistema gisa"¹⁴³.

Jarraian, 1799ko otsaila eta maiatzaren artean idatzitako zati batean sartzen gara, Kantek "A. Elem. Syst. 1-6" markatua eta hiru sorta ezberdinetan sakabanatua dagoena. Lehenengo atala bigarren sortako 4. eta 5. orriek osatzen dute. Izenburu orokorarekin hasi eta sistema elementalaren sailkaketa berri bat egiten saiatzen da. Gainera, sailkaketa hirukoitza izango da, berritasun hau oso garrantzitsua izango delarik. Materia eta Formaren arabeko sailkaketen edukiak ezagunak zaizkigu, aurreko bi ataletako sailkaketekin alderagarriak dira, baina hirugarren bat dator, sistemaren osotasunaren arabera. Honen barnean lehen aldiz organismoaren gaia erabat

¹³⁹"Weil diese Eintheilung das Formale der Bewegung zur Basis hat als welches auf Begriffen a priori gegründet werden kann", AA XXI 629, 10-11; "Die Bewegung aber formaler Principien a priori fähig ist", AA XXI 636, 12-13.

¹⁴⁰"Es ist aber wegen der Tendenz der metaphysischen AnfangsGr. zur Physik -welche an sich etwas Subjectives nämlich nicht selbst einen Inbegriff von Kräften sondern den Act des Gemüths vorstellt die Begriffe von den bewegenden Kräften der Materie in einem System zu verknüpfen- dem...", AA XXI 631, 4-8.

¹⁴¹"Für die Formen der ersteren [unorganische Körper] lassen sich noch a priori Gesetzen der Bewegung geben für die der zweyten [organische Körper] giebt sie allein die Erfahrung weil die hervorbringende Ursache über alle mögliche Erfahrung hinaus liegt", AA XXI 630, 8-11.

¹⁴²AA XXII 240, 11-14/ 29-30; 241, 11-12; 244, 9-13. Gainera, printzipioak ez dira erregulatuak soilik, eratzailak ere badirela aipatzen du (AA XXII 240, 27; 241, 19). Honekin analogien eta postulatuaren statusa axioma eta aitzinapenek dutenekin berdindu nahi duela dirudi.

¹⁴³"Der Übergang enthält die subjective Bedingungen der Apprehension (empirisch) verbunden mit der Apperception (Synthetisch a priori) im Begriffe der Physik als System", AA XXII 243, 27-244, 1 eta pixka bat aurrerago afekzioaren gaia ere sartzen du: "Sie sind Principien der M ö g l i c h k e i t der Erfahrung der die Sinne afficirenden bewegenden Kräfte (also subjective u. dadurch objective) in einem System aus empirischen datis", AA XXII 244, 6-9.

analisiaren barnean hartu eta sakonki aztertuko du. Hiru eratarata definitzen du organismoa: zati bakoitza besteeikiko dagoenean; zatiak elkarrekiko helburu eta bitarteko direnean; osoaren ideia zatien aurretik doanean hauen ahalgarritasunaren oinarri gisa. Materia berez inorganikoa izateak organismoaren kontzeptua zehazteko unean arazo handiak sortzen dizkio Kanti. Kritik der Urteilkraft-eko naturaren teknika aipatzen du, baina erantzunak ez doaz lehengo bidetik. Gauza interesgarriagoak datoz: organismoa esplikatzeke unean izaki immaterialetara jo beharra zalantzan jarri eta ukatzen du¹⁴⁴, eta bide egokia norberaren soinen ("Leib") kontsiderazioan oinarritzen du¹⁴⁵.

Zati honetako beste gai nagusia Newtonekin polemika da, orain arteko era luzeenean landua. Bere liburu hilezkorraren izenburua kritikatu arren, orain Filosofia eta Matematikaren arteko harremanak zehatzago aztertzen ditu. Matematikaz oso adierazpen baikorrak egin eta Natur Zientzian Filosofiarekin batera joan behar duela azpimarratu ondoren¹⁴⁶, berehala mugak jartzen dizkio hari: Matematika ez da Natur Zientzia, honen tresna baizik; Matematika erabiliz gain Filosofia behar da. Puntu fisikoaren aurkako polemika errepikakorra honen ondorioa da: natura ezin daiteke matematikoki agortu, dinamikoa baita¹⁴⁷. Kantek eterra indar higitzaileen argipenerako beharrezkotzat jotzen jarraitzen du, baina orain benetako aurrerapausua ematen du hura espazioa eta denborarekin estuki harremanean jartzean. Espazio eta denbora hutsak hautemagaitzak izanik, eterrak objektuak hautemagari bihurtzeko oinarria jarriko luke¹⁴⁸. Ondoren nagusia bihurtuko den gaia da hau.

Zati honek IX. sortako azken orrian jarraitzen du. Orria izenburu orokorrekin hasten da, lana kategorien arabera egin behar dela aipatzen du Kantek, baina kantitatea eta kualitatean geratzen da berritasunik gehitu gabe. Jarraitasunaren gaia ere azpimarratzen du bereziki. Hau naturaren dinamismoaren baldintza litzateke. Ondoren, berriro organismoaren gaia jorratzen du eta gainera lehen eterrarekin lotua zegoen "primus movens" baten ideiarekin elkartuz egiten du¹⁴⁹. Hala ere, organismoen ahalgarritasuna azken finean enpirian baieztatuzkoa

¹⁴⁴"Im letzteren Falle ist der Mechanismus der Naturkörper ein Organismus und die Materie ist organisirt gleich dem Kunstproduct eines verständigen Wesens obzwar (nach dem Grundsatz: principia praeter necessitatem non sunt multiplicanda) diese, sammt ihrer Form immer doch als Naturproduct der bewegenden Kräfte der Materie beurtheilt werden muß", AA XXI 187, 20-25; "Die Organisation gehört auch zu den bewegenden Kräften der Materie nicht daß etwa ein immaterielles Wesen ein reiner Verstand dazu erfordert werde", AA XXI 190, 7-9.

¹⁴⁵"Das Bewußtseyn unserer eigenen Organisation als einer bewegenden Kraft der Materie macht uns den Begriff des organischen Stoffs und die Tendenz zur Physik als organischen System möglich", AA XXI 190, 1-3.

¹⁴⁶"Indessen muß doch in der Naturwissenschaft Mathematik mit der Philosophie nothwendig verbunden werden weil wenn es um die Gesetze der bewegenden Kräfte der Materie zu thun ist Bewegung mithin Bestimmung der ersteren im Raum und der Zeit welche zur reinen Anschauung gehörende Formen sind ein Begriff ist welcher jene Kräfte unvermeidlich begleitet und in concreto ohne sie kein wissenschaftliches Erkenntnis sondern nur Wahrnehmungen fragmentarisch an einander gereiht empirische Erkenntnisse abgeben würden woraus nicht Wissenschaftliches hervorgeht", AA XXI 191, 13-21.

¹⁴⁷"Nach dem atomistischen Princip besteht jede Materie aus vesten Theilen. Nach dem Fluxionsprincip (da die physische Theilung bis zur Differentialgröße gehen kann) giebt es wahre flüssige Materie", AA XXI 201, 3-5.

¹⁴⁸"Die bewegende Kräfte der Materie enthalten das Materiale der Empfindung welches durch das Bewußtseyn des Zusammensetzens des Mannigfaltigen in dieser Anschauung den Erfahrungsbegriff derselben ausmacht und das Reale der Sinnenvorstellung darbietet wodurch der Gegenstand perceptibel (perennirend) wird", AA XXI 202, 20-24.

¹⁴⁹Hemen munduaren sistemari buruz zerbait zehatza ikasten dugu: "Diese lebendige Kraft welche blos mechanisch//bewegend ist muß nicht mit der Lebenskraft welche organisch und auf Zwecke hinwirkend ist verwechselt werden. Die letztere wirkt nach Ideen und ist nach einem immateriellen Princip bewegend folglich für das Elementarsystem

litzateke. Newtonekin polemikak eduki berriak jasotzen ditu Kantek grabitazioaren esplikazioaz zalantzak aipatzen dituenen¹⁵⁰.

Zati hau XII. sortako 7, 8 eta 9 orriekin osatzen da. Kualitatea, erlazioa eta modalitatearen inguruan Fisikako gaiak eta tresnak aztertuz hasten da. Berehala, Kantek eterraren ahalgarritasunaz galdetzen du etengabeki. Onartu egin behar da, baina subjektiboki soilik, existitzen da, baina 'respectiv', inolaz ere ez 'absolut', hau da, ez da Fisikako substantzia bat, indar higitzaileen argibidetzat postulatzeko den zerbait baizik¹⁵¹. Horrexegatik dira bere ezaugarri guztiak negatiboak. Zerbait baikorragoa lortu nahi duenean, Filosofia transzendentaleko kontzeptuetara hurbiltzen da, afekzioaren gaira batez ere¹⁵². Eta bide honetatik espazioaren statusa birpentsatzera dator:

"Dena barneratzen duen eterra, hau da, espazio hautemagarria"¹⁵³.

Ondoren atal guztiz erabakigarria dator, 1799ko erdialdean kokatzen dena, Kant berak "Übergang 1-14" markatua eta hiru sortetan sakabanatua agertzen dena. Lehen zatia II. sortako 6.etik 11. orrira luzatzen da, bigarrena V. sortako 6. orritik 14. orrira, gero V. sorta berdineko 3. orria eta, azkenik, markatu gabe badago ere garai honi dagokion laburpen antzeko XII. sortako 10. orria dator. Denera Akademiaren argitalpeneko 140 orrialde inguru direnez eta gainera Kant etengabe errepikatzen denez, bilakaera kronologiko zehatza utzi eta bere azpian dagoen sistematika jasotzen saiatuko naiz puntu honetan.

Newton eta organismoari buruzko gogoeta ezagunak errepikatu ondoren, bapatean lan guztiaren zentzua aldatzen da. Eterra ez da gai hipotetiko, arrazoimenak a priori beharrezkotasunez aurreuposatu dezakeen ekai erreala baizik. Bestela, esperientzia osoa ezinezkoa litzateke:

"Berogaiaren existentziaren froga Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoetatik Fisikarako Igarobideko printzipio goren gisa"¹⁵⁴.

der Naturwissenschaft transcendent und gehört zum Begriffe des Weltsystems dessen Vorstellung von der Idee des Ganzen zu den Theilen zurückgeht", AA XXII 602, 22-27.

¹⁵⁰"Gravitationsanziehung also Gegenwart im leeren Raum ins unendliche aber Imperceptibel, also im leeren Raum. Doch Bewegung durch eine Kraft in einem Orte worinn das Object nicht ist", AA XXII 276, 19-21.

¹⁵¹"Er ist bloß ein Gedankending: kein Gegenstand möglicher Erfahrung aber der Begriff von dem einzig//möglichen Mittel Erfahrung anzustellen in so fern diese selbst primitive Wirkung der bewegenden Kräfte der Materie auf unsere Sinne seyn kann", AA XXI 606, 23-25.

¹⁵²"Diese Materie wird man sich eben darum auch als imperceptibel denken weil die Organen der Wahrnehmungen selbst auf ihren Kräften beruhen", AA XXII 588, 5-7.

¹⁵³"Der alldurchdringende Aether gleichsam der perceptibele Raum", AA XXII 596, 19-20. Eta espazioa eta denbora birpentsatzeko beharra nabarmenki azalduz: "In den metaphys. A. Gr. der NW. sind Raum und Zeit bloß die formalen Bedingungen eines Systems der bewegenden Kräfte der Materie und des Ganzen der Erfahrung desselben. In der Physik würden sie die realen Bedingungen der Verknüpfung dieser Kräfte fragmentarisch (sparsim) und empirisch die Elemente derselben aufzusuchen", AA XXII 606, 3-7.

¹⁵⁴"Beweis der Existenz des Wärmestoffs als das oberste Princip des Überganges von den metaph. Anf. Gr. der NW. zur Physik", AA XXI 594, 11-13.

Eta gainera, orain Kantek bere izatearen froga eman nahi du¹⁵⁵. Azken helburua higadura esplikatzea da¹⁵⁶, eta horregatik horrek berehala Kant espazioa eta denbora aztertzea bultzatuko du. Alde batetik, espazioa eta denboraren batasunak eterraren batasuna oinarrituko du¹⁵⁷. Gainera, espazio hutsa ezin daiteke esperientziaren oinarri izan, ezin daiteke ezagutu eta, beraz, hau betetzen duen zerbaitek existitu behar du, hura erreala egiten duena eta esperientzia osoaren oinarri izango dena¹⁵⁸. Ondorioz, espazio sentigarri, hautemagari edo hipostaziatu batez hitz egiten du, eta hori eterrak ahalbidetzen du¹⁵⁹. Beraz, ez dago higaduraren hasiera bat pentsatzerik, baizik eterra frogatu behar da jatorriz barnetik higitzaile den oinarri gisa, atzeraka infinitura hedatzen den gogoeta ekiditzearen. Arrazoiketa amaigabearen bukaera ez dator printzipio material bat onartzetik, ez eta printzipio inmaterial batetik ere¹⁶⁰.

Froga bera identitatearen printzipioari jarraitzen zaion axiomatzat du Kantek. Behin frogaren analitikotasun edo sintetikotasunaz galdetzen du, baina gero analitikotasunari heltzen dio¹⁶¹. Hori sustatzeko "**a poße ad esse valet consequentia**" formula erabiltzen du harrigarriki, argudio berbera Jainkoaren kasuan ukatu egin baitzuen. Orain, eterra dena besarkatzen duena, denera zabaldua, dena barneratzen duena, dena mugitzen duena eta beti irauten duena da. Baina hau oso ideia berria eta arazotsua da, eta horregatik dio eterraren izatearen froga zeharkakoa edo oinarri negatiboduna dela¹⁶². Nahasketak eterraren izaerarekin du zerikusia batez ere: hautemanezina edo asmatutako izakiaz hitz egiten du Kantek, eta gero berriz benetako gauza edo substantziaz¹⁶³. Ondoren, beste argibide ulergarriagoa ere ematen du: eterra bere fenomenoetan, hau da, argia, beroa, elektrizitatean soilik da bitarteko moduan hautemagaria, eta inoiz ez zuzenki.

Hau guztia bitxia ('befremdlich') dela Kant berak aitortzen du behin eta berriz. Hala ere, frogaren apartekotasun eta bakartasuna objektu berari dagokiola esanaz erabakitzen du arazoa. Esperientzia bakarra da,

¹⁵⁵"Die Existenz dieses Stoffs nun und die Nothwendigkeit seiner Voraussetzung a priori beweise ich auf folgende Art", AA XXI 216, 10-11.

¹⁵⁶"Realer Stoff der allen Bewegungen der Materie zum Grunde liegt", AA XXI 223, 26.

¹⁵⁷"Es ist nur Ein Raum und nur Eine Zeit und nur Eine Materie in welcher alle Bewegung angetroffen wird", AA XXI 224, 3-4.

¹⁵⁸"Wie können uns also keine Bewegung denken als in einem mit Materie erfüllten Raum der ein Continuum derselben ausmacht", AA XXI 219, 5-6; "Durch den leeren Raum kann keine Wirkung der bewegenden Kräfte der Materie zu unseren Sinnen gelangen", AA XXI 220, 2-3.

¹⁵⁹"Wärmestoff (gleichsam der hypostasirte Raum selbst in dem sich alles bewegt)", AA XXI 224, 11-12; "Der Raum selbst als Gegenstand möglicher Erfahrung vorgestellt ist der Elementarstoff. Er macht den Raum sensibel heißt Wärmestoff", AA XXI 228, 24-25.

¹⁶⁰"Irgend eine Bewegung aber muß u r a n f ä n g l i c h seyn d. i. die Materie muß irgend bewegt zu werden schlechthin anheben wovon die Möglichkeit nach einem materialistischen Princip unbegreiflich von einer immateriellen Ursache aber (von Gott) abzuleiten in dem Übergange der Naturwissenschaft von den Metaph. Anf. Gr. der N. W. zur Physik unerlaubt ist weil dieser Übergang sich hiebey selbst widersprechen würde", AA XXI 560, 24-561,2. Baita ere, AA XXI 518-19.

¹⁶¹"Dieser Satz ist kein synthetischer (erweiternder) und von empirischen Principien abstammender sondern ein bloß analytischer (erläuternder) Satz d.i. auf dem Satz der Identität gegründet und a priori erkennbar", AA XXI 593, 1-3. Une batean analitikotasuna eta sintetikotasuna lotzen ditu: "Die subjective analytische Einheit also der Möglichen Erfahrung ist zugleich die objective synthetische der Gegenstände der Erfahrung", AA XXI 574, 3-5.

¹⁶²"Der Beweis hat einen negativen Grund", AA XXI 545, 21.

¹⁶³Kanten nahasketaren adibidea: "Nicht ein hypothetischer sondern in der Erfahrung gegebener (imperceptibeler) Grundstoff", AA XXI 537, 13-15.

plurala erabiltzen bada, hautemapenetaz ari gara, baina Esperientziak batasun kolektiboa osatzen du, ez distributiboa¹⁶⁴, eta horrekin bat egiten du eterrak, hori ahalgarri egiten duen oinarri modura.

Zati honetako atal bat (AA XXI 543-555) beste pertsona batek txukunki berridatzi zuenez, normalean bere argitalpenerako lehen urratsa zena, honekin Kantek sistema elementala bukatu bide zuela pentsa daiteke, eta egitan norabide honetan ez da berritasun gehiago etorriko hurrengo zatietan.

Garbi dago hau guztiak Filosofia transzendentaleko puntu nagusiak birpentsatzera bidaltzen duela, hala nola, esperientziaren ahalgarritasuna, existentziaren kontzeptua, etab¹⁶⁵. Eta gainera, hau izango da aurrerantzean bide emankor bakarra. Kantek denbora asko zeraman indar higitzaileak zein ziren sailkatzen eta horiek esplikatzeko eter baten ahalgarritasuna aztertzen. Egin behar zena bere ezagutzaren baldintzetaz galdetzea zen:

"Ez da objektutik hasi behar, subjektuaren esperientzia eta honek bere baitan duenetik baizik"¹⁶⁶.

Nola ezagut daitezke indar higitzaileak? Nolabait subjektua afektatzen duten neurrian¹⁶⁷. Afekzio enpiriko hau, ordea, esplikatu egin behar da, ezin da bere horretan utzi, eta orduan lehen Kritikaren bigarren argitalpeneko bidea hartuko du Kantek, autoafekzioarena, nahiz eta hemen oraindik laburki besterik ez aipatu¹⁶⁸. Autoafekzioak subjektuaren berezkotasuna kontuan hartzea eskatzen du eta, horrela, ondoren sakonki aztertuko duen autoezarpenaren ideia aurreratzeko da, Kantek hitza bera oraindik erabiltzen ez badu ere¹⁶⁹. Guzti honen jatorria eta zentzua esaldi batean bil daiteke:

¹⁶⁴"Es ist aber objectiv nur Eine Erfahrung und wenn von Erfahrungen gesprochen wird so sind diese nur als subjectiv in einer stetigen Reihe möglicher Wahrnehmungen verknüpfte Vorstellungen der Existenz der Dinge Denn wäre eine Lücke zwischen denselben so würde eine Kluft (hiatus) der Überschritt von einem Act der Existenz zum Andern und so die Einheit des Leitfadens der Erfahrung zerrissen seyn zu welcher Begebenheit um sie sich vorzustellen selbst wiederum Erfahrung gehören müßte, welches unmöglich ist weil das Nichtseyn kein Erfahrungsgegenstand seyn kann", AA XXI 576, 20-577, 4.

¹⁶⁵"Nur durch das was der Verstand selbst macht versteht das Subject seinen Gegenstand und dies ist das Formale der Gesamtheit der Wahrnehmungen in Einer möglichen Erfahrung", AA XXI 578, 21-23.

¹⁶⁶"Man muß nicht vom Object sondern der Erfahrung des Subjects u. was sie enthalten kan anfangen", AA XXII 614, 20-21. Zentzu berdinean: "Es komt nicht darauf an auszumachen welche Objecte uns für die Erfahrung gegeben sind sondern wie die Erfahrungen beschaffen seyn müssen um diese Objecte zu geben", AA XXI 586, 25-27; "Die Gesamtheit (omnitudo collectiva) der Erfahrung ist nicht das was eine äußere wirkende Ursache aus allen Gegenständen möglicher Erfahrung objectiv aus den bewegenden Kräften macht sondern was der Verstand subjectiv zur Einheit derselben aus sich selbst macht ist die Basis worauf alle besondere Erfahrung aus allen möglichen Wahrnehmungen (omnitudo distributiva) beruht", AA XXI 589, 9-14; "Diese Basis [eterra] liegt in dem Vorstellungsvermögen des Subjects", AA XXI 574, 29-575, 1.

¹⁶⁷"Denn wenn von dem Gegenstände im Raum zu mir nicht eine Empfindung als Wirkung der bewegenden Kraft von dem Punkte aus auf meinen Sinn gar nicht wirkte so würde ich von seiner Anwesenheit gar nicht benachrichtigt werden", AA XXI 537, 28-31; "Er setzt aber auch eine stetige Bewegung aller Materie voraus welche aufs Subject als Sinnengegenstand wirkt denn ohne diese Bewegung d.i. ohne Erregung der Sinnenorgane als jener ihre Wirkung findet keine Wahrnehmung irgend eines Sinnenobjects mithin auch keine Erfahrung statt", AA XXI 573, 1-5; "Die Erfahrung beruht auf den das Subject agitirenden Kräften", AA XXI 587, 4.

¹⁶⁸"Denn die bewegende Kräfte der Materie können zur collectiv//allgemeinen Einheit der Wahrnehmungen in einer möglichen Erfahrung nur zusammenstimmen in sofern das Subject durch sie äußerlich und innerlich in Einem Begriff vereinigt sich selbst afficirt", AA XXI 572, 20-24; "Äußere Erfahrung selbst beruht auf den das Subject selbst afficirenden bewegenden Kräften der Materie", AA XXI 573, 20-21.

¹⁶⁹"Dieser Raum kann nicht durch Körper erfüllet werden wenn sie nicht vorher einen sensibelen Raum aus selbstthätigkeit erfüllet hat", AA XXI 551, 1-3.

"Ez noiztik hasten den higidura, baizik nik noiztik hasten dudan higidura: ez nondik hasten den materiaren muga, baizik zeren bidez eta noraino mugatua dagoen, hau da galdetu behar dena"¹⁷⁰.

Zati honetako gai nagusia sakondu ondoren, beste batzuk aipatu behar dira laburkiago. Eta lehena Kantek Newtonen teoriekin duen polemikako osagai berri batzuk dira. Alde batetik, bere liburuaren izenburu aldaketa proposatzen du, 'Scientiae naturalis principia mathematica'. Bestetik, Matematikaren mugak azpimarratzen ditu d'Alambert bere alde hartuz eta Kästner kritikatu. Hala ere, eterraren gaiari lotuagoa dagoen eta interesgarriagoa den 'actio in distans'-i buruzko kritika baten aztarna berriak topatzen dira¹⁷¹, gehienbat grabitazioaren ideia horrek tarteko espazio hutsa eskatzen duelako. Horrela, ordea, gorputzen eraketa ez legoke ulertzerik.

Beste puntu interesgarria organismoarena izango da¹⁷². Bizitza izaki gorputzun batek bere errepresentazioen arabera jokatzeko berezkitasun gisa definitzen du¹⁷³. Bestalde, lurra, izarrak, eta abar bilduko lituzkeen munduaren organizazio bati buruz hitz egiten du Kantek, hala ere, horrelako espekulazioen benetako indar objektiboa ukatuz¹⁷⁴. Askoz interesgarriagoa iruditzen zait aurretik aipatu zuen ideia: organismoaren ahalgarritasuna subjektibitate berari lotzen jarraitzen du, eta honekin arlo honetan oinarri transzendental bat bilatzen duela esango nuke¹⁷⁵; eta oraindik gehiago, hori egitasmo orokorrarekin harremanean jartzen du, baita zehazkiago espazioaren esperientziarekin ere¹⁷⁶, horrela lotura benetan emankorra aurreikusiz.

Bukatzeko, Kantek Fichte izena inoiz aipatzen ez badu ere, bere "Wissenschaftslehre"-ren kritika zorrotza egiten du ohar batean. Ez da ahaztu behar Fichteren aurkako deklarazioaren urtean gaudela.

¹⁷⁰"Nicht von wann an die Bewegung anhebt sondern von wann an ich die Bewegung anfang: Nicht von wo an die Grenze der Materie anfängt sondern wodurch und wie weit sie begrenzt ist muß gefragt werden", AA XXI 221, 19-22.

¹⁷¹"Wenn man von der Anziehung durch den leeren Raum spricht so ist das bloß Idee, (...) Obgleich die Weltattraction (der Gravitation) durch den leeren Raum anzieht so bedeutet das nur so viel als sie zieht Körper ohne Vermittelung einer Zwischen Materie an actio immediata in distans so daß die Zwischenmaterie dazu nichts thut und der Raum wird respective als leer betrachtet", AA XXI 228, 22-23/28-32.

¹⁷²"Die Eintheilung der Körper in organische und unorganische gehört also nothwendig zum Übergange von den metaph. A. Gr. der NW. zur Physik als das Maximum des Fortschreitens", AA XXI 214, 3-5.

¹⁷³"Leben in stricter Bedeutung des Worts ist das Vermögen der Spontaneität eines körperlichen Wesens gewissen ihm zugehörigen Vorstellungen gemäß zu wirken", AA XXI 566, 2-4.

¹⁷⁴"Aber solche Erweiterungen der Aussicht können doch nie wahre Einsicht liefern", AA XXI 520, 23-24.

¹⁷⁵"Das Princip der Spontaneität der Bewegung der Theile unseres eigenen Körpers als Gliedmaßen indem wir diesen als unser eigenes Selbst betrachten ist ein Maschinenwesen", AA XXI 212, 1-3; "Weil der Mensch sich seiner als einer sich selbst bewegenden Maschine bewusst ist ohne die Möglichkeit einer solchen weiter einsehen zu können so kann er, und darf obgleich er hiezu den Begriff der Lebenskraft und der Erregbarkeit der Materie ihm selbst durchs Begehrungsvermögen generalisiren und organisch/bewegende Kräfte der Körper in die Classeneintheilung der Körper überhaupt a priori hineinbringen muß obzwar nur indirect nach der Analogie mit der bewegenden Kraft eines Körpers als Maschine betrachtet werden", AA XXI 213, 10-17.

¹⁷⁶"Hiebey muß der Raum selbst als Erfahrungsgegenstand (spatium perceptibile) vorgestellt werden wenn gleich nur indirect, durch einen Zwischenbegriff, der Betastung seines eigenen Körpers nach seinen drey Abmessungen imgleichen der Händebewegung Linien zu ziehen sie durch Punkte zu begrenzen und so sich von Flächen als Grenzen endlich auch von einem körperlichen Raume empirisch eine Vorstellung zu machen, und sagen zu können es existirt etwas Räumliches und ist das Gantze zur Einheit nothwendig verbundener Wahrnehmungen ein Gegenstand möglicher Erfahrung", AA XXI 590, 1-9.

Hurrengo zatia "redactio 1-3" markatu zuen Kantek eta XII. sortako 4., 5. eta 6. orriak biltzen ditu. Benetan atzerapausua dela esan behar da, berritasunik ez dauka, eta izenburuaren arabera aurrekoaren laburpena izan zitekeela pentsa daiteke. Fisikako gaiak agertzen dira berriro eta eterra desagertzen da. Puntu interesgarri gutxietako bat indar biziaren definizioa da:

"Indar bizia kanpoko indar eragilerik gabe berez azeleratzailea dena da"¹⁷⁷.

Jarraian IV. sortan jasotako 8 orri soltea dator. Bertan eterraren ezaugarriak lehen emadakoan antzekoak dira. Baina interesgarria zera da, Kantek ondoren gai nagusia bihurtuko den Fisikaren sistematizazioa bilatzen duela¹⁷⁸. Horretarako higiduraren landualdi matematikoa ez da nahikoa¹⁷⁹, Filosofia behar da aurretik askatasunarekin duen harremanagatik, eta ideia honekin subjektuaren ekintzak higidura ulertzeko unean duen garrantzia finkatzen du¹⁸⁰.

Idea horren landualdi sakona ondoren datorren zati erabakigarrian jorratzen da. 1799ko udaran hasi eta 1800eko udaberri artean idatzi zuen Kantek eta atal ezberdinak "A"-tik "Z"-ra eta gero "AA", "BB" markatu zituen. Zati hau X eta XI sorta ia osoetan jasotzen da, guztira 220 orrialdetik gora Akademiaren argitalpenean eta, beraz, eskuizkribuaren zati jarrai luzeena da, nahiz edukia sarritan errepikakorra izan. Beraz, aurreko atalaren moduan sistematikoki jokatuko dut.

Arazo nagusia ia ehun aldiz errepikatzen den galderak aurkezten du: zer da Fisika? edo batzutan hartzen duen forman, nola da posible Fisika zientzia gisa? Hemen Arrazoimen Hutsaren Kritikako galdera nagusietako baten errepikapena dugula garbi dago. Hau oraindik argiago geratzen da, zer da esperientzia?, nola da posible? galderak ere azaltzen direla aipatzen bada. Beraz, arazo hauek ezingo dira hasieran bezala indar higitzaileen ezaugarriak objektiboki bilatuz konpondu, baizik eta Filosofia transzendentalaren oinarriak birpentsatuz¹⁸¹. Fisikaren sistematizaziorako ez da konposatuaren harmena behar, konposizioaren berezkotasuna baizik¹⁸². Hala

¹⁷⁷"Lebendige Kraft ist die welche ohne äußere wirkende Kräfte für sich selbst accelerirend ist", AA XXII 576, 10-11.

¹⁷⁸"Der Übergang von der Met: der Natur zur Physik ist die Methode ein systematisches Erkenntnis der Physik zu Stande zu bringen", AA XXI 492, 21-22.

¹⁷⁹"Das Bewegliche im Raum ist Materie. Die Bewegung als im Raum und der Zeit vorgehende Veränderung einer Materie ist ein Gegenstand der Mathematik", AA XXI 488, 13-15.

¹⁸⁰"Wir würden die bewegende Kräfte der Materie selbst nicht durch Erfahrung an Körpern erkennen wenn wir nicht unserer Tätigkeit uns bewusst wären die actus der Abstoßung Annäherung etc. selbst auszuüben wodurch wir diese Erscheinung apprehendiren./ Der Begriff ursprünglich//bewegender Kräfte ist nicht aus der Erfahrung genommen sondern muß a priori in der Thätigkeit des Gemüths liegen deren wir uns im Bewegen bewusst sind denn sonst könnten wir sie auch nicht durch die Erfahrung bekommen denn das Zusammengesetzte als ein solches kann nicht wargenommen werden sondern nur das Zusammensetzen im Raum u. Zeit dessen man sich als eines Acts a priori bewusst ist", AA XXI 490, 24-491, 4.

¹⁸¹"Nur durch das Ausgehen von den metaph. Anf. Gr. mithin was a priori der Naturwissenschaft überhaupt zum Grunde liegt ist Physik möglich. -Diese E r ö r t e r u n g (Topik der Begriffe) muß zu jener hinüber führen so wohl zu bestimmten Objecten als auch bestimmten Principien der synthetischen Erkenntnis a priori welche wenn sie philosophisch ist (aus Begriffen) Transcendentalphilosophie genannt wird", AA XXII 381, 21-26; "Da Physik ein System ist wir aber ein System als ein solches nicht erkennen können als nur so fern wir das Mannigfaltige eines Aggregats selbst nach Principien a priori hineinlegen und es zusammensetzen welches durch den Begriff der Bewegung geschieht", AA XXII 299, 5-8.

¹⁸²"Die Physik ist das Princip das Subjective der Wahrnehmung der bewegenden Kräfte zugleich das Objective der Verknüpfung derselben zur Gründung der Erfahrung enthalte und die Spontaneität der Zusammensetzung, der Form nach a

ere, hasiera batean, higidura ulertzen saiatzean harmena topatzen dugu¹⁸³, baina garbi geratzen da hori ez dela nahikoa:

"Esperientzia ez dator indar higitzaileek zentzuen gain duten eraginetik, baizik eta esperientzia egin behar da"¹⁸⁴.

Subjektuak esperientzia egin behar duela gehien errepikatzen den mottoa da zati guztian zehar eta honek adierazten duena ezagutzaren aktibismoaren indartze bat da. Beraz, higidura argitzeko afekzio pasibotik autoafekzio aktibora igaro behar da, eta honekin zeharkako fenomenora¹⁸⁵. Alde batetik, fenomeno zuzena dugu, enpirikoa besterik ez dena; bestetik, zeharkakoa, subjektuak berak jarri duenarekin bat egin ondoren¹⁸⁶.

Fisikaren sistematizazioari buruzko ikerketan lortutako emaitza hauek eterraren arazoarekin harremana izaten jarraitzen dute. Orain behin eta berriz materia eta esperientzia hitzek pluralik onartzen ez dutela esango du Kantek, eta hortik datorrela beren batasun kolektiboa¹⁸⁷.

Gainera, Becken izena agertzen da, eta Kantek honen jatorrizko errepresentazioa aipatzen du¹⁸⁸. Honekin filosofia transzendentaleko erdigunean kokatzen gara. Subjektua bera objektu bihurtzeak¹⁸⁹ autoezarpenaren gaiara eramango du aurrerago. Honekin batera zentzumenaren, hau da, espazio-denboraren inguruko gogoetan sakontzen du. Espazioa begiespen formal hutsa dela errepikatzen du Kantek, baina gainera ea objektua ote den

priori vor der Receptivität der bewegenden Kräfte vorhergehe und dieser zur Regel diene welches nur durch Beziehung auf ein System des Empirischen der Erkenntnis, nicht aber ein empirisches System (contrad. in adjecto) möglich ist", AA XXII 297, 17-24.

¹⁸³"Physik ist Erfahrungswissenschaft von dem Inbegriff (complexus) der bewegenden Kräfte der Materie. Diese Kräfte afficieren auch das Subject den Menschen und seine Organe weil dieser auch ein körperliches Wesen ist. Die innere dadurch in ihm bewirkte Veränderung mit Bewusstseyn sind Wahrnehmungen: die Reaction auf die Materie und äußere Veränderung derselben ist Bewegung", AA XXII 298, 23-28.

¹⁸⁴"Die Erfahrung kommt nicht als Einfluß der bewegenden Kräfte auf den Sinn von selbst sondern muß gemacht werden", AA XXII 320, 29-31.

¹⁸⁵"Der Act durch welchen das Subject sich selbst in der Wahrnehmung afficirt enthält das Princip der Möglichkeit der Erfahrung", AA XXII 387, 26-27. Baina bereziki higidurari buruz: "Erscheinung von der Erscheinung da das Subject vom Object afficirt wird und sich selbst afficirt und ihr selbst eine Bewegung in der Erscheinung ist. Die indirecte bewegende Kraft des äußeren Sinnes in der Naturforschung da das Subject diejenige Bewegung selbst macht und verursacht durch welche sie afficirt wird und a priori in das Subject hineinlegt was es von aussen empfängt und sich selbst/bewegend ist", AA XXII 321, 16-23.

¹⁸⁶"Erscheinung von einer Erscheinung ist das wodurch das subjective objectiv gemacht wird weil es a priori vorgestellt wird", AA XXII 363, 24-25; "Wenn nicht Erscheinung in Raum u. Zeit sondern Raum u. Zeit selbst als Erscheinungen u. Sinnenobjecte gedacht werden u. bewegende Kräfte der Materie als Wirkung dieser Kräfte aufs Subject. Erscheinung von der Erscheinung./Subjective Erscheinung die vor den objectiven, die indirecte die vor der directen vorhergeht, und den Raum zum Gegenstande der Erfahrung macht", AA XXII 339, 22-28.

¹⁸⁷"Warum können wir nicht in plurali von Materien sondern müssen vom Stoffe reden und auch nicht von Erfahrungen sondern nur von der Erfahrung - gleich als ob beyde bloße Principien des Denkens und der Zusammensetzung im Subject wären", AA XXII 350, 15-18.

¹⁸⁸"Daß wir nichts einsehen als was wir selbst machen können. Wir müssen uns aber selbst vorher machen. Becks ursprüngliches Vorstellen", AA XXII 353, 21-22.

¹⁸⁹"Das Subject macht sich zum Object", AA XXII 443, 26-27.

galdetu edo onartu ere egiten du¹⁹⁰. Espazioa ezartzeko ekintza ideia erabat berria da Kanten filosofian eta emaitza sakonak iragartzen ditu¹⁹¹.

Bestalde, Newtonekin duen eztabaidak tonu berriantzekoak hartzen ditu une batzutan. Kantek Matematikaren garrantzia azpimarratzen du¹⁹² eta Matematikaren oinarrikotasunaren hipotesia ere lantzen du une batean¹⁹³, baina honen ezintasuna nabarmena zaio, eta horri lotzen zaio Galileo, Kepler, Huygens, Newton laukotearen behin eta berriroko agerpena. Galileok erorketa-higiduraren argibidea eman du; Keplerrek hau planeten higidurara zabaldu du; Huygensek indar zentrifugal eta zentripetalak onartu ditu, itxurazko indarrak. Zientzilari hauek denak fenomenoaren matematizazioan geratu dira, baina Newtonek grabitazio unibertsalarekin benetako indar higitzaileak onartu ditu eta horrela benetan Fisikan sartzen gara. Hala ere, Newtonek hori egin izan ahal badu, Matematikan geratu gabe Filosofiara altza delako izan da¹⁹⁴. Dena den, Newton-en goraipamen honekin batera kritika zorrotzak ere badaude. 'Actio in distans' ez dago ulertzerik, grabitateak bitarteko bat eskatzen du. Nola neurtu, bestela, distantziak espazio huts batetan? Bestalde, elkarreraginak denbora behar duela aipatzen du Kantek, honekin askoz beranduago soilik argitu diren teoria zientifikoak aurreratuz. Hau guztiaz gain, atomismoaren kritika nekaezin errepikatzen du Kantek.

Aipatzekoa ere bada, ondorengo garapenari begira, bi aldiz mekanika, dinamika, organismoa eta subjektu etikoaren askatasuna jasotzen duten sailkapenak egiten dituela Kantek, beti ere indar higitzaileen gaiaren luzapen gisa. Honek begien aurrean bere filosofiaren osotasuna zuela adieraziko luke.

Hurrengo zatia, 1800eko bigarren erdian idatzia, VII. sorta osoak eta X.eko orri batek osatzen dute. Hasieran Kant berak "Beilage 1-8" zeinuez markatu zuen zati hau, ondoren sorta honetako 9. eta 10. orriak markatu gabe datoz, baina edukia kontuan hartzen bada, argiki jarraian doazela esan behar da. X. sortako azken zatitxoa "Beilage V" gisa markatua dago. Beraz, azkenengo atal hauek aurrekoen luzapen gisa ulertu behar dira.

¹⁹⁰"Ob der Raum selbst noch etwas positives u. Gegenstand der Anschauung sey", AA XXII 443, 13-14; "Materie macht den Raum zum Gegenstande der Sinne und zum Object möglicher Wahrnehmungen", AA XXII 437, 28-29.

¹⁹¹"Ich setze einen Raum (eben so eine Zeit) und doch ist er nicht Existirendes", AA XXII 442, 16-17; "Der erste Act des Vorstellungsvermögens wodurch das Subject das Mannigfaltige seiner Anschauung setzt und sich selbst zum Sinnen Gegenstande macht", AA XXII 452, 1-3; "Das Subject setzt sich selbst in der reinen Anschauung und macht sich zum Object", AA XXII 452, 23-24.

¹⁹²"Die Naturwissenschaft welche aus Principien a priori hervorgehen soll ohne das sie keine Wissenschaft seyn würde drehet sich in zwey Ängeln oder Flügeln dem einen der Philosophie dem andern der Mathematik Nicht daß sie als zwey specifisch verschiedene Wissenschaften neben einander angeordnet eine als Ergänzungstück der anderen sondern als zu Einem System (aus welchem beyde hervorgehen) mit einander verbunden gedacht werden, wie Physik aus den metaphysischen A. Gr. der N. W. hervorgeht", AA XXII 430, 18-25; "Man kann zwar nicht durch Mathematik aber doch über sie und die Anknüpfung mit ihr philosophiren", AA XXII 513, 22-23.

¹⁹³"Es kann mathematische Principien der Philosophie geben wenn von Keplerschen Gesetzen ausgehend die Mathematik ursprünglich bewegende Kräfte im Raume aufstellt und dadurch die Mathematik mittelbar Instrument zu jener ist", AA XXII 519, 9-12.

¹⁹⁴"Der letztere konnte ohne zu philosophiren sein System selbst in den Anfangsgründen nicht ausführen. Er mußte bewegende Kräfte haben", AA XXII 520, 10-11; "Durch Philosophie also nicht durch Mathematik hat Newton die wichtigste Eroberung gemacht", AA XXII 513, 24-25.

Zati honetan aurreko puntu asko zeharka soilik ukitzen ditu Kantek, eta une batzutan Igarobidearen arazotik urruntzen dela dirudi. Gai nagusia Filosofia transzendentalaren muina da, nola diren posible esaldi a priori sintetikoak. Hau da bere filosofiaren arazo erabakigarria oro har eta eztabaida honek espazioa eta denboraren inguruko arazoan aurkituko du bere gunea batez ere¹⁹⁵. Orri askotan zehar espazioa eta denboraren begiespen izaera aipatzen du Kantek, baina bukaera aldera, berriro eterra eta Fisikaren oinarritzapena dela-eta, espazioaren formaltasun eznahikoa osatzeko beharra azaltzen du, espazioak objektu sentigarria izan behar badu¹⁹⁶. Honen ondoan, espazioa eta denbora kontzeptuak ez direla (begiespenak baizik), bien batasuna¹⁹⁷ eta berari lotutako infinitutasuna azpimarratzen ditu. Azterketak bide subjektiboa hartzen du, materiarekin lotura bilatu beharrean¹⁹⁸, hau da, autoezarpenaren tesia lantzen du. Subjektua da Filosofiaren erdigunea¹⁹⁹, eta bera "sum" analitikoan geratu beharrean ekintza sintetikoan espazio eta denbora gisa ezartzen da esperientziaren ahalgarritasunerako. "Cogito"-aren esanahiaren zabalpen bat ematen da puntu honetan. Bestalde, giza ahalmenen sinplifikazio izugarria ematen da: orain berezkotasuna eta harmenaz idazten du Kantek, eta hau ezin da zuzenki berdindu aurreko adimena eta zentzumenarekin²⁰⁰; irudimena, besteak beste, apenas agertzen da, berak zuen bitartekaritza funtzioa orain autoezarpenaren bidez betetzen baita. Autoezarpena materialki ere ulertzen bada (eta testu batzuk zentzu hau izan zezaketeen), idealismo absolutu batez hitz egin daiteke²⁰¹, baina zalantzarik da hori benetan horrela ote den.

Honekin batera, batez ere zati honen lehenengo erdian, 'bere baitango gauza' kontzeptuaren inguruko gogoeta intentsiboa agertzen da, eta gainera, Arrazoimen Hutsaren Kritikako jarrerak neurri handi batetan argituz; batzutan Kant bere lan nagusiko bikoiztasunean geratzen bada ere, gehienetan aurreko jarreran sakontzen du eta bere baitango gauza "ens rationis" gisa baztertzen du. Ez litzateke beste objektu bat izango, objektu

¹⁹⁵"Das Princip der Idealität des Raumes u. der Zeit ist der Schlüssel der Transcendentalphilosophie", AA XXII 33, 30-34, 1.

¹⁹⁶"Raum u. Zeit in der Anschauung sind nicht Dinge sondern a c t u s der Vorstellungskraft sich selbst zu setzen, wodurch sich das Subject selbst zum Object macht", AA XXII 88, 21-23.

¹⁹⁷"Raum u. Zeit machen zusammen vereinigt die reine Anschauung", AA XXII 85, 31-32; "Es ist ein Raum und Eine Zeit und Einheit der Erfahrung im Raum u. der Zeit, beyde in Einem Bewustseyn einander wechselseitig bestimmend", AA XXII 99, 15-17.

¹⁹⁸"Ich muß mir den Aether als das primum mobile denken weil ohne ihn voraus zu setzen der Raum selbst kein Sinngegenstand also nichts ausser mir wäre", AA XXII 106, 20-22; "Man fangt da nicht von Objecten an sondern von dem System der Möglichkeit sein eigenes denkenden Subject zu constituiren und ist selbst Urheber seiner Denkkraft", AA XXII 79, 6-8. Fisikara joateko Filosofia transzendental berriro landu beharrean kontzientzia azaltzen da: "Der Übergang von den metaphysischen A. Gr. der NW zur Transc: Philos. und von dieser zur Physik", AA XXII 86, 10-11.

¹⁹⁹"Das Subject ist nicht ein besonderes Ding sondern idee", AA XXII 33, 29-30. Kritikan sistemak ideia baten beharra zuela aipatzen zen.

²⁰⁰"Raum u. Zeit sind einerseits Actus der Spontaneität des Subjects in der Anschauung andererseits affectionen der Receptivität: jene in der Zusammensetzung des Manigfaltigen diese der Darstellung des Zusammengesetzten in der Einheit des Begriffs", AA XXII 42, 29-43, 2.

²⁰¹"Ich bin ein Gegenstand von mir selbst und meiner Vorstellungen. Daß noch etwas außer mir sey ist ein Product von mir selbst. Ich mache mich selbst. (...) Wir machen alles selbst", AA XXII 82, 17-21; "Die Existenz im Raum und der Zeit welche lediglich aus der Vorstellungskraft des Subjects hervorgeht (von ihr selbst gemacht wird)", AA XXII 86, 20-21; "Die Welt ist blos in mir (transcendentaler Idealism)", AA XXII 97, 2.

berdina adierazteko beste modua baizik, eta, beraz, fenomeno/bere baitango gauza bereizketa guztiz subjektiboa da²⁰².

Baina zati honetan Fisikaren arazoak ere ez dira ahazten eta atomistikaren kritika Newtoni lotuta agertzen da, pentsatzekoa zen moduan. Gainera, harrigarriki grabitazioaren denborazko baldintzei buruz hitz egiten du Kantek. Bestalde, argia eta beroa higikortasun era ezberdinetara murrizteko ideia oso interesgarria ere aipatzen da hemen²⁰³. Era berdinean, organismoa ere autohigikortasunean oinarritzen da: "**Gorputz bizia beti bere baitan higidura sortzen duen gorputza da**"²⁰⁴. Aipatzekoa da baita ere, Fisikaren sistematizazioa bilatzean Kantek bere alde enpirikoa ez duela ahaztu, eta asintota gisa hazten doan aurrerapentzat jotzen duela zientzia hau.

Zati honetako azken gai handia Jainkoari buruzko gogoeta da, lehenago eterraz egin zuenaren paralelo dihoana, eta Filosofia transzendentalaren azken sistematizazio osoaren lehen urratsa dena²⁰⁵. Hemen arrazoimen tekniko-praktikoa eta etiko-praktikoaren bereizketa da garrantzitsua, alegia, subjektuak bere burua determinatzeko bi moduak. Jainkoa bigarrenarentzat dugun beste izen bat besterik ez da, ez baita ezer subjektutik kanpo²⁰⁶, ideia hutsa baizik²⁰⁷. Jainkoa eta eterra onartzeko moduen alderaketa zuzena ere egiten du Kantek, baina eterraren izatearen aldeko argudioa Jainkoaren kasuan ez du onartzen, Jainkoaren ideia ez baita beharrezkoa esperientzia oinarritzeko.

Eskuizkribuaren azken zatia, 1800eko abendutik aurrera idatzia, 1-10 zenbakiekin markatua, ondoren "A" hizkia eta azkenengo atala markarik gabe agertzen da, lehen sorta osorik bilduz. Hemen gogoetak oso zatikatuak daude, ohiz berehala aldatzen du gaia Kantek eta zatiaren bigarren erdian arazo pertsonalagoak, hau da, gonbidatuak, eskutitzak, menuak, bere adinari buruzkoak, eta abar idazten ditu²⁰⁸. Kanten indarrak bukaera aldera oso ahulduak bazeuden ere, zati honen hasieran bereziki oraindik ere gauza interesgarriak aurkitzen

²⁰²"Das Object aber an sich = X ist nicht ein besonderer Gegenstand sondern das bloße Princip der synthetischen Erkenntnis a priori welches das Formale der Einheit dieses Mannigfaltigen der Anschauung in sich enthält (nicht ein besonderes Object)", AA XXII 20, 9-13; "Die Unterscheidung des so genannten Gegenstandes an sich im Gegensatz mit dem in der Erscheinung (phaenomenon aduersus noumenon) bedeutet nicht ein wirkliches Ding was dem Sinnengegenstande gegenüber steht sondern als = x nur das Princip daß es nichts Empirisches sey was den Bestimmunggrund der Möglichkeit der Erfahrung enthält", AA XXII 24, 21-25; "Wobey das Ding an sich gar kein existirendes Wesen sondern = x blos ein Princip ist", AA XXII 34, 3-4; "Das Ding an sich = x ist blos Gedankending ens rationis ratiocinantis", AA XXII 421, 14-15.

²⁰³"Die phaenomena von Licht und Wärme afficirt zu seyn geben also a priori zweyerley nicht Materie sondern Bewegung an die Hand", AA XXII 81, 16-18; "Die Kräfte liegen hier schon in der Raumesvorstellung", AA XXII 84, 8-9.

²⁰⁴"Der lebende Körper ist ein sich selbst immer in seiner Bewegung herstellender Körper", AA XXII 411, 17-18.

²⁰⁵Eranskinak gai hau aztertzen du sakonki.

²⁰⁶"Zum categorischen Imperativ wird aber keineswegs erfordert daß eine Substanz existire deren Pflichten auch jener ihre Gebote sind, sondern nur die Heiligkeit und Unverletzlichkeit derselben verstanden", AA XXII 119, 16-19.

²⁰⁷"Der Begriff von Gott ist die Idee, welche sich der Mensch als ein moralisches Wesen von einem höchsten moralischen Wesen in einem Verhältnis nach Rechtsprincipien macht indem dieses nach dem categorischen Imperativ alle Pflichten als Gebote desselben ansieht", AA XXII 105, 6-9.

²⁰⁸"Mit Ausnahme weniger Seiten, die einen fortlaufenden Gedankengang aufweisen, besteht das ganze 1. Konvolut aus vielfachen Wiederholungen unzusammenhängender Fragmente, die für den Uneingeweihten ein Buch mit sieben Siegel sind", Pinski 1911, 15.

ditugu. Puntu nagusia Filosofia transzentalaren definizio orokor bat emateko saiakera da. Bera ideien sistema bezala definitzen du: Jainkoa, Mundua eta Subjektua, aurreko biak lotzen dituen. Antzeko adierazpenak erabiltzen ditu izenburu gisa zati honetan. Hau ikusita, bi liburu ezberdinen teoriak hitz egin da: eskuizkribuaren azken gogoeta hauek ez lukete zerikusirik izango Igarobidearen egitasmoarekin. Baina hau defendatu ezin dela uste dut. Garbi ikus daiteke Kant azken sistematizazio honetara nola iritsi den, gogoeta jarraiki batean sakonduz, alegia, eta gainera, testua bera erabiliz defenda daiteke azken gogoeta hauek Igarobidearekin duten lotura. Igarobidearen arazoaren formulazioa behin eta berriz agertzen da oraindik ere, berari gogoeta berriak lotuz. Bestalde, Igarobidearen egitasmoaren eduki gehienak errepikatzen dira, era zatikatuan bada ere, hala nola, espazioa eta denboraren statusa, atomistikaren kritika, Newtonekin polemika, organismoaren arazoa, esperientziaren batasuna eta eterraren arazoa.

Mende honen bigarren erdian aurkitu eta Akademiaren argitalpeneko 'AA XXIII' liburukian jasotako orri solteez ezin da oraingoz gauza gehiegirik esan. Hauek egitasmoan duten kokapena ziurki zehaztea zaila da kasu gehienetan. Hala ere, orri solte gehienak "Übergang 1-14"-koak edo lehenagokoak direla esan daiteke, hauetako gutxitan topatzen baitira geroago nagusiak bihurtzen diren gaien aztarnak. Dena den, beraietan agertzen diren ideia interesgarrienak azterketan zehar jasoko dira.

Sarrerari Eranskina 1

Akademiaren argitalpenean jasota dauden baina Igarobidearen egitasmoaren zati ez diren testuak:

- XXI 176, 3 h. ("Über die Buchmacherei" testuaz berria)
- XXI 225, 1-10 (Herder-en Metakritik-en aurkako anotazioa)
- XXI 258, 25-259, 2 (Religionsphilosophie buruzko erreflexioa)
- XXI 322, 1 hh. (etikari buruzkoa)
- XXI 344, 18-346, 33 (Anthropologie-ri dagokio)
- XXI 347, 19-28 (berdin)
- XXI 348, 26-349, 16 (berdin)
- XXI 349, 17 hh. (berdin)
- XXI 416, 7-28 (KpVren hitzaurreari dagokio)
- XXI 417, 11-15 (KpVren berri ematen du)
- XXI 418, 24-419, 10 (KpVren hitzaurreari dagokio)
- XXI 419, 29-422, 11 (berdin)
- XXI 446, 2-12 (Religion innerhalb der Grenzen der bloßen Vernunft-i dagokio)
- XXI 461, 14-463, 7 (Rechtsphilosophie-ri dagokio)
- XXI 464, 25 (berdin)
- XXI 470, 5-472, 12 (Metaphysik der Sitten-i dagokio)
- XXI 473, 9 oharra (Metaphysik der Sitten-en aurrelana)
- XXI 478, 28-479, 2 (Eskutitz egitasmoa, XII 254 hh.ei dagokio)
- XXI 483, 12 h. (berdin)
- XXI 484, 29 h. (Tugendlehre buruzko erreflexioa)
- XXI 632, 7 hh. (Anthropologie buruzko erreflexioa -?-)
- XXII 154, 28 (Reinhold-ez berria)
- XXII 156, 13 h. ("Über die Buchmacherei" testuaz berria)
- XXII 260, 18 hh. ("Über die Buchmacherei" testuaren aurrelana)
- XXII 260, 21-25 (Garveri -?- bidalitako eskutitz baten berria)
- XXII 288, 19-26 (Anthropologie -?-)
- XXII 290, 9-12 (Religionsphilosophie -?-)
- XXII 370, 8-19 (Jachmann-en liburuari buruzko testuaren aurrelana)
- XXII 510, 27 hh. (Beste testu batentzako izenburu egitasmoa)

Zati hauetako erdiak baino gehiago Igarobideko zatiak ez zirela ezaguna izatea ez zitzaien axola Buchenau eta Lehmann argitaratzaileei, agi denez.

Gainera, Reickek bere argitalpenean Akademiaren argitalpeneko XXI 112, 27 h. eta XXII 206, 19 pasarteak jatorrizkoa zuzenki jarraituz zehatzago ematen ditu; eta Adickes 1920 467h., 468, 468oh. (2), 758oh. (2), 834ean Akademiaren argitalpenean jaso ez diren zatiak irakur daitezke.

Testu hauek Akademiaren argitalpenaren aurretik ezagunak ziren baina ez ziren erabili. Azkenik, Akademiaren argitalpenean 12tik 11 aldiz ez da sorten azala osatzen duten orriei buruzko informaziorik ematen, Reicke eta Adickesek iadanik informazio hau jaso zuten arren.

Sarrerari Eranskina 2

Garaia	Ak. argitalpenean	Zeinuak/sortak
1786-7/1795	XXI 415-477	IV. sortako 23 orri solte
1796/7	XXI 373-412	"1-21": Oktaventwurf
1797-VII/1798-VII	XXI 307-334	"A-C"
"	XXII 205-215	"α-ε"
"	XXI 247-264	"
"	XXI 495-504	"
"	XXI 521-528	"
1798-IV/X	XXI 337-351	IV. sortako azala
1798-VIII/IX	XXI 474-488	IV. sortako 4 orri solte
"	XXI 174-181	II. papersortako 3. orria
"	XXI 267-294	"a-c"
1798-IX/X	XXI 161-174	"No.1-No.3 η"
"	XXI 352-361	"
"	XXII 246-267	"
"	XXII 216-226	"
"	XXI 361-369	"
"	XXI 528-535	"
"	XXI 294-307	"
"	XXI 504-512	"I" V. sortako 2. orria
1798-X(?)/XII	XXII 135-201	"Elem. Syst. 1-7"
1798-XII/1799-I	XXI 615-645	"Farrago 1-4"
1799-I/II	XXII 226-246	"A/B Übergang"
1799-II/V	XXI 181-206	"A Elem. Syst. 1-6"
"	XXII 267-276	"
"	XXII 585-609	"
1799-V/VIII(?)	XXI 206-247	"Übergang 1-14"
"	XXI 535-612	"
"	XXI 512-520	"
"	XXII 609-615	XII. sortako 10. orria
1799-VIII/IX	XXII 556-585	"Redactio 1-3"
1799 (erdialdean?)	XXI 488-492	IV. sortako 8 orri soltea
1799-VIII/1800-IV	XXII 279-409	<u>A-Z</u> , <u>AA</u> , <u>BB</u> (X/XI sorta ia osoak)
"	XXII 453-539	"
"	XXII 425-452	"
1800-IV(?)/XII	XXII 3-101	"Beylage 1-8"
"	XXII 101-131	VII. sortako 9. eta 10. orriak
"	XXII 409-421	"Beylage V" (X. sortako 19. orria)
1800-XII/1803-II	XXI 9-139	" <u>1-10</u> "
"	XXI 139-155	" <u>A</u> "
"	XXI 155-158	I. sortako 12. orria
1803	XXI 3-9	I. sortako azala

I. Kanten Filosofia Kritikoaren Bilakaera

1. Arrazoimen Hutsaren Kritikako zenbait hutsune eta arazo

a. Propedeutika eta sistemaren arazoa

Kantek behin eta berriz aipatu du bere liburu nagusiak ez duela filosofiaren sistema bera osatzen, baizik honen propedeutika dela²⁰⁹. Hala ere, Kritika eta Filosofia transzendentalaren harremana ondo finkatua geratzen da: lehena bigarrenaren hastapena eta zatia da aldi berean; baina kontzeptuen osotasuna ez du aztertzeko, oinarriak jartzen ditu besterik gabe²¹⁰. Honela, hasieratik garbi geratzen da Kritikari ez zaiola falta inolako oinarri sakonagorik sistemara igarotzeko, baizik berak jartzen duela oinarri hori. Horrez gain, sistemaren osotasunak analisiaren osotasuna besterik ez du eskatzen, lan erraza eta atsegina izan daitekeena eta Kantek etorkizunean Naturaren Metafisika lantzean egitea itzaroten duena²¹¹. Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaften sarreran sistemaren ideia indartua agertzen da, bertan "**in der Kritik aufgestellten Systems**" edo "**System der Kritik der reinen Vernunft**" aipatzen ditu, sistema honen erdigunea dedukzio transzendental dela zehaztuz²¹².

²⁰⁹Adibidez, B25/A11.

²¹⁰"Ich nenne alle Erkenntnis *t r a n s z e n d e n t a l*, die sich nicht so wohl mit Gegenständen, sondern mit *unserer Erkenntnisart* von Gegenständen, *so fern diese a priori möglich* sein soll, überhaupt beschäftigt. Ein *S y s t e m* solcher Begriffe würde *T r a n s z e n d e n t a l - P h i l o s o p h i e* heißen", B25/A11; "Zur Kritik der reinen Vernunft gehört demnach alles, was die Transzendental-Philosophie ausmacht, und sie ist die vollständige Idee der Transzendental-Philosophie, aber diese Wissenschaft noch nicht selbst; weil sie in der Analysis nur so weit geht, als es zur vollständigen Beurteilung der synthetischen Erkenntnis a priori erforderlich ist", B28/A14.

²¹¹"Die Transzendental-Philosophie ist *die Idee einer Wissenschaft*, wozu die Kritik der reinen Vernunft den ganzen Plan architektonisch, d.i. aus Prinzipien, entwerfen soll, mit völliger Gewährleistung der Vollständigkeit und Sicherheit aller Stücke, die diese Gebäude *ausmachen*. *Sie ist das System aller Prinzipien der reinen Vernunft*. Daß diese Kritik nicht schon selbst Transzendental-Philosophie heißt, beruht lediglich darauf, daß sie, um ein vollständig System zu sein, auch eine ausführliche Analysis der ganzen menschlichen Erkenntnis a priori enthalten müßte. Nun muß zwar unsere Kritik allerdings auch eine vollständige Heranzählung aller Stammbegriffe, welche die gedachte reine Erkenntnis ausmachen, vor Augen legen. (...) Diese Vollständigkeit der Zergliederung sowohl, als der Ableitung aus der künftig zu liefernden Begriffen a priori, ist indessen leicht zu ergänzen, wenn sie nur allererst als ausführliche Prinzipien der Synthesis dasind, und in Ansehung dieser wesentlichen Absicht nicht ermangelt", B27-8/A13-4; "Ein solches System der reinen (spekulativen) Vernunft hoffe ich unter dem Titel: *M e t a p h y s i k d e r N a t u r*, selbst zu liefern, welches bei noch nicht der Hälfte der Weitläufigkeit, dennoch ungleich reicheren Inhalt haben soll, als hier die Kritik, die zuvörderst die Quellen und Bedingungen ihrer Möglichkeit darlegen mußte, und einen ganz verwachsenen Boden zu reinigen und zu ebenen nötig hatte. Hier erwarte ich an meinem Leser die Geduld und Unparteilichkeit eines *R i c h t e r s*, dort aber die Willfährigkeit und den Beistand eines *M i t h e l f e r s*; denn, so vollständig auch alle *P r i n z i p i e n* zu dem System in der Kritik vorgetragen sind, so gehört zur Ausführlichkeit des Systems selbst doch noch, daß es auch an keinen *a b g e l e i t e t e n* Begriffen mangle, die man a priori nicht in Überschlagn bringen kann, sondern die nach und nach aufgesucht werden müssen, imgleichen, da dort die ganze *S y n t h e s i s* der Begriffe erschöpft würde, so wird überdem hier gefodert, daß eben dasselbe auch in Ansehung der *A n a l y s i s* geschehe, welches alles leicht und mehr Unterhaltung als Arbeit ist", AXXI.

²¹²MA, AA IV 474. Aurretik Prolegomenan ere, "transcendentales System" (AA IV 306) eta "System der reinen Vernunft" (AA IV 338) aipatzen ditu.

Arrazoimen Hutsaren Kritikan aurreratzen den plan osoak kontzeptu guztien arteko lotura berezia eskatzen du²¹³. Kantek zehazki argitzen du hau nola ulertzen duen bitarteko kontzeptu edo predikagarrien topika sistematikoaz hitz egitean. Kategorien arteko harremanetatik edo hauek espazioa eta denborarekin dutenetik bitarteko kontzeptu eratorriak sortuko lirateke. Hori analitikoki eta, beraz, a priori lortzekoa dela Prolegomenan arazoa jorratzean argitzen da²¹⁴. Eratorritako kontzeptu horietako bat aldaketarena da, beraz, sistematikoki nagusia den puntu honetan kontzeptu hau a priorizat du Kantek, eta, beraz, sistemaren bere lekua edukiko luke; hala ere, sistemaren osaketa lan erraza eta atsegina izango litzatekeela berriz ere aipatzen badu ere, hau gero ez du batere landuko, eta hemen erraztat duena, oinaze bihurtu zitzaion Igarobidean²¹⁵.

Gero, Kritikaren bukaera aldera sistemaren ideia hau zabaltzen du, sistematizazioa natura eta ohituren Filosofiak biltzen dituen batasun batera hedatuz²¹⁶. Horrela, beraz, dena finkatuta geratzen da: Kritika bera sistemara sarrera da, eta iadanik bere zatia ere bai, oinarria jartzeko unea, eta Metafisikak sistema bera osatzen du bere bi adarretan, natura eta askatasunarenean²¹⁷.

²¹³"Die Transzendentalphilosophie hat den Vorteil, aber auch die Verbindlichkeit, ihre Begriffe nach einem Prinzip aufzusuchen; weil sie aus dem Verstande, als absoluter Einheit, rein und unvermischt entspringen, und daher selbst nach einem Begriffe, oder Idee, unter sich zusammenhängen müssen. Ein solcher Zusammenhang aber gibt eine Regel an die Hand, nach welcher jedem reinen Verstandesbegriff seine Stelle und allen insgesamt ihre Vollständigkeit a priori bestimmt werden kann, welches alles sonst vom Belieben, oder vom Zufall abhängen würde", B92/A67.

²¹⁴"Zählt man überdem alle P r ä d i c a b i l i e n auf, die man ziemlich vollständig aus jeder guten Ontologie (z. B. B a u m g a r t e n s) ziehen kann, und ordnet sie classenweise unter die Kategorien, wobei man nicht versäumen muß, eine so vollständige Zergliederung aller dieser Begriffe als möglich hinzuzufügen, so wird ein bloß analytischer Theil der Metaphysik entspringen, der noch gar keinen synthetischen Satz enthält und vor dem zweiten (dem synthetischen) vorhergehen könnte und durch seine Bestimmtheit und Vollständigkeit nicht allein Nutzen, sondern vermöge des Systematischen in ihm noch überdem eine gewisse Schönheit enthalten würde", Prol., AA IV 325-6oh.

²¹⁵"Um den letztern willen ist also noch zu bemerken: daß die Kategorien, als die wahren S t a m m b e g r i f f e des reinen Verstandes, auch ihre eben so reine a b g e l e i t e t e B e g r i f f e haben, die in einem vollständigen System der Transzendental-Philosophie keineswegs übergangen werden können, mit deren bloßer Erwähnung aber ich in einem bloß kritischen Versuch zufrieden sein kann./ Es sei mir erlaubt, diese reine, aber abgeleitete Verstandesbegriffe die P r ä d i c a b i l i e n des reinen Verstandes (im Gegensatz der Prädikamente) zu nennen. Wenn man die ursprüngliche und primitive Begriffe hat, so lassen sich die abgeleiteten und subalternen leicht hinzufügen, und der Stammbaum des reinen Verstandes völlig ausmalen. Da es mir hier nicht um die Vollständigkeit des Systems, sondern nur der Prinzipien zu einem System zu tun ist, so spare ich diese Ergänzung auf eine andere Beschäftigung". Ontologiako liburuetan ekinga, aldaketa eta horrelako kontzeptuak aurki daitezkeela aipatu ondoren, honela jarraitzen du: "Die Kategorien, mit den Modis der reinen Sinnlichkeit oder auch unter einander verbunden, geben eine große Menge abgeleiteter Begriffe a priori, die zu bemerken, und, wo möglich, bis zur Vollständigkeit zu verzeichnen, eine nützliche und nicht unangenehme, hier aber entbehrliche Bemühung sein würde", B107-8/A81-2.

²¹⁶"Die Gesetzgebung der menschlichen Vernunft (Philosophie) hat nun zwei Gegenstände, Natur und Freiheit, und enthält sowohl das Naturgesetz, als auch das Sittengesetz, anfangs in zwei besondern, zuletzt aber in einem einzigen philosophischen System. Die Philosophie der Natur geht auf alles, was d a i s t ; die der Sitten nur auf das, was d a s e i n s o l l ", B868/A840.

²¹⁷"Die Philosophie der reinen Vernunft ist nun entweder P r o p ä d e u t i k (Vorübung), welche das Vermögen der Vernunft in Ansehung aller reinen Erkenntnis a priori untersucht, und heißt K r i t i k , oder zweitens das System der reinen Vernunft (Wissenschaft), die ganze (wahre sowohl als scheinbare) philosophische Erkenntnis aus reiner Vernunft im systematischen Zusammenhange, und heißt M e t a p h y s i k . (...) Die Metaphysik teilet sich in die d e s s p e k u l a t i v e n und p r a k t i s c h e n Gebrauchs der reinen Vernunft, und ist also entweder M e t a p h y s i k d e r N a t u r , oder M e t a p h y s i k d e r S i t t e n ", B869/A841.

Hala ere, Kantek Kritikako dialektikan intentsiboki hitz egiten du sistemaz, beste zentzu ezberdinean, ordea. Arazoa aurrekoaren antzekoa da eta Kantek bere garrantzia azpimarratzen du²¹⁸. Zeregina ezaugarri orokorretatik enpirikotasunaren aniztasunera doan bidea bilatzea da²¹⁹. Hemen, ideien bitartez era erregulatiboan, ez eratzailean, ikerketa zuzentzen duen sistema bat aipatzen du²²⁰, eta, beraz, hau ez da aurretik aipatu dugun eta filosofia transzendentalaren erdigunean kokatzen den arazo nagusia²²¹. Hemen orokorpenaren bitartez bilatzen da osotasuna, kategorien bitarteko osotasun objektiboa alde batera utziz, eta, beraz, ideien bide honek ezingo du Naturaren Metafisika osatzen lagundu.

Beraz, Kant berak '**Filosofia transzendentalaren sistema**' edo antzeko izenburuko liburu batean bere Filosofiaren azken sistematizazioa idatzi ez bazuen ere, eta datorrenak argitu beharko du zergatik izan zen hori, sistematizazio hori lortzeko oinarriak jarri zituela argi zeukan eta lortu egin behar zela ere bai:

"Ezagutza filosofiko ororen sistema da Filosofia"²²².

b. Higiduraren ulermen kritiko bateranzko lehen urratsak

Naturaren Metafisika baten lorpenaren testuinguruaren sistematizazioan Fisikak jasotzen duen lekua aztertu behar da. Horretarako bide bakarra dago, eta zera da, Aristotele ondoren Fisikaren kontzeptu nagusizat onartua den higiduraren kontzeptua²²³ sistema transzendentalean nola kokatzen den aztertzea.

Higiduran pentsatzean berehala datorkigu burura espazioa eta denboraren arteko harremana. Kritikan harreman honen aztarnak aurki ditzakegu, baina zehazki aztertu gabe geratzen dira, Kantek gehienbat higidurak

²¹⁸B680/A652.

²¹⁹"Sie [Ideen] enthalten eine gewisse Vollständigkeit, zu welcher keine mögliche empirische Erkenntnis zulangt, und die Vernunft hat dabei nur eine systematische Einheit im Sinne, welcher sie die *empirische mögliche* Einheit zu näher sucht, ohne sie jemals völlig zu erreichen", B595-6/A567-8; "Die transcendentalen Ideen drücken also die eigenthümliche Bestimmung der Vernunft aus, nämlich als eines Principis der systematischen Einheit der Verstandesgebrauchs", Prol., AA IV 350.

²²⁰"Umgekehrt ist die systematische Einheit (als bloße Idee) lediglich nur projektierte Einheit, die man an sich nicht als gegeben, sondern nur als Problem ansehen muß", B675/A647.

²²¹"Die Vernunfteinheit ist die Einheit eines Systems, und diese systematische Einheit dient der Vernunft nicht objektiv zu einem Grundsatz, um sie über die Gegenstände, sondern subjektiv als Maxime, um sie über alles mögliche empirische Erkenntnis der Gegenstände zu verbreiten. (...) das Principium einer solchen systematischen Einheit ist auch objektiv, aber auf unbestimmte Art (principium vagum), nicht als konstitutives Prinzip, um etwas in Ansehung seines direkten Gegenstandes zu bestimmen", B708/A680.

²²²"Das System aller philosophischen Erkenntnis ist nun *Philosophie*", B866/A838; Gainera: "Ich verstehe also unter der transzendentalen Methodenlehre die Bestimmung der formalen Bedingungen eines vollständigen Systems der reinen Vernunft", B735-6/A707-8; "Ich verstehe unter einer *Architektonik* die Kunst der Systeme", B860/A832.

²²³"Higidura zer den ezagutzen ez badugu, natura ere ez dugu ezagutuko", Fisika, 200b14-15.

denborarekin duen lotura besterik ez baitu lantzen²²⁴. Alde honetatik ez dira arazo gehiegirik sortzen, denborak subjektuarekin duen harremana argia baita²²⁵. Arazo gehiago daude espazioaren aldetik. Espazio hustuak ezin du higidura oinarritu ("**espazioaren baitan ez dago ezer higikorrik**"²²⁶), espazioa beste era batera ulertu behar da horretarako, betea, materiala den espazio gisa.

Modu oso interesgarrian Prolegomenan arazo hau subjektuari lotuta agertzen da. 46. paragrafoan sarrezintasunak indar bat eskatzen duela dio Kantek, eta honek berriz subjektu bat. Horrela, substratu hori norberaren kontzientzian aurki litekeela ere aipatzen du²²⁷. Orain, ideia interesgarri hau lantzen jarraituko ez badu ere, berehala 48. paragrafoan bizitza jartzen du esperientziaren baldintza gisa²²⁸. Hau oso interesgarria izan zitekeen, espazioa soinaren bidez indarrarekin lotuz gero. Baina ideia honen azarnak badaude ere²²⁹, bera ez du zehazki jorratzen Kantek, eta sarritan gorputza niari kanpokoa zaion zerbaiten modura ulertzen du oraindik²³⁰. Hala ere, astiro bada ere, Kanten gogoetak espazioa eta denboraren elkarrekiko harremana gorputzaren

²²⁴"Hier füge ich noch hinzu, daß der Begriff der Veränderung und, mit ihm, der Begriff der Bewegung (als Veränderung des Orts) nur durch und in der Zeitvorstellung möglich ist: daß, wenn diese Vorstellung nicht Anschauung (innere) a priori wäre, kein Begriff, welcher es auch sei, die Möglichkeit einer Veränderung, d. i. einer Verbindung kontradiktorisch entgegengesetzter Prädikate (z. B. das Sein an einem Orte und das Nichtsein eben desselben Dinges an demselben Orte) in einem und demselben Objekte begreiflich machen könnte. Nur in der Zeit können beide kontradiktorisch entgegengesetzte Bestimmungen in einem Dinge, nämlich nacheinander, anzutreffen sein. Also erklärt unser Zeitbegriff die Möglichkeit so vieler synthetischer Erkenntnis a priori, als die allgemeine Bewegungslehre, die nicht wenig fruchtbar ist, darlegt", B48-9. Testu argi hau bigarren edizioan soilik idatzi zuen, lehenengoan aldaketaren kontzeptuaren inguruan geratzen da: "Veränderungen sind wirklich (dies beweiset der Wechsel unserer eigenen Vorstellungen, wenn man gleich alle äußere Erscheinungen, samst deren Veränderungen, leugnen wollte). Nun sind Veränderungen nur in der Zeit möglich...", B53/A36-7; "Also geschieht jeder Übergang aus einem Zustande in den andern in einer Zeit, die zwischen zween Augenblicken enthalten ist, deren der erste den Zustand bestimmt, aus welchem das Ding herausgeht, der zweite den, in welchen es gelangt", B253/A208; Ondoren Prolegomenan ere mekanika denborari soilik lotuko dio, emaitza gehiago atara gabe: "Geometrie legt die reine Anschauung des Raums zum Grunde. Arithmetik bringt selbst ihre Zahlbegriffe durch successive Hinzusetzung der Einheiten in der Zeit zu Stande, vornehmlich aber reine Mechanik kann ihre Begriffe von Bewegung nur vermittelt der Vorstellung der Zeit zu Stande bringen", Prol., AA IV 283. "Alle Veränderungen lassen sich nur in der Zeit denken", Refl. 4041, AA XVII 396.

²²⁵"Die Zeit ist nichts anders, als die Form des innern Sinnes, d. i. des Anschauens unserer selbst und unsers innern Zustandes", B49/A33.

²²⁶"Im Raum, an sich selbst betrachtet, ist aber nichts Bewegliches", B58/A41.

²²⁷Prol., AA IV, 332-3.

²²⁸"Nun ist die subjektive Bedingung aller unserer möglichen Erfahrung das Leben", Prol., AA IV, 335. Eta alderantziz: "Denn der Tod des Menschen ist das Ende aller Erfahrung", idem.

²²⁹"Auf etwas in einem anderen Orte des Raumes, als darinnen ich mich befinde", B38/A23; "Wir können demnach nur aus dem Standpunkte eines Menschen vom Raum, von ausgedehnten Wesen, etc. reden. Gehen wir von der subjektiven Bedingung ab, unter welcher wir allein äußere Anschauung bekommen können, so wie wir nämlich von den Gegenständen affiziert werden mögen, so bedeutet die Vorstellung vom Raume gar nichts", B42-3/A26; "Diese Einheit der Zeitbestimmung ist durch und durch dynamisch", B262/A215; "Wenn ich mir die Kraft meines Körpers in Bewegung vorstelle...", B812/A784. Honek garai aurrekritikoan bere garrantzia izan zuen, bertan espazioa indarraren emaitza zen, bere hiru dimentsioak ere bai: "Es ist leicht zu erweisen, daß kein Raum und keine Ausdehnung sein würden, wenn die Substanzen keine Kraft hätten, außer sich zu wirken", Gedanken, AA I 23; "Die dreifache Abmessung derselben [Ausdehnung] auf die Eigenschaft der Kraft gründen", idem, 24; "Spatii notio implicatis substantiarum actionibus absolvitur", Nova, AA I 415; "Wo ist der Ort dieser menschlichen Seele in der Körperwelt? Ich würde antworten: Derjenige Körper, dessen Veränderungen meine Veränderungen sind, dieser Körper ist m e i n Körper, und der Ort derselben ist zugleich m e i n Ort", Träume, AA II 324.

²³⁰Oraindik 1787an: "Ich unterscheide meine eigene Existenz, als eines denkenden Wesens, von anderen Dingen außer mir (wozu auch mein Körper gehört)", B409.

kontzeptuan gauzaten dela dioen ideiara hurbiltzen joango dira²³¹. Iadanik argia da, ordea, ideia horren garrantzia:

"Egungo egoeran (bizitzan) zentzumenaren gaitasun osoak, eta honekin batera, pentsatze orok baldintzatat duen oinarrizko fenomenoaren besterik ez da gorputza"²³².

Zentzu honetan, espazioa edo denbora oinarrizkoago zein den eztabaidatzen duten interpretazioak zentzugabeak dira; bien elkarrekiko harremana soilik da emankorra. Garbi dago, alde batetik, fenomeno batzuk espazioan ematen badira, denak denboran ematen direla²³³. Eskematismoaren kapitulu nagusian denborak leku berezia jasotzen du²³⁴, eta lehenago, dedukzioa bertan ere denbora eta apertzepzioaren harremana azpimarratzen da. Bestetik, ordea, nabarmena da edozein erreferentzia objektiborako espazioa ezinbestekoa dela.

"Denboran izateaz dudaren kontzientzia identikoki lotua dago nigan kanpoko harreman baten kontzientziarekin"²³⁵.

Bide zuzenak, nire ustez, biak elkarrekiko harremanean soilik direla pentsagarri adierazten du, eta Kantenean ere nabarmenki aurki daiteke pentsamendu berbera. Alde batetik, garbi dago denborak soilak ez daramala inora eta espazioa behar duela²³⁶; bestetik, ordea, espazioaren sintesiak era berean denbora behar du²³⁷. Gainera,

²³¹"Ich als correlatum aller äußeren Anschauung bin Mensch. Die äußere Anschauung, worauf sich alle übrige an mir beziehen, ist mein Körper. Also muß ich als ein subject äuserer Anschauung einen Körper haben. Die Bedingungen der äußeren Anschauung und der innern bestimmen sich wechselweise", Refl. 5461, AA XVIII 189.

²³²"Unser Körper sein nichts, als die Fundamentalscheinung, worauf, als Bedingung, sich in dem jetzigen Zustande (im Leben) das ganze Vermögen der Sinnlichkeit und hiemit alles Denken bezieht", B806/A778.

²³³"Die Zeit ist die formale Bedingung a priori aller Erscheinungen überhaupt. Der Raum, als die reine Form aller äußeren Anschauung ist als Bedingung a priori bloß auf äußere Erscheinungen eingeschränkt", B50/A34.

²³⁴Honen eznahikotasuna nabarmena da: "I have tried to show that to be complete any schematism of the categories must incorporate both space and time, so as to reflect the spatio-temporal character of those objects of outer intuition through which the categories may be given objective reality", Franzwa 1978, 156.

²³⁵"Dieses Bewußtsein meines Daseins in der Zeit ist also mit dem Bewußtsein eines Verhältnisses zu etwas außer mir identisch verbunden", BXL.

²³⁶"Sie [die Zeit] ist nur von objektiver Gültigkeit in Ansehung der Erscheinungen, weil dieses schon Dinge sind, die wir als Gegenstände unserer Sinne annehmen", B51/A34; "Nun kann die Zeit für sich nicht wahrgenommen werden", B225. Denborak espazioaren beharra duela garbiago geratzen da B edizioan, bereziki idealismoaren errefusapenaren inguruan. Sarrerako ohar zuzentzailea oso interesgarria da, bertan bi zentzuen arteko harremanaren beharra eta honek aldaketaren gain duen eragina nabarmenki finkatzen baita: "So ist der Realität des äußeren Sinnes mit der des innern, zur Möglichkeit einer Erfahrung überhaupt, notwendig verbunden (...) die Vorstellung von etwas Beharrlichem im Dasein ist nicht einerlei mit der beharrlichen Vorstellung; denn diese kann sehr wandelbar und wechselnd sein, wie alle unsere und selbst die Vorstellung der Materie, und bezieht sich doch auf etwas Beharrliches, welches also ein von allen meinen Vorstellungen unterschiedenes und äußeres Ding sein muß, dessen Existenz in der Bestimmung meines eigenen Daseins notwendig mit eingeschlossen wird, und mit derselben nur eine einzige Erfahrung ausmacht, die nicht einmal innerlich stattfinden würde, wenn sie nicht (zum Teil) zugleich äußerlich wäre. Das Wie? läßt sich hier eben so wenig weiter erklären, als wie wir überhaupt das Stehende in der Zeit denken, dessen Zugleichsein mit dem Wechselnden den Begriff der Veränderung hervorbringt", BXXI. Hala ere, oinarriztapenean hutsunea nabaritzen da.

²³⁷"Aber da die Teile des Raumes einander nicht untergeordnet, sondern beigeordnet sind, so ist ein Teil nicht die Bedingung der Möglichkeit der andern, und er macht nicht, so wie die Zeit, an sich selbst eine Reihe aus. Allein die Synthesis der mannigfaltigen Teile des Raumes, wodurch wir ihn apprehendieren, ist doch sukzessiv, geschieht also in der Zeit und enthält eine Reihe", B439/A412.

Kantek denbora pentsatzeko lerroaren irudia ezinbestekoa dela esaten duenean²³⁸, garbi dago oro har ekintza sintetikoaren errepresentatzen duen irudi horrek espazioa eta denboraren lotura barnean jasotzen duela²³⁹, eta higidura pentsatzeko oinarria ere badela. Lerroa marraztea subjektuaren ekintza dela abiapuntu ona litzateke gai hauetan aurrera egiteko, baina tamalez Kantek ez du bide hau hartzen²⁴⁰.

Beraz, Kantek oraingoz higiduraren kontzeptua kontzeptu empiriko izatera murrizten du:

"Zerbait oro har nola aldatua izan daitekeen; aldiune bateko egoera baten ondoren egoera kontrajarria nola sortu ahal daitekeen: a priori ez dugu honetaz kontzepturik. Horretarako benetako indarren ezagutza behar da, empirikoki soilik emana izan daitekeena, adibidez, indar higitzaileena, edo berdina dena, indar horiek erakusten dituzten fenomeno jarraikorrak jakinena (higidura gisa)"²⁴¹.

Aipamen honetan modu interesgarrian iadanik indar higitzaileekin harremanean agertzen den higidura edo aldaketaren empirikotasuna sarri agertuko da gero ere²⁴². Bestalde, espazioa eta denborak higidurarekin duten harremana indartzen da, higidura bera baita bai denboraren²⁴³, bai espazioaren²⁴⁴ oinarria. Hura da garrantzitsuena, hauek haren baldintzak lirakeke. Higidura a priorizkoa, baina **eratorritako** predikagarria dela

²³⁸B50/A33; B156.

²³⁹A102an lerroa marrazteko gaitasuna espazioa eta denboraren oinarrian jartzen du. Lotura hori 90eko hamarkadako erreflexioan: "Im Raumes Vorstellung ist zwar nichts von Zeit gedacht, aber in der Konstruktion des Begriffs von einem gewissen Raum, e.g. einer Linie", Refl. 53, AA XIV 54.

²⁴⁰B137-8; Bestalde: "Also ist die Zahl nichts anders, als die Einheit der Synthesis des Mannigfaltigen einer gleichartigen Anschauung überhaupt, dadurch, daß ich die Zeit selbst in der Apprehension der Anschauung erzeuge", B182/A142-3 esaten duenean garbi dago nia eta denboraren arteko harremanak ez direla bere unean zorrozki zehaztuak izan.

²⁴¹"Wie nun überhaupt etwas verändert werden könne; wie es möglich sei, daß auf einen Zustand in einem Zeitpunkte ein entgegengesetzter im andern folgen könne: davon haben wir a priori nicht den mindesten Begriff. Hierzu wird die Kenntnis wirklicher Kräfte erfordert, welche nur empirisch gegeben werden kann, z. B. der bewegenden Kräfte, oder, welches einerlei ist, gewisser sukzessiven Erscheinungen (als Bewegung), welche solche Kräfte anzeigen", B252/A206-7. Baita ere: "Daß schließlich die transzendente Ästhetik nicht mehr, als diese zwei Elemente, nämlich Raum und Zeit, enthalten könne, ist daraus klar, weil alle andre zur Sinnlichkeit gehörige Begriffe, selbst der der Bewegung, welcher beide Stücke vereinigt, etwas empirisches voraussetzen. (...) Eben so kann die transzendente Ästhetik nicht den Begriff der Veränderung unter ihre Data a priori zählen: denn die Zeit selbst verändert sich nicht, sondern etwas, das in der Zeit ist. Also wird dazu die Wahrnehmung von irgend einem Dasein, und der Sukzession seiner Bestimmungen, mithin Erfahrung erfordert", B58/A41. Hemen higidura estetikari oso lotua agertzen da, aldi berean gainera espazioa eta denbora elkartzuz! Erreflexioetan honen berri gehiago topatzen dugu. Batetik, ideia hori onartzen duela dirudi: "Das, was a priori in der Anschauung kann vorgestellt werden, also Raum und Zeit und Veränderung in der Zeit", Refl. 4756, AA XVII 701. Bestetik, ordea, gaia zuzenki eztabaidatu eta ondorio interesgarria lortzen du. Higidura zentzumenaren barne ez badago, adimenezko oinarria duelako da: "Ich habe anfangs gezweifelt, ob die Bewegung mit zur transzendentalen Aesthetic gehöre. Jetzt sehe ich ein, daß, da sie etwas im raume, was bewegt wird, mithin die Veränderung von Etwas in Ansehung der Verhältnisse enthält, sie nicht die bloße Sinnlichkeit, sondern einen intellectuellen Begriff enthalte", Refl. 4652, AA XVII 625.

²⁴²B107/A81; B3; "Die Möglichkeit der Veränderung läßt sich nicht a priori erkennen", Refl. 5802, AA XVIII 358; "Die Veränderung ist durch die Erfahrung gegeben und ein problem vor die Vernunft", Refl. 4485, AA XVII 569.

²⁴³"Die Sinnenwelt, als das Ganze aller Erscheinungen, enthält zugleich eine Reihe von Veränderungen. Denn, ohne diese, würde selbst die Vorstellung der Zeitreihe, als einer Bedingung der Möglichkeit der Sinnenwelt, uns nicht gegeben sein", B480/A452. Eta oharrean: "Die Zeit geht zwar als formale Bedingung der Möglichkeit der Veränderungen vor dieser objektiv vorher, allein subjektiv, und in der Wirklichkeit des Bewußtseins, ist diese Vorstellung doch nur, so wie jede andere, durch Veranlassung der Wahrnehmungen gegeben".

²⁴⁴"Die Bewegung ist die einzige Condition wodurch etwas ein Gegenstand des äußeren Sinnes werden kann", Berliner Physik, AA XXIX-1, 75.

diotenek²⁴⁵, ez dute aintzat hartzen higiduraren jatorrizkotasun hau. Ondorioz, ez da inoiz argitzen eratorrita hori nondik edo nola gertatzen den.

c. Begiespena eta adimena

Argitu beharreko beste puntu bat begiespena eta adimenaren arteko harremanak dira. Bereziki Kritikaren lehen argitalpenean Kantek gaitasun bakoitzaren analisi isolatua egiten du, ezagutzaren objektibotasunerako duen balioa zehazteko. Hala ere, ezagutzan ezinbestean batera jokatu behar dutenez, joku hori esplikatzeko zailtasunak ditu ondoren. Kanten Filosofiaren bilakaera osoa 1770ean ezarrirako begiespen/adimen bereizketa zorrotza gainditzeko ahalegin modura uler daiteke, eta ezin daiteke ulertu hau kontuan izan gabe ²⁴⁶. Deleuzen antzera Kant gaitasun isolatu ezberdinetan oinarrituz esplikatu nahi izatea, hasieratik bide okerra hartzea da.

Zentzumenaren jatorria gogamenean dagoela dio Kantek, "**gure zentzumenaren jatorriaren sekretua gogamenean datza**"²⁴⁷, espero zitekeen modura, baina gogamen horren sekretua ezkutatua gelditzen da, eta ez da argitzen harmena eta berezkotasunaren arteko erlazioa benetan nola gauzatzen den. Alderantziz, sekretuak nagusitzen dira. Irudimena gogamenaren funtzio itxua da, ezagutza oren oinarria, baina beraz apenas gara jabe²⁴⁸; eskematismoa giza arimaren sakonean ezkutatutako arte ezezaguna da²⁴⁹; begiespenak eta adimenak erro amankomun ezezagun bat lukete²⁵⁰. Puntu hauek denak gaia nahiko heldua ez zegoela adierazten duten aztarnak besterik ezin dira izan.

Kritikaren lehen argitalpenean begiespena eta apertzepzioaren loturaz hitz egiterakoan, irudimenak leku berezia lortzen du, nahiz eta Kantek irudimena iadanik '**funtzio**' deitzen duen eta beti ere adimenaren beharra ere

²⁴⁵"Der Begriff der Bewegung ist ein abgeleiteter Begriff a priori, dessen objektive Realität aber nur empirisch gezeigt werden kann", Plaas 1965, 96; "Die Bewegung als eine Größe ist Geschwindigkeit als die aus den Anschauungsformen Raum und Zeit vereinigte, apriorische Form, die als abgeleitete Anschauungsform zu verstehen ist", Kim 1989, 122.

²⁴⁶"Si Kant no pudo concluir el proyecto emancipador en toda su extensión fue debido a que, siguiendo su tarea analítica, tuvo que ir estudiando y presentando la fisionomía de capacidades separadas y aisladas, sin mostrar posteriormente la consonancia del conjunto. La gran mentira reside en recibir su mensaje sólo desde la Crítica de la razón pura, aislada, sin captar el espíritu total de su pensamiento", Villacañas 1988, 158. Kant berak: "In der transzendentalen Ästhetik also werden wir zuerst die Sinnlichkeit i s o l i e r e n ", B36/A22; "In einer transzendentalen Logik isolieren wir den Verstand (so wie oben in der transzendentalen Ästhetik die Sinnlichkeit)", B87/A62. Baina era berean horren eznahikotasuna azpimarratuz: "... und die R e z e p t i v i t ä t kann nur mit S p o n t a n e i t ä t verbunden Erkenntnisse möglich machen", A97.

²⁴⁷"Denn in demselben [Gemüt] liegt das Geheimnis des Ursprungs unserer Sinnlichkeit", B334.

²⁴⁸"Diese Synthesis überhaupt ist, wie wir künftig sehen werden, die bloße Wirkung der Einbildungskraft, einer blinden, obgleich unentbehrlichen Funktion der Seele, ohne die wir überall gar keine Erkenntnis haben würden, der wir uns aber selten nur einmal bewußt sind", B103/A78.

²⁴⁹"Eine verborgene Kunst in den Tiefen der menschlichen Seele", B181/A141.

²⁵⁰B29/A15; B677/A649 (gaitasun absolutuaz hitz egiten du baina hipotetikoa soilik dela gaineratuz); B710/A682; B863/A835. Baina era berean A94ean oinarritzko gaitasun horren ezintasuna azpimarratzen du.

azpimarratzen duen hasieratik²⁵¹. Kategoriek errepresentazio ezberdinak begiespen batean bateratuko lituzkete, eta, beraz, juzgatzeak zentzumenarekin lotura estua duela garbi dago²⁵². Beste arazoa, aurretik berak ere jaso duen terminologia da, begiespena, irudimena (erreproduktiboa eta produktiboa), adimena, apertzepzioa, arrazoimena; bakoitzak bere izaera independentea izango lukeela dirudi. Gero gauzak asko erraztuko direla ikusiko dugu, baina lehen argitalpenean ondorengo errazte horren aztarnak ere badaude. Adibidez, adimena eta apertzepzioa funtsean gauza bera direla garbi geratzen da²⁵³. Bestalde, Kantek bide hau sistematikoki jorratuko ez badu ere, zentzumena eta adimena harmena eta berezkotasunaren arabera definituta geratzen dira²⁵⁴.

Bestalde, dedukzioan eta eskematismoan ez da oro har isolamenduaren arazoa gaintzen, hau da, zentzumena eta adimena hor daude, bakoitza bere aldetik agertu dela, batak objektuekiko funtzio deiktikoa izanik, besteak objektuak pentsatzen dituelarik, eta orduan ezagutza errealean biak elkarrekin nola konpontzen diren jakitea geratzen da. Kritikan arazoa zera da, nolabait bi poloak hor ditugunean galdetzen dela bien arteko harremanaz, eta horrek mila arazo eragiten ditu, beraien jatorrizko harremanaz ez delako hasieratik galdetzen²⁵⁵.

Honek sistemaren arazoarekin ere lotura zuzena du. "**Sistemaz ezagutza anitzen ideia baten menpeko batasuna ulertzen dut**"²⁵⁶. Ideia bat zer den definitzen duenean, zentzuetan objektu gisa eman ezin daitekeen arrazoimenaren kontzeptua dela esaten du²⁵⁷. Ideia hau zer ote den hemen ez du argitzen, baina subjektu transzendental berak izan behar duela nabaritzen da, bera baita baldintzagabeko zera bakarra²⁵⁸. Subjektuak izan behar du sistemaren jatorria, eta aldi berean zentzumena eta adimenaren lotura ezarri behar duena²⁵⁹. Funtsezkotasan hori irudimenean bilatzeak tradizio luzea du, Maimon, Fichte eta Hegel gaztearengan besteak beste²⁶⁰. Mende honetan Heidegger-ek berri du tradizio hau. Heidegger-ek irudimena jatorrizko denbora

²⁵¹A124; B194/A155.

²⁵²"Diese Funktion, welche den verschiedenen Vorstellung ein e i n e m U r t e i l e Einheit gibt, die gibt auch der bloßen Synthesis verschiedene Vorstellungen in e i n e r A n s c h a u u n g Einheit, welche, allgemein ausgedrückt, der reine Verstandesbegriff heißt", B104-5/A79.

²⁵³A119; gero B134ko ohin oharrean zehazkiago ere bai.

²⁵⁴"Wollen wir die R e z e p t i v i t ä t unseres Gemüts, Vorstellungen zu empfangen, so fern es auf irgend eine Weise affiziert wird, S i n n l i c h k e i t nennen: so ist dagegen das Vermögen, Vorstellungen selbst hervorzubringen, oder die S p o n t a n e i t ä t des Erkenntnisses, der V e r s t a n d ", B75/A51; Arazoa da, ea hau nola gertatzen oten den.

²⁵⁵Subjektua aldi berean bere Objektua delako aipamenek ez dute analisi sakonik jasotzen: "Es bringt also nur das Selbstbewußtsein es so mit sich, daß, weil das Subjekt, welches denkt, zugleich sein eigenes Objekt ist, es sich selber nicht teilen kann (...); denn in Ansehung seiner selbst ist jeder Gegenstand absolute Einheit", B471/A443. Gainera: "Sie [die Zeit] ist also wirklich nicht als Objekt, sondern als die Vorstellungsart meiner selbst als Objekts anzusehen", B54/A37.

²⁵⁶"Ich verstehe aber unter einem System die Einheit der mannigfaltigen Erkenntnisse unter einer Idee", B860/A832.

²⁵⁷B383/A327.

²⁵⁸"Daher ist das Selbstbewußtsein überhaupt die Vorstellung desjenigen, was die Bedingung aller Einheit, und doch selbst unbedingt ist", A401. Lekzioetan ere arimaren oinarritzko indar bakarraz hitz egiten du: "Weil doch die Seele eine Einheit ist, welches hernach dargethan wird, und welches schon das Ich beweiset; so ist offenbar: daß nur eine Grundkraft in der Seele ist, woraus alle Veränderungen und Bestimmungen entspringen", AA XXVIII-1, 261-2. Baina hortik gaitasun ezberdinak eratortzea ("herleiten") debekatzen du.

²⁵⁹"Desde estos supuestos se tiene que entender que esa Idea *presupuesta* en el sistema de los conceptos puros del entendimiento y que *postula* su unidad sistemática, aunque no decida cuáles deban ser en concreto esos conceptos, sólo puede ser la Idea de mente o sujeto pensante. Y tiene que serlo como la 'facultad radical' que origina la espontaneidad del entendimiento, a la vez que posibilita la receptividad de la sensibilidad", Montero 1989, 313-314.

²⁶⁰Hegel 1958 I 299; 301.

bihurtzen du eta horrela nia berarekin berdintzen du, funtsezko instantzia berri gisa. Ikerketa honek argitu beharko du hori ez dela Kanten bidea, eta gainera, honek ez zuela ezezagunaren amildegia ikusita atzera egin, Heidegger-ek uste duen moduan, baizik kontzienteki zentzuzko garapena burutu zuela. Kanten bidea lehen argitalpeneko egitura psikologikoen gaindipenarena izango da, eta bide honetan denboraren garrantzia berdin mantenduko da²⁶¹.

d. Dinamikaren eraiketa

Kritikako analitikan fenomenoaren higiduraren ezagutza ahalbidetzeko hastapenak jartzen dira estetikako emaitzak sakonduz. Eta Kantek norabide honetan aurrera egingo ez badu ere, hemen, funtsean, subjektibitateak denborarekin duen harremanaren arazoa dago, analogiei buruz esaten duenaren arabera:

"Gure analogiek, beraz, benetan naturaren batasuna aurkezten dute esponente jakin batzupeko fenomeno ororen loturan, zeintzuk denborak (...) apertzepzioaren batasunarekin duen harremana adierazten duten, erregelen araberrako sintesian gertatzen dena"²⁶².

- Kantitatearen printzipioei begiespenaren axiomak deritzate eta hauengan handiera hedakorra aztertzen da. Begiespenak homogenotasuna behar du objektuen aniztasuna biltzeko. Horrela, objektuen hautemapenean homogenoaren sintesia gertatzen da, eta hauxe da handiera ororen zatigarritasunaren eta hedadura jarraieren funtsa.

- Kualitatearen printzipioak hautemapenaren aitzinapenak dira eta handiera intentsiboa aztertzen dute. Honen arabera sentsazioak gradu bat du, zeina handi ala txiki daitekeen, beti ere modu jarraian. **"Errealitate fenomenikoa eta ezeztapenaren artean, beraz, bitarteko sentsazio gertagarri anitzen elkarlotura jarraikorra dago, hauen arteko tartea beti emandako sentsazioa eta hutsa edo ezeztapen osoaren artekoa baino txikiagoa izanik"**²⁶³. Hau oraindik garbiago adierazten du Kantek kualitatearen kategorien eskematizazioaz hitz egiten duenean:

²⁶¹Horrela, har dezagun adibide bat. Sherover-ek zera dio: "Heidegger begins at the point at which Kant had left the problem", Sherover 1971, 6. Baina ondoren: "The self is not a thing but an activity; it is not in time precisely because it projects time; it is the source of temporality in its experiential field", idem, 209. Ikusiko dugu horixe izango dela Kanten azken jarrera! Heidegger-en aurka zorrozki aritu direnak ere izan dira: "Hier spricht Heidegger nicht mehr als Kommentator sondern Usurpator, der gleichsam mit Waffengewalt in das Kantische System eindringt", Cassirer 1931, 17.

²⁶²"Unsere Analogien stellen also eigentlich die Natureinheit im Zusammenhange aller Erscheinungen unter gewissen Exponenten dar, welche nichts anders ausdrücken, als das Verhältnis der Zeit (...) zur Einheit der Apperzeption, die nur in der Synthesis nach Regeln stattfinden kann", B263/A216.

²⁶³"Daher ist zwischen Realität in der Erscheinung und Negation ein kontinuierlicher Zusammenhang vieler möglichen Zwischenempfindungen, deren Unterschied von einander immer kleiner ist, als der Unterschied zwischen der gegebenen und dem Zero, oder der gänzlichen Negation", B210/A168.

"Errealitatearen eskema, zerbaiten kantitate gisa, denbora betetzen duen neurrian, beraren denborazko sorkuntza jarraia eta uniformeak besterik ez da, zeren, edo gradu bat duen sentsaziotik denborazko bere desagerketara jeisten da, edo bere ezeztapenetik pixkanaka handiera batera igotzen da"²⁶⁴.

Printzipio matematikoez duten emaitza orokorra hau da: **"agerpen oro quantum jarraia da"**²⁶⁵; eta zehazkiago: **"agerpen oro, beraz, handiera jarraia da, bai bere begiespenari dagokionez handiera hedakor gisa, baita bere hautemapenari dagokionez ere handiera intentsibo gisa"**²⁶⁶. Aurreratu dugun modura, bi lehenengo printzipio hauek matematikoa dira, objektuen eraiketa bertan hauen erabilpen matematikoa bermatzen dutelako. Intentsitatean, jarraipena infinitutasunaren ulermen fruitukor batekin lotzen da alde batetik, eta espazioaren eta denboraren beteketarekin bestetik, sentsazio batekin dagoen harremana dela-eta²⁶⁷. Hau guztiak zenbaki errealean eta kalkuluaren oinarriak jarriko ditu.

"Sistema kritikoaren funtsezko intuizioetako bat: kalkulu infinitesimala eta intentsitatearen ideiarene arteko lotura, hau da, hedadura birsortzeko gaitasuna intentsitateen gehiketa integralaren bitartez"²⁶⁸.

Oharra: kantitatea eta kualitatearen arteko bitartekaritza

Hegelengan kontzeptuen higidura nabarmena den bezala, Kantengan estatikotasuna nagusitzen dela aipatzen ohi da. Hala ere, hau horrela ez dela ikusiko dugu. Hasteko, Kantek kategoria talde bakoitzean bi lehenek hirugarrengora daramatela onartzen du²⁶⁹. Hau ez da sorkuntza genetikoa, kategoria bakoitzak bere izaera mantentzen baitu, baina esperientzia ahalbidetzeko higidura batez hitz egin daiteke. Eta berdina esan

²⁶⁴"Das Schema einer Realität, als der Quantität von etwas, so fern es die Zeit erfüllt, ist eben diese kontinuierliche und gleichförmige Erzeugung derselben in der Zeit, indem man von der Empfindung, die einen gewissen Grad hat, in der Zeit bis zum Verschwinden derselben hinabgeht, oder von der Negation zu der Größe derselben allmählich aufsteigt", B183/A143.

²⁶⁵"Jede Erscheinung ist also ein quantum continuum", AA XXVIII-1, 204.

²⁶⁶"Alle Erscheinungen überhaupt sind demnach kontinuierliche Größen, sowohl ihrer Anschauung nach, als extensive, oder der bloßen Wahrnehmung (...) nach, als intensive Größen", B212/A170.

Jarraitasuna honela definitzen da: x_0 eta $\epsilon > 0$ bakoitzarekiko $\delta > 0$ bat badago, $|F(x) - F(x_0)| < \epsilon$ da, $|x - x_0| < \delta$ denean.

²⁶⁷"Die unendliche Teilung bezeichnet nur die Erscheinung als quantum continuum und ist von der Erfüllung des Raumes unzertrennlich; weil eben in derselben den Grund der unendlichen Teilbarkeit liegt", B555/A527.

²⁶⁸"...l'une des intuitions essentielles du système critique: la liaison du calcul infinitésimal et de la notion d'intensité, c'est-à-dire la capacité de reconstruire de l'extension par une sommation intégrale d'intensités", Vuillemin 1987, 254. Antzera: "Le principe des grandeurs intensives n'est rien d'autre que l'introduction du calcul infinitésimal dans l'édifice critique", idem, 144.

²⁶⁹"Daß allerwärts eine gleiche Zahl der Kategorien jeder Klasse, nämlich drei sind, welches eben sowohl zum Nachdenken auffodert, da sonst alle Einteilung a priori durch Begriffe Dichotomie sein muß. Dazu kommt aber noch, daß die dritte Kategorie allenthalben aus der Verbindung der zweiten mit der ersten ihrer Klasse entspringt", B110.

daiteke kategorien talde beraien arteko harremanari buruz²⁷⁰. Geroago, Kritik der Urteilskraft-eko sarreraren bukaeran bere Filosofian hirunakako sailkapenak duen funtzio berezia argitzean, baldintzatua eta baldintzaren arteko lotura hori sintetikotasun berak eskatzen duela esaten du²⁷¹.

Baina hori ez da kategorien talde bakoitzaren barnean soilik gertatzen, taldeen artean ere bai: ez dago kantitate eta kualitate hutsik, bien arteko lotura baizik, eta horrela, kantitatea eta kualitateak eratzten duten osotasun matematikotik, hau da, mundutik, erlazioaren osotasun dinamikora, hau da, naturara igaro daiteke. **"Quantum bakoitzak kualitatea du (jarraia) eta quale bakoitzak kantitatea (gradua)"**²⁷². Agerpenen materia emana zaigu, baina aurretik badakigu hori hedakorki jarraia eta intentsiboki graduatua izango dela.

"Bitxia da handierez oro har k u a l i t a t e bakarra ezagutzea a priori, hau da, jarraitasuna, kualitate oroz a priori k a n t i t a t e intentsiboa bakarrik ezagut dezakegunean, alegia, gradu bat dutela. Beste guztia esperientziarentzat geratzen da"²⁷³.

Magnitudeak eta bere eskema den zenbakiak iadanik oinarrian kualitatea dute espazioa eta denboraren jarraitasun gisa²⁷⁴. Bestalde, kualitatearen jarraitasunak bere gradazioa, hau da, bere neurketa ahalbidetzen du: **"Quantitas qualitatis est gradus"**²⁷⁵. Kolore urdinaren tonu ezberdinak koloreen espektru jarraiko puntuak

²⁷⁰"La table des catégories, ordonnée d'après la table des jugements, est à la fois une logique des sciences et une histoire des sciences. Les trois premières catégories -l'unité, la pluralité, la totalité- sont les catégories qui correspondent aux principes de la phronomie, qui est la science cartésienne. Ce sont les catégories de la quantité. Viennent en second lieu les catégories de la qualité -qui sont la réalité, la négation et la limitation- et que correspondent aux principes de la dynamique, c'est-à-dire à la science leibnizienne. Viennent ensuite les catégories de la relation -la substance, la cause et la communauté d'action réciproque- qui fondent les principes de la mécanique, c'est-à-dire de la science newtonienne. Ces catégories, ou formes de la pensée (comme l'espace et le temps sont les formes de l'intuition) constituent un ordre qui les lie en une totalité close. (...) C'est ainsi que la totalité est la synthèse de l'unité et de la pluralité, la limitation celle de la réalité et de la négation, la communauté d'action réciproque celle de la substance et de la cause. Mais les classes doivent alors se synthétiser aussi comme les catégories de la relation par exemple, si bien que la physique newtonienne apparaît comme la synthèse de la phronomie cartésienne et de la dynamique leibnizienne. Or une science est nécessaire pour déterminer la valeur des connaissances qui correspondent à ces catégories et à les sciences: c'est la philosophie transcendente", Philonko 1975, 113-115.

²⁷¹"Man hat es bedenklich gefunden, daß meine Eintheilung in der reinen Philosophie fast immer dreitheilig ausfallen. Das liegt aber in der Natur der Sache. Soll eine Eintheilung a priori geschehen, so wird sie entweder a n a l y t i s c h sein nach dem Satze des Widerspruch; und da ist sie jederzeit zweitheilig (quodlibet ens est aut A aut non A). Oder sie ist s y n t h e t i s c h; und wenn sie in diesem Falle aus B e g r i f f e n a priori (nicht wie in der Mathematik aus der a priori dem Begriffe correspondierenden Anschauung) soll geführt werden, so muß nach demjenigen, was zu der synthetischen Einheit überhaupt erforderlich ist, nämlich 1) Bedingung, 2) ein Bedingtes, 3) der Begriff, der aus der Vereinigung des Bedingten mit seiner Bedingung entspringt, die Eintheilung nothwendig Trichotomie sein", KU, AA V 1970h.

²⁷²"Ein jedes quantum hat eine qualitaet (continuum) und jedes quale ein quantitaet (Grad)", Refl. 5848, AA XVIII, 368.

²⁷³"Es ist merkwürdig, daß wir an Größen überhaupt a priori nur eine einzige Q u a l i t ä t, nämlich die Kontinuität, an aller Qualität aber (dem Realen der Erscheinung) nicht weiter a priori, als die intensive Q u a n t i t ä t derselben, nämlich daß sie einen Grad haben, erkennen können, alles übrige bleibt der Erfahrung überlassen", B218/A176.

²⁷⁴"So ist jede Erscheinung als Anschauung eine extensive Größe, indem sie nur durch sukzessive Synthesis (von Teil zu Teil) in der Apprehension erkannt werden kann", B204/A163; "Den Begriff der Größe überhaupt kann niemand erklären, als etwa so: daß sie die Bestimmung des Dinges sei, dadurch, wie vielmal Eines in ihm gesetzt ist, gedacht werden kann. Allein dieses Wievielmahl gründet sich auf die sukzessive Wiederholung, mithin auf die Zeit und die Synthesis (des Gleichartigen) in derselben", B300/A242.

²⁷⁵"Quantitas qualitatis est gradus", Prol., AA IV 309oh.

dira, eta ezin da koloreen determinazio matematikorik lortu jarraitasun hori gabe. Honek ahalbidez du, puntu bakoitza gradu batez determinaturik dagoen neurrian, koloreen espektruan batetik bestera igaro ahal izatea²⁷⁶.

Honekin, analisi matematikoaren oinarri teorikoak jarrita ditugu²⁷⁷. Jarraitasun intentsiboan kantitatea eta kualitatearen elkarketak determinazioa lortzen du²⁷⁸: errealtatea eta ukapenak, mugapena ezartzen dute, hau da, determinazioa dute emaitzat. Baina hor jarraitasun gisa ulertutako infinitutasun soila gainditzen da. Kantek espazio eta denbora zati bakoitza era berean espazio eta denbora direla, eta bertan bakuna den ezer ezin dela lortu esaten duenean, azpian infinitutasun fruitukor baten definizio teknikoak ematen ari da, ez hedapen huts gisa ulertzen dena, zenbaki errealean zentzuan baizik²⁷⁹, hau da, bere azpitalde batekin berdina den handiera²⁸⁰. Honekin, espazioa eta denborak benetako determinazioa lortzen dute²⁸¹, eta gainera, Kantek honekin Baumgartenen esana egikaritzen du: "**Infinitua errealtate bat da**"²⁸². Horrek sentsazioaren, eta beraz, afekzioarekin duen lotura ikusita, jarraitasun-infinitu hau ezagutzaren ezinbesteko oinarria dela garbi geratzen da²⁸³. Uste denaren aurka Kantek ondo zekien, gai hauen inguruan ere bai, zertan ari zen²⁸⁴.

²⁷⁶"Kontinuität der intensiven Größen ist Voraussetzung dafür, daß alle (skalaren) physikalischen Größen mittels stetiger Funktionen darstellbar sind", Stegmüller 1970, 44.

²⁷⁷"Hierbei wird herausgearbeitet, daß das Konzept der kontinuierlichen Größen, das in der 'Analytik der Grundsätze' der Kr.d.r.V. vorgetragen wird, die Mathematisierbarkeit intensiver Größen durch stetige Funktionen ermöglicht", Büchel 1987, 23.

²⁷⁸"In der kontinuierlichen Einheit sind Quantität und Qualität verbunden, begrifflich durchdrungen. Die qualitative Einheit ist die Realität. Man kann daher auch sagen: die Kontinuität ist diejenige Qualität, welche die Quantität der Zahleinheit zum Unendlichkleinen der Realität vertieft", Cohen 1968, 87.

²⁷⁹"Nun stellen wir uns eine Linie als durch fluxion, mithin in der Zeit erzeugt vor, in der wir nichts Einfaches vorstellen, und können 1/10, 1/100 etc. etc. von der gegebenen Einheit denken", Refl. 13, AA XIV 53.

²⁸⁰"Nun kann man eine Größe in Vergleichung mit der jeder anzugebende gleichartige nur einem Teile derselben gleich ist, nicht anders als u n e n d l i c h benennen", Rec. Eberhard, AA XX 419; edo baita ere: "Eine Größe, in der jede Einheit selbst eine Größe ist, ist kontinuierlich", Refl. 4697, AA XVII 678; "Denn jeder Teil der Zeit ist selbst eine Zeit, und jeder Teil des Raumes ist selbst ein Raum", AA XXVIII-1, 204. Alderatu honekin: "Un conjunto es infinito en el caso (y sólo en el caso) que exista un procedimiento que permite revelar su equipotencia respecto a algún subconjunto estrictamente comprendido en él", Gómez Pin 1990, 74.

²⁸¹Ez da ahaztu behar aitzinapenetan espazio eta denbora betez hitz egiten dela: "Die Realität im Raum, d. i. die M a t e r i e ", B440/A413.

²⁸²"Die Unendlichkeit ist eine Realität", Baumgarten, A. G. (1779): *Metaphysica*, Halle, 79.

²⁸³"Erfahrung ist selber nichts anderes, als eine kontinuierliche Zusammenfügung (Synthesis) der Wahrnehmungen", Prol., AA IV 275.

²⁸⁴Analisiak esplizituki asko esaten ez badu ere, bere oinarriak jartzen ari dela nabarmena da. Alde batetik, Schulz bere lagun matematikariarekin harreman estua zuen. Bestetik, 1782an Göttingengo Unibertsitateak eta 1784ean Berlingo Akademiak analisiaren oinarriehi lehiaketak antolatu zituzten. Bigarrena Lagrangek irabazi zuen, une hartan Akademiako lehendakaria zenak, eta Kantek *Igarobidean* Lagrange aipatzen du. Bere interes hori garai aurrekritikoan nabarmentzen da, era leibniziarrean, infinitu txiki batekiko arrazoi onak ikusten dituenean: "Der Begriff des unendlich Kleinen, darauf die Mathematik so öfters hinaus kommt, wird mit einer angemessenen Dreistigkeit so gerade zu als erdichtet verworfen, anstatt daß man eher vermuthen sollte, daß man noch nicht genug davon verstände, um ein Urtheil darüber zu fällen. Die Natur selbst scheint gleichwohl nicht undeutliche Beweisthümer an die Hand zu geben, daß dieser Begriff sehr wahr sei. Denn wenn es Kräfte giebt, welche eine Zeit hindurch kontinuierlich wirken, um Bewegungen hervorzubringen, wie allem Ansehen nach die Schwere ist, so muß die Kraft, die sie im Anfangsaugblicke oder im Ruhe ausübt, gegen die, welche sie in einer Zeit mittheilt, unendlich klein sein. Es ist schwer, ich gestehe es, in die Natur dieser Begriffe hineinzudringen; aber diese Schwierigkeit kann allenfalls nur die Behutsamkeit unsicherer Vermuthungen, aber nicht entscheidende Ausprüche der Unmöglichkeit rechtfertigen", Neg., AA II 168-9.

Zientziaren Logikan Hegelek gaia zuzenki aztertzen du, baina funtsean ez du ezer berririk gehitzen. Anlisi matematikoan sortzen diren arazo guztiak 'dy/dx' espresioa kuantitatiboki soilik ulertzetik datoz. Benetan, ordea, 'dy/dx' deribadaren espresioan bi zatiek ez dute zentzu kuantitatiborik bananduta, nahiz eta bien harreman kualitatiboak emaitza kuantitatiboa izan: kantitatea eta kualitatearen elkarreraginean oinarritutako harreman baten garapena adierazten du. Matematikan estandarra bihurtu den mugen bidezko esplikazioa ez da benetako esplikazioa, oinarritu beharreko jarraitasuna aurretik hartzen duelako auresuposiziotzat.

Aitzitik, Kantegan errealitatea eta infinituaren arteko harremana ez da zatia eta osoaren arabera ulertzen modu estatiko soilean, zerora hurbiltzen den fluxioaren araberako modu dinamikoan baizik²⁸⁵. Horrela, iadanik jarraitasun kuantitatibo-kualitatiboak dinamikara bideratzen gaitu.

"Zati txikienik (bakunik) ez egotearen handieraren ezaugarriari jarraitasuna deritzazio. Espazioa eta denbora quanta jarraiak dira, bere zatirik ezin daitekeelako eman muga batzuen barnean kokatu gabe (puntuak eta aldiuneak) eta, ondorioz, era berean espazio edo denbora bat osatzen ez duena. Puntuak eta aldiuneak mugak besterik ez dira, espazioa eta denbora mugatzen duten kokaguneak. Baina kokaguneez mugatu edo determinatu beharreko begiespenak auresuposatzen dituzte beti: espazio edo denborarik ezingo genuke osatu aurretik eman ahal litezkeen kokagune edo osagaietatik abiatuz gero. Halako handierak j a r i a k o r r a k dei ditzakegu, sintesia (irudimen produktiboarena) beren sorketan denborazko gertaera baita, zeinaren jarraitasuna bereziki jariatzearen espresioarekin izenda daitekeen"²⁸⁶.

- Orain, garbi aipa daiteke aurreko guztia erlazioaren kategoria dinamikoetara igarotzeko ezinbestekoa dela, eta era berean aurrekoak derrigorrez bertara daramala.

"Agerpen oro hedakorki zein intentsiboki hartuta handiera jarraiak bada, 'aldaketa oro jarraia da' proposizioa erraz frogatu ahal izango litzateke eta nabaritasun matematikoaz"²⁸⁷.

²⁸⁵"Das Differential liegt nämlich außerhalb der statischen Sphäre der logischen Korrelation von Teil und Ganze. (...) Es befindet sich im Prozeß des gleichmäßigen Übergangs zur Null als anzunäherndem Grenzfall", Kim 1989, 38-39.

²⁸⁶"Die Eigenschaft der Größen, nach welcher an ihnen kein Teil der kleinstmögliche (kein Teil einfach) ist, heißt die Kontinuität derselben. Raum und Zeit sind quanta continua, weil kein Teil derselben gegeben werden kann, ohne ihn zwischen Grenzen (Punkten und Augenblicken) einzuschließen, mithin nur so, daß dieser Teil selbst wiederum ein Raum, oder eine Zeit ist. Der Raum besteht also nur aus Räumen, die Zeit aus Zeiten. Punkte und Augenblicke sind nur Grenzen, d. i. bloße Stellen ihrer Einschränkung; Stellen aber setzen jederzeit jene Anschauungen, die sie beschränken oder bestimmen sollen, voraus, und aus bloßen Stellen, als aus Bestandteilen, die noch vor dem Raume oder der Zeit gegeben werden könnten, kann weder Raum noch Zeit zusammengesetzt werden. Dergleichen Größen kann man auch f l i e ß e n d e nennen, weil die Synthesis (der produktiven Einbildungskraft) in ihrer Erzeugung ein Fortgang in der Zeit ist, deren Kontinuität man besonders durch den Ausdruck des Fließens (Verfließens) zu bezeichnen pflegt", B211-2/A169-170.

²⁸⁷"Wenn nun alle Erscheinungen, sowohl extensiv, als intensiv betrachtet, kontinuierliche Größen sind: so würde der Satz: daß auch alle Veränderung kontinuierlich sei, leicht und mit mathematischer Evidenz hier bewiesen werden können, wenn nicht die Kausalität einer Veränderung überhaupt ganz außerhalb den Grenzen der Transzendental-Philosophie läge, um empirische Prinzipien voraussetzte", B212-213/A171. Baina beste une batean onartzen du arazorik gabe: "Alle mutatio ist continua", AA XXVIII-1, 201.

Hala ere, Kantek jarraian zera dio: aldaketa baten kausalitatea enpirikoa dela eta Filosofia transzendentetik kanpo geratzen dela, eta, beraz, Natur Zientzia orokorra ezin dela a priori aitzinatu, sistemaren batasuna hautsi nahi ez bada behintzat. Nire asmoa zera izango da, sistemaren batasun beraren alde Kantek orain ikusten ez duen bidea egitea, berak ondoren emandako urratsei jarraiki.

Analogien asmo osoa higiduraren ulermenerako oinarriak jartzea da. Bertan, harremanean dauden indarrak dira kontzeptu nagusia, erlazioaren taldean baikaude.

"Ekintza, eta beraz, ekimena eta indarra dagoenean, hor dago substantzia ere, eta bertan soilik bilatu behar da fenomenoen iturri emankorraren egoitza"²⁸⁸.

Honek materiaren kontzeptua nola oinarritzen duen, Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-en argituko da zehazkiago. Baina iadanik arazo nabarmenak dauzkagu. Horrela, lehen analogiako substratu orokorretik bigarren eta hirugarren analogietako substantzia konkretuetarako igarobidea ez da inoiz oinarritzen²⁸⁹.

Hala ere, landu dezagun oraingoz alde baikorrena. Nabaria da espazioa eta denboraren harremana abiaduraren arazoari aplikatu ahal zaiola:

"Aldaketei buruz esandakoa, jarraiak direla, berdin esan daiteke abiaduraz: gorputzik ez da higitzen zuzenean abiadura uniformeaz, baizik hainbat abiadura gradutik igarotzen da, beti ere handiagoak direnak, eta beti abiadura determinatura hurreratzen doa"²⁹⁰.

Abiadura intentsitate bat da²⁹¹, espazioa eta denboraren jarraitasuna auresuposatzen baitu. Aristotelek ere iadanik dioenez, **"higidura unean ezinezkoa da"**²⁹². Oinarri honekin soilik hitz egin daiteke azelerazioaz, espazioaren denborarekiko bigarren deribada gisa. Baina espazioa eta denboraren elkarrekikotasuna egikaritzen

²⁸⁸"Wo Handlung, mithin Tätigkeit und Kraft ist, da ist auch Substanz, und in dieser allein muß der Sitz jener fruchtbaren Quelle der Erscheinungen gesucht werden"; baina lerro batzuk lehenago: "so überlasse ich die umständliche Erörterung derselben einem künftigen System der reinen Vernunft", B249-50/A204; baita ere: "Die Substanz im Raume kennen wir nur durch Kräfte, die in demselben wirksam sind, entweder andere dahin zu treiben (Anziehung), oder vom Eindringen in ihn abzuhalten (Zurückstößung und Undurchdringlichkeit); andere Eigenschaften kennen wir nicht, die den Begriff von der Substanz, die im Raum erscheint, und die wir Materie nennen, ausmachen", B321/A265; "Was wir auch nur an der Materie kennen sind lauter Verhältnisse", B341/A285.

²⁸⁹"We have already seen that serious problems are involved when Kant passes from the singular to the plural in his discussion of substance: the first Analogy seems to argue for the existence of a single continuing substance, and makes no provision for this to exist in separate bits", Walsh 1969, 177-8.

²⁹⁰"So wie dieses von den Veränderungen gesagt ist, daß sie kontinuierlich sind, so ist es auch mit der Geschwindigkeit. Kein Körper bewegt sich unmittelbar gleich geschwind, sondern er muß unendlich viele Grade der Geschwindigkeit durchgehen, die immer größer sind, und immer der bestimmten Geschwindigkeit näher kommen", AA XXVIII-1, 203.

²⁹¹"So muß der Begriff ihrer [Geschwindigkeit] Größe, da sie i n t e n s i v ist, auf andere Art konstruiert werden, als der e x t e n s i v e n Größe des Raumes", MA, IV 493-4.

²⁹²Fisika, 234a 31.

duen²⁹³ substratuaren iraunkortasuna gehituz gero soilik²⁹⁴ igaro daiteke indarrei eta hauen arteko elkarreraginei buruz hitz egitera. Horrela, indarra ere intentsitateari lotua agertzen da²⁹⁵, eta bertan denbora eta espazioaren hartuemanak emaitza dinamizatzailerik konkretua lortzen du²⁹⁶.

"Aldaketa oro, beraz, kausalitatearen ekintza jarraiaren bitartez soilik ahalbide daiteke, zeinari homoginoa den neurrian momentua deritzaion. Aldaketa ez da momentu huez osatzen, baizik beraiek sortzen dute aldaketa eragin gisa"²⁹⁷.

Urrats hori ulertzeko, Kantek momentuaren kontzeptu sortzailea onartzen du, eta horrela, hedapenetik intentsitaterako igarobidea espazioaren denborarekiko deribada gisa uler daiteke²⁹⁸. Honen bidez ematen da dinamikaranzko urratsa²⁹⁹.

Horrela, bada, Newtonen legeen oinarri sendo bat ematen da, Newton berak emandako atomista baina hobea. Gainera, oinarri hau ez da Newtonen mekanikara murrizten, Maxwellen elektrodinamikako ekuazio nagusiak denbora, espazioa eta argiaren abiadura harremanean jartzen dituzten ekuazio diferentziaz osatzen dira, eta Kanten substantziaren ulermen erabat dinamiko-jarraikorrak berdin erantzuten dio horri.

²⁹³"Folglich ist das Beharrliche, womit in Verhältnis alle Zeitverhältnisse der Erscheinungen allein bestimmt werden können, die Substanz in der Erscheinung, d. i. das Reale derselben, was als Substrat alles Wechsels immer dasselbe bleibt", B225.

²⁹⁴"Dieses Etwas (welches Raum und Zeit erfüllt)", B752/A724.

²⁹⁵"Der Begriff der Kraft ist nicht anderes als der Begriff einer intensiven Größen überhaupt, sofern dieser auf den Gegenstand der äußeren Sinnesanschauung angewendet wird", Stegmüller 1970, 128 oh.(56).

²⁹⁶"So fern die Gegenstände als zugleich-existierend verknüpft vorgestellt werden sollen, so müssen sie ihre Stelle in einer Zeit wechselseitig bestimmen, und dadurch ein Ganzes ausmachen", B261/A214.

²⁹⁷"Alle Veränderung ist also nur durch eine kontinuierliche Handlung der Kausalität möglich, welche, so fern sie gleichförmig ist, ein Momento heißt. Aus diesen Momenten besteht nicht die Veränderung, sondern wird dadurch erzeugt als ihre Wirkung", B254/A208-9.

²⁹⁸"Man muß daher das Moment der Geschwindigkeit nicht schon selbst als Geschwindigkeit betrachten, sondern blos als das Bestreben, einem Körper eine gewisse Geschwindigkeit mitzuteilen; nicht als extensive, sondern als intensive Größe, die aber den Grund der extensiven Größe enthält. Man darf aber nicht sagen, das Moment der Geschwindigkeit sey Null, weil sonst durch die Summirung derselben keine endliche Größe entstehen würde", Refl. 67, AA XIV 496.

²⁹⁹"Der Begriff des Moments, der eine intensive Größe als Ursache eines anderen Realen in der Erscheinung bestimmt, wobei dieses andere Reale nach dem Grundsatz der Antizipationen der Wahrnehmung wiederum eine intensive Größe hat, beschreibt für Realitäten eine Relation von intensiven Größen. Diese Relation ist genauer spezifiziert: Das als Moment bezeichnete Reale ist die Ursache eines anderen Realen. Implizit ist damit in der Erörterung der Antizipationen der Wahrnehmung, da in bezug auf die Kategoriengruppe der Qualität steht, für Gegenstände, die in einer empirischen Anschauung gegeben sind, der Fortgang zu den Analogien der Erfahrung angesprochen, die in bezug auf die Kategoriengruppe der Relation stehen", Büchel 1987, 222.

2. Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft-en eznahikotasuna

Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak (1786) lanak bete-betean ukitzen du gure arazoa eta, beraz, erabateko garrantzia du. Igarobidea-ren egitasmoan bere izenburu bera ere jasotzen da, eta egitate hau ulertzeko lan honen ekarpen interesgarriak eta, batez ere, hutsuneak aztertu behar dira.

a. Lanaren aurrekariak

Hasteko, 1762-4 artean Herder-ek entzun zituen klaseetan Kantek iadanik naturaren doktrinaren lehen oinarri metafisikoez ("**Metaphysische Anfangsgründe der Naturlehre**") hitz egin zuen bere sistemaren atal gisa³⁰⁰. Gainera, 1765-XII-31n Lamberti bidalitako eskutitzean ere "**metaphysische Anfangsgründe der natürlichen Weltweisheit**"-i buruz hitz egiten du, "**metaph. Anfangsgr: der praktischen Weltweisheit**"-i paraleloki³⁰¹. Honez gain, lana bere aurrean prest duela ("**deren Stoff von mir fertig liegt**"), eta metodoaren lan handiaren aurretik egin duela dio, hau arintzearen ("**damit die Hauptschrift nicht durch gar zu weitläufige und doch unzulängliche Beispiele alzu sehr gedehnet werde**").

Ulertzekoa da, azkenean, buruan zuen naturaren Filosofia hura bere Filosofia kritikoaren oinarriak jarri ondoren idaztea. Baina horrek prest zuen edukia zer neurritan aldatu zuen galde genezake. Honen inguruan bi gauza aipatu behar dira. Bata, lana Mekanikara murrizten dela. Kant interesatzen zuten Fisika berriaren beste arazoak³⁰² kanpoan geratu ziren erabat eta bizitzaren fenomenoak ere ukitu gabe geratu zen. Mekanikak ez bezala, Fisikako fenomeno berriek ez zuten oraindik sistematizazio matematikoa lortu, eta hau ezinbestekoa da zientzia batentzat³⁰³. Kantek une horretan Kimika edo Elektromagnetika ulertu ahal izateko oinarririk ez dauka oraindik, Kimikaren kasuan ondorioak nabarmenduko direlarik: bertan Matematika sartzea oso zaila ikusten duenez, ez du

³⁰⁰AA XXVIII-1, 157.

³⁰¹AA X 56.

³⁰²Hainbat lan aurrekritikoz gain, Bemerkungen 60ko hamarkadan, 70eko erdiko zenbait erreflexio eta Fisikako lezioen bitartez dakigu Kant intentsiboki interesatu zela, ez soilik mekanikako arazoetaz, baizik baita berriago ziren Kimika, elektrizitatea, magnetismoa eta hauekin lotutako arazoez ere, esplikaziorako gehienetan eterraren kontzeptura joz.

³⁰³"Ich behaupte aber, daß in jeder besonderen Naturlehre nur so viel e i g e n t l i c h e Wissenschaft angetroffen werden könne, als darin M a t h e m a t i k anzutreffen ist. (...) Also mag zwar eine reine Philosophie der Natur überhaupt, d. i. diejenige, die nur das, was den Begriff einer Natur im Allgemeinen ausmacht, untersucht, auch ohne Mathematik möglich sein, aber eine reine Naturlehre über b e s t i m m t e Naturdinge (Körperlehre und Seelenlehre) ist nur vermittelst der Mathematik möglich, und da in jeder Naturlehre nur so viel eigentliche Wissenschaft angetroffen wird, als sich darin Erkenntniß a priori befindet, so wird Naturlehre nur so viel eigentliche Wissenschaft enthalten, als Mathematik in ihr angewandt werden kann", MA, AA IV 470.

zientziaren statusa mereziko³⁰⁴. Nabarmena da Kantek bazuela arazo berri hauetako batzuen kontzientzia, baina bere lana idazteko unean ahaztu egiten ditu erabat eta ziurtasun osoz hitz egiten du:

"Gorputzen doktrina metafisiko hau, bera zabaltzen den neurrian, guztiz agortu dudala uste dut, baina honekin ez dut lorpen handirik egin"³⁰⁵.

Aipatu beharreko bigarren puntua, lana 1786an agertu zela da, zehazki Newtonen lan nagusiaren lehen mendeurrenean. Kantek Newtonekin duen lotura nabarmena izanik, eta lanaren edukia aurretik ere prest zuela jakinda, kasualitatean pentsatzea zaila egiten da. Liburuaren izenburua, Newtonenari erantzun gisa uler daiteke gainera (**metaphysische Anfangsgründe/principia mathematica**)³⁰⁶.

b. Lanaren egitura

Lanaren sarreran Kantek bere egitasmoa eta, noski, bere zatiak kategorien taulapean eraikitzeko asmoa aurkezten ditu³⁰⁷. Gida horrekin aurkituko dira oro har materiaren ezaugarriak. Baina egia esan, lanean zehar lotura hori ez du zehazki jorratzen. Hori bai, lehen une honetan higiduraren kontzeptuaren garrantzia azpimarratzen du:

"Kanpoko zentzuen objektua izan beharko lukeen zerbaiten oinarritzko determinazioak higidura izan behar du; zentzu hauek horregatik soilik afektatuak izan baitaitezke. Adimenak materiaren beste

³⁰⁴MA, AA IV 468; idem, 469 eta "So lange also noch für die chemischen Wirkungen der Materien auf einander kein Begriff ausgefunden wird, der sich construiren läßt, d. i. kein Gesetz der Annäherung oder Entfernung der Theile angeben läßt, nach welchem etwa in Proportion ihrer Dichtigkeiten u. d. g. ihre Bewegungen sammt ihren Folgen sich im Raume a priori anschaulich machen und darstellen lassen (eine Forderung, die schwerlich jemals erfüllt werden wird), so kann Chemie nichts mehr als systematische Kunst oder Experimentallehre, niemals aber eigentliche Wissenschaft werden, weil die Principien derselben bloß empirisch sind und keine Darstellung a priori in der Anschauung erlauben, folglich die Grundsätze chemischer Erscheinungen ihrer Möglichkeit nach nicht im mindesten begreiflich machen, weil sie der Anwendung der Mathematik unfähig sind", MA, AA IV 470-1. Hala ere, Kantek Kimikaren berritasunak interes handiz jarraitu zituen eta bere arazoez arreta berria irabaziko dute Igarobidean.

³⁰⁵"Auch glaube ich diese metaphysische Körperlehre so weit, als sie sich immer nur erstreckt, vollständig erschöpft, dadurch aber doch eben kein großes Werk zu Stande gebracht zu haben", MA, AA IV 473.

³⁰⁶"Kants terminus technicus '**Anfangsgründe**' steht für principia. (...) Während Newton von den 'mathematischen Prinzipien' redet, wendet sich also Kant den 'metaphysischen Anfangsgründen' selbst zu", Tharakan 1993, 29. Hala ere, "Anfangsgründe" izen hori, egiten erabat hutsa beharko lukeen Naturaren Metafisika baten hastapen gisa ere uler daiteke. Horrela, Kantek Ch. G. Schützi, 1785-IX-13an: "Ehe ich an die versprochene Metaphysik der Natur gehe, mußte ich vorher dasjenige, was zwar eine bloße Anwendung derselben ist, aber doch einen e m p i r i s c h e n Begriff voraussetzt, nämlich die metaphysische Anfangsgründe der Körperlehre. (...) Diese habe ich nun unter dem Titel: m e t a p h y s i s c h e A n f a n g s g r ü n d e d e r N a t u r w i s s e n s c h a f t, in diesem Sommer fertig gemacht, und glaube, daß sie selbst dem Mathematiker nicht unwillkommen seyn werde", AA X 406.

³⁰⁷"Das Schema aber zur Vollständigkeit eines metaphysischen Systems, es sei der Natur überhaupt, oder der körperlichen Natur insbesondere, ist die Tafel der Kategorien", MA, AA IV 473-4.

predikatu guztiak honetara ekartzan ditu, eta horrela, Natur Zientziak osorik higiduraren doktrina hutsa edo aplikatua dira³⁰⁸.

Horrela, foronomiak higidura quantum huts gisa aztertuko du, dinamikak jatorrizko indar higitzaileak, mekanikak indar berak elkarrekiko eraginean dauden neurrian eta fenomenologiak higidura kanpoko zentzuen fenomeno edo errepresentazio modu gisa. Beraz, oraingoan higidura dugu behingoz erdigunean eta a priori izatea onartzen zaio neurri batean:

"Beraz, fisikari matematiko haiek ezin zituzten printzipio metafisikoak ekidin eta hauen artean beren benetako objektuaren kontzeptua, materia, alegia, kanpoko esperientziara a priori aplikatzeko gai egiten dituztenak, higiduraren kontzeptua, espazioaren beteketarena, inertiarena, eta abar"³⁰⁹.

- Foronomiarentzat materia espazioan higikorra dena³¹⁰, higiduraren subjektua da. Baina nola dakigu materia higikorra dela?, nola ezagutzen da higidura?, galdetu beharko litzateke. Materia kanpoko zentzuaren objektu oro da, baina Kantek zerbait kanpoko gisa ezagutzeko higidura behar duela idatzi du sarreran eta aurrerago Kritikan ere bai. Beraz, higidura materiaren esperientzia orotarako baldintza da, eta ez bere ezaugarri soila. Ideia honen inguruan, ordea, zalantzak topatzen ditugu: alde batetik, Kantek higiduraren empirikotasuna azpimarratzen du (zuzena dena objektuen higikortasunera murrizten bagara), eta horregatik Kritikako kontzeptu nagusietan ez zuela jaso ere esaten du³¹¹. Baina, bestetik, testuaren bukaeran dioen gisa, hori a priorizko oinarri batzuen arabera da ahalgarri eta hurrengo esaldian gauza baten higidura emandako espazio baten arabera zehazten den bere kanpoko harremanaren aldaketa gisa definitzen du³¹². Horrela, argitzen hasten da higidurak a priori diren espazioarekin (eta denborarekin³¹³) zerikusia duela. Ondorio zuzena abiaduraren formula fisikoa da espazioa eta denboraren arteko zatidura gisa.

³⁰⁸"Die Grundbestimmung eines Etwas, das ein Gegenstand äußerer Sinne sein soll, mußte Bewegung sein; denn dadurch allein können diese Sinne affiziert werden. Auf diese führt auch der Verstand alle übrige Prädicate der Materie, die zu ihrer Natur gehören, zurück, und so ist die Naturwissenschaft durchgängig eine entweder reine oder angewandte Bewegungslhre", MA, AA IV 476-7. Adickesek testu honetan pentsatzen duela dirudi, zera dioenean: "Alle zur Natur der Materie gehörigen Prädikate lassen sich auf Bewegung zurückführen, und alle Naturwissenschaft ist daher entweder reine oder angewandte Bewegungslehre. Da nur durch Bewegung können unsere äußere Sinne affiziert werden, deshalb muß die Grundbestimmung eines Etwas, das ihr Gegenstand sein soll, in Bewegung bestehn", Adickes 1924, 252.

³⁰⁹"So konnten also jene mathematische Physiker metaphysischer Principien gar nicht entbehren und unter diesen auch solcher, welche den Begriff ihres eigentlichen Gegenstandes, nämlich der Materie, a priori zur Anwendung auf äußere Erfahrung tauglich machen, als des Begriffs der Bewegung, der Erfüllung des Raums, der Trägheit u. s. w.", MA, AA IV 472.

³¹⁰"Materie ist das Bewegliche im Raume", MA, AA IV 480.

³¹¹"Schließlich merke ich noch an: daß, da die Beweglichkeit eines Gegenstandes im Raum a priori und ohne Belehrung durch Erfahrung nicht erkannt werden kann, sie von mir eben darum in der Kritik der r. V. auch nicht unter die reine Verstandesbegriffe gezählt werden konnte, und daß dieser Begriff als empirisch nur in einer Naturwissenschaft als angewandter Metaphysik, welche sich mit einem durch Erfahrung gegebenen Begriffe, obwohl nach Principien a priori, beschäftigt, Platz finden könne", MA, AA IV 482.

³¹²"Bewegung eines Dinges ist die Veränderung der äußeren Verhältnisse desselben zu einem gegebenen Raum", MA, AA IV 482.

³¹³Denbora ere hasieratik jaso behar duela nabaria da eta testuetan ere horrela azaltzen da, baina batzutan Kant nahastu egiten da: "In der Phronomie also, wo ich die Bewegung eines Körpers nur mit dem Raume (...) in Verhältniß betrachte...", MA, AA IV 488.

Hala ere, Kantek hemen jartzen dituen oinarriak Kritikakoak baina askoz txiroagoak direla uste dut, higiduraren ahalgarritasun baldintzen norabidean ez duelako sakontzen. Dena den, 4. definizioan higidura konposatu baten kontzeptua eraikitzea higidura a priori begiespenean aurkeztea dela dio³¹⁴. Beraz, nabaria da, higidurei Matematika aplikatu behar zaien neurrian, Kanti hauen enpirikotasuna nahikoa ez zaiola eta eremu transzendentalean sartzen dela. Hori geroago nabarmentzen da espreski:

"Foronomian, materia higikortasuna ez den beste ezagurrietatik abiatuta ezagutzen ez dudanez, eta horrela, puntu gisa kontsidera dezakedanez, higidura espazio baten deskribapen gisa soilik kontsidera daiteke, baina ez geometriaren modura deskribatutako espazioa soilik kontuan hartuz, baizik denbora ere bai, eta beraz, puntu batek espazioa deskribatzean duen abiadura ere bai. Foronomia beraz, higiduren magnitudeen doktrina (mathesis) hutsa da"³¹⁵.

Deskribapen hori Kritikako lerroaren marrazketarekin lotuta dago nabarmenki, eta oro har deskribapen batez hitz egiteak subjektuaren higikortasunagatik galdetzea eskatzen du, hemen oraindik gertatzen ez dena. Egia esan, sarrera bertan onartutako Fisika matematikoaren ahalgarritasunerako higiduraren apriorizkotasuna aztertu beharrean, hau kontraesaten eta itzulinguruka ibiltzeak, ez du arazoa konpontzen laguntzen.

- Dinamikarentzat materia higikorra da, honek espazioa aktiboki betetzen duen neurrian³¹⁶, eta hori indar higitzaile bati esker soilik egin dezake: materiak ez du espazioa bere existentzia soilaz betetzen, indar higitzaile berezi baten bitartez baizik³¹⁷. Espazioaren betetze hori materiaren sarrezintasunarekin edo aldarapenarekin lotzen da, erreala dena; baina, noski, hori ez da nahikoa, horrekin sakabanatze hutsa besterik ez legoke. Erakarpena ere behar da alde negatibo gisa, horrela bien artean mugatasuna eratzeko, hau da, gradu determinatu batean betetako espazioa³¹⁸. Erakarpen eta aldarapenaren indar higitzaileak dira pentsa daitezkeen bakarrak³¹⁹,

³¹⁴"Den Begriff einer z u s a m m e n g e s e t z t e n B e w e g u n g c o n s t r u i r e n heißt eine Bewegung, so fern sie aus zwei oder mehreren gegebenen in einem Beweglichen vereinigt entspringt, a priori in der Anschauung darstellen", MA, AA IV 486.

³¹⁵"In der Phronomie, da ich die Materie durch keine andere Eigenschaft als ihre Beweglichkeit kenne, mithin sie selbst nur als einen Punkt betrachten darf, kann die Bewegung nur als B e s c h r e i b u n g e i n e s R a u m e s betrachtet werden, doch so, daß ich nicht bloß wie in der Geometrie auf den Raum, der beschrieben wird, sondern auch auf die Zeit darin, mithin auf die Geschwindigkeit, womit ein Punkt den Raum beschreibt, Acht habe. Phronomie ist also die reine Größenlehre (Mathesis) der Bewegungen", MA, AA IV 489.

³¹⁶"M a t e r i e ist das B e w e g l i c h e , sofern es einen R a u m e r f ü l l t ", MA, AA IV 496.

³¹⁷"Die Materie erfüllt einen Raum, nicht durch ihre bloße Existenz, sondern durch eine b e s o n d e r e b e w e g e n d e K r a f t ", MA, AA IV 497.

³¹⁸Honela nahi du Newtonen espazio absolutua gainditu: "Er [absoluter Raum] kann kein Gegenstand der Erfahrung sein; denn der Raum ohne Materie ist kein Objekt der Wahrnehmung, und dennoch ist er ein nothwendiger Vernunftbegriff, mithin nichts weiter als eine bloße I d e e ", MA, AA IV 559.

³¹⁹"Es lassen sich nur diese zwei bewegende Kräfte der Materie denken", MA, AA IV 498. Horrela, AA IV 515ean magnetismoa erakarpenaren arabera labur aztertzen du. Baina bide honetatik aurrera egiteko zientzia berak ez dio oinarri irmorik ematen. Berdin, kohesioa kontaktuzko erakarpenaren bidez esplikatuzko nahi duenean. Ez da lasai geratuko honekin eta etorkizunean berriro jasoko duen arazoa da.

bata indar sarkorra, bestea azalekoa izanik. Eta hauetatik sortzen diren materiaren apriorizko ezaugarriak malgutasuna eta pisua dira³²⁰.

Hemen nabarmenki Kritikan aurreratutako dinamikotasunari forma zehatza ematen saiatzen da Kant, materiaren kontzeptua empirikoki hartzen badu ere, bere esperientziaren baldintzetan sakontzen baitu³²¹. Indar higitzailea higidura baten kausa gisa definitu ondoren³²², oinarritzko indar higitzaileen esplikaezintasuna onartzen du, inondik erator ezin daitezkeen zentzuan³²³. Baina hauen higitortasunaren oinarria subjektuan bilatzeko bidea ez du oraindik ikusten. Bestalde, erakarpena matematikoki distantzien kuadratuaren arabera eta aldarapena distantzia infinituki txiketean kuboaren arabera determinatzeko saioak aldarapena zehaztea arazotsua dela erakusten du. Ikusiko dugunez puntu honek berehala kritika zorrotzak jaso zituen. Gainera, Kant berak ere esplikabide dinamiko osoaren izaera arazotsua argi zeukan³²⁴, jarraitasunaren oinarritzko kontzeptura joz defendatzen saiatzen bada ere.

Dinamikako beste puntu interesgarria substantziaren inguruko argibideak dira. Kantek substantzia materiala berez higitkorra dena gisa definitzen du³²⁵. Hemen kontraesan erabakigarria sortzen da. Alde batetik, substantzia hau materia berarekin berdintzen du:

"Substantzia baten kontzeptuak existentziaren azken subjektua esan nahi du, hau da, era berdinean berriro predikatu gisa beste edozerren existentziaren menpe ez dagoena. Hori bai, materia espazioan zenba daitekeen ororen subjektua da, gauzen existentziari dagokionez, materiatik kanpo ezin baita beste subjekturik pentsatu, espazioa bera izan ezik. Baina espazioa existitzen den ezer barnebiltzen ez duen

³²⁰"Diese [ursprüngliche Elasticität] also und die Schwere machen die einzigen a priori einzusehenden allgemeinen Charaktere der Materie, jene innerlich, diese im äußeren Verhältnisse, aus", MA, AA IV 518. Honekiko Prolegomenan zioena erabat alderantzizkoa zen: "Allein es ist doch auch manches in ihr (allgemeine Naturwissenschaft), was nicht ganz rein und von Erfahrungsquellen unabhängig ist: als der Begriff der Bewegung, der U n d u r c h d r i n g l i c h k e i t (worauf der empirische Begriff der Materie beruht), der T r ä g h e i t u. a. m., welche es verhindern, daß sie nicht ganz reine Naturwissenschaft heißen kann", Prol., AA IV 295. Baina Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak argitaratu eta hilabete batzuk geroago dioena berriz: "Lasset von eurem Erfahrungsbegriffe eines Körpers alles, was daran empirisch ist, nach und nach weg: die Farbe, die Härte oder Weiche, die Schwere, selbst die Undurchdringlichkeit...", B5.

³²¹Baina ez da oso urrutira iristen: "In conclusione, sarebbe difficile affermare che la metafisica kantiana dell'86 rappresenti qualcosa di più che una esemplificazione, fatta sulla materia data dall'esperienza, di elementi già contenuti nella *Critica della ragione pura*", Mathieu 1958, 14-5.

³²²"Die Ursache einer Bewegung heißt aber bewegende Kraft", MA, AA IV 497. Geroago, Fenomenologian honela dio: "Denn eine Bewegung, die nicht ohne den Einfluß einer kontinuierlich wirkenden äußern bewegenden Kraft stattfinden kann, beweiset mittelbar oder unmittelbar ursprüngliche Bewegkräfte der Materie", MA, AA IV 557.

³²³"Daß man die Möglichkeit der Grundkräfte begreiflich machen sollte, ist eine ganz unmögliche Forderung: denn sie heißen eben darum Grundkräfte, weil sie von keiner anderen abgeleitet, d. i. gar nicht begriffen, werden können", MA, AA IV 513.

³²⁴"Ich sehe wohl die Schwierigkeit dieser Erklärungsart der Möglichkeit einer Materie überhaupt", MA, AA IV 521.

³²⁵"M a t e r i e l l e S u b s t a n z ist dasjenige im Raume, was für sich, d. i. abgesondert von allem anderen, was außer ihm im Raume existirt, beweglich ist", MA, AA IV 502.

kontzeptua da oraindik, kanpoko zentzuaren objektu ahalgarrien kanpoko harremanen beharrezko baldintzak soilik izan ezik. Materia, orduan, espazioko zera higikor modura, espazioko substantzia da³²⁶.

Hau bere ikuspegi dinamikoarekin ongi dator, baina Kantek Newtonen grabitazioaren eskema onartzeko substantzia indibidualak behar ditu, gorputz fisikoak, eta funtsean Newtonen teoriaren oinarrian dagoen atomistikaren ideia³²⁷. Kanten arazoa oinarri dinamiko-jarraikor batekin funts atomistaren gainean eraikitako Fisika bat ulertzen saiatzea da. Horregatik, bere kabuz higikorra den zati oro izango da substantzia. Zera esan daiteke, substantzialaren zatiak substantziak direla.

"Materia edo bere zati baten higikortasun bera da,aldi berean, higikor horren eta bere zati higikor bakoitza substantzia izatearen froga"³²⁸.

Hala ere, esplikaziorik gabe geratzen dena zera da, oinarritzko materia dinamikotik abiatuta ea gorputz higikor konketuak nola eratzen diren³²⁹. Funtsean, Kritikan iadanik zegoen arazoa da. Bertan ere lehen analogiako substratutik bigarren eta hirugarren analogietako substantzia indibidualetara igarotzeko oinarririk ez zen jartzen.

Arazo hau infinituari buruz hitz egitean ere nabaritzen da. Kantek ikuspegi erabat aristoteliarra du: zatien kopuru infinituan pentsatzeak ez du zentzurik, ezin baita zatiketa hori inoiz osatu³³⁰. Kantek nahiago izango du jarraitasunaren printzipioa gordetzea, eta, beraz, Newtonen eskemaren aurka joan beharko du; adibidez, espazio hutsen ideiarene aurka zorrozki idazten du³³¹. Argibide mekanikoari, hau da, hutsa eta betearen nahasketaz

³²⁶"Der Begriff einer Substanz bedeutet das letzte Subject der Existenz, d. i. dasjenige, was selbst nicht wiederum blos als Prädicat zur Existenz eines andern gehört. Nun ist Materie das Subject alles dessen, was im Raume zur Existenz der Dinge gezählt werden mag; denn außer ihr würde sonst kein Subject gedacht werden können, als der Raum selbst; welcher aber ein Begriff ist, der noch gar nichts Existirendes, sondern blos die nothwendigen Bedingungen der äußeren Relation möglicher Gegenstände äuserer Sinne enthält. Also ist die Materie als das Bewegliche im Raume die Substanz in demselben", MA, AA IV 503. Iadanik Kritikan: "Materia substantia phaenomenon da", B333/A277.

³²⁷Bere lan handiaren hirugarren zatiko (Munduaren sistemaz) hirugarren erregelak atomismoa jartzen du oinarrian: "Et inde concludimus omnes omnium corporum partes minimas extendi, et duras esse, et impenetrabiles, et mobiles, et viribus inertiae praeditas. Et hoc est fundamentum Philosophiae totius", Newton 1779hh. III 3. Baina ez dago ulertzerik hau abiadura eta beste premiazko hainbat kontzeptu determinatzeko behar den kalkulua eta honek eskatzen duen jarraitasunarekin nola lotzen den.

³²⁸"Also ist die eigene Beweglichkeit der Materie oder irgend eines Theils derselben zugleich ein Beweis dafür, das dieses Bewegliche und ein jeder bewegliche Theil desselben Substanz sei", MA, AA IV 503.

³²⁹"Die Dynamik von 1786 wird nur noch als ein bloßer Formalismus gedeutet, von dem unausgemacht bleibt, ob ihm in der Realität irgendetwas korrespondiert", Tuschling 1971, 62.

³³⁰"Unbegreiflichkeit der Theilbarkeit eines jeden Continuum überhaupt ins Unendliche", AA IV 531.

³³¹"Alles, was uns des Bedürfnisses überhebt, zu leeren Räumen unsere Zuflucht zu nehmen, ist wirklicher Gewinn für die Naturwissenschaft. Denn diese geben gar zu viel Freiheit der Einbildungskraft, den Mangel der inneren Naturkenntniß durch Erdichtung zu ersetzen. Das absolut Leere und das absolut Dichte sind in der Naturlehre ungefähr das, was der blinde Zufall und das blinde Schicksal in der metaphysischen Weltwissenschaft sind, nämlich ein Schlagbaum für die herrschende Vernunft, damit entweder Erdichtung ihre Stelle einnehme, oder sie auf dem Polster dunkler Qualitäten zur Ruhe gebracht werde", MA, AA IV 532. Dinamikaren azken parrafoan, AA IV 534-5, arazoa berriro planteiatzen du eta erakarpenaren ahalgarritasunarekin bateratzen saiatzen da. Benetan espazioa hutsa ez bada ere, erakarpenak espazioa bete gabe okupatu besterik egiten ez duenez, zentzu horretan hutsa dela esan daiteke. Baina Fenomenologiaren bukaeran berriro arazoa aztertu ondoren: "Und so endigt sich die metaphysische Körperlehre mit dem L e e r e n und eben darum Unbegreiflichen", MA, AA IV 564. Gero, datorren antzeko testuak irakurtzeak benetan Kant irakurtzen ote den galderatzera eraman naute maiz:

materiaren ezberdintasuna esplikatzen saiatzen denari, dinamikoa kontra-jartzen dio, hau da, bi oinarriko indarren arabera saiatzen dena. Lehenengoan, atomoek indarren eragina jasaten dute eta grabitazioaren aplikazioa erraza da besterik gabe; bigarrenean, materia bera barnean indar higitzaileez osatua legoke eta honekin grabitazioaren oinarria bilatzen da. Bere ideia defendatzeko materiaren dentsitate ezberdinak espazio hutsik gabe esplika daitezkeela dio, hain zuzen, espazioaren gradu ezberdineko beteketaren bitartez. Eta hori ulertzeko eterraren ideia onartzen du, bolumen berdina materia kantitate askoz txikiagoarekin betetzen duen gai gisa. Dinamikako ohar orokorrean materia indar higitzaileek besterik ez dutela osatzen esatean³³², garbi dago Kant Newtonengandik haruntzago doala: honekin bere asmoa Newtonen naturaren Filosofian oraindik ez zegoen arrazoizkotasuna aurkitzea da³³³.

Hau funtsean grabitazioaren oinarri mekanikoen eznahikotasunaren aurka zuzentzen dela nabarmena da. Ezaguna da Newtonek bere lan nagusiaren bukaeran, 'Scholium Generale'-an, dioena:

"Rationem verò harum Gravitatis proprietatum ex Phaenomenis nondum potui deducere, et hypotheses non fingo"³³⁴.

Honek kontaktuan ez dauden objektuen hutsaren bitarteko erakarpenaren arazoa irekita uzten du. Kantek ikusten du arazoa³³⁵, eta grabitazioa onartu arren, bere oinarriak hobeto pentsatzen saiatzen da³³⁶. Gainera, arazoa matematikoa ez izatean Newtonek modu egokian jokatu zuela aipatzen du. Hala ere, bere garaikideen presioak bultzatuta Newton Matematika soila utziz erantzun bat ematen saiatzen denean, grabitazioaren oinarriak deusezten ditu³³⁷. Newton berak ere arazoa matematikoki konpondu nahi zuela dio³³⁸. Beraz, Newton egoki ari

"Wie bei Newton gibt es also -allerdings in einem anderen Sinne- auch bei Kant einen *leeren* Raum und eine *leere* Zeit", Horstmann 1989, 59.

³³²"Das allgemeine Princip der Dynamik der materiellen Natur ist: daß alles Reale der Gegenstände äußerer Sinne, was nicht bloß Bestimmung des Raums (Ort, Ausdehnung und Figur) ist, als bewegende Kraft angesehen werden müsse", MA, AA IV 523. Eta hori higiduraren funtzio berezia aipatuz justifikatzen du: "Der Begriff der Materie wird auf lauter bewegende Kräfte zurückgeführt, welches man auch nicht anders erwarten konnte, weil im Raume keine Thätigkeit, keine Veränderung als bloß Bewegung gedacht werden kann", MA, AA IV 524.

³³³"Vielmehr besteht alle Naturphilosophie in der Zurückführung gegebener, dem Anscheine nach verschiedener Kräfte auf eine geringere Zahl Kräfte und Vermögen, die zur Erklärung der Wirkungen der ersten zulangen, welche Reduction aber nur bis zu Grundkräften fortgeht, über die unsere Vernunft nicht hinaus kann. Und so ist Nachforschung der Metaphysik hinter dem, was dem empirischen Begriffe der Materie zum Grunde liegt, nur zu der Absicht nützlich, die Naturphilosophie, so weit als es immer möglich ist, auf die Erforschung der dynamischen Erklärungsgründe zu leiten, weil diese allein bestimmte Gesetze, folglich wahren Vernunftzusammenhang der Erklärungen hoffen lassen", MA, AA IV 534.

³³⁴Newton 1779hh. III 174. Gainera Opticsen: "For hypotheses are not to be regarded in Experimental Philosophy", Newton 1779hh. IV 263.

³³⁵"So ist nicht erlaubt, sich irgend neue ursprüngliche Kräfte zu erdenken, z. B. einen Verstand, der vermögend sei, seinen Gegenstände ohne Sinne anzuschauen, oder eine Anziehungskraft ohne alle Berührung", B798/A770. Akademiaren edizioari Newtoni kritika funsgabea irudituz, eta '**Anziehungskraft**', '**Ausdehnungskraft**'-gatik aldatu zuten edizioan. Baina Kantek bazekien zer esaten zuen, ez zai 'hobetu' behar.

³³⁶"So steht Newtons System der allgemeinen Gravitäten fest, ob es gleich die Schwierigkeit bei sich führt, daß man nicht erklären kann, wie Anziehung in die Ferne möglich sei; aber *Schwierigkeiten sind nicht Zweifel*", MA, AA IV 474oh.

³³⁷"Er abstrahirte mit Recht von allen Hypothesen, die Frage wegen der Ursache der allgemeinen Attraction der Materie zu beantworten; denn diese Frage ist physisch, oder metaphysisch, nicht aber mathematisch, und ob er gleich in der Vorerinnerung zur zweiten Ausgabe seiner *Optik* sagt: *ne quis gravitatem inter essentialia corporum proprietates me*

da matematikari gisa, eta hor ikusi behar da bere balioa. Hortik aurrera joateko ez du laguntza gehiegirik eskaintzen.

Baina sakonago begiratu, Kantek aipatzen duen '**agian berak** [Newtonek] **ere**' hau uste baino garrantzitsuagoa da, eta Kantek Newton arretaz irakurri zuela adierazten du. Newton bera ez da lasai geratuko atomoak eta hutsunearen eskema hartu eta beste esplikabideak utziz. Bere lanaren aurretik eterraren ideia kontuan zuela badakigu, Oldenburgi 1675.II.21ean bidalitako eskutitzean Hookekin izandako polemika bati buruz hitz egitean aipatzen duelako³³⁹. Geroago, Boyleri 1678/9.II.28an idatzitako eskutitzean eterraren dentsitate ezberdinak nola posible ote diren esplikatzeko saiatzen da³⁴⁰, ondoren argia, beroa eta abarrekiko harremanean jarriz; baina, are gehiago, grabitatearen esplikazioa ematen saiatzen da, bukaeran halako ikerketetarako joerarik ez duela eta horretara bultzatua ez balitz horrelakorik ez zuela idatzitako esaten badu ere³⁴¹. Hala ere, hau alde baikorrena litzateke, zeren beste batzutan zientziarekin harremanik ez duten konponbide transzendenteetara ere jotzen baitu³⁴². Hau Bentleyri 1692.XII.10 eta 1692/3.II.25ean bidalitako eskutitzetan nabarmentzen da. Beraietan fenomeno fisiko ugari Jainkoaren eskuetan uzten ditu³⁴³ eta hutsunean

habere existimet, quaestionem unam de eius causa investiganda subieci, so merkt man wohl, daß der Anstoß, den seine Zeitgenossen und vielleicht er selbst am Begriffe einer ursprünglichen Anziehung nahmen, ihn mit sich selbst uneining machte", MA, AA IV 515.

³³⁸"In libris praecedentibus Principia Philosophiae tradidi, non tamen philosophica sed Mathematica tantum, ex quibus videlicet in rebus Philosophicis disputari possit", Newton 1779hh. III 1.

³³⁹"This, I think, is in short the sum of his hypothesis. An in all this, I have nothing in common with him, but the supposition that aether is a medium susceptible of vibrations. Of which supposition I make a different use: he supposing it light itself; which I suppose it is not. (...) This therefore is the sum of what is common to us; That aether may vibrate", Newton 1779hh. IV 380.

³⁴⁰"And, first, I suppose that there is diffused through all places an aethereal substance, capable of contraction or dilatation, strongly elastic; and, in a word, much like air in all respects, but far more subtile", Newton 1779hh. IV 385. Deluc-ek eskutitz honi erreferentzia egiten dio. Bere izena sarritan agertzen da Igarobidean eta berehala uler daiteke zergatik. Newtonek Fisika ez zuela ongi oinarritu uste zuen, eta forma ezberdinetan agertzen den materia malgu jariakor orokor baten beharra defendatzen du ("eine allgemeine elastisch flüssigge Matier", Deluc 1799 I 58). Gainera, erru hori Matematika soilean geratzearekin lotzen du: "N e w t o n würde nie so erstaunenswürdige Fotschritte in der P h y s i k gemacht haben, wenn er es nicht gewagt hätte, sich auch die U r s a c h e n der schönen von ihm entdeckten Gesetze zu erklären. (...) So lange der Verstand nur allgemeine Data, welche eigentlich nichts weiter als F o r m e l n sind, verwendet, so kann er daraus fast nichts mehr, als mathematische Folgen ziehen, welche wenig größere Vollkommenheit gewähren; und man gewinnt auf diesem Wege selten beträchtlichen Fortgang. Wenn man aber auf die wahren Begriffe von U r s a c h e n , d. i. auf die p h y s i k a l i s c h e n T r i e b f e d e r n zurück geht, so erweitern diese Begriffe, so hypothetisch sie auch seyn mögen, das Feld der Entdeckungen", Deluc 1799 II 492-3. Newtonenganako jarrera kritikoago bera azalduko du Kantek geroago: "Es giebt Wissenschaften, die keine Hypothesen erlauben, wie z. B. die Mathematik und Metaphysik. Aber in der Naturlehre sind sie nützlich und unentberhrlich", Logik, AA IX 86.

³⁴¹"I shall set down a conjecture more, which came into my mind now as I was writing this letter: it is about the cause of gravity. For this end, I will suppose aether to consist of parts differing from one another in subtilty by indefinite degrees (...)/ From this supposed gradual subtilty of the parts of the aether, some things above might be further illustrated, and made more intelligible; but by what has been said, you will easily discern whether, in these conjectures, there be any degree of probability; which is all I aim at. For my own part, I have so little fancy to things of this nature, that, had not your encouragement moved me to it, I should never, I think, have thus far set pen to paper about them", Newton 1779hh. IV 394.

³⁴²"When I wrote my Treatise about our System, I had an eye upon such principles as might work with considering men, for the belief of a Deity; and nothing can rejoice me more than to find it useful for that purpose", Newton 1779hh. IV 429.

³⁴³Gorputz ilunak (planetak) eta argiak (eguzkiak) bereizteko ezintasunaz: "I do not think explicable by meer natural causes, but am forced to ascribe it to the counsel and the contrivance of a voluntary Agent", Newton 1779hh. IV 430; "Why there is one body in our system qualified to give light and heat to all the rest, I know no reason, but because the author of the system thought it convenient", idem.

ekiten duen grabitatearen ulertezintasuna ere Jainkoarengana joz argitu nahi du³⁴⁴. Zorionez, ondoren bere Optikan arazoa berriro lantzen du, eta hain zuzen 1717ko bigarren argitalpen inglesean egindako gehiketa batzutan. Iadanik lan honen sarreran, Kantek aipatzen duen gisa, grabitatearen kausari buruzko zatitxoa gehitzen du Newtonek, baina galdera modura, ez baitago ados saiakuntzekin³⁴⁵. Horrela, 21. Queryan eterra grabitatearen oinarri ez ote den galdetzen du³⁴⁶ eta bere malgutasuna matematikoki zehazten saiatzen da. Hurrengo Query batzutan eterraren bibrazioa erabiltzen du entzumena, ikusmena eta abereen nahitazko higidurak esplikatzeko. Horrela iristen gara 31. eta azken Queryra eta bertan ez dugu jarrera baterakorrik aurkitzen. Alde batetik, benetako erantzun bat emateko biderik ez du ikusten edo Jainkoarengana jotzen du³⁴⁷; bestetik, Newton bidea zehazten saiatzen denean, gero Kanten jarrera dinamikoa izango denaren antzeko esaldiak idazten ditu³⁴⁸.

- Mekanikarentzat materia higikorra da, indar higitzailea duen neurrian³⁴⁹. Baina hemen ez da higikortasuna bere baitan kontsideratzen, baizik gorputz ezberdinen artean igortzen den neurrian. Beraz, garbi dago lege mekanikoek dinamika auresuposatzen dutela³⁵⁰. Eta zentzu honetan oso interesgarria da mekanikako legeen oinarrian dagoen masaren kontzeptu bera indar higitzaileei lotuz definitzea, dinamikoki beraz: masa espazioan aktiboki higikorra den multzoak osatzen du³⁵¹. Eta ideia honi jarraiki, nabarmena egiten da materiaren

³⁴⁴"To your second Query I answer, that the motions, which the planets now have, could not spring from any natural cause alone, but were impressed by an intelligent Agent", Newton 1779hh. IV 431. Baina askoz zuzenago ere: "It is inconceivable, that inanimate brute matter should, without the mediation of something else, which is not material, operate upon, and affect other matter without mutual contact; as it must do, if gravitation, in the sense of *Epicurus*, be essential and inherent in it. This gravity should be innate, inherent and essential to matter, so that one body may act upon another at a distance through a *vacuum*, without the mediation of any thing else, by and through which their action and force may be conveyed from one to another, is to me so great an absurdity, that I believe no man who has in philosophical matters a competent faculty of thinking, can ever fall into it. Gravity must be caused by an agent acting constantly according to certain laws; but whether this agent be material or immaterial, I have left to the consideration of my readers", Newton 1779hh. IV 438.

³⁴⁵"And to shew that I do not take Gravity for an Essential Property of Bodies, I have added one Question concerning its Cause, chusing to propose it by way of a Question, because I am not yet satisfied about it for want of Experiments", Newton 1779hh. IV 3.

³⁴⁶Newton 1779hh. IV 224-5.

³⁴⁷"How these attractions may be performed, I do not here consider. What I call attraction, may be performed by Impulse, or by some other means unknown to me. I use that word here to signify only in general any force by which bodies tend towards one another, whatsoever be the cause", Newton 1779hh. IV 242-3; "All these things being considered, it seems probable to me, that God in the beginning formed the matter in solid, massy, hard, impenetrable, moveable particles", Newton 1779hh. IV 260; "And if he did so, it is unphilosophical to seek for any other origin of the world, or to pretend that it might arise out of a chaos by the mere laws of Nature", Newton 1779hh. IV 261.

³⁴⁸"Seeing therefore the variety of motion, which we find in the world, is always decreasing; there is a necessity of conserving and recruiting it by active principles: such as are the cause of gravity", Newton 1779hh. IV 259; "It seems to me farther, that these particles have not only a *Vis inertiae*, accompanied with such Passive laws of motion as naturally result from that force; but also that they are moved by certain Active principles, such as is that of gravity, and that which causes fermentation, and the cohesion of bodies. These principles I consider not as Occult qualities, supposed to result from the specifick forms of things, but as general laws of Nature, by which the things themselves are formed: their truth appearing to us by phaenomena, though their causes be not yet discovered. For these are manifest qualities, and their causes only are occult", Newton 1779hh. IV 260-1.

³⁴⁹"Materie ist das Bewegliche, so fern es als solches bewegende Kraft hat", MA, AA IV 536.

³⁵⁰"Also setzen alle mechanische Gesetze die dynamische voraus, und eine Materie, als bewegt, kann keine bewegende Kraft haben, als nur vermittelst ihrer Zurückstoßung oder Anziehung, auf welche und mit welchen sie in ihrer Bewegung unmittelbar wirkt und dadurch ihre eigene Bewegung einer anderen mittheilt", MA, AA IV 536-7.

³⁵¹"Die Quantität der Materie ist die Menge des Beweglichen in einem bestimmten Raum. Dieselbe, so fern alle ihre Theile in ihrer Bewegung als zugleich wirkend (bewegend) betrachtet werden, heißt die Masse", MA, AA IV 537.

kantitatea ezin dela besterik gabe neurtu, baizik haren higidura hartu behar dela kontuan³⁵². Ondorioz, Kantek higiduraren kantitatea definitzen du masa eta abiaduraren arteko harreman gisa³⁵³. Honekin mekanikaren hiru legeak ematera pasatzen da, dinamikari buruz ahal zuen guztia esan ondoren; baina aurretik aipatu dudana gisa, indar higitzaileen arteko harreman horiek finkatzeko, hau da, dinamikatik mekanikarako igarobidea oinarri sendorik gabe egin beharko du, gorputzen eraketarako argibiderik ez daukan neurrian.

Mekanikako legeak materiaren kantitatearen kontserbazioa, inertiaren printzipioa eta elkarreraginaren berdinketa dira. Bigarrenaz, interesgarria da aipatzea, Kantek inertzia eta materia bizia ez izatearen arteko lotura azpimarratzen duela³⁵⁴. Hori esatean bizitza definitzen baitu: bizitza norbera aldatzeko barne printzipio baten arabera ekintzak determinatzeko gaitasuna da³⁵⁵. Eta hau nahimena, pentsamendua eta atseginaren sentimenarekin harremanean jartzen badu ere, tamalez subjektuaren berezkotasuna higiduraren esplikazio batekin ez du lotzen. Bukaerako ohar orokorrean jarraitasunaren lege mekanikoaz hitz egiten du, hau da, gorputz baten egoeraren aldaketa ez da une batean gertatzen, baizik jarraikorki denbora tarte batean. Gaur egun bultzada deitzen dena da, hau da, higiduraren kantitatearen aldaketa hori sortzen duen indarrak hura sortzeko behar duen denborarekin duen harremanarekin berdintzen da. Mekanikaren konklusio honetan nabarmenki ikusten da horrelako ekuazioek oinarri mekaniko-atomista gainditzea eskatzen dutela.

- Fenomenologiarentzat materia higikorra da, horrela izanik esperientziaren objektu izan daitekeen neurrian³⁵⁶. Hau modalitateari dagokion unea denez, materiaren higidurak subjektuaren ezagutzeko gaitasunarekin duen harremana aztertu beharko luke Kantek orain. Baina hemen ere oso motz geratzen da analisia:

"Higidura, zentzuen bidez errepresentatzen den guztia bezala, fenomeno gisa soilik ematen da"³⁵⁷.

³⁵²"Also kann die Materie weder unmittelbar, noch mittelbar in Vergleichung mit jeder a n d e r n gültig geschätzt werden, so lange man von ihrer eigenen Bewegung abstrahirt. Folglich ist kein anderes allgemein gültiges Maß derselben als die Quantität ihrer Bewegung übrig. In dieser aber kann der Unterschied der Bewegung, der auf der verschiedenen Quantität der Materien beruht, nur alsdann gegeben werden, wenn die Geschwindigkeit unter den verglichenen Materien als gleich angenommen wird", MA, AA IV 538. Newtonek bere lehen definizioan bestela eginez, materiaren kantitatea dentsitatea eta bolumenaren harremanaren arabera definitzen du: "Definitio I: Quantitas materiae est mensura eiusdem orta ex illius densitate et magnitudine conjunctim", Newton 1779hh. II 1. Materiaren kantitatea definitzeko dentsitatea erabiltzea erabat okerra da, dentsitatea ondoren argitu beharko den kontzeptua baita.

³⁵³Newtoni jarraitzen zaio oraingoan: "Definitio II: Quantitas motus est mensura eiusdem orta ex velocitate et quantitate materiae conjunctim", Newton 1779hh. II 2. Bigarren osagaia ezberdin ulertzen zutela aipatu da lehenago.

³⁵⁴"Die Trägheit der Materie ist und bedeutet nichts anders, als ihre L e b l o s i g k e i t als Materie an sich selbst", MA, AA IV 544.

³⁵⁵"L e b e n heißt das Vermögen einer S u b s t a n z , sich aus einem i n n e r e n P r i n c i p zum Handeln, einer e n d l i c h e n S u b s t a n z , sich zur Veränderung, und einer materiellen Substanz, sich zur Bewegung oder Ruhe als Veränderung ihres Zustandes zu bestimmen. Nun kennen wir kein anderes inneres Princip einer Substanz, ihren Zustand zu verändern, als das B e g e h r e n und überhaupt keine andere innere Thätigkeit als D e n k e n mit dem, was dem, davon abhängt, G e f ü h l der Lust oder Unlust und B e g i e r d e oder Willen", MA, AA IV 544.

³⁵⁶"Materie ist das Bewegliche, so fern es als ein solches ein Gegenstand der Erfahrung sein kann", MA, AA IV 554.

³⁵⁷"Bewegung ist so wie alles, was durch Sinne vorgestellt wird, nur als Erscheinung gegeben", MA, AA IV 554.

Hala ere, higidura zentzuen bidez soilik ezagutu ote daitekeen erabat okerra da, higidura jasotzeko, edo hobe, egiteko baldintzek askoz gehiago eskatzen dute: subjektuaren ekimenarekin harreman estua duten oinarriak. Fenomenologia osoan zehar ez da ezer aurreratzen norabide honetan.

Azken esaldi gisa zera esaten du Kantek, arrazoimenak baldintzatuan ezin duela geratu, baldintzatugabea aurkitu nahi badu gauzak alde batera utzi eta bere baitara itzuli behar duela bere gaitasunaren mugak aztertzeraz. Eta hortan jarraituko dugu hurrengo ataletan, lan hau ez baitzen izan Sistema osatu zuen azken hitza.

3. Kritikaren bigarren argitalpeneko berritasun garrantzitsuak

Kritikaren lehen edizioak izan zuen harrera eskasa Prolegomenaren eranskinean isladatzen da. Bertan, Kantek dedukzioa eta paralogismoen idazketarekin gustora ez zegoela onartzen zuen³⁵⁸. Hau izan daiteke bigarren edizioaren jatorria. Honetan, bi zati hauek erabat berridatziz gain, "**Idealismoaren errefusapena**" gehitu zuen.

Sarrerari egindako gehiketa batean kritika eta sistemaren arteko harremana berriro argitzen da, harreman honek lehenago zuen antzeko zentzuan³⁵⁹. Baina puntu harrigarria zera izango da, hitzaurre berrian Natura eta Ohituraren Metafisikak oraindik egitekotzat dituela eta horretarako denbora aurreztu behar duela esatea³⁶⁰. Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak hilabete batzuk lehenago idatzi dituenean, badirudi lanaren garrantzia berehala ahultzela. Gainera, lan berri osoan ez du ematen aurreko urtekoaren berri zuzenik.

a. Adimenaren nagusitasuna

Bigarren argitalpen honetako puntu nagusi bat subjektuaren ekintza razionalaren indartzea da. Horrela, orain irudimenak bere garrantziaren zati handi bat galtzen du eta sintesia adimenaren esku geratzen da zuzenean³⁶¹. Garbi ikus daiteke irudimenak zuen funtzioa orain zentzumena eta adimenaren artean banatzen dela, eta irudimena bien arteko harremanaren arazoa aipatzeko izena besterik ez dela³⁶²; une batean, azkenik, Kantek irudimenaren alde aktiboa espreski adimenarekin berdintzen du:

³⁵⁸Prol., AA IV 381.

³⁵⁹"Die Kritik der Vernunft führt also zuletzt notwendig zur Wissenschaft", B22.

³⁶⁰"Da ich während dieser Arbeiten schon ziemlich tief ins Alter forgerückt bin (in diesem Monate ins vier und sechzigste Jahr), so muß ich, wenn ich meinen Plan, die Metaphysik der Natur sowohl als der Sitten, als Bestätigung der Richtigkeit der Kritik der spekulativen sowohl als praktischen Vernunft, zu liefern, ausführen will, mit der Zeit sparsam verfahren...", BXLIII.

³⁶¹"So ist alle Verbindung, (...) eine Verstandeshandlung, die wir mit der allgemeinen Benennung *S y n t h e s i s* belegen würden", B130; "Und so ist die systematische Einheit der Apperzeption der höchste Punkt, an den man allen Verstandesgebrauch, selbst die ganze Logik, und nach ihr, die Transzendentalphilosophie heften muß, ja dieses Vermögen ist der Verstand selbst", B133oh.

³⁶²"Da nun alle unsere Anschauung sinnlich ist, so gehört die Einbildungskraft, der subjektiven Bedingung wegen, unter der sie allein den Verstandesbegriffen eine korrespondierende Anschauung geben kann, zur *S i n n l i c h k e i t*; so fern aber doch ihre Synthesis eine Ausübung der Spontaneität ist, welche bestimmend, und nicht, wie der Sinn, bloß bestimmbar ist, mithin a priori den Sinn seiner Form nach der Einheit der Apperzeption gemäß bestimmen kann, so ist die Einbildungskraft so fern ein Vermögen, die Sinnlichkeit a priori zu bestimmen, und ihre Synthesis der Anschauungen, *d e n K a t e g o r i e n g e m ä ß*, muß die transzendente Synthesis der *E i n b i l d u n g s k r a f t* sein, welches eine Wirkung des Verstandes auf Sinnlichkeit und die erste Anwendung desselben (zugleich der Grund aller übrigen) auf Gegenstände der uns möglichen Anschauung ist", B151-2; "Nun ist das, was das Mannigfaltige der sinnlichen Anschauung

"Berezkotasun bat berbera da, hor irudimenaren izenpean, hemen adimenarenean, begiespenaren aniztasunari lotura ezartzen diona"³⁶³.

Hau Kant berak bere liburu nagusiaren aldaki partikularrean egindako ohar batek esaten digu argien. A78an irudimena arimaren funtzio itxu baina ezinbestekoa dela esaten duen pasartea aldatu egiten du eskuz, eta irudimena adimenaren funtzio bihurtzen du Kantek³⁶⁴.

b. Higidura

Ikusi dugu Kritikaren lehen argitalpenean higidura eta aldaketa azken finean enpirikoak zirela eta alde horretatik ikerketa benetan transzendental baterako biderik ez zela geratzen, zenbait puntu horren aurrerapen gisa ulertu badaitezke ere. Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak gai honen landualdi sakonago baterako kokagune egokia izan zitekeen, baina emaitzak oso laburrak izan ziren. Bestalde, ordea, higidura zein neurritan garrantzitsua den garbi geratu da, eta beraz, egoera horrek ezin zuen horrela jarraitu.

Egia esan, 1781eko aipamen labur batean higiduraren alde fenomenikoa aipatzen da, gure errepresentazio modu bat dela zehaztuz. Kantek bere alde subjektibo horretan sakondu ahal izan zezakeen, baina ez du gaia gehiago garatzen³⁶⁵. Egitan, ordea, norabide horren azterna nabarmenak aurkitzen dira:

"Objektuak eman ahal zaizkigun era bakarra, gure zentzumenaren aldakuntza da"³⁶⁶.

Hor iadanik jasota dago subjektuaren higiduraren ideia, espazioa eta denboraren aldaketa gisa, eta ezagutzarako ezinbestekoa den era batean gainera. Zentzumenaren aldaketa horrek derrigorrez subjektuarekin duen harremana bigarren edizio honetan nabarmenduko da, hala ere lanketa sakon bat jaso gabe:

verknüpft, Einbildungskraft, die vom Verstande der Einheit ihrer intellektuellen Synthesis, und von der Sinnlichkeit der Mannigfaltigkeit der Apprehension nach abhängt", B164.

³⁶³"Auf solche Weise wird bewiesen: daß die Synthesis der Apprehension, welche empirisch ist, der Synthesis der Apperzeption, welche intellektuell und gänzlich a priori in der Kategorie enthalten ist, notwendig gemäß sein müsse. Es ist eine und dieselbe Spontaneität, welche dort, unter dem Namen der Einbildungskraft, hier des Verstandes, Verbindung in das Mannigfaltige der Anschauung hineinbringt", B162oh.

³⁶⁴A78an hau irakurtzen dugu: "Die Synthesis überhaupt ist, wie wir künftig sehen werden, die bloße Wirkung der Einbildungskraft, einer blinden, obgleich unentbehrlichen Funktion der Seele". Eta zuzenketak honela dio: "Die bloße Wirkung der Einbildungskraft, einer Function des Verstandes", Nachträge zur KrV A, AA XXIII 45.

³⁶⁵"Daß die Bewegung nicht die Wirkung dieser unbekanntes Ursache, sondern bloß die Erscheinung ihres Einflusses auf unsere Sinne sei, daß folglich beide nicht etwas außer uns, sondern bloß Vorstellungen in uns sind, mithin daß nicht die Bewegung der Materie in uns Vorstellungen wirke, sondern daß sie selbst (...) bloße Vorstellung sei", A387. Baina hamarkada honen erdiko lekioetan horrela zioen harrigarriki: "Eine Anschauung a posteriori nennen wir empirische Anschauung und die Empfindung macht sie dazu, denn a priori kann man sich keine Empfindung vorstellen, aber die Anschauung von Raum und Zeit kan man haben, und Raum und Zeit bringen Bewegung hervor", AA XXVIII-1, 399.

³⁶⁶"Die einzige Art, wie uns Gegenstände gegeben werden, die Modifikation unserer Sinnlichkeit sei", B178/A139.

"Higidura bera da, subjektuaren ekintza modura, (ez objektuaren determinazio modura)* (...)

***O b j e k t u baten espaziozko higidura ez dagokio zientzia garbi bati, ezta, beraz, Geometriari ere, zerbait higikorra dela esperientziaz bakarrik jakin baitezakegu, ez a priori. Ostera, higidura, espazio baten d e s k r i b a p e n modura, irudimen produktiboaren bitartez, kanpoko begiespenean orokorki jasotako aniztasunaren segidazko sintesiaren ekintza garbia da, eta ez dagokio Geometriari soilik, baizik eta Filosofia transzendentalari ere bai³⁶⁷.**

Denbora lerroa marratuz soilik pentsa daitekeela eta sintesi horretan barne zentzua determinatzen dugula esan ondoren datoz aurreko hitzak, eta hor gero aztertu beharko dugun autoafekzioaren ideia berriaren oinarriak jasotzen dira iadanik³⁶⁸. Orain subjektuaren ekintza den higidura bat Filosofia transzendentaleko gai gisa aipatzen du Kantek. Ezagutza ekintza dela argi du, kategoriak ere adimenaren ekintzak dira, eta ekintza higidura eta aldaketari lotua doa beti³⁶⁹. Aldaketa begiesgarri egiteko higidura behar dugu, hau ez du inongo arrazoimenak lortzen berak bakarrik, begiespena behar du³⁷⁰. Ekintzaren egikaritzapena argitzen duen lotura horretan sakondu behar da.

c. Autoafekzioa

Garbi geratu da aurreko testuen bidez, bigarren argitalpenean adimena eta zentzumenaren arteko harremanen azterketan berritasunak daudela, eta hori nia beraren argipenarekin batera gertatzen da.

Horrela, aurreko eskemak gainditzen diren uneak agertzen dira, zentzumen pasiboa eta adimen aktiboaren erabateko bereizketa atzean geratzen da adibidez. Nabarmen esango du Kantek, esaterako, denborak bere jatorria

³⁶⁷"Bewegung, als Handlung des Subjekts (nicht als Bestimmung eines Objekts)*

*Bewegung eines O b j e k t s im Raume gehört nicht in eine reine Wissenschaft, folglich auch nicht in die Geometrie; weil, daß etwas beweglich sei, nicht a priori, sondern nur durch Erfahrung erkannt werden kann. Aber Bewegung, als B e s c h r e i b u n g eines Raumes, ist ein reiner Actus der sukzessiven Synthesis des Mannigfaltigen in der äußeren Anschauung überhaupt durch produktive Einbildungskraft, und gehört nicht zur Geometrie, sondern sogar zur Transzendentalphilosophie", B154-5. Honekiko Böhme: "Kant verwendet 'Bewegung' im allgemeinen als empirischen Begriff. Dagegen findet sich Kr. d. r. V. B 155 'Bewegung' und 'Handlung' als etwas, was die Vorstellung der Zeit erst ermöglicht", Böhme 1966, 370h.

³⁶⁸"Ich nehme wahr, daß Erscheinungen auf einander folgen, d. i. daß ein Zustand der Dinge zu einer Zeit ist, dessen Gegenteil im vorigen Zustande war. Ich verknüpfe also eigentlich zwei Wahrnehmungen in der Zeit. Nun ist die Verknüpfung kein Werk des bloßen Sinnes und der Anschauung, sondern hier das Produkt eines synthetischen Vermögens der Einbildungskraft, die den inneren Sinnes in Ansehung des Zeitverhältnisses bestimmt", B233.

³⁶⁹"Es ist merkwürdig, daß das merkmal aller Handlung Veränderung sey, entweder actu oder potentia. von der inneren handlung: die innere, von der äußeren: Bewegung", Refl. 4770, AA XVII 723.

³⁷⁰B291-2.

subjektuan duela³⁷¹. Estetikan eman zituen emaitzen eznahikotasuna argi geratu zitzaion, bigarren edizioan gehitutako testuetan arazo bera lantzen baitu. Bestalde, orain begiespenaren formaz gain, begiespen formalaz hitz egiten du³⁷². Hemen, zehazki, espazioa forma hutsa gisa ulertzeko eznahikotasuna aipatzen da. Orain espazioa bera objektua ere bada, eta ez forma hutsa soilik. Begiespena osatzen duen batasunak adimenak zentzumena determinatzen duen sintesia eskatzen du, eta beraz, hau berezkotasunaren partaide ere bada nolabait. Vleeschauwer-ek hemen ikusten du Igarobideko bilakaera osoaren jatorria³⁷³.

Hau subjektuak bere buruaz duen ezagutzarekin elkarlotzen da. Garbi dago kanpoko zentzuen bidez subjektua kanpotik afektatua dela. Baina era berean geure subjektibitatea fenomeno gisa ezagutzen dugu barnetik afektatzen garen heinean. Berezkotasun soilaren analisi hutsarekin ezinezkoa da ezer ezagutzea³⁷⁴, barnetik afektatuz geu objektu gisa agertzea da norberaren ezagutzaren bide bakarra³⁷⁵. Agerpen horrek gainera denboraren araberakoa izan beharko du, barne zentzuan gertatzen baita niaren agerpen hori³⁷⁶. Beraz, apertzepzioak analitikoak izateaz gain, sintetikoak ere izan beharko du³⁷⁷. Hemen nabarmenki ikusten da Kant gaitasun ezberdinen eskema gaintzen ari dela, eta niaren agerpen modu ezberdinak daudela jokuan³⁷⁸. Oraingoz nia determinantea eta determinatuaz hitz egiten du³⁷⁹. Niaren bi alde hauen harremanak argitzeko

³⁷¹"Das Subjekt, in welchem die Vorstellung der Zeit ursprünglich ihren Grund hat", B422. Lehenengo edizioan: "Raum aber und Zeit sind beide nur in u n s anzutreffen", A373. Baina gugan izate hori, garbi dago, ez da inongo esplikaziorik.

³⁷²"Der Raum, als G e g e n s t a n d vorgestellt (wie man es wirklich in der Geometrie bedarf), enthält mehr, als bloße Form der Anschauung, nämlich Zusammenfassung des Mannigfaltigen, nach der Form der Sinnlichkeit Gegebenen, in eine a n s c h a u l i c h e Vorstellung, so daß die F o r m d e r A n s c h a u u n g bloß Mannigfaltiges, die f o r m a l e A n s c h a u u n g aber Einheit der Vorstellung gibt. Diese Einheit hatte ich in der Ästhetik bloß zur Sinnlichkeit gezählt, um nur zur bemerken, daß sie vor allem Begriffe vorhergehe, ob sie zwar eine Synthesis, die nicht den Sinnen angehört, durch welche aber alle Begriffe von Raum und Zeit zuerst möglich werden, voraussetzt. Denn da durch sie (indem der Verstand die Sinnlichkeit bestimmt) der Raum oder die Zeit als Anschauungen zuerst gegeben werden, so gehört die Einheit dieser Anschauung a priori zum Raume und der Zeit, und nicht zum Begriffe des Verstandes", B160-161oh. Baina, hala ere, Antinomietan aldatu gabe geratu ziren zatietan ideia zaharra errepikatzen da, hau da, espazioa ez dela objektua, forma hutsa baizik: B457/A429 eta B459/A431.

³⁷³Vleeschauwer 1962, 113.

³⁷⁴"Also ist durch die Analysis des Bewußtseins meiner selbst im Denken überhaupt in Ansehung der Erkenntnis meiner selbst als Objekts nicht das mindeste gewonnen", B409.

³⁷⁵"I c h , als Intelligenz und denkend Subjekt, erkenne m i c h selbst als g e d a c h t e s Objekt, so fern ich mir noch über das in der Anschauung gegeben bin, nur, gleich andern Phänomenen, nicht wie ich vor dem Verstande bin, sondern wie ich mir erscheine, hat nicht mehr auch nicht weniger Schwierigkeit bei sich, als wie ich mir selbst überhaupt ein Objekt und zwar der Anschauung und innerer Wahrnehmungen sein könne", B155-6.

³⁷⁶"Sie [die Zeit] ist also wirklich nicht als Objekt, sondern als die Darstellungsart meiner selbst als Objekts anzusehen", B54/A37.

³⁷⁷"Das: i c h d e n k e , muß alle meine Vorstellungen begleiten können", B104-5/A79 esatean, gero honela argitzen du zehazkiago: "Diese Beziehung[empirisches Bewußtsein/Identität des Subjekts] geschieht also dadurch noch nicht, daß ich jede Vorstellung mit Bewußtsein begleite, sondern daß ich eine zu der andern h i n z u s e t z e und mir der Synthesis derselben bewußt bin (...) d. i. die a n a l y t i s c h e Einheit der Apperzeption ist nur unter der Voraussetzung irgend einer s y n t h e t i s c h e n möglich", B133.

³⁷⁸"¿Cómo explica la autoafección? Por la distinción, no de dos sujetos, sino de dos momentos en el mismo sujeto. Hay, primero, un momento activo: el sujeto efectúa ciertas actividades poniendo sus representaciones; hay también un aspecto pasivo, el sujeto es capaz de aprehender la diversidad material de sus actos que son, por consiguiente, datos en relación a su aprehensión", Vleeschauwer 1962, 106-7.

³⁷⁹"Nicht das Bewußtsein des B e s t i m m e n d e n , sondern nur das des b e s t i m m b a r e n Selbst, d. i. meiner inneren Anschauung ist das Objekt", B407.

arretaren adibidea erabiltzen du³⁸⁰. Bertan subjektuaren berezkotasunak nabarmenki eragiten du barneko zentzuan.

Honekin gaitasunen teoria baten ordeztu subjektuaren ekimen modu ezberdinak ditugu eta subjektuaren izate beraren baldintzak argitzen dira, beti ere subjektuaren batasuna garbi geratuz:

"Nik pentsatzen dut' esaldiak, ni p e n t s a t z e n e x i s t i t z e n n a i z e l a e s a t e n d u e n n e u r r i a n , e z i n d u f u n t z i o l o g i k o s o i l a i z a n , b a i z i k s u b j e k t u a (z e i n a O b j e k t u a d e n a l d i b e r e a n) e x i s t e n t z i a r e k i k o d e t e r m i n a t z e n d u , e t a h a u e z i n d a b a r n e z e n t z u a g a b e g e r t a t u , z e i n a r e n b e g i e s p e n a k b e t i O b j e k t u a , e z b e r e b a i t a n g o g a u z a g i s a , b a i z i k f e n o m e n o g i s a e m a t e n d u e n . B e r t a n e z d a g o g e h i a g o p e n t s a m e n d u a r e n b e r e z k o t a s u n s o i l a , b a i z i k b a i t a b e g i e s p e n a r e n h a r m e n a e r e , h a u d a , n o r b e r a r e n p e n t s a m e n d u a s u b j e k t u b e r b e r a r e n b e g i e s p e n e n p i r i k o r a z u z e n d u a "³⁸¹.

Nia edo apertzepzioa intelektuala da noski, baina honen ezagutza denbora eta espazioarekin harremana duen neurrian soilik ematen da³⁸². Eta hor existentziaren arazoa ere jasota dago, Descartes-en cogitoaren antzeko formulazioetan azaltzen dena. Autoezagutza hori zer ote den, ordea, Kantek ez dauka erabat garbi, autobegiespenaz³⁸³, begiespen empiriko indeterminatuaz³⁸⁴, sentimenaz³⁸⁵ eta barne hautemapenaz ere hitz egiten du³⁸⁶. Berritasun hauek zituzten zailtasunetan geratzeak eta ondorengo garapena ez aztertzeak soilik sor

³⁸⁰"Wir auch vom inneren Sinne zugestehen müssen, daß wir dadurch uns selbst nur so anschauen, wie wir innerlich v o n u n s s e l b s t affiziert werden, d. i. was die innere Anschauung betrifft, unser eigenes Subjekt nur als Erscheinung, nicht aber nach dem, was es an sich selbst ist, erkennen*.

*Ich sehe nicht, wie man so viel Schwierigkeit darin finden könne, daß der innere Sinn von uns selbst affiziert werde. Jeder Actus der A u f m e r k s a m k e i t kann uns ein Beispiel davon geben. Der Verstand bestimmt darin jederzeit den inneren Sinn, der Verbindung, die er denkt, gemäß, zur inneren Anschauung, die dem Mannigfaltigen in der Synthesis des Verstandes korrespondiert. Wie sehr das Gemüt gemeinlich hiedurch affiziert werde, wird ein jeder in sich wahrnehmen können", B156-7. Hemen irudimenaren funtzioa ezabatua eta jasoa geratzen dela dirudi: "Er [Verstand] also übt, unter der Benennung einer t r a n s z e n d e n t a l e n S y n t h e s i s d e r E i n b i l d u n g s k r a f t , diejenige Handlung aufs p a s s i v e Subjekt, dessen V e r m ö g e n e r ist, aus, wovon wir mit Recht sagen, daß der innere Sinn dadurch affiziert werde", B153.

³⁸¹"Der Satz aber, Ich denke, so fern er so viel sagt, als: i c h e x i s t i e r e d e n k e n d , ist nicht die bloße logische Funktion, sondern bestimmt das Subjekt (welches denn zugleich Objekt ist) in Ansehung der Existenz, und kann ohne den inneren Sinn nicht stattfinden, dessen Anschauung jederzeit das Objekt nicht als Ding an sich selbst, sondern bloß als Erscheinung an die Hand giebt. In ihm ist also schon nicht mehr bloße Spontaneität des Denkens, sondern auch Receptivität der Anschauung, d. i. das Denken meiner selbst auf die empirische Anschauung eben desselben Subjekts angewandt", B429-30.

³⁸²Hamarkada aldaketa inguruko lektzioetan gai hau garbi agertzen da: "Eine Substanz kann nie pasiv seyn, ohne zugleich activ zu seyn d. h. jede Substanz mus handeln um zu empfangen", AA XXVIII-1, 513; "Also um zu etwas positivem empfänglich zu seyn, muß man selbst thätig seyn und dieser Satz ist einer der fruchtbarsten", idem, 514. Jarrera hau Kantzen Filosofian ere emankorra bihurtuko dela ikusiko dugu.

³⁸³B157-8.

³⁸⁴B422-3.

³⁸⁵"Denn das Ich ist gar kein Begriff*

*Wäre die Vorstellung der Apperception, das I c h , ein Begriff, wodurch irgend etwas gedacht würde, so würde es auch als Prädicat von andern Dingen gebraucht werden können, oder solche Prädicate in sich enthalten. Nun ist es nicht mehr als Gefühl eines Daseins ohne den mindesten Begriff und nur Vorstellung desjenigen, worauf alles Denken in Beziehung (relatione accidentis) steht", Prol., AA IV 334. Aukera hau, ordea, gerora atzera botako du.

³⁸⁶Horrela, Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en materiaren kantitatearen iraupenari buruz hitz egitean, barne zentzuaren eremuan horrelakorik ezinezkoa litzatekeela dio, baina apertzepzioari buruz zera gaineratzen du: "Das I c h , das

dezake autoafekzioarena bide faltsua zela uste duen iritzi okerra³⁸⁷, autoafekzioaren bide hau sakontzea baita Kantek ondoren hartuko duen bidea.

Barneko zentzua subjektuaren ekimenak bere burua afektatzeko modua dela aipatzen duen batean subjektuak modu hori ezartzen duela azpimarratzen du:

"Pentsatzeko ekintza orori errepresentazio modura aurreratu ahal zaiona begiespena da, eta honek harremanak besterik ez dituenek, begiespenaren forma da, eta honek gogamenean ezarritakoa besterik ez duenez bururutzen, gogamenak bere ekintzagaririk afektatua izateko modua besterik ez da, hau da, bere errepresentazioa ezartzeko ekintzagaririk eta, ondorioz, beragatik, hau da, barne zentzua bere formaren arabera"³⁸⁸.

Hemen subjektua eta denboraren harremana nolakoa den zehazten da. Autoafekzioaren luzapen gisako ideia hau oraingoz erabat landu gabe geratzen bada ere, iadanik denboraren ezarpen ("**Setzen**") batez hitz egiten du Kantek, eta hau ondoren autoezarpenaren teorian bihurtuko da³⁸⁹. Oraingoz, subjektuaren autokontzientziaz hitz egiten du, esperientzia ahalbidetzen duen heinean:

"Ni neu pentsatzen naiz esperientzia ahalgarri baten alde"³⁹⁰.

Hemen, lehen ere aipatu dugun puntu bat errepikatzen da, bilakaera hau guztia denborarekin loturan ematen dela, espazioak hor tokirik jaso gabe. Honen eznahikotasuna defendatu dut lehenago eta Kantek ere horrela ulertuko du. Niaren izatea denborarekin soilik ezin da lotu. Izatea kokapena da, denbora eta espaziozko kokapena. Gainera, "Idealismoaren errefusapenean" argi geratzen den gisa, denborak beti espazioa eskatzen du,

allgemeine Correlat der Apperception und selbst bloß ein Gedanke, bezeichnet als ein bloßes Vorwort ein Ding von unbestimmter Bedeutung, nämlich das Subject aller Prädicate, ohne irgend eine Bedingung, die diese Vorstellung des Subjects von dem eines Etwas überhaupt unterschiede. (...) Der Gedanke Ich ist dagegen gar k e i n B e g r i f f , sondern nur innere Wahrnehmung, aus ihm kann also auch gar nichts (außer der gänzliche Unterschied eines Gegenstandes des inneren Sinnes von dem, was bloß als Gegenstand äußerer Sinne gedacht wird), folglich auch nicht die Beharrlichkeit der Seele als Substanz gefolgert werden", MA, AA IV 542-3.

³⁸⁷"No se puede disimular que esta teoría de un sujeto que se afecte a sí mismo adolece de una enojosa confusión. Como dice Mörchen (Die Einbildungskraft bei Kant, pág. 53) 'la idea kantiana de la autoafección transcendental se halla presa de una seductora equivocidad y casi sugiere que en la misma espontaneidad existe la posibilidad de algo así como una receptividad'. Acaso esa equivocidad fue lo que hizo que Kant no insistiese en esa autoafección", Montero 1973, 94; "En general, Kant prefiere explicar el sentido interno sin recurrir a esa autoafección", idem, 95. Hala ere, 1989ko liburuan gaian benetan sakontzen saiatzen da.

³⁸⁸"Nun ist das, was, als Vorstellung, vor aller Handlung, irgend etwas zu denken, vorhergehen kann, die Anschauung, und, wenn sie nichts als Verhältnisse enthält, die Form der Anschauung, welche, da sie nichts vorstellt, außer so fern etwas im Gemüte gesetzt wird, nichts anders sein kann, als die Art, wie das Gemüt durch eigene Tätigkeit, nämlich dieses Setzen seiner Vorstellung, mithin durch sich selbst affiziert wird, d. i. ein innerer Sinn seiner Form nach", B67-8. Antzekoa B157oh.(2)-an.

³⁸⁹Beraz, Vleeschauer-ek Igarobideko hiztegiari buruz zera dionean: "Toute la terminologie, toutes les expressions coincident avec celles de Fichte", (Vleeschauer 1937, 615), badirudi mundua hankaz gora jarriz Kant Fichte ondoren etorri zela saldu nahi digula. Ziurrenik Kant berak "**Wissenschaftslehre**" hitza bera lehenago erabili zuen, horrela egiten baitu **Aurrerabide**etako paperetan, "**Zweifellehre**" eta "**Weisheitslehre**" aurretik une dogmatikoa zehaztuz (Fort., AA XX 273).

³⁹⁰"Ich denke mich selbst zum Behuf einer möglichen Erfahrung", B426.

eta hau subjektua beraren gain ere aplikagarria da. Oraingo, bitartean, ezagutzaren subjektua ez da arima, baizik gizakia bere osotasunean, hau da, izaki bera da, alde batetik gorpuztua, bestetik pentsatzailea dena³⁹¹. Baina idealismoaren arazoaren behin-betikoko konponketa baten beharrak aurrerantz bultzatuko du Kant³⁹².

³⁹¹"Auf solche Weise würde eben dasselbe, was in einer Beziehung körperlich heißt, in einer andern zugleich ein denkend Wesen sein, dessen Gedanken wir zwar nicht, aber doch die Zeichen derselben in der Erscheinung, anschauen können. Dadurch würde der Ausdruck wegfallen, daß nur Seelen (als besonderen Arten von Substanzen) denken; es würde vielmehr wie gewöhnlich heißen, daß Menschen denken, d. i. eben dasselbe, was, als äußere Erscheinung, ausgedehnt ist, innerlich (an sich selbst) ein Subjekt sei, was nicht zusammengesetzt, sondern einfach ist und denkt", A359-60; Eta ondoren Kritikako bigarren argitalpen honetan gizaki bizia kanpoko zentzuen objektu ere badela onartzen du: "Also bleibt die Beharrlichkeit der Seele, als bloß Gegenstandes des inneren Sinnes unbewiesen, und selbst unerweislich, obgleich ihre Beharrlichkeit im Leben, da das denkende Wesen (als Mensch) sich zugleich ein Gegenstand äußerer Sinne ist, für sich klar ist", B415. Beraz, denbora modura espazioa ere niari hobeto lotzeko beharra nabaria da.

³⁹²"Selbstbewußtsein ist demnach eine selbstreferentielle Differenzierung, die ich dadurch vollziehe, daß ich mich implizit auf etwas anderes als mich selbst beziehe", Sturma 1989, 377.

4. Nola Juzgamenaren Kritikarekin Kanten Filosofia ez den bukatzen, eta beraz, gutxiago oraindik osatzen

a. Sistemaren osaketaren porrota

Hasteko, hasiera batean idatzitako baina azken unean alde batera utzitako sarrera batekin topo egiten dugu Juzgamenaren Kritikan. Eta zorionez. Testigantza honekin Kanten asmoak eta bere emaitzen arteko tartea nabarmentzen zaigu. Ziurrenik sarrera hau lana aurretik idatzi zuen eta benetan aurrean bat litzateke³⁹³. Sinesterik ez dago bere luzeragatik soilik aldatu omen zuela, Kantek eskutitzetan errepikatzen duen gisa. Alde batetik, bigarren sarrera ez da askoz motzagoa eta ondoren lehenengoa 1792-XII-4ean Becki bidali zion bere edukia baliagarria uste zuela espreski esanaz³⁹⁴, honek Kanten Filosofiari buruzko bere liburua idazteko erabil zezan.

Dena den, lehen sarrera honetako hamabi zatietatik bostek sistemari buruzko izenburuak dituzte, eta lehenak bereziki "**Von der Philosophie als einem System**" izenburua du. Kanten asmoak, beraz, ezin dira baikorra goak izan, badirudi behingoz bere Kritika osatu eta benetako sistema bihurtzeko asmoa sendoa dela. Eta ondoren lan berara bagoaz, zer aurkitzen dugu? Bigarren sarreraren sistema hitzari buruzko erreferentziak titulu guztietatik desagertzen dira, eta lanaren edukia estetika, biologia eta teologiari buruzko arazoak eta hauei lotutako beste zenbaitekin osatzen da. Hirugarren kritika honen barne batasuna bera zalantzarria dirudienean, nola aurkeztu ahal izango du lan honek filosofia transzendentalaren sistema bera? Lan honek zeresan handia sortu du beti, baina Kanten ondorengo bidea ikusita, ondorio ezkor hau zehatza dela uste dut. Hirugarren kritika honetan Kanten Filosofiaren osaketa bilatzea ezinezkoa da. Hala ere, lan honetan topatzen diren gauza interesgarriak ez ditugu alde batera utziko, garrantzitsuak baitira.

Lehendabizi sarrerako lehen esaldiek Kritika sistemaren zatia ez dela, baina honen ideia proiektatu eta egiaztatu behar duela diote³⁹⁵. Hala ere, ondoren, "**Arrazoimen Hutsaren Kritikaren sistemaz**" hitz egiten du

³⁹³Hala frogatzen du Lehmannek (AA XX 475-7). Bere eskutitzetan oinarritutako argumentuez gainera, aurrean beraren zortzigarren zatiko ohar luzeak hori horrela izan daitekeela esaten digu. Bertan (EE, AA XX 226-232), perfekzioak estetikarekin zerikusirik ez izatea aztertzen du Kantek, atseginari kontrajarriz. Baina gai berdina lanaren 15. paragrafoan lantzen du (KU, AA V 226-229). Egia da, hemen perfekzioak atseginarekin duen kontrajarpena ez dela ukitzen, sentimenarekin duena baizik; baina Juzgamenaren Kritikako lehen sarrerako oharra eranskin bat balitz, aipatu beharko luke, egiten ez duena. Bestetik, berezia da oharra bera 15. paragrafoa baino luzeagoa izatea.

³⁹⁴AA XI 394-6.

³⁹⁵"Wenn Philosophie das System der Vernunftkenntniß durch Begriffe ist, so wird sie schon dadurch von einer Kritik der reinen Vernunft hinreichend unterschieden, als welche zwar eine philosophische Untersuchung der Möglichkeit einer dergleichen Erkenntniß enthält, aber nicht als Theil zu einem solchen System gehört, sondern so gar die Idee desselben allererst entwirft und prüfet", EE, AA XX 195.

Kantek eta horrekin nahikoa garbi geratzen da sistema kritiko horrek sistema osoan nolabait jasota egon behar duela, bi sistemen ideia baztertzekoa baita erabat³⁹⁶. Gogamenaren indarren sistemak bitartegabe darama natura eta askatasunaren sistema doktrinalera, biak juzgamenaren bitartez elkarri lotuak³⁹⁷. Sistema doktrinalaren gaia gero lan bertan askotan ukituko du, adibidez 59. paragrafoan, baina aldi berean oso garrantzitsua den zerbait esaten digu orain: hemengo natura eta askatasunaren arteko igarobide hori Kritikaren egitasmo orokorraren zati nagusia dela. Eta hala izanik, oraingo azterketan Kant aurreko hutsuneak betetzen saiatuko da, neurri batean soilik lortuz³⁹⁸.

Oharra: "**Igarobide**" hitza aurreko beste edozein lanekin alderatuta orain hain sarri agertzeak bere zentzu berezia izan dezake. Natura eta askatasunaren arteko igarobidea aipatzen duela ikusi dugu³⁹⁹, gero Igarobidearen bukaeran subjektuaren bitartez gertatuko dena, honekin arazoari konponbide berri bat emanez. Hala ere, Kantek lege enpirikoetatik orokorretara igotzeko behar den helburutasunaren printzipioa ere igarobidetzat du, eta igarobidearen zentzu hau bere azken eskuizkribuaren oinarrian dagoen arazotik hurbilago dagoela esango nuke⁴⁰⁰.

b. Beste hainbat arazo

Bi puntu nagusi daude lan honetan. Arazo nagusia naturaren aniztasuna eta lege partikularrak bateratzea eta sistema batean biltzea nola posible ote den aztertzea da. Lehen Kritikan natura orokor baten oinarriak jarri ziren, baina hau ez da nahikoa. Falta den hori orain helburutasunaren ideiarekin betetzen saiatzen da Kant, azken finean Dialektikako erantzunarekin batera datorren saiakera⁴⁰¹. Berezitasuna, orain saiakera hori juzgamen

³⁹⁶"System der Kritik der reinen Vernunft", EE, AA XX 205. Ondoren argiago ere Filosofiaren sistemaz hitz egiten du, hori zati doktrinaletik bereiziz, EE, AA XX 207. Edo aurrerago ere "**System der Wissenschaften der reinen Vernunft**" eta "**Kritik aller a priori bestimmaren Vermögen des Gemüths, so fern die unter sich ein System im Gemüthe ausmachen**" bereizten ditu, EE, AA XX 242.

³⁹⁷"So entdeckt sich ein System der Gemüthskräfte, in ihrem Verhältnisse zur Natur und der Freyheit, deren jede ihre eigenthümliche, b e s t i m m e n d e Principien a priori haben um deswillen die zwey Theile der Philosophie (die theoretische und practische) als eines doctrinalen Systems ausmachen, und zugleich ein Übergang vermittelt der Urtheilskraft, die durch ein eigenthümliches Princip beide Theile verknüpft, nämlich von dem s i n n l i c h e n Substrat der ersteren, zum i n t e l l i g i b e l e n der zweyten Philosophie, durch die Kritik eines Vermögens (der Urtheilskraft), welches nur zum Verknüpfen dient und daher für sich zwar kein Erkenntniß verschaffen oder zur Doctrin irgend einen Beitrag liefern kann", EE, AA XX 246.

³⁹⁸"Und so gehört diese Aufgabe der Kritik der Urtheilskraft unter das allgemeine Problem der Transscendentalphilosophie: Wie sind synthetische Urtheile a priori möglich?", KU, AA V 289.

³⁹⁹Hau zehazkiago 59. paragrafoan, bereziki KU, AA V 353-4.

⁴⁰⁰KU, AA V 185.

⁴⁰¹B685-6/A 657-8.

berezi bati lotzen diola, juzgamen erreflexionatzaileari. Gainera, hau esperientzia sistematikoki biltzeko baldintza ezinbestekoa da, funtzio eraikitzailea du, subjektiboki soilik bada ere⁴⁰². Horrela, hemen, esperentziaz lege enpirikoen sistema gisa hitz egiten du⁴⁰³. Arazoa zera da: orain "natura bera" lege berezietan bereizten dela dio Kantek⁴⁰⁴, eta hori ez da arazoa transzendentalki edo kritikoki planteiatzeko era. Hori nabaria da erabat juzgamenaren printzipio berezia aurkezten duenean:

"Naturak bere lege orokorrak enpirikoetan bereizten ditu, sistema logiko baten formaren arabera, juzgamenaren alde"⁴⁰⁵.

Hau horrela hartuz gero, maila dogmatikoan gaude; natura era berezi batera antolatua dagoela pentsatzen badugu, hori horrela dela pentsatzeko baldintzak aztertu beharrean. Benetan, ideia hori subjektuaren izaeraren ikerketaranzko bide gisa besterik ez da hartu behar⁴⁰⁶. Eta horrela ulertu behar da Kantek orain "naturaren teknika" espresioa aipatzea. Ez da natura artearen antzekoa denik edo, baizik guk natura ezagutzeko erak teknika bat erabiltzen duela derrigorrez⁴⁰⁷. Beraz, printzipio hori ez zaio subjektuari emana, baizik eta berak sortzen du⁴⁰⁸, eta hau heautonomiaren gaiari ondo egokitzen zaio. Hemen jokoan dagoena oso oinarritzkoa da, eta beraz, ez gara ari naturari ezarritako lege orokorrei buruz pentsatzen, ez eta arrazoimenak bere buruari emandako legeari buruz ere (autonomia), baizik legeztasun horien oinarritzko erreferentzia subjektibo berari buruz⁴⁰⁹.

Orain arte esperientzia berari buruzko erreflexioa ukitu dugu, baina helburutasunaren printzipioak banakako objektu bakoitzaren gain duen aplikagarritasuna ere aztertzen du Kantek, oraingoan batez ere estetikari

⁴⁰²"Auf Rechnung der Erfahrung kann man ein solches Princip auch keineswegs schreiben, weil nur unter Voraussetzungen desselben es möglich ist, Erfahrungen auf systematische Art anzustellen", EE, AA XX 211.

⁴⁰³"Ein solcher Begriff ist nun der einer Erfahrung als *S y s t e m s n a c h e m p i r i s c h e n G e s e t z e n*", EE, AA XX 203; "Die Urtheilskraft setzt ein System der Natur auch nach empirischen Gesetzen voraus", EE, AA XX 212oh.

⁴⁰⁴"*D i e N a t u r s p e c i f i c i r e s i c h s e l b s t* nach einem gewissen Princip (oder der Idee eines Systems)", EE, AA XX 215.

⁴⁰⁵"*Das eigenthümliche Princip der Urtheilskraft ist also: d i e N a t u r s p e c i f i c i r t i h r e a l l g e m e i n e G e s e t z e z u e m p i r i s c h e n, g e m ä s d e r F o r m e i n e s l o g i s c h e n S y s t e m s, z u m B e h u f d e r U r t h e i l s k r a f t*", EE, AA XX 216.

⁴⁰⁶"Was die Kategorie in Ansehung jeder besonderen Erfahrung ist, das ist nun die Zweckmäßigkeit oder Angemessenheit der Natur (auch in Ansehung ihrer besonderen Gesetze) zu unserem Vermögen der Urtheilskraft, wornach sie nicht bloß als mechanisch, sondern auch als technisch vorgestellt wird; ein Begriff, der freylich nicht so wie die Kategorie die synthetische Einheit objectiv bestimmt, aber doch subjectiv Grundsätze abgiebt, die der Nachforschung der Natur zum Leitfaden dienen", EE, AA XX 204oh.

⁴⁸⁰"Wenn Zeit und Raum Formen der Sinnlichkeit a priori sind; so begreife ich nicht: warum auch nicht Bewegung, d. h. Veränderung der Beziehung im Raum? Ja, ich glaube sogar, daß die Vorstellung des Raums nur durch die der Bewegung, oder vielmehr mit ihr zugleich, möglich sey. Eine Linie kann nicht anders, als durch Bewegung eines Punkts gedacht werden", Maimon 1965hh. IV 50-1oh. Zuzenean Kantengandik datorren arazoa baino ez du sakontzen.

⁴⁸¹AA XI 54. Begira honi buruz geroago Fichtek Reinholdi 1795eko martxoan dioena: "Gegen Maimons Talent ist meine Achtung grenzenlos; ich glaube fest und ich bin erbötig, es zu erweisen, daß durch ihn sogar die ganze Kantische Philosophie, so wie sie durchgängig, und auch von Ihnen verstanden worden ist, von Grund aus umgestoßen ist. Das alles hat er gethan, ohne daß es jemand merkt, und indeß man von seiner Höhe auf ihn herabsieht. Ich denke, die künftigen Jahrhunderte werden unserer bitterlich spotten", Fichte 1965hh. III 2, 282. Eta benetan beregan irudimenaren oinarritzotasuna, edo nia absolutuaren ideia idealista tipikoak azaltzen dira iadanik.

⁴⁸²Horrela, subjektibitatearen gaiaren bilakaera aurreratzen duen hau dio: "Erkenntnis meiner selbst (als object des inneren Sinnes)", AA XI 52.

ukituz⁴⁸³. Tamalez, Kantek ez zuen inoiz bere lankidetzan bilatu eta geroago iritzi ezkorra eta zitala ere erakusten du: 1794eko martxoaren 28an Reinholdi zera idazten dio, filosofo gazteak ulertzeko zailtasuna duela, eta Maimonen Filosofia kritikaren hobekuntza jartzen du adibide moduan, juduek besteen kontura izen bat lortzea gustoko gauza dutela gaineratuz⁴⁸⁴.

Gauzak horrela, azkenean Beck matematikari gaztean bilatuko du laguntza, bere gaitasuna eta, batez ere, Matematikaz zuen ezagutza sendoa estimatzen baitzituen⁴⁸⁵. 1791ko irailak 27an idatzitako eskutitzean Kantek hark bere lanen laburpen bat egitea onartzen du. Orduz geroztik, Beckek Kanti argipenak eskatzen dizkio behin eta berriz bere Filosofiari buruzko liburu honetarako. Azaroak 11n idatzitako eskutitzean Beck iadanik eduki nagusietan murgiltzen da, zentzumena eta kategorien arteko harremanen birpentsaketa batekin eta apertzezioaren inguruko galderekin. Eskutitz bertan Kantek argibideak idazten ditu, ondoren behin eta berriz egingo duena, era oso zabalean batzutan, eskutitza bera baino luzeago izanik bertan Kantek idatzitakoa. Horrela, 1792ko urtarrilaren 20ko erantzunean, Kantek puntu nagusiak ukitutako ditu, hala nola, zentzumena harmena gisa, eta beraz, afekzio subjektibo modura ulertzeko ahalbidea⁴⁸⁶, edo konposizioa emana ez dela, baizik egin behar dela⁴⁸⁷. Azken puntu hau Beckek bere Auszug honetan sarritan erabiliko du eta Igarobidean ere errepikakorra bihurtzen da. Eskutitz honetan arazoak konpontzearen Metafisikaren sistema eraikitzeke egitasmoa eginda duela dio Kantek, predikagarrien osotasuna eta erabilpena ziurtatuz, eta horrekin ontologiaren zientzia oso bat eratzen dela baieztatuz⁴⁸⁸. Baina badirudi Kantek ezin izan zuela norabide horretan sakondu. Uztailak 3an idatzitako eskutitzean gehiegizkoa zaiolakoan dago⁴⁸⁹. Urte honetan Beckek bere lanaren lehen liburukia prest zuen Arrazoimen Hutsaren Kritika eta Arrazoimen Praktikoaren Kritika-ren inguruko argipenekin eta hurrengo urtean argitaratu zen. Bigarren liburukirako Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak landu behar zuen.

Irailak 8ko Becken eskutitzean honek Kanti egindako galderak argitzeko Kantek idatzitako erakarpina eta aldarapenari buruzko argibideak aurkitzen ditugu, dentsitatearen arazoa konpondu nahian⁴⁹⁰. Beraz, garbi dago Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en argi geratu ez zirenak argitzen saiatzen dela Beck. Ondorengo eskutitzean, urriak 16an, erantzuna aldarapen ezberdinen aldetik bilatu behar dela, baina horrek zirkulu batetara

⁴⁸³"Die Philosophie hingegen hat noch keine Brücke aufbauen können, wodurch den Uebergang vom Transzendentalen zum Besondern möglich gemacht würde", Maimon 1965hh. IV 38. Duquek azpimarratu du pasarte hau (Duque 1987 xcvi). Horregatik, Vleeschauwer-ek Maimonen lanekiko duen iritzia erabat zilegizkoa da: "... sont parmi les plus importants de la fin du XVIII^e siècle" Vleeschauwer 1937, 382.

⁴⁸⁴AA XI 494-5.

⁴⁸⁵"Aus den Ihrer Dissertation angehängten thesibus sehe ich, daß Sie meine Begriffe weit richtiger aufgefasst haben, als viele andere, die mir sonst Beyfall geben" dio 1791eko maiatzaren 9ko eskutitzean (AA XI 256).

⁴⁸⁶AA XI 315.

⁴⁸⁷AA XI 316; gero ere AA XI 376.

⁴⁸⁸"Ich habe mir sonst schon einen Entwurf gemacht in einem System der Metaphysik diese Schwierigkeit umzugehen", AA XI 313; "Eine ganze Wissenschaft der Ontologie als i m m a n e n t e n Denkens", AA XI 314.

⁴⁸⁹"Mir scheint es rathsam sich nicht lange bey der allersubtilsten Zergliederung der Elementarvorstellungen aufzuhalten", AA XI 348.

⁴⁹⁰AA XI 361-5.

daramala eta momentuan nola erantzun ez dakiela onartzen du Kantek⁴⁹¹. Beckek galderekin jarraitzen du eta azaroaren 10ean masa kontzeptuaz zalantzak adierazten ditu⁴⁹². Abenduaren 4ean idatzitako eskutitza oso interesgarria da guretzat. Bertan, Kantek Juzgamenaren Kritika-rako lehen hitzaurrea bidaltzen diola dakigu, bere balioa azpimarratuz, baina zera ere badio, Natur Zientziekiko arazoak direla-eta, neguaren bukaeran Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak prestatzerakoan idatzitako, baina gero alde batera utzitako saiakuntzak jakitera emango dizkiola⁴⁹³. Zergatik ez berehala? Nork daki. Baina pentsa daiteke, lehenago aipatu dugun modura, garai hartan Kant Igarobidearen beharraz jabetu zela, eta beraz, arazoa Becken eskuetan utzi beharrean berak konpondu nahi izan zuela. Horregatik, ez dio ezer bidaltzen Becki eta honek 1793ko apirilaren 30ean agindutakoa gogoratzen dio⁴⁹⁴. Bertan aipatzen den Juzgamenaren Kritikarako lehen hitzaurrea azkenean jaso eta erabili ahal izan bazuen ere, Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en aurrean horiek ez ziren inoiz bere eskuetara iritsi. Hala ere, Beckek eremu horretako arazoak behin eta berriz aurkezten jarraitzen du. Horrela, 1793ko abuztuaren 24eko eskutitzean materiaren kantitateari buruzko argipenak eskatzen dizkio Kanti⁴⁹⁵.

Hala ere, ondoren arazoak sortu ziren bien artean. 94eko ekainaren 17an Beckek Juzgamenaren Kritika eta Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak lantzen dituen bigarren liburua prest dagoela esatean⁴⁹⁶, hirugarren liburukiaren plana aurkezten dio Kanti: Kritikan aurreko zatietatik hasita iristen bazen apertzepzioaren printzipiora, berak goitik hasita, jatorrizko atribuziotik ("**ursprüngliche Beylegung**") eratorri nahi du dena. Kantek uztaillaren batean erantzuten dio eta egitasmoa onartzen du, argibide batzuk ematen badizkio ere. Espazioa eta denboraren sintesi aktiboaren ideiarekin Kantek Beck aurrera egitera bultzatzen du, baina bide horretan gehiago sakontzeko zailtasunak ikusten ditu⁴⁹⁷. Hasiera interesgarri honen ondoren, ordea, hirugarren liburuki honek gatazka eragingo du. Alde batetik, argitaratzaileak "Auf Anrathen Kants" idazten du aurreko bi liburukietan bezala Kanti batere kontsultatu gabe; bestetik, Schulz-ek Kanti edukiari buruz emandako argibideak Beck fichtear gisa agerrarazten zuten. Fichte bera ere Beck bere alderako irabazten saiatu zen. Benetan, hala ere, zera daukagu: a priori-a posteriori; analitiko-sintetiko; fenomeno-noumeno; begiespen-kontzeptu bereizketak

⁴⁹¹AA XI 376-7.

⁴⁹²AA XI 385-6.

⁴⁹³"Ich werde Ihnen gegen Ende dieses Winters meine Versuche, die ich hierüber während der Abfassung meiner *Metaph: Anf. Gründe der N. W.* anstellte, die ich aber verwarf, mittheilen, ehe Sie an die Epitomirung derselben gehen", AA XI 396.

⁴⁹⁴"Sie erlauben mir aber wohl, Sie an das Versprechen zu erinnern, das Sie mir in Ihrem letzten Briefe thaten, mir zur Benutzung ein Paar Manuscripte zuzuschicken, eins, welches die Critick der Urtheilskraft und ein anderes welches die *Metaphysick der Natur* angeht", AA XI 426.

⁴⁹⁵AA XI 443-4.

⁴⁹⁶Bigarren liburu honetan ongi gorenaren gaiak Kant berak gero landuko duen bidea erakusten du: "Das durch Freyheit zu bewirkende hochste Gut in der Welt", Beck 1794, 375.

⁴⁹⁷"Die Zusammensetzung können wir nicht als gegeben wahrnehmen, sondern wir müssen sie selbst machen: wir müssen *z u s a m m e n s e t z e n*, wenn wir uns etwas *a l s z u s a m m e n g e s e t z t* vorstellen sollen (selbst den Raum und die Zeit). (...) Ich bemerke, indem ich dieses hinschreibe, daß ich mich nicht einmal selbst hinreichend verstehe und werde Ihnen Glück wünschen, wenn sie diese einfache dünne Fäden unseres Erkenntnisvermögens in genugsam hellen Lichte darstellen können. Für mich sind so überfeine Spaltungen der Fäden nicht mehr", AA XI 515.

gainditzen saiatzen da Beck; afekzioaren inguruko zailtasunak aipatzen ditu⁴⁹⁸ eta konponbidearen norabidea ematen saiatzen da: espazioa eta denbora ez dira begiespen soilak, kategoriekin batera jatorrizko errepresentatzearen era ezberdinak besterik ez dira⁴⁹⁹. Horrela, "**nik pentsatzen dut**"-en alde enpirikoa lantzen duen B422ko pasarteaz, jatorrizko errepresentatzeak izatea eratzten duela dio⁵⁰⁰. Bide honetatik, materiaren higikortasuna ere ezartze ekintza baten menpe legoke⁵⁰¹. Hau guztiak Igarobideko gaietara hurbiltzen gaitu indartsuki.

Beraz, alde batetik Beckek Kant beraren esanak lantzen dituela esan daiteke, une batzutan Kant bera baina aurrerago joanaz. Hori egitean, Beckek bere Filosofia beti bereiztu zuen Fichterenatik eta Kanten haserrea konpontzen saiatu zen. 1796 urte berean liburu berria idazten du Beckek, Grundriß der critischen Philosophie, eta bertan adimen-zentzumen harremanaren sakontzea dedukzio transzendental berak eskatzen duena betetzekotan egin duela dio⁵⁰² eta oro har Kritikaren izpirituari jarraitzen zaiola azpimarratzen du⁵⁰³. Baina funtsean ez du atzera egiten eta berriro ere formulazio aurrerakorrak topatzen ditugu⁵⁰⁴. 1797-VII-12an idatzitako eskutitzean Kantek Tieftrunki bere haserrea azaltzen dio oraindik eta honek Becki jakinarazi zion. Baina geroago Kanten urriaren 13ko eskutitzean pakeak egiteko asmoak nabarmenak dira eta abenduaren 11koan Becken Filosofiaz baikorki hitz egiten du berriro. Tieftrunkek, ordea, dirudenez hau ez zion Becki jakinarazi, ez baitu Becki buruz batere hitz egiten Kanti bidalitako hurrengo eskutitzetan. Beckek halakorik jakingo balu, berehala erantzungo luke; bestalde, erantzunik ez hartzean, Kant berak Beck beregandik erabat urrutiratu zela eta bere pake eskaintza ez zuela onartzen pentsa zezakeen. Horrela, 1799ko Fichteren aurkako deklarazioan Beck ere azaltzen da tartean. Honek harreman pertsonalen bukaera txar bat ekarri zuen, baina ondoren Kant berak Becken bide berdina hartu zuela ikusiko dugu, azken finean berak gomendatu ziona baitzen.

⁴⁹⁸"Sagen, daß uns die Gegenstände afficiren, und dadurch die Vorstellungen hervor bringen, ist so viel als nichts gesagt", Beck 1796a III 9.

⁴⁹⁹Horrela B160 eta oharra komentatuz, honela dio: "Hier trifft die Critik einen Hauptpunct, den sie in der trans. Aesthetik, ihrer Methode wegen, unberührt gelaßen hat, daß nämlich Raum und Zeit selbst Anschauungen und als solche Erzeugungen der synthetischen Einheit sind", Beck 1796a III 461-2.

⁵⁰⁰"Das ursprüngliche Vorstellen also macht die Existenz aus", Beck 1796a III 252; "Wenn er Materie, die den Raum erfüllt, betrachtet, so erzeugt er sich den Raum selbst", Beck 1796a III 161.

⁵⁰¹"Das Reale der Materie ist also Kraft, und zwar bewegende Kraft, weil sie Ursache der Bewegung ist, das ist: weil in diesem ursprünglichen Setzen die Synthesis des Gleichartigen in der Bewegung der eindringenden Materie fixirt wird", Beck 1796a III 213; "Nun hat die critische Philosophie in ihren metaphysischen Principien der Naturwissenschaft den Begriff der Materie auf die ursprünglich-synthetische objective Einheit des Bewußtseyns zurück geführt, worin ganz allein das Geschäft dieser der Physik zum Grunde liegenden Metaphysik bestand. Hier findet sich ein ursprüngliches Setzen eines Beharrlichen, das den Raum erfüllt", Beck 1796a III 361; "Der Begriff von Bewegung ist aber ein Begriff von einem empirischen Objecte, nämlich von der Materie, die ihre Stelle im Raume verändert. Hier gibt es allerdings eine Zurückführung dieses Begriffs auf die ursprünglich-synthetische Einheit, in welchem Geschäfte ganz und gar die Metaphysik der Natur besteht", Beck 1796a III 427. Honekin, Igarobidearen X/XI sortetatik aurrerako bidea zein izan behar den erabakita geratzen da; bertan Becken izena agertzen da baikorki, AA XXI 353.

⁵⁰²Horrela, Grundrißean 60-lean berriro B160oh. aipatzen du eta 66an estetikarekin nahikoa ez dela zehazten du.

⁵⁰³"Die Art, mit welcher ich in der Transscendentalphilosophie verfare, ist auch keine andere, als die der Critik selbst", Beck 1796b XIII.

⁵⁰⁴"Das Daseyn der Materie ist eben so unmittelbar gewiß, als mein eignes Daseyn. Ja, was wohl zu merken ist, nur in dem ursprünglichen Setzen eines Beharrlichen im Raum, ist alle Zeitvorstellung möglich", Beck 1796b 135-6.

Bere "jarraitzaileek" hartzen zituzten bide dibergenteak ikusita⁵⁰⁵, jasotzen zituen kritika zorrotzen aurrean bera nahikoa babesten ez zutela, 1790eko hamarkadako lehen erdian Kantek bere indarren zati handi bat pertsonalki bere sistema defendatzen eta hobeto esplikatzen eman zuen eta, horrela, idatzitako testu gehienak kritika ezberdinen aurreko defentsa gisa uler daitezke. Garapen hau guztian hainbat pertsona daude inplikaturak, eta ni nagusiak aipatzen ari naiz. Halal ere, garbi dago, Kant eta Fichte/Schelling arteko hutsunaren ideia hegeliarra ezin dela onartu, bitartean ahaztu diren beste pertsonai askok hartu baitzuten parte eztabaida garaikideetan⁵⁰⁶.

Horrela, 1790ean Juzgamenaren Kritikarekin aldi berean landutako Entdeckung argitaratzen du Kantek Eberharden kritiken aurka; 1792an erlijioari buruzko artikulu batzuk argitaratzen hasi baina bigarrenak zentsurarekin topo egiten du eta borroka handiak egin behar ditu Kantek azkenean artikulu guztiak hurrengo urtean Erljioa liburuan bilduta ateratzeko⁵⁰⁷. Errege berriarekin batera erlijioari buruzko edikto hertsitzaile berria izan zen ezarria. Erljioa zela-eta izan zituen arazoan aurrean kikildu gabe "Das Ende aller Dinge" artikulua idatzi zuen 1794ean eta hau agintarientzat gehiegi izan zen: errege beraren eskutik erlijioari buruz erakutsi edo idazteko debekua iritsi zitzaion. Kanten Filosofiaren zabalpenak teologo askoen oztopoa izan zuen hasieratik eta unibertsitate batzutan bere irakaspena debekatua izan zen. Jacobik Kanten Filosofiak ateismora zuzentzen zuela zabaltzen ibiltzeak ez zion asko lagundu. Urte hauetan gainera, Metafisikaren Aurrerabideak (1793-95) lan zabalean aritu zen lanean Berlingo Akademiaren sarirako. Arazoa ea Leibniz eta Wolff ondoren Filosofiak aurrerabiderik izan ote zuen zenez, eta Akademiako filosofo gehienak wolffiarrak zirela jakinda, Kanten aurkako muntaiatzat jo daiteke lehiaketa hau⁵⁰⁸. Kantek lortu zuen izen handiaren arren, Akademiak kanpoko kidegatzat soilik onartu zuen 1786an, baina erregeak oztopatu zuen kide arrunt gisa onartzea eta ondoren ere inoiz ez zen hau gertatu⁵⁰⁹. Kantek azkenean ez zuen bere aurka antolatutako lehiaketan parte hartu, baina eskuizkribua ia prest utzi zuen eta geroago Rink-i eman zion argitaratzeko, honek Kanten heriotza ondoren, 1804ean egin zuena.

⁵⁰⁵1797-X-13an Tieftrunki bidalitako eskutitzean bere lagun hiperkritikoez hitz egitengo du, Fichte eta Reinhold aipatuz (AA XII 207).

⁵⁰⁶"Fichte'sche Philosophie ist Vollendung der Kantischen Philosophie. Außer dessen und Schelling sind keine Philosophien. Die Anderen schnappen von diesen etwas auf, und bekämpfen und bequängeln sie damit. Ils se sont battus les flancs, pour être de grands hommes. So Boutewerk, Reinhold, Fries, Krug usw; es ist die äußerste Bornirtheit, die groß thut", Hegel 1959 XIX 611-2.

⁵⁰⁷Honela hitz egin zuen Kantek garaiko lezioen arabera: "Religionssachen urtheilen sollen. Denn da wird ihnen das einzige Mittel genommen, das ihnen die Natur gegeben, nämlich ihr Urtheil an fremder Vernunft zu prüfen. Die Freyheit im Stillen zu denken geben die Leute, die so despotisch tyrannissiren. Aber das ist vor das Schlimmste, daß sie das Niemand wehren können. Denken kann ich immer, was ich will", AA XXIV-2, 874-5.

⁵⁰⁸"A los ojos de Eberhard (y del nuevo rey, y de la Academia) Kant representa -como Lessing para Jacobi- el peligro de una *extremización de la Aufklärung*. Hay que poner coto a la razón en nombre del *sentimiento*", Duque 1987 xxiv.

⁵⁰⁹"La Academia de finales de los años ochenta y de toda la década de los noventa se convierte en una aparatosa máquina de guerra -más agresiva que eficaz, a la verdad- contra un único enemigo: Kant y los kantianos", Duque 1987 cxvi; "Pocas veces habrá deseado con mayor ardor un Organismo la amputación de uno de sus miembros", idem, cciii. Hau guztiaz, ikusi Felix Duquek lan honen itzulpenarako egindako ikerketa xehea eta zoragarria.

Lan hau uztean Igarobidearen lehen orri jarraikorak idatzi zituen, baina egitasmo berria oraindik ez zuen bete bete eskuarte hartu. Bitartean, Leibniz-Wolffen jarraitzaile ortodoxoenen kritikei, Filosofia kritikoa ikuspegi eszeptiko batetik erasotzen zutenenak gehitu zitzaizkien. Hemen Schulze eta Tiedemann aipatu behar dira, euren izenak Igarobidean sarritan agertzen baitira. Schulzeren kritikaren helburua Reinhold zen, baina bere bitartez kritikak Kantengana iristen ziren azken helburu gisa. Hori 1792ko bere liburuaren izenburu bertan ikusten da: Aenesidemus, oder über die Fundamente von dem Herrn Professor Reinhold in Jena gelieferten Elementar-Philosophie, nebst eine Vertheidigung des Scepticismus gegen die Anmassungen der Vernunftkritik. Gainera, asmo hori lehen eskutitzean espreski onartzen du⁵¹⁰. Kanti buruz errespetuz hitz egiten badu ere, neurri batean eszeptizismoa onartzen duelako batez ere⁵¹¹, funtsean baikortasun horretan ironia eta azpiko kritika ezkututzen da gehienbat⁵¹². Horrela, Schulzek idealismoaren errefusapenaren arazoa azkar aipatzen du, gero orokorrean lantzen du, eta azkenean Kanti zuzenean kritikatzeko erabiltzen du⁵¹³. Subjektuaren status zalantzarria aipatzen du⁵¹⁴, eta nia bikoitzaren ideia aurkezten du⁵¹⁵, baina hori afekzioa eta autoafekzioaren bitartez argitzearen eznahikotasuna ere bai⁵¹⁶. Honek eragina izan zezakeen, Igarobidean Aenesidemus izena autoezarpenari lotua agertzen baita⁵¹⁷. Gainera, liburuko azken eskutitzaren bukaeran zuzenki Kanten etika hartzen du kritika oso zorrozpean, nire ustez aurreko kritikak baino era zehatzagoan, eta zuzenagoan gainera⁵¹⁸.

Dieterich Tiedemann 1794ko Theätet oder über das menschliche Wissen. Ein Beytrag zur Vernunftkritik liburuak ez du eszeptizismoarekin harreman zuzenik, baina ekarpen berririk gabeko bere kritika deuseztatzailearen emaitza horixe litzateke. Bere asmoa lagun gisa iluntasunak argitzeko zerbait ekartzea dela dio⁵¹⁹, baina lan bertan horrelakorik ezin daiteke topatu. Kanten hizkuntza abstraktua eta berria⁵²⁰ argitzeko asmotan, hau berari ezaguna zaionarekin nahasten du eta gehienetan gauzak gehiago iluntzen ditu⁵²¹. Kanten

⁵¹⁰"Gelegentlich werde ich jedoch auch über die letzten Gründe der neuesten Philosophie, wie sie in der Vernunftkritik selbst angegeben worden sind, etwas zu sagen haben, und besonders die in dieser enthaltene Widerlegung des Scepticismus beleuchten müssen", Schulze 1792, 22.

⁵¹¹Schulze 1792, 23.

⁵¹²Horrela, azkenengo eskutitzean: "Als ein Kunstwerk des philosophischen Geistes, das seinem Erfinder immer unsterblichen Ruhm bringen wird, verehere und bewundere ich die kritische Philosophie so sehr, als sie einer ihrer erklärtesten Anhänger nur immer verehere und bewundern kann", Schulze 1792, 399.

⁵¹³Schulze 1792, 72-3; 231hh.; "Allerdings hat die Vernunftkritik einen Beweis des Daseyns äußerer Gegenstände im Raume wider den Idealismus des Bischoffs *Berkeley* aufgestellt; aber einen Beweis, der auf eine bloße Sophistery hinausläuft", idem, 268.

⁵¹⁴Schulze 1792, 165-6.

⁵¹⁵Schulze 1792, 88-9oh.

⁵¹⁶Schulze 1792, 295-6oh; 341-2.

⁵¹⁷AA XXII 99, 9; 107, 22.

⁵¹⁸"... und so sind wir durch die Moral-Theologie in der Erkenntniß Gottes und unserer Unsterblichkeit nicht im geringsten weiter gebracht, als uns die theoretische Vernunft nach den Lehren der kritischen Philosophie darin zu bringen vermag", Schulze 1792, 437.

⁵¹⁹Tiedemann 1794 XIX.

⁵²⁰Tiedemann 1794 XVI.

⁵²¹"Dem Dinge an sich gehört aber doch der Stoff der Vorstellung an, dieser Stoff der Vorstellung ist doch in der Vorstellung, dieser Stoff wird also doch vorgestellt, denn was in einer Vorstellung ist, wie sollte das darinn seyn, ohne vorgestellt zu werden?", Tiedemann 1794, 156.

puntu nagusiak benetako alternatiba ez den ikuspuntu enpirista orokorretik abiatuz atzera botatzen saiatzen da. Horretarako, Kanten testuez gain honen Filosofiaz Born, Jakob, Reinhold, Abicht, Schultz eta Beckek idatzitako liburuak erabiltzen ditu, unean uneko bere asmoen arabera. Bitartean, kritikak puntu serio bat ukitzen duela ere iruditzen zait: adimena eta zentzumenaren arteko harremanen egoera ulertezina. B160ko oharrean arazoa gainditzeko Kantek egiten duen saiakera ahula aipatzen du⁵²², arazoa zehazki finkatuz⁵²³. Bukaeran, ordea, Kant Berkeleyrekin batzen du eta Kantek nahi eta behar zuena baino gutxiago frogatu zuela dio⁵²⁴.

Kanten ekimenekin jarraituz, 1795ean Zum ewigen Frieden idazki zabal eta gaiarekiko berria argitaratzen du. Hurrengo urtean klaseak emateari uzten dio⁵²⁵ eta Metaphysik der Sitten lantzen du, obra oso zabala eta aurrelan handiak eskatzen zituena. Horri azkenengo zazpi urtetan idatzitako hamar artikulu inguru gehitu behar zaizkio. Orain badakigu Metaphysik der Sitten idaztean Igarobideko "Oktaventwurf" prest zuela eta horrekin azken eskuizkribuaren mugak jarrita zeudela, baina azken eskuizkribuko aurrelanak idazten jarraitu bazuen ere, ez zuen oraindik denbora gehiegirik horretarako. Metaphysik der Sitten berak ematen digu horren berri: Naturaren Metafisikatik Fisikara iragateko bere erregela bereziak dituen igarobidea behar den erara, eskubide osoz zerbait antzekoa eskatzen zaio Ohituren Metafisikari, hau da, betebeharraren hutsaren printzipioak eskematizatu behar dira esperientziako kasuei aplikatzeko eta erabilera praktikiko-moralerako prestatuak aurkezteko⁵²⁶.

Gainera, garai honetan Kant etsitu baten testigantza dugu. Beckekin harremana berreskuratu ezinean, filosofo gazteek abandonatu zutelarik, bakarrik sentitzen zela pentsa daiteke, eta horrela 1797an bere lanak 100 urte ondoren ulermen hobea izango zuela aipatu zuen⁵²⁷. Honekin, bere doktrinaren zabalpen egoki baten

⁵²²"Wie kann denn nun die Einheit dieser Anschauung erst vom Verstande hervorgebracht werden? Das hat vermutlich der tief sinnige Verfasser der Kritik geahndet, darum sucht er durch eine Distinction in der Anmerkung sich zu verwahren", Tiedemann 1794, 351.

⁵²³"Nach der kritischen Philosophie scheint der wirksame Einfluß des Verstandes auf die Sinnlichkeit sogar widersprechend zu seyn. Ihr zufolge sind Sinnlichkeit und Verstand zwar ganz abgesondert, heterogene Seelenvermögen, die mit einander von Natur in keiner Verbindung stehen, sondern sich sogar entgegengesetzt sind. Wie kann da der Verstand auf die Sinnlichkeit reellen Einfluß haben, um ihr eine gewisse Darstellung- oder Anschauungsart vorzuschreiben, und in sie hinzubringen?", Tiedemann 1794, 352.

⁵²⁴"Die kritische Philosophie hat also weniger bewiesen, als sie beweisen wollte und beweisen sollte", Tiedemann 1794, 453.

⁵²⁵Aipatzekoa da, K₂ kopiaren arabera, klaseak eman zituen azken urteetan autoafekzioa eta fenomenoaren fenomeno gisako gaiak aztertu zituela, hau da, testu argitaratuetan apenas agertu zirenak. Honek, Kantek bere klaseetan bere Filosofia batere landu ez zuela dioen iritzia, besteak beste Heidegger-ek ere baduena (Heidegger 1962, 88), erabat ukatzen du. Ez bere Filosofia soilik, hori beste lekzioetan ere nabarmena da, honen bilakaera berrienak ere aipatu zituen lekzioetan!

⁵²⁶"Gleichwie von der Metaphysik der Natur zur Physik ein Überschritt, der seine besondern Regeln hat, verlangt wird: so wird der Metaphysik der Sitten ein Ähnliches mit Recht angenommen: nämlich durch Anwendung reiner Pflichtprincipien auf Fälle der Erfahrung jene gleichsam zu s c h e m a t i s i r e n und zum moralisch-praktischen Gebrauch fertig darzulegen", MS, AA VI 468. Lehenago ere sistema bat eraikitzeo zailtasunei buruz hitz egitean, Igarobidea ere buruan duela dirudi: "Die D e d u c t i o n der Eintheilung eines Systems: d. i. der Beweis ihrer Vollständigkeit sowohl als auch der S t e t i g k e i t, daß nämlich der Übergang vom eingetheilten Begriffe zum Gliede der Eintheilung in der ganzen Reihe der Untereintheilungen durch keinen Sprung (divisio per saltum) geschehe, ist eine der am schwersten zu erfüllenden Bedingungen für den Baumeister eines Systems", MS, AA VI 218oh. Bestalde, alderantziz ere gertatzen dela aipatu behar da, Igarobideko AA XXI 178, 13-30 pasartean, Adickesek zehazki 1798ko abuztua eta irailaren artean kokatua, bertako arazoak zuzenbidearen doktrinaren duen paraleloa aztertzen duen oharra topatzen dugu.

⁵²⁷"Andererseits freilich äußerte er sich dahin, daß seine Zeit noch nicht reif für sein System sei: in einem Gespräch mit Fried. Aug. Stägemann aus dem Jahre 1797 sagte er: 'Ich bin mit meinen Schriften um ein Jahrhundert zu früh gekommen; nach

itxaropenak galdu zituela dirudi. Horregatik, filosofo gazteek bere bidea aurkitu nahian bere maisuaren ekarpenak gutxiagotzen saiatzea ezin zuen onartu, batez ere bera oraindik ere bere Filosofiaren sistematizazioan lanean zebilela pentsatzen badugu, eta horrek 1799ko Fichteren aurkako deklarazioa idaztera bultzatu zuen Kant⁵²⁸.

Metaphysik der Sitten ondoren ere beste bi lan garrantzitsu prestatu zituen oraindik, Streit der Fakultäten (1798), erregea hil ondoren berehala erlijio gaiak ukituz, eta Anthropologie (1798), bere lekzioetan oinarritutakoa, baina berritasunak ere jasotzen dituena. Azken urtetako lan ikaragarri honetan sartuta, ez da harriztekoa denbora gutxi izatea gauza berriak irakurtzeko, ez eta ere noski bere Filosofia lasai lantzen jarraitzeko. Honi, Kanten adina eta arazo landugabe baten zailtasuna gaineratuz gero, Igarobidearen atzerapenaren arrazoiak bildu ditugu. Arrazoimen Hutsaren Kritika prest zuela uste zuenetik bukatu arte ia 10 urte behar izan zituela ere ez da ahaztu behar, eta orduan tartean ez zuen beste lanik idatzi. Beraz, 1798 gerotik eta 1801era arte idatzi ahal izan zituen Igarobiderako aurrelan gehienak.

Bitartean argitaratu zituen lanetan topa daitekeen bilakaerara igaroz, Eberhardekin polemikan Kantek bere Filosofiako erdigune nagusiak honen gaizkiulertu eta kritiketatik babestu beharko ditu. Hark ikuspegi monadista

hundert Jahren wird man mich erst recht verstehen und dann meine Bücher aufs neue studieren und gelten lassen' (Varnhagen von Ense, Tageb. I. Bd., S. 46)", Überweg 1924 III 509.

⁵²⁸"Kant ist der erste Lehrer der Transscendental-Philosophie und Reinhold der trefflichste Verbreiter der kritischen Lehre: aber der erste Transscendental-Philosoph selbst ist unstreitig Fichte. Fichte hat den in der Kritik entworfenen Plan realisirt und den, von Kant angedeuteten transscendentalen Idealismus systematisch durchgeführt. Wie natürlich ist daher der Wunsch des Publicums, dass sich der Urheber der Kritik über das Unternehmen seines würdigsten Schülers, über den Urheber der Transscendental-Philosophie öffentlich erkläre!", honela zioen 1799-1-11ko "Erlangischen Literaturzeitung"-ean ezezagun batek J. G. Böhleren Entwurf der Transscendental-Philosophie iruzkintzean (AA XXI 542). Kantek erantzuna 1799-8-28ko "Intelligenzblatt der A. L. Z"-ean argitaratu zuen, beraz urte erdi geroago. Fichte eta Schellingek atzerapen hau nola juzgatu zuten jakiteko eta arazo honetan Kantek izan zuen jarrera oro har balioztatzeko begiratu AA XIII 542-550. Polemikan nahastutakoen motibazio psikologikoak aztertzen hasteko lekua ez da hau. Baina, bi gauza aipatuko nituzke. Bata, aurreko urtean Abegg-ek Fichteren eskuminak ematen dizkionean, Kantek iadanik honela hitz egiten zuela berari buruz, Abegg beraren arabera: "Dies ist nun so ein Compliment, auch schreibt er mir immer höflich, aber eine Bitterkeit läuft mit unter, daß ich mich nicht über ihn oder gar für ihn erkläre, und es wird nichts ausgerichtet, daß er alles so fein aussinnet. Ich lese seine Schriften nicht alle, aber neulich las ich die Recension seiner Schriften in der Jen. Lit. Zeit. Ich wußte beim ersten Male nicht recht, was er wollte. Ich las zum zweiten Mal, und jetzt glaubte ich, nun werde ich etwas brauchen können, aber es war nichts. Den Apfel vor dem Munde hält er, nur gibt's keinen Genuß. Es kommt auf die Frage am Ende hinaus: mundus ex aqua? Er bleibt immer im allgemeinen, gibt nie ein Beispiel, und was noch schlimmer ist, kann keines geben: weil dasjenige nicht existirt, was zu seinen allgemeinen Begriffen paßte", Abegg 1992, 144. Bestea, Igarobidean, "Übergang 1-14"-ren hasieran eta beraz ziurrenik deklarazio bera baino hilabete batzuk lehenago, iadanik deklarazioaren aurrelana izan daitekeena topatzen dugula: "Eine Wissenschaftslehre überhaupt in der man von der Materie derselben (den Objecten der Erkenntnis) abstrahirt ist die reine Logik und es ist ein vergebliches Umdrehen im Kreise mit Begriffen über diese sich noch eine andere und höhere allgemeinere Wissenschaftslehre zu denken welche doch selber nichts als das Scientifische der Erkenntnis überhaupt (die Form derselben) enthalten kann", AA XXI 207, 23-28. Aurretik, ordea, Maimonek zera idatzi zuen: "Eine v o l l s t ä n d i g e I d e e der Transscendentalphilosophie (obschon nicht die ganze Wissenschaft selbst) liefert uns der große K a n t in seinem unsterblichen Werke der Kritik der reinen Vernunft", Maimon, 1965hh. IV 8. Kantek lehen ez bezala, orain erreaktionatzen badu, horrek funtsean bere esanahia duela adierazten du. Hala ere, Kantek bere lanaren letra jarraitu behar dela aipatzea guztiz penagarria da, ikusi dugun moduan bera baita letra hori gaintitzen saiatzen ari den lehena. Gainera, bi urte lehenago datorrena idatzi zuela ez da ahaztu behar: "Wenn jemand ein System der Philosophie als sein eigenes Fabrikat ankündigt, so ist es eben so viel, als ob er sagte: vor dieser Philosophie sei gar keine andere noch gewesen. Denn wollte er einräumen, es wäre eine andere (und wahre) gewesen, so würde es über dieselbe Gegenstände zweierlei wahre Philosophieen gegeben haben, welches sich widerspricht. - Wenn also die kritische Philosophie sich als eine solche ankündigt, vor der es überall noch keine Philosophie gegeben habe, so thut sie nichts anders, als was alle gethan haben, thun werden, ja thun müssen, die eine Philosophie nach ihrem eigenen Plane entwerfen", MS, AA VI 207.

batetik Kantek zentzumenaren ikuspegi berria erasotzen du eta bere jarrera defendatzeko Kantek nolabait aurretik aipatutakoak indartzen ditu, zentzumenak irudimenarekin duen lotura bereziki, betidanik arazotsua izan zen gaia⁵²⁹, eta ondoren ere Kantek sakonago birpentsatuko duena. Bide berdinetik, errepresentazio guztiak irabaziaz direla aipatzean, eta ez jaiotzetikoak, jatorrizko irabazia⁵³⁰ aipatzen du Kantek eta izaera berdina dute begiespenek eta kategoriek. Eta pixka bat aurrerago zentzumenaren esplikazio argigarria aipatzen du: honen oinarria ez dira ezagumenaren mugak, ez eta irudia ere; gogamenaren harmen propioa baizik, zerbaitengatik afektatua izan behar duen heinean⁵³¹. Gogoeta hauek, ordea, ez dute urrutirago bidaltzen, zeren argibide beharra azaltzen badute ere, Kantek ez baitu eremu hori lantzen: lanaren bukaeran zentzumenaren eta adimenaren jatorria, edo bien elkarlanaren jatorria gehiago ikertzea ezinezkoa dela aipatzen du⁵³².

Bestalde, Juzgamenaren Kritikako aipamen argiak jarraituz, gizakiak bere gorputzaren bere baitan jasotzen duela baieztatzen du⁵³³. "Bere baitango gauza" kontzeptuari buruzko ohiko ikuspegiaz ere berritasuna topa daiteke, fenomenoan dagoen guztia era berean fenomeno dela aipatzean⁵³⁴. Gero Beckek esango duenaren antza du honek. Azkenik, Kritikak ordura artekoak baino irmoago den Filosofiaren sistema baterako bidea zabaldu duenaren ziurtasuna azaltzen du⁵³⁵.

Metafisikaren Aurrerabideetan estetika eta analitikaren arteko zuloa gainditzeko asmoa indartuko da, eta baita subjektuaren produkzio lana azpimarratu ere. Honen aurretik aipatutako testuaren aurka, orain Leibniz ez da aurrekari gisa ospatzen, baizik zuzenki kritikatzeko zaio norberaren Filosofiaren berritasuna azpimarratzeko. Honek Akademiarekin konponketa bat lortzeko ezintasunaren kontzientzia adierazten du.

⁵²⁹"Um auch das Paradoxe zu heben, welches man hiebei fühlt (...) kann und muß man einräumen, daß Raum und Zeit bloße Gedankendinge und Wesen der Einbildungskraft sind, nicht welche durch die letztere gedichtet werden, sondern welche sie allen ihren Zusammensetzungen und Dichtungen zum Grunde legen muß, weil sie die wesentliche Form unserer Sinnlichkeit und der Rezeptivität der Anschauungen sind, dadurch uns überhaupt Gegenstände gegeben werden, und deren allgemeine Bedingungen notwendig zugleich Bedingungen a priori der Möglichkeit aller Objekte der Sinne, als Erscheinungen, sein und mit diesen also übereinstimmen müssen", Entd., AA VIII 202-203.

⁵³⁰"Ursprüngliche Erwerbung", Entd., AA VIII 221; geroago, "Ursprüngliche Vorstellungsarten", Entd., AA VIII 241.

⁵³¹"Der Grund der Möglichkeit der sinnlichen Anschauung ist keines von beiden, weder *Schranke* des Erkenntnißvermögens, noch *Bild*; es ist die bloße eigenthümliche *Receptivität* des Gemüths, wenn es von etwas (in der Empfindung) afficirt wird, seiner subjectiven Beschaffenheit gemäß eine Vorstellung zu bekommen", Entd., AA VIII 222.

⁵³²"Wir konnten aber keinen Grund angeben, warum wir gerade eine solche Art der Sinnlichkeit und eine solche Natur des Verstandes haben, durch deren Verbindung Erfahrung möglich wird; noch mehr, warum sie, als sonst völlig heterogene Erkenntnißquellen, zu der Möglichkeit eines Erfahrungserkenntnisses überhaupt, hauptsächlich aber (wie die Kritik der *Urtheilskraft*) zu der Möglichkeit einer Erfahrung von der Natur unter ihren mannigfaltigen *beseonderen* und bloß empirischen Gesetzen, von denen uns der Verstand a priori nichts lehrt, doch so gut immer zusammenstimmen, als wenn die Natur für unsere Fassungskraft absichtlich eingerichtet wäre; dieses konnten wir nicht (und das kann auch niemand) weiter erklären", Entd., AA VIII 249-50. Lehenago ere antzeko jarrera zuen: B283/A230; B145-6.

⁵³³"... in welchem [dem Begriff vom Menschen] schon der Begriff eines Körpers enthalten ist", Entd., AA VIII 224.

⁵³⁴"Nach der Kritik ist also alles in der Erscheinung selbst wiederum Erscheinung", Entd., AA VIII 210.

⁵³⁵"Übrigens mag die Kritik der reinen Vernunft, wenn sie kann, durch ihre innere Festigkeit sich selbst weiterhin aufrecht erhalten. Verschwinden wird sie nicht, nachdem sie einmal in Umlauf gekommen, ohne wenigstens ein festeres System der reinen Philosophie, als bisher vorhanden war, veranlaßt zu haben", Entd., AA VIII 246.

Hemen, Filosofia transzendental sistema ontologiko gisa aurkezten du. Honek Metafisikarako propedeutika izaten jarraitzen duela aipatzen badu ere, Filosofia transzendentalarekin berdintzen du ontologia orain, ez adimenaren kontzeptuen analitika soilarekin eta Metafisikaren zatia dela esaten du⁵³⁶. Lehen ez bezala, Kritika berak Filosofia transzendental osatzen duela dio⁵³⁷, horrek oraindik Metafisikara eraman behar badu ere⁵³⁸. Kritika berari pisu sistematikoa emateko jarrera nabarmena da⁵³⁹. Metafisika honen oinarriak espazio-denboraren idealtasuna eta askatasunaren kontzeptuaren errealitatea direla aipatzean⁵⁴⁰, Igarobideko ideien sistemaren polo berdinak ditugu iadanik aurreratuta. Etikaren lehentasunak duen garrantzia ere azpimarratzen jarraitzen du eskuizkribu honetan⁵⁴¹.

Oso gogoeta interesgarriak topatzen ditugu era berean subjektuaren gaiaren inguruan. Eremu honetan aipatu ditugun arazoak konpontzen saiatzeko nia bikoitz batez hitz egiten du, bere batasuna gordez hala ere⁵⁴². Nia bikoitzaren gaia autoafekzioarekin lotua dagoela 1787tik aurrera argi zegoen eta hemen berriro agertzen da⁵⁴³, eta aurretik erabili zuen arretaren adibide bera ematen du gainera. Ondoren, bikoitzasun hori nia subjektu eta objektu gisa bereiztuz aztertzen du⁵⁴⁴, gero Igarobidean agertuko den forma oso berdintsuan, kanpoko

⁵³⁶"Die Ontologie ist diejenige Wissenschaft (als Theil der Metaphysik), welche ein System aller Verstandesbegriffe und Grundsätze, aber nur so fern sie auf Gegenstände gehen, welche den Sinnen gegeben, und also durch Erfahrung belegt werden können, ausmacht. Sie berührt nicht das Übersinnliche, welches doch der Endzweck der Metaphysik ist, gehört also zu dieser nur als Propädeutik, als die Halle, oder der Vorhof der eigentlichen Metaphysik, und wird Transscendental-Philosophie genannt, weil sie die Bedingungen und ersten Elemente aller unserer Erkenntniß a priori enthält", Fort., AA XX 260.

⁵³⁷"Die Transscendentalphilosophie, d. i. die Lehre von der Möglichkeit aller Erkenntniß a priori überhaupt, welche die Kritik der reinen Vernunft ist, von der itzt die Elemente vollständig dargelegt worden, hat zu ihrem Zweck die Gründung einer Metaphysik", Fort., AA XX 272.

⁵³⁸"Die Metaphysik ist hiebey selbst nur die Idee einer Wissenschaft, als Systems, welches nach Vollendung der Kritik der reinen Vernunft aufgebaut werden kann und soll, wozu nunmehr der Bauezeug, zusammt der Verzeichnung vorhanden ist", Fort., AA XX 310.

⁵³⁹"Marca una etapa importante en el oscurecimiento de la distinción entre la propedéutica crítica y el sistema trascendental", Vleeschauer 1962, 153.

⁵⁴⁰Fort., AA XX 311.

⁵⁴¹"Ursprung der kritischen Philosophie ist Moral", Fort., AA XX 335. Gainera: "Die Autonomie der reinen practischen Vernunft zugleich als Autokratie", Fort., AA XX 295.

⁵⁴²"Nur will ich noch anmerken, daß in Ansehung des innern Sinnes das doppelte Ich im Bewußtseyn meiner selbst, nämlich das der innern sinnlichen Anschauung und das des denkenden Subjects, Vielen scheint zwey Subjecte in einer Person vorauszusetzen", Fort., AA XX 268.

⁵⁴³"Jetzt wollen wir diesen Ausdruck [erscheinen] noch näher bestimmen, indem wir dieses Subjective als die Vorstellungsart erklären, wie unser Sinn von Gegenständen, den äußern oder dem innern (d. i. von uns selbst), afficirt wird, um sagen zu können, daß wir diese nur als Erscheinungen erkennen", Fort., AA XX 269.

⁵⁴⁴"Ich bin mir meiner selbst bewußt, ist ein Gedanke, der schon ein zweifaches Ich enthält, das Ich als Subject, und das Ich als Object. Wie es möglich sey, daß ich, der ich denke, mir selber ein Gegenstand (der Anschauung) sey, und so mich von mir selbst unterscheiden könne, ist schlechterdings unmöglich zu erklären, obwohl es ein unbezweifeltes Factum ist; es zeigt aber ein über alle Sinnenanschauung so weit erhabenes Vermögen an, daß es, als der Grund der Möglichkeit eines Verstandes, die gänzliche Absonderung von allem Vieh, dem wir das Vermögen, zu sich selbst Ich zu sagen, nicht Ursache haben beyzulegen, zur Folge hat, und in eine Unendlichkeit von selbstgemachten Vorstellungen und Begriffen hinausieht. Es wird dadurch aber nicht eine doppelte Persönlichkeit gemeynt, sondern nur Ich, der ich denke und anschau, ist die Person, das Ich aber des Objectes, was von mir angeschauet wird, ist gleich andern Gegenständen außer mir, die Sache", Fort., AA XX 270. Aurrelan hauei dagokien Refl. 6317, AA XVIII 625ean ere: "Hiedurch werde ich genöthigt, mein eignes Subject als Object der Sinne und (zugleich) der Vernunft auf zwey Verschiedene Art existirend zu denken: 1. als Gegenstand der Sinne, 2. Als ein Wesen (welches) sofern es gar nicht Gegenstand der Sinne ist". Honek etikaren prestaketarako duen garrantzia nabarmena da, eta Igarobidearen azken bilakaera pentsatzen laguntzen du.

begiespena eta soina oraindik barnebiltzen ez baditu ere. Hala ere, nia fisikoaz hitz egiten du eta denborazko nia aldaketa ahalgarri izateko baldintza ezinbestekoa izateak higiduraren arazoarekin lotura zehazki ezartzen du⁵⁴⁵.

Ziurrenik testu hauen inguruan kokatu behar den eta Starkek argitaratu duen C 01, 3 orrialdeak puntu hauek erabat argitzen ditu⁵⁴⁶. Aldaketan zehar subjektuaren batasuna auresuposatu beharrak autoaldaketaren gaitasuna duen subjektu baterakorraz hitz egitea eragiten du. Hemen zehazki argitzen hasten da autoafekzioaren gaia higikortasunaren gaitasun subjektiboari zuzenki lotuta dagoela, Kantek subjektuaren ekintza eta denboraren arteko harremana lantzen duen heinean. Aldaketaren gai horrek subjektuaren gorputzasuna jaso behar duela argia bada ere, Kantek ez du gaia zuzenean aztertzen. Hala ere, gorputza kontuan izateko beharra garbi dauka⁵⁴⁷, eta gehiago, gorputza eta arimaren arteko ezinbesteko loturak hilezkortasunaren postulatu zentzurik gabe uzten du⁵⁴⁸. Starkek ezagutarazi duen testuan agertzen den konposizioaren gaiak subjektuaren ekintza eraikitzailearen indartzea ere azaltzen du nabarmenki⁵⁴⁹.

Aurrerabideetako testuaren zatitza jotzen diren zenbait testuk Igarobidearen aurrelari izateko antza dute. Higiduraren arazoa era klasikoagoan predikagarrien testuinguruan agertzen bada ere⁵⁵⁰, beste une batean ondorengo eskuizkribuarekin lotura nabarmena egiten da espazio betea, higidura eta indar higitzaileen apriorizkotasuna aipatzen direnean⁵⁵¹. Beste puntu batera igaroz, argumentu ontologikoaren kritika baten testuinguruan harrigarriki hau era baikorrean erabilia agertzen da materia frogatzeko, eta zehazki Igarobidean

⁵⁴⁵"Wenn ich mich erkännte wie ich bin nicht wie ich mir erscheine so würde meine Veränderung einen Widerspruch in mir machen. Ich würde niemals derselbe Mensch seyn. Die Identität des Ich wäre aufgehoben./ Das logische Ich ist für ihm selbst kein Object der Erkenntnis aber wohl das physische s e l b s t und zwar durch die categorien als Arten der Zusammensetzung des Mannigfaltigen der inneren (empirischen) Anschauung so fern sie (die Zusammensetzung) a priori möglich ist", Fort., AA XX 338.

⁵⁴⁶"Es ist nicht ein doppeltes Subject des Bewusstseyns sondern ein und dasselbe Subject welches sich selbst modificirt und sich verändert da dann der welcher die Veränderung macht doch von dem was verändert wird unterschieden seyn muß. Ein Zusammengesetztes sich vorzustellen ist nur durch Zusammensetzung möglich. Dies geschieht so fern in der Zeit als das Subject Veränderung erleidet die Einheit der Handlung des Zusammensetzens ist im Subject so fern es nicht veränderlich ist. Aus der Möglichkeit dieser Selbstveränderung ist so gar sicher zu schließen daß da die Zeit derselben zum Grunde liegt das veränderte Subject blos in der Erscheinung vorgestellt sein müße", Stark 1993, 251.

⁵⁴⁷"Er ist sich selbst aber auch als Gegenstand seiner äußern Sinne bewußt, d. h. er hat einen Körper, mit dem der Gegenstand des inneren Sinnes verbunden, der die Seele des Menschen heißt", Fort., AA XX 308.

⁵⁴⁸Horrela, aurreko Filosofia leibniziar-wolffiarrak eremu honetan zuen jarrera lasai kritikatu, honela dio hil ondorengo egoera posible bati buruz: "Man müßte denn etwa den Versuch zu welchen sich getrauen, welcher ongehähr dem Versuch ähnlich seyn würde, den jemand mit geschlossenen Augen vor dem Spiegel zu machen gedachte, und auf Befragen, was er hiemit wolle, antwortete: ich wollte nur wissen, wie ich aussehe, wenn ich schlafe", Fort., AA XX 309.

⁵⁴⁹Matafisikaren Aurrerabideak testuan ere: "Zum Prinzip der Erkenntniß, die a priori synthetisch ist, gehört, daß die Zusammensetzung das einzige a priori ist, was, wenn es nach Raum und Zeit überhaupt geschieht, von uns gemacht werden muß", Fort., AA XX 332.

⁵⁵⁰"Noch gehören zu den Kategorien, als ursprünglichen Verstandesbegriffen, auch die Prädicabilien, als aus jener ihrer Zusammensetzung entspringende, und also abgeleitete, entweder reine Verstandes-, oder sinnlich bedingte Begriffe a priori, von deren ersteren das Daseyn als Größe vorgestellt, d. i. die Dauer, oder die Veränderung, als Daseyn mit entgegengesetzter Bestimmungen, von den andern der Begriff der Bewegung, als Veränderung des Ortes im Raume, Beyspiele abgeben, die gleichfalls vollständig aufgezählt, und in einer Tafel systematisch vorgestellt werden könnten", Fort., AA XX 272.

⁵⁵¹"Die Begriffe vom vollen und leeren Raum, von Bewegung und bewegenden Kräften, können und müssen in der rationalen Physik auf ihre Prinzipien a priori gebracht werden", Fort., AA XX 286.

materiaren frogapenak duen argumentazio berdina jasoz⁵⁵². Beraz, Kant gauzak aurrerantz birpentsatzen ari dela ezin da ukatu⁵⁵³.

Orain Kantek 1796an idatzi zuen artikuluko pasarte zoragarri bat aipatu nahi dut laburki. Aurretik aipatutako Juzgamenaren Kritikako gogoetekin zerikusia du. Musikak arima mugitzen du, baina, alde batetik, musika zenbakien erlazioetara murrizten da; bestetik, arima bere burua determinatzen duen askatasunak osatzen du. Ondorioz, ondo uler daiteke arima berez mugitzen den zenbakitzat definitzea, horrek materiatic bereizten duen berezko higiduraren gaitasuna eta, beraz, askatasuna nabarmentzen duen heinean⁵⁵⁴. Hemen aurkezten den berezko higikortasuna eta askatasunaren arteko lotura erabakigarria da, eta berezkotasun eta harmenaren loturaren ikerketa sakonago bat aurreratzen du.

Ohituren Metafisikara igaroz, bertan arrazoimen praktikoaren postulatu juridikoa topatzen dugu. Jabetza enpirikoa aztertzean, lan bertan ez, baina aurrelanean horrek espazio-denborarekin eta gorputzarekin duen lotura azaltzen da⁵⁵⁵. Ondoren, jabetza juridikoa lantzean askatasuna eta harmenaren arteko harremanak erdigune bihurtzen dira: jabetza fisikoa intelektualaren eskema da⁵⁵⁶. Autoafekzioa ere agertzen da hemen gorputzari lotuta, jabetzarako baldintza gisa⁵⁵⁷. Eta jabetza oro har ulertzeko, Kantek azkenean subjektuaren higikortasunera jo behar du. Nirea, bere aldaketak aldi berean nireak diren zerbait da⁵⁵⁸ eta, beraz, hor espazio eta denborazko harremana zerbaiti nola aplikatu ahal zaion agertzen da⁵⁵⁹.

Antropologian nia bikoitzaren gaia berriro agertzen da. Berezkotasuna eta harmenaz hitz egitean, niak bikoitza dirudiela dio, pentsamenduaren subjektu eta hautemapenaren objektu gisa. Ondoren, aldaketetan zehar subjektuak berdina izaten jarraitzen ote ahal duen galderak zentzurik ez duela dio, aldaketa horiek

⁵⁵²"Die Nothwendigkeit etwas vorauszusetzen um sich einen Gegenstand verständlich zu machen, e. g. der Materie weil ohne sie auch der Raum nicht ein Gegenstand der Wahrnehmung wäre wird für die objective Nothwendigkeit gehalten und ist hier realitas phaenomenon", Fort., AA XX 349.

⁵⁵³"Ainsi les *Fortschritte* marquent une étape nécessaire, que Kant devait parcourir pur pouvoir préparer, avec les particularités que nous retrouverons plus tard, une oeuvre comme l'*Opus postumum*", Vleeschauer 1937, 477.

⁵⁵⁴"Das belebende Princip im Menschen aber ist die Seele; und da die Musik nach Phytagoras bloß auf wahrgenommenen Zahrverhältnissen beruht, und (welches wohl zu merken) jenes belebende Princip im Menschen, die Seele, zugleich ein freies, sich selbst bestimmendes Wesen ist: so läßt sich seine Definition derselben: anima est numerus se ipsum movens, vielleicht verständlich machen und einigermaßen rechtfertigen, wenn mann annimmt, daß er durch dieses Vermögen sich selbst zu bewegen ihren Unterschied von der Materie, als die an sich leblos und nur durch etwas Äußeres bewegbar ist, mithin die Freiheit habe anzeigen wollen", AA VIII 392-3.

⁵⁵⁵Vor. MS, AA XXIII 280; 305; "Wenn ich einen Platz auf der Erde mit meinem Leibe bedecke", idem, 231; "Eine Verbindung mit einem äußeren Gegenstande im Raume die den Gebrauch desselben möglich macht d. i. eine Inhabung desselben ist physisch möglich", idem, 249; "Jeder Erdbewohner ist also im ursprünglich dynamischen Besitz eines Bodens d. i. er hat ihn vor allem rechtlichen Act in seiner Gewalt", idem, 323.

⁵⁵⁶Vor. MS, AA XXIII 221; 228.

⁵⁵⁷"Dazu würde mein Besitz des Objects d. i. eine solche physische Verbindung desselben erfordert werden da dieses von mir nicht getrennt oder abgehalten werden kann ohne mich selbst zu afficiren", Vor. MS, AA XXIII 225.

⁵⁵⁸"Mein ist das Object dessen Veränderungen zugleich meine des Subjects Veränderungen sind", Vor. MS, AA XXIII 306.

⁵⁵⁹"Das Meine ist dasjenige dessen Veränderung meine Veränderung ist. Das p h y s i s c h M e i n e (im Raum und Zeit) ist das was zu der empirischen Bestimmung meines Daseyns gehört. Dieses Mein ist innerlich wenn es blos zu meiner Bestimmung in der Zeit gehört; äußerlich wenn es außer mir aber doch mit mir so verbunden ist daß seine Veränderung zugleich meine Veränderung ist", Vor. MS, AA XXIII 334.

errepresentatzeko subjektuaren batasuna auresuposatu behar baita. Bere batasun hori, ordea, denborak soilik ezingo du eman eta gorputzaren ideia beharra berriro nabarmentzen da, Kantek oraindik zehazten ez badu ere. Ondorioa zera da, formaren aldetik nia bikoitza dela, baina materialki ez⁵⁶⁰. Geroago ere, antzera, gogamena ekile edo hartzaile den neurrian bereizten du, oraingoan ezagutzak bien lotura behar duela gaineratuz⁵⁶¹, baina berriro ere bertan niaren batasuna azpimarratuz⁵⁶². Berezkotasuna eta harmenaren arteko lotura estua aipatzen du, baina hortik aurrera beste urratsik ez du ematen⁵⁶³.

*

*

*

Kanten pentsamenduaren garapenaren puntu sakabanatu hauek ikusi ondoren gai esanguratsu batek hartzen duen bidea laburki jarraitzeari ere interesgarria deritzot. Jakina denez, Arrazoimen Hutsaren Kritikaren lehen iruzkinak lan honetan aurkezten zen filosofia Berkeleyren antzeko idealismotzat hartzen zuen. Kantek gaia iadanik lehen edizioko laugarren paralogismoaren testuinguruan landu zuen (A 371hh.). Ondoren, Prolegomenako 13. eta 49. paragrafoetan ere ukitzen du⁵⁶⁴. Baina funtsean arazo sakon batekin lotuta zegoen gai hau, eta horrela, Kritikako bigarren argitalpenean atal berri bat idatzi zuen, "Idealismoaren errefusapena" (B274-9). Bertan gure errepresentazioek kanpoko erreferente objektibo bat dutela frogatzen saiatzen da Kant, horretarako espazioa eta denboraren arteko harremanean sakonduz:

"Nire izatearen kontzientzia soil baina enpirikoki determinatuak nitaz kanpoko espazioko objektuen izatea frogatzen du"⁵⁶⁵.

Kontzientzia enpirikoak denbora eskatzen du, eta honen determinazioak era berean kanpoko erreferentzia objektiboa. Hemen lehen analogiako argumentua ere jokoan dagoela nabarmena da. Garbi esaten du barne

⁵⁶⁰"Das Ich des Menschen ist zwar der Form (der Vorstellungsart) nach, aber nicht der Materie (dem Inhalte) nach zwiefach", Anthr., AA VII 134oh.

⁵⁶¹"In Ansehung des Zustandes der Vorstellung ist mein Gemüth entweder handelnd und zeigt Vermögen (facultas), oder es ist leidend und besteht in Empfänglichkeit (receptivitas). Ein Erkenntnis enthält beides verbunden in sich", Anthr., AA VII 140; antzera ondoren: "Der innere Sinn ist nicht die reine Apperception, ein Bewußtsein dessen, was der Mensch thut, denn dieses gehört zum Denkungsvermögen, sondern was er leidet, wiefern er durch sein eigenes Gedankenspiel afficirt wird", Anthr., AA VII 161.

⁵⁶²"Ich, als denkendes Wesen, bin zwar mit Mir, als Sinnenwesen, ein und dasselbe Subject; aber als Object der inneren empirischen Anschauung, d. i. so fern ich innerlich von Empfindungen in der Zeit, so wie sie zugleich oder nach einander sind, afficirt werde, erkenne ich mich doch nur, wie ich mir selbst erscheine, nicht als Ding an sich selbst", Anthr., AA VII 142.

⁵⁶³"Das Wort Verwandtschaft (affinitas) erinnert hier an eine aus der Chemie genommene, jener Vertandesverbindung analogische Wechselwirkung zweier specifisch verschiedenen, körperlichen, innigst aufeinander wirkenden und zur Einheit strebenden Stoffe, wo diese Vereinigung etwas drittes bewirkt, was Eigenschaften hat, die nur durch die Vereinigung zweier heterogenen Stoffe erzeugt werden können. Verstand und Sinnlichkeit verschwistern sich bei ihrer Ungleichartigkeit doch so von selbst zu Bewirkung unserer Erkenntniß, als wenn eine von der anderen, oder beide von einem gemeinschaftlichen Stamme ihren Ursprung hätten; welches doch nicht sein kann, wenigstens für uns unbegreiflich ist, wie das Ungleichartige aus einer und derselben Wurzel entsprossen sein könne", Anthr., AA VII 177.

⁵⁶⁴Prolog., AA IV 290-94; 336-7.

⁵⁶⁵"Das bloße, aber empirisch bestimmte, Bewußtsein meines eigenen Daseins beweiset das Dasein der Gegenstände im Raum außer mir", B275.

esperientzia bitartekoa dela, kanpokoaren bitartez soilik dela posible⁵⁶⁶. Hala ere, Kant ez zen emaitzekin erabat gustora geratu, eta zatia idatzi ondoren ere bigarren argitalpen honen hitzaurrean zuzenketa bat sartu zuen ohar gisa (BXXXIX-XLI).

Zuzenketa honek ere, ordea, gaia ez zuela agortu, erreflexioei begirada bat botaz argitzen zaigu. Arrazoimen Hutsaren Kritika idatzi aurreko garaian iadanik gai honetaz oso testu interesgarriak aurkitzen dira, autoafekzioaren ideia eta gorputzaren gaiaren lanketaren beharra aurreratzen dutenak⁵⁶⁷. Gorputzaren gaia 80ko hamarkadan argiki azaltzen da berriro⁵⁶⁸. Horrekin batera, Kritikan denborari soilik lotu zion zenbakiaren kontzeptuak espazioa ere eskatzen duela errepikatzen du⁵⁶⁹, eta ideia honen testuingurua zehaz daiteke: kanpoko erreferentzia baten objektibitatea finkatzeko denbora soilik nahikoa ez dela. Orduan, denborak espazioarekin duen harremanak higiduraz galdetzera eraman beharko luke⁵⁷⁰. Kritikaren idazketa burutu zen urtearen inguruan gai honetaz diharduten erreflexioek ez dute ekarpen berririk⁵⁷¹. Ondoren, denbora soilaren eznahikotasuna berriro agertzen da temati⁵⁷².

Gero, 1790-IX-25ean Rehberg-i idatzitako eskutitzean zenbaki irrazionalen inguruko arazo bat aztertzean gaia berriro ikutzen du Kantek. Zenbaki irrazionalak lerroaren jarraitasuna behar dute oinarri gisa, eta honen inguruan espazioa eta denboraren elkarrekikotasuna finkatzen du⁵⁷³. Bien sorketa zatigarritasun amaigabearen oinarritzen da⁵⁷⁴.

⁵⁶⁶"... folglich innere Erfahrung selbst nur mittelbar und nur durch äußere möglich ist", B276.

⁵⁶⁷"Als Thier habe ich einen Körper. Ich, sofern ich durch diesen Körper afficirt werde: Seele; als ich ihn regire: Intelligentz (als ich meine Seele selbst regire: Geist)", Refl. 1482, AA XV 663; "Wir sind leidend, nicht bloß von äußeren Gegenständen, sondern auch von unserer Einbildung, d. i. unwillkühlichen (inneren) Spiel der Sinnlichkeit", idem, 674.

⁵⁶⁸"Wie der Körper (das Gemüth) afficirt, äußerer/ Wie das Gemüth (sich selbst und Körper) afficirt, innerer", Refl. 1503, AA XV 802.

⁵⁶⁹"Die Zahl bedarf Raum und Zeit zu ihrer Anschauenden Vorstellung", Refl. 4629, AA XVII 614; "Zahl, welche so wohl Zeit als Raum bedarf", Refl. 5593, AA XVIII 243. Honekin aldagaien erabilera matematikoaren oinarria jartzen du.

⁵⁷⁰"Der rationalen Grundbegriffe, worin sich einzig und allein die empfundener Eigenschaften der Dinge erklären lassen, sind bey der äusseren Gegenständen: Raum, Zeit, Bewegung", Refl. 2927, AA XVII 349.

⁵⁷¹Refl. 5348, AA XVIII 158; Refl. 5399, AA XVIII 172; Refl. 5400, AA XVIII 172; Refl. 5642, AA XVIII 279-82; Refl. 5653-5, AA XVIII 306-316; Refl. 5709, AA XVIII 332.

⁵⁷²"Das Wesen, daß sich selbst allein die Zeit und sich in der Zeit vorstellt, kan sich nicht als beharrlich erkennen; sondern nur dasjenige Wesen kan es, was ausser sich ihm ist", Refl. 5998, AA XVIII 420.

⁵⁷³"Die Notwendigkeit der Verknüpfung der beyden sinnlichen Formen, Raum und Zeit, in der Bestimmung der Gegenstände unserer Anschauung, so daß die Zeit, wenn sich das Subject selbst zum Objecte seiner Vorstellung macht, als eine Linie vorgestellt werden muß, um sie als quantum zu erkennen, so wie umgekehrt eine Linie nur dadurch, daß sie in der Zeit construirt werden muß, als quantum gedacht werden kann, -diese Einsicht der Nothwendigen Verknüpfung des inneren Sinnes mit dem äußeren selbst in der Zeitbestimmung unseres Daseyns, scheint mir zum Beweise der objectiven Realität der Vorstellungen äußerer Dinge (wider den psychol: Idealism) Handreichung zu thun, die ich aber jetzt nicht weiter verfolgen kann", AA XI 210. Eskutitzaren aurrelana: Refl. 13/14, AA XIV 53-59. Bertan: "Nun stellen wir uns eine Linie als durch fluxion, mithin in der Zeit erzeugt vor", idem, 53; "In Raumes Vorstellung ist zwar nichts von Zeit gedacht, aber in der Construction von einem gewissen Raum, e.g. einer Linie", idem, 54.

⁵⁷⁴"Bey näherer Erwägung ist die successive Erzeugung des Raumes mit der der Zahlen in der Zeit auf einerley Princip der Unendlichen Theilbarkeit gegründet", idem, 58.

Eta azkenik 1790 urtearen inguruan gai hau jorratzen duten gogoetak pilatzen dira⁵⁷⁵, eta zentzu berri bat hartzen dute gainera. Orain autoafekzioaren gaia subjektuari eta bereziki denbora-espazio bikoteari lotuta agertzen da zuzenean. Kant autoafekzioaren esplikaezintasunarekin hasten bada ere⁵⁷⁶, orain autoafekzioak subjektu soinduna jaso behar duela espreski esango du⁵⁷⁷. Horrela, subjektu fisiko edo mundutarrak hitz egin daiteke. Erreflexio hauetan berriro zenbakiaren gaia agertzen da. Zenbakiak espazioa ere eskatzen dute, hori gabe aurrera edo atzerakako serieek objektibitate ez bailukete lortuko⁵⁷⁸.

Gai hauek denak 1987an argitaratu zen 'Leningrad 1' orri soltean batzen dira. Denborari lotzen zaion autoafekzioarekin hasten da testua. Denboran subjektua fenomeno gisa soilik ezagutzen da, baina berehala denbora errepresentatzeko espazioaren beharra zehazten du. Eta gainera, gai hau autoafekzioaren eskeman jasotzen du: autoafekzioan kanpoko zentzuen errepresentazioa nire kontzientzia enpirikoan jasotzen dut⁵⁷⁹. Ondoren, berriro denboraz soilik baliatuz norberaren determinazioa lortzea ezinezkoa dela aipatzen du. Alderantziz, biak jasota soilik lortzen da benetako denborazko determinazioa⁵⁸⁰. Eta horrela, apertzepzio kosmologikoak hitz egiten du, berritasun nabaria dena⁵⁸¹, eta subjektuak izaki mundutar gisa duen kontzientzia aipatzen du⁵⁸².

⁵⁷⁵Refl. 6311-16, AA XVIII 607-29.

⁵⁷⁶"Geschehen Eindrücke auf meinen innern Sinn, so setzt dies voraus, daß ich mich selbst afficire (ob es gleich uns unerklärbar ist, wie dies zugeht) und so setzt das empirische Bewußtsey, das transcendentale voraus", Refl. 6311, AA XVIII 611.

⁵⁷⁷"Wir sind u n s s e l b s t v o r h e r G e g e n s t a n d d e s ä u ß e r n S i n n e s, denn sonst würden wir unseren Ort in der Welt nicht wahrnehmen und uns mit anderen Dingen im Verhältnis anschauen können. -Daher kann die S e e l e als Gegenstand des inneren Sinnes i h r e n O r t i m K o r p e r n i c h t w a h r n e h m e n, sondern sie ist in dem Ort, worinn der Mensch ist", Refl. 6315, AA XVIII 619; "Ich bin selbst ein Gegenstand meiner äußeren Anschauung im Raum und könnte ohne das meine Stelle in der Welt nicht wissen", idem, 620.

⁵⁷⁸"Wir können uns keine Zahl vorstellen, als durch successive Aufzählung in der Zeit und dann das Zusammennehmen dieser Vielheit in die Einheit einer Zahl. Dieses letztere aber kan nicht anders geschehen, als daß ich sie im Raum nebeneinander stelle; denn sie müßten als zugleich gegeben, d. i. als eine Vorstellung zusammen genommen, gedacht werden, sonst macht dieses Viele keine Größe (Zahl) aus; das Zugleichsey aber ist nicht möglich woran anders zu erkennen, als daß ausser meine Handlung des Zusammensetzens ich die Vielheit vorwärts und rückwärts als gegeben apprehendiren (nicht blos denken) kan", Refl. 6314, AA XVIII 616.

⁵⁷⁹"Bey der inneren Erfahrung aber die ich anstelle afficire ich mich selbst indem ich die Vorstellung äußerer Sinne in ein empirisches Bewußtsey meines Zustandes bringe", Brandt 1987, 18 (Lehen orrialdea, 9-11 lerroak). Ondoren ere harreman hori zehaztuz: "Daß wir uns selbst afficiren können (...) ist nur dadurch möglich daß wir die Vorstellungen apprehendiren von Dingen die uns afficiren d. i. die von äußeren Dingen denn dadurch afficiren wir uns selbst und die Zeit ist eigentlich die form der Apprehension der Vorstellung welche sich auf etwas ausser uns beziehen", Brandt 1987, 20 (Bigarren orrialdea, 10-13 lerroak).

⁵⁸⁰"Man muß die reine Apperception von der empirischen *apperceptio percipientis* von der *apperceptio percepti* unterscheiden. Die erste sagt blos ich bin. Die zweyte ich war, ich bin, und ich werde seyn, d. i. ich bin ein Ding der Vergangenen Gegenwärtigen und Künftigen Zeit", Brandt 1987, 19 (Lehen orrialdea, 22-24 lerroak).

⁵⁸¹"Die cosmologische Apperception] welche mein Daseyn als Größe in der Zeit betrachtet setzt mich in Verheltnis gegen andre Dinge die da sind waren und seyn werden denn das Zugleichsey ist keine Bestimmung des Wirklichen in Ansehung des percipientis sondern des percepti", Brandt 1987, 19 (Lehen orrialdea, 25-28 lerroak).

⁵⁸²"Ich bin meiner Selbst als Weltwesens unmittelbar und ursprünglich bewusst und eben dadurch allein ist mein eigen Daseyn nur als Erscheinung bestimmbar als Größe in der Zeit", Brandt 1987, 20 (Bigarren orrialdea, 4-5 lerroak).

Hau guztiaren funtsa Igarobideko ohar labur batean topatzen dugu: "**Subjektuak beretik kanpo eragiten du**"⁵⁸³. Kantek kanpoko begiespena eta soinarekin lotura behar ditu subjektuaren benetako ekintza zientifikoa eta etikoa ondo oinarritzeko. Hau da arazo hau guztiaren oinarrian jokoan dagoen puntu nagusia.

Hala ere, Kantek ez zuen lortu egozten zitzaion idealismoaren kritika ezabatzea. 1792an Schulze-k bere liburuan gaia Kant kritikatzeko erabili zuela ikusi dugu. Garvek eta besteek kritika horrekin jarraitzen zutela Beckek aipatzen dio Kanti 1792-XI-10eko eskutitzean⁵⁸⁴. Horregatik, ez da harritzekoa izango gaia 90eko hamarkada osoan agertzea, Aurrerabideetan eta Ohituren Metafisikan bereziki, eta orain ikusi dugun garapenaren emaitzak lan hauetan isladatuko dira. Gaia Igarobidera arte iristen da, bertan autoezarpenaren ideia garatzen da, soinaren inguruko gogoetak sakonki jasotzen dira, eta subjektua munduko biztanle moduan aurkezten du Kantek:

"Ni naiz. - Mundu bat dago niganetik at (praeter me) espazioan eta denboran eta ni neu munduko izakia naiz: harreman horren jabe naiz, eta sentsazioetarako (hautemapenetarako) indar higitzaileena. - Ni, gizakia, k a n p o k o zentzuen objektua naiz niretzako, munduko zati bat"⁵⁸⁵.

⁵⁸³"Das Subject wirkt außer sich", AA XXI 70, 32.

⁵⁸⁴AA XI 384.

⁵⁸⁵"Ich bin. - Es ist eine Welt ausser mir (praeter me) im Raume und der Zeit und ich bin selbst ein Weltwesen: bin mir jenes Verhältnisses bewusst, und der bewegenden Kräfte zu Empfindungen (Wahrnehmungen). - Ich der Mensch bin mir selbst ein ä u s s e r e s Sinnenobject ein Theil der Welt", AA XXI 63, 17-21. Antzera ere aurreko gaiei zuzenkiago lotuz: "Wenn bewiesen werden kan daß die Einheit des G a n t z e n möglicher Erfahrung auf der Existenz eines solchen Stoffs (...) beruhe so ist auch die Wirklichkeit desselben zwar nicht **durch** Erfahrung sondern a priori, blos aus Bedingungen der bloßen M ö g l i c h k e i t derselben **für** die Erfahrung bewiesen. Denn die bewegende Kräfte der Materie können zur collectiv//allgemeinen Einheit der Wahrnehmungen in einer möglichen Erfahrung nur zusammenstimmen in sofern das Subject durch sie äußerlich und innerlich in Einen Begriff vereinigt sich selbst afficirt", AA XXI 572, 16-24; "Der sich selbst innerlich und äußerlich anschauende und wahrnehmende Mensch ist selbst ein Theil der Einen Welt die äußerlich den Raumes und innerlich den Zeitbedingungen nach ins Unendliche bestimmbar ist", AA XXI 54, 22-5; "Ich (das Subject) ist eine Person nicht blos mich meiner selbst bewusst sondern auch als Gegenstand der Anschauung im Raume u. der Zeit also zur Welt gehörend", AA XXI 42, 22-4.

II. Sistemaren batasunaren bila

"Denn unsre Vernunft ist nicht ein Vermögen, dessen Gebrauch wir nach Belieben den Fortgang abschneiden kön[n]en. Sie ist sich selbst ein Gesetz", Refl. 4741, XVII 694

1. Materiaren indar higitzaileak eta hauen oinarria

a. Indar higitzaileak

Lehenik eta behin, zera esan behar dela uste dut: ezin daiteke gai honetan Kanten behin betiko teoria batez hitz egin, ez baitago esaterik zer forma izango lukeen argitaratua izan balitz. Kantek une batetik aurrera arazoa uzten badu, horrek ez du esan nahi bera zuzenki konpondu duenik; alderantziz, arazoa konponezina zelako beste azterketa moduetara jo zuela ere esan daiteke. Beraz, indar higitzaileen gaiak kronologikoki hartzen dituen forma eta sistematizazio ezberdinak elkarlotzen saiatuko naiz.

Indar higitzaileen gaia Kantek bere Filosofiaren oinarriak jartzen dituenetik dago bertan, beti higiduraren kontzeptuari lotuta⁵⁸⁶. Baina argi geratu dela uste dut, 1786-7ko Filosofia kritikoaren forma garatuan ere arazoa ez zela konpondu. Eta ondorioz, indar higitzaileen arazoa izango da zalantzarik gabe Igarobidearen proiektuari hasiera emango diona.

Esan bezala, gordetzen den Igarobidearen paper zaharrena Natur Zientziaren Hastaspen Metafisikoak-en kritika baten kopia eta iruzkina da. Kritika honen arabera, aldarapena higiduraren mailara letorke, foronomiarena beraz, eta ez litzateke indar higitzaile bat izango. Gehler eta Mayer-en kritikek ikuspuntu hau aurkezten dute, eta Kantek Natur Zientziaren Hastepen Metafisikoak-en Fisikarentzat jarritako oinarriak apurtzen dituzte. Kantek, ordea, ez du atzera egiten kritika hauek direla ere, indar higitzaileak beharrezkoak direla garbi zitzaion eta Fisikarentzat oinarri sendoa aurkitzen saiatuko da hauek kontuan hartuz:

"Fisika indar higitzaileak dituen higigarriaren teoria da, bere higidura besteei ematen diona eta bere higiduran higigarria den beste guztiarekiko erlatiboki soilik determinatua dagoena"⁵⁸⁷.

Testuinguru honetan agertzen da iadanik eskuizkribu guztian zehar agertuko den atomismoaren aurkako (eta beraz, ikuspegi mekaniko hutsaren aurkako) jarrera eta, ondorioz, dinamismoaren defentsa⁵⁸⁸. Naturaren

⁵⁸⁶"Zur Bestätigung dieser Theorie von der Idealität des äußeren sowohl als inneren Sinnes, mithin aller Objekte der Sinne, als bloßer Erscheinungen, kann vorzüglich die Bemerkung dienen: daß alles, was in unserem Erkenntnis zur Anschauung gehört (...), nichts als bloße Verhältnisse enthalte, der Örter in einer Anschauung (Ausdehnung), Verärderung der Örter (Bewegung), und Gesetze, nach denen diese Veränderung bestimmt wird (bewegende Kräfte)", B66-7.

⁵⁸⁷"Die Physik ist eine Theorie des Beweglichen mit bewegenden Kräften versehen, seine Bewegung ändern mittheilend und in seiner Bewegung gegen alles übrige Bewegliche nur relativ bestimmt", AA XXI 419, 11-12.

⁵⁸⁸AA XXI 441-2.

ikuspegi dinamista Kantek garai aurrekritikotik duen konbentzimendua da eta honek indar higitzaileen birpentsaketa zabal batera bultzatzen du.

Horrela, Kanten arabera dentsitate ezberdinen esplikazioa -Beckek honi buruzko zailtasunak aipatu zizkion- eta beste hainbat fenomeno fisikoena ezinezkoa da aldarapenera jo gabe, erakarpenarekin bakarrik⁵⁸⁹. Eta testuinguru honetan Kant beste fenomeno fisikoetara ere hurbiltzen da, alegia, kohesioa, beroa, argia, magnetismoa, elektrizitatea eta, berriro gaia jasoz, fenomeno kimikoetara, beraietan ere dinamismoaren aztarnak topatzen baititu⁵⁹⁰. Fenomeno hauek guztiak erakarpen mekaniko soilarekin⁵⁹¹ esplikatzea ezinezkoa dela uste du eta Fisika berriak bere ikuspuntua baieztatuko dueneko itzaropena gordetzen du. Esplikazio dinamiko baten bilaketan eterrera jotzen du gehienetan⁵⁹².

Hasieratik ikusten da indar higitzaileen beharra higiduraren esplikaziorako, hauek baitira higiduraren kausa⁵⁹³. Matematikaren eznahikotasuna nabarmena izango zaio hasieratik eta gai hau nekaezin errepikatuko du. Zientziak higiduraren azterketa Matematikara murrizten du, Newtonen erakarpena salbuespen pozgarri bakarra besterik ez litzateke. Adibide bat hartuz, higiduraren momentua aipatzen du. Matematikariek hau bera higiduratzat dute, baina benetan filosofikoki aztertuz gero, indar higitzailea dela esan behar da⁵⁹⁴; diferentzialen maila hori⁵⁹⁵ ez da higidura berarena, bere jatorriarena baizik. Horrela, aurrerago ideia berdina aipatzen duenean⁵⁹⁶, energiaren kontzeptua ere erabiltzen du, indar higitzaileen energiak hitz egiten du⁵⁹⁷. Nabarmena da Kantek nahi duen Fisikaren oinarritzapenak bera Newtonengandik haraindi bultzatzen duela. Bere arazoa zera da, aurrean duen Fisika Newtonena dela eta besterik ez duela ezagutzen, beroa, Kimika, elektrizitatea eta magnetismoaren inguruko lehen hastapen kaskarrak izan ezik.

Aurrera egitean, beti ere "**Oktaventwurf**"-eko lehen gogoeta jarraien aurretik, arazo multzo hau guztiarentzat testuinguru sistematikoa bilatzen hasiko da. Horrela, 6 orri soltean Kantek Natur Zientzia materiaren legeen sistematzat hartzen du. Eta horrek autokritika zorrotza suposatzen du: Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak sistema bat osatzen zuen, baina Fisikara igarotzeko biderik ez zuen prestatzen. Horrela, Natur Zientziaren hastapen metafisikoak eta Fisikaren arteko zuloaz hitz egiten du Kantek eta bitarteko

⁵⁸⁹"Aus dieser einen Ursache [eine Anziehung die aufs ganze System von jeder Materie geht] müßte alle Bildung der Körper alles durchdringen der magnetischen Materien u. kann alle wirkliche Bewegung hergeleitet werden", AA XXI 425, 17-19.

⁵⁹⁰"Was ist Chemie Die Wissenschaft der inneren Kräfte der Materie", AA XXI 453, 19.

⁵⁹¹"Die Frage ist ob ausser der Allgemeinen Anziehung dem Grade nach noch eine andere gebe die nach anderen Gesetzen ursprünglich wirke", AA XXI 430, 10-12.

⁵⁹²"Grundelement (Aether)", AA XXI 467, 14.

⁵⁹³"... als bewegende Kraft, d. i. als Ursache der möglichen Bewegung", AA XXI 431, 17-18. Eta ondoren 22. lerroan "construction der Bewegung" aipatzen du.

⁵⁹⁴AA XXI 436-7.

⁵⁹⁵AA XXI 449.

⁵⁹⁶"Wenn alle Ursache der Bewegung blos mathematisch nicht auch dynamisch geschätzt werden sollte...", AA XXI 466, 3-4.

⁵⁹⁷"Energie der bewegendes Kraft", AA XXI 466, 13. Lehenago ere energiaren kontzeptua aipatu zuen, AA XXI 436, 14.

kontzeptuez osatutako zubiaren beharra aipatzen du. Indar higitzaileak ez zaizkigu erabat ezagunak, esperientziaz lortzen baitira; baina materiaren kontzeptu orokorrean dauden beren arteko harremanak eta indarrek espazioa eta denborarekin duten lotura apriorizko kontzeptupean geratzen dira. Eta horrela, funtzio dinamikoen topika bat osa daiteke haien aplikazio enpirikorako. Ondorioz, Fisika materiaren indar higitzaileen legeen doktrina bihurtzen da, eta horrela soilik espero daiteke Fisika sistema bat osatzeko bidean jartzea, sistema bera osatzea honek jaso behar duen alde enpirikoagatik ezinezkoa izango bada ere. Kantek ez du oraindik indar higitzaileen sailkapenik egiten, zenbait adibide ematera murrizten da. Hala ere, horrelako zerbait egiteko oinarria litzatekeen materiaren kategoria fisikoen ordena aipatzen du iadanik⁵⁹⁸.

Lanaren hasieratik predikagarriez eta bitarteko kontzeptuez hitz egiten du, eta gero tarteka agertuko da gai hau errepikakorki. Aipatu dugu predikagarrien sistemaren lanketa Kritikan bete gabe geratu zela, eta hauxe zela hain zuzen sistema osatzeko osagai nagusia. Gainera, higidura eta indarraren kontzeptuak agertu izan dira beti testuinguru horretan. Igarobidean gaia aipatzen badu, bertako arazoak jatorria hor duelako da, baina orain ez du lehenagoko forma berberean lantzen; beraz, oraingo indar higitzaileen arazoak oinarritzko arazo haren baldintzetan sakontzen duela pentsatu behar da.

"**Oktaventwurf**" deitzen den hurrengo atalak hasieratik du aurrerantzean gehienetan errepikatuko den izenburua: "**Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoetatik Fisikarako Igarobidea**"⁵⁹⁹. Zeregina apriorizko eremu batetik enpirikoa denera iragateko bidea jartzea dela dio Kantek. Hor higiduraren kontzeptuak erdigunea osatzen duela, berez sortzen den ideia da. Indar fisikoak ezingo dira a priori azaldu, baina bai beren arteko harremanak. Hau lortzeko osagai enpirikoak aurkitu eta ondoren zatiketa sistematikoa egitea litzateke bidea. Zentzu honetan uler daiteke Kantek "**Naturforschung**" hitza⁶⁰⁰ eta "**materiaren konposizioa naturaren fabrikatu gisa**" aipatzea⁶⁰¹.

Egitasmoa betetzeko asmotan, materiaren ezaugarri orokorrez hitz egiten du Kantek eta gero hauek zehazkiago kategorien bitartez sistematizatzeko saiakerak egiten hasiko da. Hasieran kategoria bakoitzaren barne hainbat ezaugarri fisiko aipatuko ditu, ondoren gauzak pixka bat gehiago zehaztuz: hitzaurre baten ondoren, pisagarritasuna kantitatearekin, jariakor/zurruna kalitatearekin harremanean jartzen ditu, erlazioa eta modalitatea definitu gabe geratzen direlarik⁶⁰². Ondoren, hitzaurre baten jarraipenean askotan azalduko den arazoa aipatzen da: ez da Fisika egin behar, baizik bertara aurreratzeko ("**fortschreiten**") hastapenak soilik jarri behar dira. Ondoren, berriro lau kategoriak aztertzen ditu, bi azkenengoei buruz gehiegi esan gabe oraingoan ere.

⁵⁹⁸"Also die categorien (die physische) der Materie überhaupt", AA XXI 445, 26.

⁵⁹⁹"Übergang von den metaph. Anf. Gr. der Naturwissenschaft zur Physik", AA XXI 373, 1-2.

⁶⁰⁰AA XXI 404, 32.

⁶⁰¹"Physica generalis ist nicht der specialis an die Seite gesetzt sondern als elementaris der specifica wo verschiedene Arten der Zusammensetzung der Materie nicht als Elemente sondern als Fabrikate der Natur vorgestellt werden", AA XXI 407, 6-7.

⁶⁰²AA XXI 402-3.

Hurrengo "A-C" zatiak egitura oso zehatza du. Sarrera baten ondoren kategorien arabera sailkaketarekin jarraitzen du, oraingoan pisagarritasuna, jariakortasuna eta kohesioa aztertuz, hauei dagozkien fenomeno fisikoekin batera, eta modalitateari dagokiona oraindik aztertu gabe utziz.

Gainera, indar higitzaileei buruz oso interesgarria dena esaten du Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-eko ideia bat errepikatuz: denak erakarpenera edo aldarapenera murrizten dira⁶⁰³. Honekin indar higitzaileen aniztasuna onartzen da; erakarpenera eta aldarapenera hauentzako eskema orokorra besterik ez lirateke, ez indar higitzaile konkretuak. Materia ulertzeko baldintza orokorrak dira, gero honek forma berezi ezberdinak har ditzakeelarik.

" α - ϵ " zatian kantitatea eta kualitatea soilik aztertzen dira hainbat paragrafotan banatuta. Bukaeran hitzaurrea dator, arazoaren egoera orokorra laburtzen duena. Hemen gauzak pixka bat gehiago argitzen hasten dira. Materiaren kantitatea ezin da matematikoki finkatu, dinamikoki baizik, higiduraren kantitatea kontuan hartuz. Azken finean, kantitatearen esperientzia izateko palanka eta pisua antzeko makinetara jo beharko da. Kualitatearekiko ere, jariakor/zurrun bereizketa luze aztertzen du, hainbat fenomeno fisikori aplikatuz. Bereizketa honen oinarria berogaian topatzen du, eterrean beraz⁶⁰⁴.

IV. sortako azalean ez dugu berritasunik aurkitzen, gogoeta nahastuz betea dago. Baina ondoren datozen orri solteetan Igarobidearen topika batez hitz egiten du Kantek⁶⁰⁵. Fisikak sistema bat osatu behar badu, indar higitzaileen apriorizko topika bat behar da, beren arteko harreman formalak finkatzen dituen; bestela, dena agregatu hutsa litzateke, eta horrek naturaren araketarako oinarririk ezin du finkatu⁶⁰⁶. Azken finean, ordea, topika hori osatzen duten indar higitzaile konkretuak zehaztea lan enpiriko bukaezina litzateke.

Hurrengo zatitxo markatugabeen gauza interesgarri bat topatzen dugu. Indar higitzaileak kategorien arabera aztertzean, talde bakoitzean bi kategoria soilik agertzeak dinamikak gauzen existentzia berarekin zerikusia izatean omen du jatorria. Aurreko zati batean Leibnizen diadikaz hitz egin zuen laburki, honi lotuta dagoena noski⁶⁰⁷.

"a-c" zatian kantitatea eta kualitatearen arabera saiakerek ez dute ezer berririk ekartzen, eta Kant erlazioa aztertzen saiatzen bada ere, ez du ezer definiturik lortzen. Bukaeran, sarrera batetan, arazo orokorra lantzen du eta hemen datoz berritasunak, lehenengo aldiz sistematizazio oso eta orokorrak ematen ditu. Indar

⁶⁰³"Alle bewegendende Kräfte sind entweder Anziehung oder Abstoßung", AA XXI 307, 28.

⁶⁰⁴"Der Wärmestoff welcher der Aether selbst ist", AA XXII 215, 24-5.

⁶⁰⁵"Empirische Begriffe, z. B. Schwebere deren bewegendende Kraft nach Begriffen a priori gedacht werden können z. B. Anziehung u. Abstoßung obgleich die Existenz derselben durch Erfahrung gegeben seyn muß gehören zu jener Topik des Überganges", AA XXI 483, 24-7.

⁶⁰⁶"Ich muß vorher forschen wie ich die Naturgesetze aufsuchen und in einem System a priori denken soll ehe ich zur Physik schreite um sie nach der Erfahrung zu betrachten", AA XXI 486, 25-7.

⁶⁰⁷AA XXI 411, 6.

higitzaileen apriorizko harreman formalak zertan datzaten zehazten saiatzen da lehenengo aldiz: 1. Norabidearen arabera, erakarpena eta aldarapena; 2. Mailaren arabera, higiduraren momentua; 3. Kanpoko harremanaren arabera, azaleko indarra edo sarkorra; 4. Iraupenaren barnekoaren arabera, aldaezina eta betierekoa⁶⁰⁸. Ondoren, leku topikoak zehazten ditu: 1. Kantitatearen arabera pisagarri/pisakaitz; 2. Kalitatearen arabera, jariakor/zurrun; 3. Kohesioa; 4. Eterra oro har, substantzia edo zerbait inherentea den heinean⁶⁰⁹.

Orri batzuk aurrerago kategorien ordena honen jarraipena zehaztean, hauetatik indar higitzaileetara igarotzea juzgamenaren eskematismoaren lantzat du, eta beraz, hemen espazioa ere kontuan hartzen duen eskematismoa suposatzen dela pentsatu behar da⁶¹⁰. Hau guztiaren funtzioa esperientzia berri bakoitzaren lekua finkatzea litzateke, hauen ulermenarentzako aitzinapena; beraz, naturaren araketa zuzentzen duen instantziaz ari da⁶¹¹. Adibidez, Maxwellek argiaren teoria elektrodinamikoa finkatu eta 25 urtera lortu zuen Hertzek baieztapen enpirikoa. Zati honetatik aurrera indar higitzaileen bi sailkapen ezagunak errepikatzen dira, harreman formalen arabera eta kategorien gidaren bidez leku topikoei jarraitzen zaiena.

"n°1-n°3η" zatian kategorien arabera sailkapena berekin batera doan materiaren ezaugarrien sailkapenarekin osatzen da lehenengoz ("**ponderabel/ imponderabel; coërcibel/ incoercibel; cohäsibel/ inchohäsel; exhaustibel/ inexhaustibel**")⁶¹². Hala ere, indar higitzaileen formaren arabera sailkapen berritua ere badator aldi berean: norabidearen arabera erakarpena eta aldarapena; graduaren arabera higiduraren momentua eta abiadura mugatua; erlazioaren arabera azalekoa edo sarkorra; modalitatearen arabera jatorrizkoa edo eratorria. Sailkapen honen errepikapen aldatuak maiz agertzen dira zati honetan. Horrela, jatorria, norabidea, maila eta beteketaren arabera, eta beste antzeko sailkapenak, beti ere edukia berdintsua izanik.

Dena den, indar higitzaileak testuinguru berri batean jartzen dituen sailkaketa interesgarria ere ematen du: 1. Espazioan higikorra dena; 2. Higikorra, indar higitzaileak dituen neurrian; 3. Indarrak, sistema batean elkarrekin lotuta dauden neurrian; 4. Modalitatearen arabera, indarren iraupena eterrari esker⁶¹³. Beraz, nolabait foronomia, dinamika eta sistema (mekanika soiletik haruntzago joanaz) jasotzen ditu, eta, azkenik, fenomenologiaren unean eterra agertzen da aurreko guztiaren oinarri gisa.

"Elem. Syst. 1-7" zatia hiru saio handitan egituratua dago, egitan edukia oso nahasia izan arren. Indar higitzaileen sailkaketei dagokienez, Kantek orokorrean kategorien eskema jarraitzen du, baina tartean 'A' eta 'B' arabera izendatutakoa ere aipatzen du. Lehena formaren arabera da, norabidea, lekua, eraginaren forma eta

⁶⁰⁸AA XXI 287, 26-288, 4.

⁶⁰⁹AA XXI 288, 22-29.

⁶¹⁰"Nach den Kategorien, der Schematism der Urtheilskraft für die bewegende Kräfte der Materie", AA XXI 291, 15-6.

⁶¹¹"Allgemeine physische Topik ist die Lehre durch die man einer jeden naturwissenschaftlichen Erfahrung ihre Stelle unter den übrigen noch nicht bekannten anweisen kann", AA XXI 288, 14-6.

⁶¹²AA XXI 531, 5-10.

⁶¹³AA XXI 303, 13-20.

zabalpenaren arabera; bigarrenak indar hil ("**vis locomotiva**") eta biziak ("**vis interne motiva**") bereizten ditu. Aurrerago, ohar batean azterketa erabat berria ere topa daiteke: ezagutzen ditugun materiaren ezaugarriak erakarpina eta aldarapenaren harreman ezberdinen arabera aztertzen dira, maila bakoitzean aurrekoak jasoz sistema osatzearen⁶¹⁴.

"Farrago 1-4" zatian bi aldiz soilik agertzen dira indar higitzaileen sailkapenak, bata 'A-B' markekin aurrekoaren antzera: lehena, norabidea, abiadura, gorputzen gaineko eragina eta denboraren arabera, eta bigarrena, eraginaren arabera, indar hil eta biziak bereiziz; bestean kategorien arabera landu dituen edukiak agertzen dira, baina kategoria berak aipatu gabe. Gainera, gorputz fisikoaren definizioaren arabera⁶¹⁵, honek indar higitzaileei esker hartzen du bere figura, eta horrela indar higitzaileek zer funtzio izan behar duten argitzen da nolabait: naturak hartzen dituen forma konkretuak esplikatzen nahi dira beraien bitartez. Horregatik, gorputz bakoitzak indar higitzaileen sistema bat isladatzen du⁶¹⁶. Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en erakarpina eta aldarapenaren indar dinamiko orokorrak genituen, baina ea horietatik abiatuta gorputz konkretu bakoitzaren eraketara nola iristen zen, ez zegoen argi eta hau da hain zuzen Igarobidearen egitekoa.

"A-B Übergang" zatian kategorien arabera sailkaketa egiteko asmoarekin hasten da Kant, baina ez du gehiegi aurreratzeko. Gauza erabat berria ere agertzen da: sistema elemental formala Arrazoimen Hutsaren Kritikako axioma, aitzinapen, analogia eta postulatuarekin lotzen du harrigarriki⁶¹⁷, orain, ordea, naturaren araketaren printzipio gisa ulertuta. Beraz, honekin Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak erabat ahaztu eta oinarria Kritika bertan aurkitu nahi duela dirudi, berriro hasieratik naturaren Metafisika hobeto eraikitzeko.

"A.Elem. Syst. 1-6" zatian hasieratik indar higitzaileen sailkaketa oso zabala egiten saiatzen da hainbat ikuspegitatik, bost denera bata bestearen ondoan, edukiak aldaketa batzuekin ordura arte landutakoak izanik. Lehenik, indarren materiaren arabera indar lokomotiboak eta barnetik higitzaileak alde batetik, eta azalekoak eta sarkorrak bestetik bereizten ditu. Bigarreno sailkapena formaren arabera da, norabidea, maila, erlazioa eta modalitatea jarraituz. Hirugarrena, osotasunaren arabera da eta organiko/inorganiko bereizketa eginez, materia organikoaren arazoa Igarobidean jaso eta lehenengoz zehazki lantzen du. Laugarren sailkaketa higiduren eren arabera da, era hauek norabidea, maila, lekua eta substantzian banatuz. Bosgarrena, apriorizko kontzeptuen arabera da, eta kategoriak aipatzen ez badira ere, hauek daude oinarrian. Garbi geratzen dena zera da, ahaleginek ez dutela behin-betiko forma zehatzik lortzen. Eta hemendik aurrera gaia ez du berriro sakonki landuko, honekin azken laburpen bat egin duela dirudi. Hurrengo testuetan eterraren arazoak arituko da batez ere, eta gero Fisikaren ahalgarritasunaz galdetuz behin eta berriro agertuko da kategoripeko sailkapena,

⁶¹⁴AA XXII 176, 17-25.

⁶¹⁵"Unter einem physischen Körper versteht man ein abgesondertes Ganze der Materie welches durch seine bewegende Kräfte eine bestimmte Figur annimmt", AA XXI 629, 17-9.

⁶¹⁶"... jeder einzelne Körper schon für sich ein System bewegender Kräfte der Materie ist", AA XXI 630, 23-4.

⁶¹⁷AA XXII 240; 241 eta 244.

baina edukiak gehiago landu gabe. Indar higitzaileen arazoak beti hor jarraituko du⁶¹⁸, baina Kantek arazoa beste maila batean konpondu beharko du nabariki.

Aipatzekoa da era berean, zati honetan indar higitzaileen arazoaren zabalpen bat ematen dela, organismoa eta askatasunaren gaiak jasotzen dituzten sailkapenak azaltzen baitira⁶¹⁹.

Baina badago oraindik oso interesgarria den beste puntua, ez indar higitzaileen sailkaketari buruz, baina bai beren kokapenari buruz. Aipatu dugun gisa, aurrerago ere axioma, aitzinapen, analogia eta postulatuak araberako sailkaketa bat agertu zen; bada, orain hau argituko da eta zentzu oso interesgarrian. Kantek espreski aurkeztuko du kantitatea eta kualitatearen arteko loturaren beharra dinamika eta mekanikaren oinarri modura, eta beraz, Fisika sistema bihurtzeko oinarri modura⁶²⁰. Gero ere berriro errepikatuko du ideia hau:

"Adimena N[atur]Z[ientzien]. H[astapen]. metaf[isiko].etatik Fisikarako igarobidean objektuaren apriorizko begiespen hutsaren axiometatik hautemapenera aurreratzen da"⁶²¹.

Lehenengoetan iadanik bigarrenak jasota daude⁶²². Ez dago batetik besterako jarraipen soila, ikuspegi honek Kritika berarentzat ez duela balio zehaztu dugu. Orain, bertan auresuposaten zen kantitatea eta kualitatearen arteko lotura estua argitu eta sakondu besterik ez da egiten⁶²³.

Adickes-ek indar higitzaileen 13 sailkapen eredu ezberdin aurkeztu baditu ere⁶²⁴, arazoaren erdigunea bi sailkapen nagusipean jaso daiteke. Kategorien araberako ekarpenak laburtuz, zera esan daiteke:

⁶¹⁸Horrela, X/XI sortetako gogoeten inguruan zera dio oraindik: "Die bewegende Kraft ist die Sache selbst", AA XXII 471, 2.

⁶¹⁹"Im Übergange zur Physik können wir a priori die Eintheilung machen. 1. die bewegende Krafte der Materie in so fern sie blos ihre Art einander zu bewegen betreffen 2. so fern sie sich oder andern rohen Stoff in Körper von bestimmter Regelmäßigkeit bilden. 3.) in so fern sie ein inneres Princip der Zweckmäßigkeit enthalten (organisch) 4 in so fern sie fühlend und lebend sind", AA XXII 315, 3-8. Lehenago antzera, AA XXII 307, 21-30.

⁶²⁰"Der Übergang enthält die Principien a priori der Naturforschung mithin 1) nach Axiomen der Anschauung, M a t h e m a t i s c h 2.) Anticipationen der W a r n e h m u n g d. i. empirischer Vorstellungen der Aggregation der bewegenden Kräfte d. Materie d. i. p h y s i o l o g i s c h - 3) Die Zusammenstellung dieser Kräfte nach Principien zu einer Erfahrung nämlich die Vereinigung derselben unter Gesetzen es sey mechanisch oder dynamisch nach der Analogie der Erfahrung 4.) die Vereinigung der Begriffe von den bewegenden Kräften zu einem System der Physik", AA XXII 293, 24-294, 4.

⁶²¹"Der Verstand schreitet in dem Übergange von den metaph. A. Gr. der N. W. zur Physik von den Axiomen der reinen Anschauung a priori des Objects zur Wahrnehmung", AA XXII 503, 6-8.

⁶²²"Die Axiome der Anschauung enthalten im Fortschreiten die Anticipationen der Erscheinung", AA XXII 387, 10-1.

⁶²³"Die bewegende Kräfte des Beweglichen im Raum sind das Materiale des Daseyns im Raum äußerlich und in der Zeit innerlich und machen im ersteren Verhältnis extensive um zweyten intensive Größe aus quantitative und qualitative Einheit der Verbindung", AA XXII 437, 6-9. Argiago ere adierazten du pentsamendu berdina: "Die Stellen für die bewegende Krafte im Raum äußerlich und die Grade ihrer Wirkung in der Zeit innerlich enthalten die Principien a priori zu Einem System derselben und der Übergang der nicht mehr eine Metaphysik aber auch noch nicht Physik enthält den Verhältnisbegriff der quantitativen und qualitativen Einheit eines Systems in der Reciprocität (Wechselseitigkeit) ihrer Bestimmungen", AA XXII 532, 1-6.

⁶²⁴Adickes 1920, 208-9.

1. Newtonen materiaren kantitatea $m = dV$, hau da, geometrikoki, dentsitatea eta bolumenaren arabera zehaztu zuen; baina, orduan, neurketa konkretuak egiteko dentsitate berdinak suposatu behar dira. Benetan, hedapenez gain intentsitateak kontuan hartu behar dira, eta beraz, neurketa dinamikoa behar da. Gorputz oro balantzaren bidez neurtu ahal izateko matematikoak soilik ez diren auresuposapenak egin behar dira. Balantzak zurruntasun eta kohesio bat eskatzen du. Honekin Kantek saiakuntza zientifikoaren baldintzen bilaketarako bide interesgarria irekitzen du.

2. Jariakor/zurrun bereizketak ez du emaitza hain interesgarrietara eramaten. Hemen Kantek gorputzen egoera ezberdinen oinarriak bilatzen dituela dirudi. Ikuspegi dinamiko batean erabateko zurruntasuna ezinezkoa da, eta ondorioz, Kantek jariakortasunaren oinarriak arakutzen ditu.

3. Gorputz konkretu bakoitzak kohesio maila bat izan behar du bere itxura mantentzeko. Kohesioa kontaktuzko erakarpen gisa esplikatzeko du, nahikoa ez dena. Hemen gure mendeko Fisikaren arazoek zerikusia dutenez, bere garaiko Fisikak ezin zion gehiegi lagundu.

4. Modalitatearen kategoriaren barnean arazo metodologikoak eta gnoseologikoak dira nagusi. Eterra maila fisikotik atera eta esperientziaren baldintza gisa aztertze beharra agertzen da. Higiduraren oinarriaren bilaketak betikotasuna eta agortezintasuna bezalako ezaugarriak aztertzerako darama. Testuinguru honetan sortuko da Filosofia kritikoko gai nagusien landualdi berria.

Indar higitzaileen arteko harreman formalei dagokienez, izenburu eta ordena ezberdinen azpian edukien berdintasun bat aurki daiteke. Norabidea, gradua, erlazioa (edo kanpoko harremana) eta modalitatea (edo barneko harremana/denbora) dira lau zatiketa nagusiak. Hemen, azpian kategoripeko sailkapena eta eterrarekin lotura aurki daitezke. Norabidea foronomiako gaia zen eta hemen erakarpena eta aldarapena +a, -a gisa kontrajarriz aurkezten da. Garbi dago hau hedaturaren oinarri dinamikoa dela, eta beraz, pisagarritasunarena. Graduak, hau da, intentsitateak jarraitasunarekin eta abiaduraren momentuarekin duen harremana ikusiz gero, orduan hark materiaren egoera ezberdinen (zurrun/ jariakor) arteko harremanekin duen lotura nabarmentzen da. Kanpoko harremana azalekoa edo sarkorra izan daiteke. Eterra ez da lokomotiboa, mekanikoa, baizik eta berez barnetik higitzailea da, kanpoko eraginik behar izan gabe. Barneko harremana eterraren jatorrizkotasuna eta betikotasunarekin lotua dago. Modalitatearen forma ezberdinak iadanik Arrazoimen Hutsaren Kritikan denboraren arabera definitzen ziren. Azken finean, egitasmo honekin indar higitzaileentzat espazioa eta denboraren araberako eskema antzekoak pentsatzen saiatzen da Kant.

b. Eterraren ezaugarri orokorrak

Oinarrizko materia baten beharra Kantek hasiera-hasieratik duen ideia da⁶²⁵. Eta hasierako garai honetan iadanik kohesioaren arazoari, eta beroa, eta argiari lotua agertzen da adibidez⁶²⁶. Baina materiaren ezaugarri orokorren gaia Kantek beranduago indar higitzaileekin batera lotura estuan lantzen du. Gai hau Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en oraindik baztertua geratu zen. Bertan materiaren ezberdintasun espezifikoaz hitz egiten da⁶²⁷, baina gai honen argipen lana burutu gabe:

"Hauek dira guretzako materiaren jatorrizko ezaugarriak, ez arrazoimenak diktatuta (Hast[apen]. metaf[isiko].etan modura), baizik esperientziak eskaintzen dizkigun indar higitzaileetara erreferitu ahal direla"⁶²⁸.

Igarobidearen hasieran Kantek Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak eta Juzgamenaren Kritikan oraindik eterraz daukan hipotesi fisikoaren ideiarekin jarraitzen du⁶²⁹, eta hainbat fenomeno fisikoren argibidea zehazteko erabiltzen du oinarrizko osagai gisa, Euler eta Deluc-en teoriei jarraiki⁶³⁰. Energia kontzeptua ere erabiltzen du testuinguru honetan, eta espreski indar higitzaileen energiak hitz egiten du⁶³¹. Zentzu berriagoan, eterra batasun kolektibo gisa espazioaren beteketaren oinarritzat hartzeko aurrekariak aurkitzen ditugu, espazio eta denbora hutsak ezin baitira objektu bihurtu⁶³². Honek hirugarren analogiarekin duen lotura garbia da.

Hala ere, "**Oktaventwurf**"-ean eterraren statusari buruzko gogoetak hasten dira, argiki aurreko egoeraz zituen zalantzek eraginda⁶³³. Eterra bera zer ote den zehazten saiatzen da Kant eta hau espazioa higiduraz betetzen duen materiaren oinarria, hasieratik betiko higiduran jarria dagoen indar bizikorra dela esango du⁶³⁴.

⁶²⁵"Ich nehme an: daß alle Materien, daraus die Kugeln, die zu unserer Sonnenwelt gehören, alle Planeten und Kometen, bestehen, in Anfänge aller Dinge, in ihren elementarischen Grundstoff aufgelöset, den ganzen Raum des Weltgebäudes erfüllt haben", Himmell, AA I 263.

⁶²⁶Kohesioaz, De igne, AA I 372; 375-6; 377; bero-argia loturaz: "Materia caloris non est nisi ipse aether (s. lucis materia)", De igne, AA I 377.

⁶²⁷MA, AA IV 525.

⁶²⁸"Diese sind für uns ursprüngliche Eigenschaften der Materie, nicht wie sie die Vernunft (wie in den metaph. Anf. Gr.) dictirte sondern wie sie sich auf die bewegende Kräfte welche uns die Erfahrung an die Hand giebt zurück führen lassen", AA XXI 177, 13-6.

⁶²⁹"So ist der Äther der neuern Physiker, eine elastische, alle andere Materien durchdringende (mit ihnen innigst vermischte) Flüssigkeit, eine bloße Meinungssache, immer doch noch von der Art, daß, wenn die äußern Sinne in höchsten Grade geschärft wären, er wahrgenommen werden könnte; der aber nie in irgend einer Beobachtung, oder Experimente dargestellt werden kann", KU, AA V 467. Baita ere, idem, 224; 348-9.

⁶³⁰"Das Grundelement (Aether)", AA XXI 467, 14.

⁶³¹AA XXI 436, 14; "Energie der bewegenden Kraft", AA XXI 466, 13. Energia hitza erabiltzen ez badu ere antzeko zentzuan: "Die uranfänglich sich selbst bewegende und die Bewegung anhebende Materie muß auch immerwährend in gleichem Grade und ein Stoff seyn der keine andre Eigenschaft hat als eine Potenz erregende Kraft zu seyn", AA XXIII 486, 25-7.

⁶³²"Die Beziehung der Dinge auf den leeren Raum ist gar kein Gegenstand möglicher Wahrnehmung. Eben so auf die leere Zeit", AA XXI 459, 17-8. Gainera, AA XXI 418, 21-23; AA XXI 424, 3-6; AA XXI 428, 26-28; AA XXI 467, 14.

⁶³³"... nicht als Gegenstand der Erfahrung sondern bloß als Idee von einer expansiven Materie", AA XXI 378, 9-11; "Unvermeidlich nothwendige Hypothese", AA XXI 378, 15-16; "bloße Hypothese", AA XXI 392, 18. Baina espazioaren arazoa hor dago oraindik: "Der volle Raum als object der Erfahrung gegen den leeren", AA XXI 376, 1.

⁶³⁴"Aether als die Basis aller den Weltraum erfüllenden Materie dessen innere von dem ersten stoß in ewige Zitterungen gesetzte Bewegung eine lebendige Kraft ist", AA XXI 380, 7-10.

Gainera, ez da argia, beroa (biak lotzen ditu) edo magnetismoa eragiten duten antzeko ekaia, baizik eta hauek jatorrizko ekai horren agerpenak liriateke.

"A-C" zatian eterraren statusaren inguruan pentsatzen jarraitzen du. Materia pisakaitza dela esatea kontraesankorra litzateke; ihesbidea konparatiboki pisakaitza dela esatean datza⁶³⁵. Materia era guztien oinarria eman behar duen zerbait hori bera ezin da materiaren era bat izan. Hala ere, oraindik eterra hipotetikoki postulatu behar den kontzeptutzat du.

" α - ϵ " zatian Kantek eterra hipotesizat duen arren, bere substantziatasuna ukatu egiten du⁶³⁶, eta bere ezaugarriak zehazten doaz pixkanaka (pisakaitza, lotezina). Substantzia ez denez, eterrak ezaugarri negatiboak besterik ez ditu. Hurrengo orri solteetan aipatzen du lehenengo aldiz eterra agian hipotetikoa ez litzatekeela⁶³⁷.

"a-c" zatian eterra substantzia ez dela eta bere alde negatiboa topatzen ditugu berriro⁶³⁸. Gainera, eterraren arazoa modalitatearen barnean kokatzen du Kantek, eta honek bere ikerketa bide kritikotik garatzea eragingo du⁶³⁹.

"n^o1-n^o3 η " zatian berriro eterra hipotesi hutsa ezin dela izan idazten du⁶⁴⁰. Materiaren indar higitzaileen baldintza izan behar duenez, ulertzekoa da Kantek oinarrizapen hobea bilatzea. Bestetik, aurretik ere aipatu duen energiaren kontzeptua dinamikari lotua agertzen da⁶⁴¹. Modalitateari buruzko ohartxoan, materia zentzuen bidez bitartegabe ohartu edo bere ezaugarriekin ondorioztatu egin behar ote den galdetzen du⁶⁴², eta hemen eterraren dedukzioaren lehen aztarna ikusiko nuke nik. Eterraren beharra berriro agertzen da modalitatea lantzean⁶⁴³, eta Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en fenomenologiari dagokion lekuan ere bai iraupenari lotuta⁶⁴⁴. Kategoripeko sailkapen orokorra ere badugu, pisagarri/ pisakaitz, lotugarri/ lokaitz, bildugarri/ bildugaitz, agorgarri/ agorgaitz eredupean⁶⁴⁵.

⁶³⁵AA XXI 315, 14-7.

⁶³⁶AA XXI 255; 503; 521.

⁶³⁷"Nicht ganz hypothetisch", AA XXI 480, 25.

⁶³⁸"Der Wärmestoff ist keine Flüssigkeit macht aber doch alles flüßig. Ist nicht elastisch u. doch Ursache aller Elasticität. Durchdringt alles incoërcibel ist aber nicht für sich subsistirende sondern nur inhärirende Materie", AA XXI 282, 22-25.

⁶³⁹"4te Cat. vom Wärmestoff überhaupt ob er subsistirend oder inhärirend sey. Princip der Modalität", AA XXI 288, 28-29.

⁶⁴⁰"Sie kann nicht für einen bloß hypothetischen Stoff angesehen werden und dennoch läßt sich diese Materie nicht abgesondert darstellen", AA XXI 297, 10-11.

⁶⁴¹AA XXI 352, 4-8.

⁶⁴²"Da die Materie entweder unmittelbar durch den Sinn wargenommen oder nur geschlossen werden kann sammt ihren Eigenschaften", AA XXII 257, 24-25. Hala ere, honek ez du berehalako eraginik, bi orrialde geroago "hypothetisches Ding" buruz hitz egiten jarraitzen baitu, AA XXII 259, 15-16.

⁶⁴³"Der Modalität nach ist die N o t h w e n d i g k e i t und ihre empirische Function die Permanenz der bewegenden Krafte vermittelt des Wärmestoffs", AA XXI 303, 18-20.

⁶⁴⁴AA XXI 303, 13-20.

⁶⁴⁵AA XXI 531, 5-10.

"Elem. Syst. 1-7" zatian eterra funtzio berriak hartzen hasiko da eta froga baten lehen aztarnak ditugu. Harrigarriki arrazoiketa bitarteko onarpen batez hitz egiten du Kantek, argumentu ontologikora itzultzea dirudien urratsa emanez⁶⁴⁶. Hala ere, garbi uzten du existentziaren kontzeptu berria onartzen duela orain, ez enpirikoa, baizik fenomenoaren argibiderako pentsatua⁶⁴⁷. Dena den, espazio eta denbora hutsen ezintasuna garbi geratzen da, eta hori konpontzeko printzipio transzendentetara jotzen du⁶⁴⁸. Eta hau higikortasunari lotuta dago, espazio-denbora huts batekin ez baitago higikortasunik oinarritzerik. Horregatik, eterra jatorriz higitzailea den batasuna da ("**primum movens**")⁶⁴⁹. Jatorrizko barne higikortasun horrekin soilik oinarri daiteke indar higitzaileen higikortasuna. Ez da harrizkoa, beraz, testuinguru honetan berriz ere eterra nolabait energiarekin berdintzea⁶⁵⁰. Egitasmoaren zentzu osoa esaldi batean jasotzen du Kantek:

"Zeregina hau da: zer da materiaren indar higitzaileak hasieratik eta osotasun gisa higiduran jartzen dituen?"⁶⁵¹.

"A. Elem. Syst. 1-6" zatian berriro eterra indar higitzaileen oinarri gisa agertzen da. Eterra ez da hipotesi soila, baina ezta osagai fisikoa ere⁶⁵². Nolabait a priori pentsatzekoa dela aurreratzen du, esperientziaren baldintza baita⁶⁵³. Eta asmo honekin eterra espazio hautemagarriarekin berdintzen du⁶⁵⁴, horrela soilik esplika baitezake indar higitzaileen jatorria.

⁶⁴⁶"Ein hypothetischer Stoff ist der den man nicht den Sinnen darstellen aber doch auf seine Existenz aus den Phänomenen schließen kann", AA XXII 154, 15-16.

⁶⁴⁷"Ein vielleicht nur hypothetischer Stoff der aber zur Erklärung der Erscheinungen höchst annehmungswürdig ist", AA XXII 160, 28-161, 2.

⁶⁴⁸"Die Bestimmbarkeit des Raumes und der Zeit durch den Verstand a priori in Ansehung der bewegenden Kräfte der Materie ist die Tendenz der Metaph. A.Gr. der NW. zur Physik und der Übergang zu ihr ist die Erfüllung des Leeren durch die Formen welche alle mögliche Gegenstände der Erfahrung in ihrer Einheit betrachten", AA XXII 193, 8-12; "Der leere Raum ist gar kein Object möglicher Erfahrung weder als eingeschloßener noch als einschließender (endlicher, unendlicher) leerer Raum Nicht nach dem atomistischen sondern dem Fluxionistischen Princip der Theilung der Materie muß die E r f ü l l u n g des Raumes den sie einnimmt beurtheilt werden", AA XXII 194, 3-8; "Raum und Zeit realisirt", AA XXII 200, 20.

⁶⁴⁹"Es ist eine unanfängliche (primitive) i n n e r e Bewegung der Weltmaterie als Einheit der Ursache der Gemeinschaft", AA XXII 195, 20-1.

⁶⁵⁰"Die Energie der lebendigen Kraft des Stoffes von einer allgemein durchdringenden bewegenden Kraft der Materie", AA XXII 186, 8-9.

⁶⁵¹"Die Aufgabe ist: Was ists was die bewegende Kräfte der Materie zuerst und zwar dieser ihr Ganzes in Bewegung setzt?", AA XXII 200, 8-9.

⁶⁵²"Kein hypothetischer aber auch nicht aus der Erfahrung allein geschopfter (d. i. nicht zur Physik gehörender) Stoff", AA XXI 192, 28-9; "Dieser Aether darf darum nicht als ein hypothetischer Stoff von irgend eine Art bewegender Kräfte (z. B. als Wärme//oder Lichtmaterie) in die Physik willkürlich eingeschoben werden wohin er wirklich nicht gehört indem er blos zum Ü b e r g a n g e von den metaphys. A. Gr. d. NW zur Physik gehört sondern ist von allen positiven Eigenschaften entkleidet die Agitation einer imponderabelen incoërcibelen incohäsibelen und inexhaustibelen in continuirlichem Wechsel der Anziehung und Abstoßung an ebendenselben Ort begriffenen Materie welche als Princip der Möglichkeit der Erfahrung des Raum und der Zeit in dem absoluten G a n z e n der bewegenden Kräfte der Materie in ihrer Bewegung so wie sie nachdem sie angefangen hat sich forthin unvermindert erhält, postulirt wird", AA XXII 605, 22-606, 2.

⁶⁵³"Nicht durch Erfahrung sondern a priori", AA XXII 587, 26.

⁶⁵⁴"Der alldurchdringende Aether gleichsam der perceptibile Raum", AA XXII 596, 19-20.

Ondorengo zatietan eta ia bukaera arte han eta hemen agertzen diren eterraren ezaugarriak berdin mantentzen dira⁶⁵⁵, baina aurrerantzean gai nagusia bere statusa izango da oro har⁶⁵⁶.

c. Eterraren existentziaren frogapena

"Übergang 1-14" izena duen zatiak aurrelanean aldaketa izugarria ekartzen du. Eterra hipotesia ez dela eta bere existentziaren froga bat duela dio Kantek, eta hau lantzen du hurrengo orrialdeetan. Argumentuak aurreko zatietan agertzen joan dira eta orain bildu egiten ditu: espazio hutsa ezin da esperientziaren oinarri izan, ezin da ezagutu eta, beraz, hau betetzen duen zerbaitek existitu behar du, hura erreala egiten duena eta esperientzia osoaren oinarri izango dena⁶⁵⁷. Horrek higikortasunaren oinarria ere izan behar du⁶⁵⁸. Horregatik, ez da espazioren okupazioaz ('**occupatio spatii**') soilik hitz egiten, baizik beteketaz ere bai ('**repletio spatii**')⁶⁵⁹. Ondorioz, espazioa sentigarri edo hautemagarri egiten duen espazio hipostaziatu batez hitz egiten du Kantek, hori eterrarekin berdinduz⁶⁶⁰.

Behin frogaren analitikotasun edo sintetikotasunaz galdetzen du, baina gero analitikotasunari heltzen dio⁶⁶¹. Kant berak frogapenaren erraztasunaren aurrean harridura adierazten du, eta une batean axiomatzat du, eta beraz, frogatu ezin den (eta frogarik behar ez duen) printzipiotzat⁶⁶². Hori babesteko "**a poße ad esse valet**

⁶⁵⁵Horrela, implizituki kategorien arabera: "Existirt unter dem Nahmen des W ä r m e s t o f f s eine Materie mit den Attributen: a l l v e r b r e i t e t , a l l d u r c h d r i n g e n d , innerlich a l l b e w e g e n d (sich selbst in allen seinen Theilen agitirend) und in dieser Agitation p e r e n n i r e n d zu seyn", AA XXI 591, 5-8. Eta gerora lehendabiziz eta azkenengoz ezaugarriak alemanez emanez: "unwägbar", "unsperrbar", "unzusammenhängend" eta "unausleerbar", AA XXI 231, 28-232, 12.

⁶⁵⁶"Er ist nicht ein Ens (Etwas Existirendes) auch kein Non ens (etwas undenkbares) sondern ein Princip der Möglichkeit", AA XXII 415, 8-9.

⁶⁵⁷"Die Basis aller möglichen Wahrnehmungen der bewegenden Kräfte der Materie im Raume und in der Zeit ist der Begriff eines Elementarstoffs der blos in seinen eigenen Theilen anziehend und abstoßend überall im Weltraume verbreitet sich selbst innerlich continuirlich bewegend ist und von dem der Begriff zum alleinigen Princip der Möglichkeit der Erfahrung von einem absoluten Ganzen aller innerlich bewegenden Kräfte der Materie gemacht wird und nach der Regel der Identität als ein solches erkannt wird", AA XXI 225, 12-19.

⁶⁵⁸"Wir können uns also keine Bewegung denken als in einem mit Materie erfüllten Raum der ein Continuum derselben ausmacht", AA XXI 219, 5-6; "Durch den leeren Raum kann keine Wirkung der bewegenden Kräfte der Materie zu unseren Sinnen gelangen", AA XXI 220, 2-3. "**Wärmestoff**" hitza erabiltzearen zioa ez da beroarekin duen harreman berezia, baizik beroan ukituko higiduraren igorpen osoa ematea, AA XXI 594; 602.

⁶⁵⁹AA XXI 548, 14-6.

⁶⁶⁰"Wärmestoff (gleichsam der hypostasirte Raum selbst in dem sich alles bewegt)", AA XXI 224, 11-12; "Der Raum selbst als Gegenstand möglicher Erfahrung vorgestellt ist der Elementarstoff. Er macht den Raum sensibel heißt Wärmestoff", AA XXI 228, 24-25.

⁶⁶¹"Dieser Satz ist kein synthetischer (erweiternder) und von empirischen Principien abstammender sondern ein blos analytischer (erläuternder) Satz d. i. auf dem Satz der Identität gegründet und a priori erkennbar", AA XXI 593, 1-3. Une batean analitikotasuna eta sintetikotasuna lotzen ditu: "Die subjective analytische Einheit also der Möglichen Erfahrung ist zugleich die objective synthetische der Gegenstände der Erfahrung", AA XXI 574, 3-5.

⁶⁶²"Dieser Satz [Die Existenz des Wärmestoffs als das oberste Princip des Überganges von den metaph. Anf. Gr. der N. W. zur Physik] wird hier als Axiom d. i. als ein keines Beweises bedürftiger und dessen auch nicht fähiger nicht synthetisch

consequentia⁶⁶³ espresioa erabiltzen du. Jainkoaren kasuan, berriz, arrazoiketa modu hau ukatzen jarraitzen du⁶⁶⁴. Hau dena oso berria eta arazotsua da eta frogapena zeharkakoa edo oinarri negatiboduna dela dio⁶⁶⁵. Ez gara ari printzipio material edo inmaterial batez⁶⁶⁶, transzendentalaz baizik. Nahasketa eterraren izaerari buruzkoa da batez ere: hautemagaitza edo asmatutako izakiaz hitz egiten du, eta gero berriz benetako gauza edo substantziaz⁶⁶⁷. Batzutan hiztegi aukeraketa txar batek gauzak iluntzen dituela nabarmena da. Kantek beti izan duen existentziaren kontzeptuaz gain, orain eterraren existentzia erlatiboa dago. Zeri erlatiboa? Esperientziaren osotasunari eta batasunari. Esperientziaren eduki erreal baterako funtsa ("**Basis**") onartu behar da.

Eterrak energiarekin duen lotura estua kontuan hartuta⁶⁶⁸, beste argibidea ere saia daiteke. Dakigunez energia ez da berez azaltzen, baizik bere forma ezberdinetan, argia, beroa, elektrizitatea eta abarren moduan. Horregatik, errealtzat onartu behar da, baina ezin da zuzenki esperimentatu; espazioan dagoen gutzia erreala egiten du, baina ez da bertako objektu bat gehiago, espazioa kontsideratzeko beste era bat baino ez da.

Eterren froga, bestalde, esperientziaren batasunean oinarritzen da. Espazio eta denbora bakarrari esperientzia bakarra egokitzen zaiola zioen ideia zaharra jaso⁶⁶⁹, eta horri zera gehitzen dio Kantek, horretarako bakarra den ekaia ere behar dela⁶⁷⁰. Esperientzia bakarra da, plurala erabiltzen bada hautemapenez ari gara,

sondern analytisch aus einem Begriffe zu entwickelnder auf dem Princip der Identität beruhender Satz aufgestellt der also a priori behauptend kein empirisches (von der Erfahrung abgeleitetes) mithin kein *erweiterndes* sondern nur *erläuterndes* Urtheil ist", AA XXI 600, 23-8.

⁶⁶³AA XXI 592, 11.

⁶⁶⁴"Die *Existenz* eines solchen [Gott] aber *direct* beweisen zu wollen enthält einen Widerspruch denn a posse ad esse not valet consequentia", AA XXII 121, 15-7.

⁶⁶⁵"Der Beweis hat einen negativen Grund", AA XXI 545, 21.

⁶⁶⁶"Irgend eine Bewegung aber muß *ur anfänglich* seyn d. i. die Materie muß irgend bewegt zu werden schlechthin anheben wovon die Möglichkeit nach einem materialistischen Princip unbegreiflich von einer immateriellen Ursache aber (von Gott) abzuleiten in dem Übergange der Naturwissenschaft von den Metaph. Anf. Gr. der N. W. zur Physik unerlaubt ist weil dieser Übergang sich hiebey selbst widersprechen würde", AA XXI 560, 24-561, 2. Baita ere AA XXI 518-19.

⁶⁶⁷Kanten nahasketaren adibideak: AA XXI 544 orrian, "**erdichtetes Wesen**" eta "**selbstgemachten Begriff**" buruz hitz egin ondoren: "Diese Materie ist die Basis der Existenz jeder andern", idem, 28-9; "Nicht ein hypothetischer sondern in der Erfahrung gegebener (imperceptibeler) Grundstoff", AA XXI 537, 13-15; "Was obgleich den Raum erfüllend doch nicht unmittelbar ein Gegenstand möglicher Erfahrung ist (...)/ Was als Object der Sinne doch kein Gegenstad möglicher Erfahrung ist", AA XXI 562, 14-8.

⁶⁶⁸"Energie desselben [Wärmestoff]", AA XXI 584, 30.

⁶⁶⁹"Denn die Einheit der *Natur in der Zeit und Räume* und Einheit der uns möglichen Erfahrung ist einerley", EE, AA XX 209. *Kritika* bertan ere: "Es ist nur *eine* Erfahrung, in welcher alle Wahrnehmungen als im durchgängigen und gesetzmäßigen Zusammenhange vorgestellt werden: eben so, wie nur ein Raum und Zeit ist, in welcher alle Formen der Erscheinung und alles Verhältnis des Seins oder Nichtseins statt finden. Wenn man von verschiedenen Erfahrungen spricht, so sind es nur so viel Wahrnehmungen, so fern solche zu einer und derselben allgemeinen Erfahrung gehören. Die durchgängige und synthetische Einheit der Wahrnehmung macht nämlich gerade die Form der Erfahrung aus", A110.

⁶⁷⁰"Denn so wie es nur Einen Raum und nur Eine Zeit (als Objecte der reinen Anschauung) giebt so giebt es auch nur Einen Gegenstand möglicher äußerer Erfahrung im Felde der Causalität der Wahrnehmung von Aussendungen denn alle sogenannte *Erfahrungen* sind immer nur als Theile Einer Erfahrung vermöge des allverbreiteten unbeschränkten Wärmestoffs welcher alle Weltkörper in einem System verbunden und in Gemeinschaft der Wechselwirkung versetzt", AA XXI 579, 25-8; "Folglich ist der Begriff von dem Wärmestoff (...) zu Einer möglichen Erfahrung einerley", AA XXII 613, 1-3; "So ist die Existenz des Wärmestoffs mit dem Begriff der Zusammenstimmung der Wahrnehmungen zu Einer möglichen Erfahrung einerley", AA XXII 614, 25-27; "Es ist nur Ein Raum und nur Eine Zeit und nur Eine Materie in welcher alle Bewegung angetroffen wird", AA XXI 224, 3-4.

baina Esperientziak batasun kolektiboa osatzen du, ez distributiboa⁶⁷¹. Eterrak horrekin bat egiten du, hori ahalgarri eginaz, Fisika sistema gisa oinarri dezake⁶⁷². Ondoren, X. eta XI. sortetan ideia hau errepikatuko du, "**materia**" hitzaren ondoan "**materiae**" aukera ukatuz eta horren ordez "**Stoffe**" erabiliz.

Hau guztia modalitatearen kategoripeko azterketan prestatzen hasi zen, eta jakina da modalitateak ezagumenarekin harremana aztertzen duela⁶⁷³. Horrek zera eragingo du, aurreko arazo guztiak orain konponketa benetan kritiko baten bidea hartzea. Honekin aurreko fase guztia nolabait gainditzen da, datorrena aurrekoaren ordezeko kritiko gisa uler daitekeelarik, eta horrela eskuizkribuaren une interesgarrienera igarotzen gara⁶⁷⁴.

⁶⁷¹"Es ist aber objectiv nur Eine Erfahrung und wenn von E r f a h r u n g e n gesprochen wird so sind diese nur als subjectiv in einer s t e t i g e n Reihe möglicher Wahrnehmungen verknüpfte Vorstellungen der Existenz der Dinge Denn wäre ein Lücke zwischen denselben so würde eine Kluft (hiatus) der Überschritt von einem Act der Existenz zum Andern und so die Einheit des Leitfadens der Erfahrung zerrissen seyn zu welcher Begebenheit um sie sich vorzustellen selbst wiederum Erfahrung gehören müßte, welches unmöglich ist weil das Nichtseyn kein Erfahrungsgegenstand seyn kann", AA XXI 576, 20-577, 4.

⁶⁷²"Das Empirisch//Mannigfaltige aber dessen Zusammenstellung sich nicht zur Einheit möglicher Erfahrung qualificirt ist kein existirendes Object: es ist nichts", AA XXI 604, 9-11; "Man würde unrichtig sprechen wenn man sagen wollte: 'wir haben E r f a h r u n g e n'; denn es giebt für das Subject der Sinnenvorstellung nur Eine Erfahrung; das empirische Mannigfaltige der Sinnenobjecte enthält eine Menge von W a r n e h m u n g e n die sich insgesamt auf das absolute Ganze möglicher Erfahrung beziehen. Aus fragmentarisch aufgefaßten Wahrnehmungen aber Erfahrung als System zusammenzusetzen ist unthunlich", AA XXI 596, 17-23.

⁶⁷³"Die Kategorien der Modalität haben das Besondere an sich: daß sie den Begriff, dem sie als Prädikate beigelegt werden, als Bestimmung des Objekts nicht im mindesten vermehren, sondern nur das Verhältnis zum Erkenntnisvermögen ausdrücken", B266/A219.

⁶⁷⁴"La singolare dimostrazione a priori dell'esistenza dell'etere forma il passaggio alla parte piú interessante dell'Opus postumum, e apre la via alle sue soluzioni", Mathieu 1958 xii.

2. Azterketa transzendentalaren bila

Ikusi dugun moduan hasiera-hasierako testuetatik hautemapenaren ahalbidea dago jokuan. Indar higitzaileei buruz edozein zehaztapen egin ahal izateko, hauek subjektuan duten eragina eta honetan sortzen den hautematetik hasi behar da: "**Hautemapenak materiaren indar higitzaileen eraginak dira**"⁶⁷⁵. Une batean azterketaren bi aldeen elkarlotura argitzen du Kantek: indar higitzaileak kategorien arabera sailkatzen ditu, hautemapenen azterketa horren oinarri gisa⁶⁷⁶. Bi une hauen arteko harremana higiduraren kontzeptuaren bitartez lortzen da. Kanpoko ezer ezin dugu jaso higidurarik gabe eta honek subjektuaren gain duen eraginik gabe:

"Kanpoko sentsazioak higidurek soilik eragin ahal dituzte"⁶⁷⁷.

Hala ere, hortik aurrera, esperientziaren oinarria finkatzeko hautemapen hauen batasun edo sistemari eduki bat ematen diona beharko da⁶⁷⁸. Indar higitzaileek espazioaren beteketa bermatu beharko dute⁶⁷⁹. Espazioaren beteketa horrek higidura oinarritu behar duen neurrian, honen jatorria eta hasiera bihurtzen dira ikerketa-gaia. Eterra ("**primum movens**") kokatuko da ikerketa honen erdigunean. Bertan, higidura oinarritu behar duen heinean, materia hutsak argitu ezin duen berezkotasuna jasotzen dela argi zaio Kanti⁶⁸⁰.

Eskuizkribuan hasieratik a priori sintetikoak denari buruzko gogoetak topatzen ditugu, bertan fenomeno izatea eta afekzioa lotuta doazela, baina hasiera batean ondorio gehiegirik gabe. Honekin batera, bitarteko kontzeptuez, predikagarriez edo eskematismoaz (hamar aldiz baino gehiago aipatzen du Kantek⁶⁸¹) hitz egiteak Kritikako arazoetara zuzentzen gaitu. Hala ere, Kantek gai hauek ez ditu zuzenki lantzen. Horren orde beren

⁶⁷⁵"Wahrnehmungen aber sind Wirkungen b e w e g e n d e r K r ä f t e der Materie", AA XXII 612, 23-4. Antzera: "Was ein Gegenstand äußerer Wahrnehmungen ist, ein jeder Körper der auf unsere Sinn wirkt giebt uns irgend eine bewegende Kraft der Materie zu erkennen", AA XXII 189, 6-8; "Die Theorie von dem System der bewegenden Kräfte der Materie so fern sie auch unseren Sinn bewegen", AA XXI 508, 27-8.

⁶⁷⁶"Damit nun hiezu eine Aussicht eröffnet werde ist es nothwendig daß 1.) die bewegende Kräfte der Materie nach dem was in der Bewegung a priori vorgestellt werden kann nach den Categorien aufgezählt 2.) die primitive Wahrnehmungen aus welchen der Begriff jener bewegenden Kräfte ursprünglich gebildet wird zu Erfahrungs Gesetzen gemodelt werden", AA XXI 367, 13-8.

⁶⁷⁷"Äußere Empfindungen können nichts anderes als Bewegungen aufgelöset werden", AA XXI 452, 2-3.

⁶⁷⁸"Die Anticipation (προληψισ) der Wahrnehmungen, welche die Principien der Naturforschung d. i. das Förmliche der Verknüpfung derselben in einem System enthält worauf die Physik als System gegründet werden kann", AA XXI 172, 24-27; "Principien eines möglichen Systems der Wahrnehmungen", AA XXI 172, 32-173, 1; "So ist die Existenz des Wärmestoffs mit dem Begriff der Zusammenstimmung der Wahrnehmungen zu Einer möglichen Erfahrung einerley", AA XXII 614, 25-27.

⁶⁷⁹"Die bewegende Kräfte der Materie enthalten das Materiale der Empfindung welches durch das Bewußtseyn des Zusammensetzens des Mannigfaltigen in dieser Anschauung den Erfahrungsbegriff derselben ausmacht und das Reale der Sinnenvorstellung darbietet wodurch der Gegenstand perceptibel (perennirend) wird", AA XXI 202, 20-24.

⁶⁸⁰AA XXII 195, 13-6; AA XXII 272, 4-10.

⁶⁸¹AA XXII 487, 18-25 pasartean azaltzen da garbien eskematismoaren garrantzia.

baldintzetan sakontzen du egoera berriari egokitzeko⁶⁸². Esan daitekeena zera da, lehenago higidura eta indarra landu gabe geratu zirela predikagarri modura, eta orain indar higitzaileek hartzen dutela leku hori⁶⁸³. "A. Elem. Syst. 1-6" zatian organismoaren gaia aztertzean, honen argibidearen funtsa subjektuan bertan jartzea ere oinarri kritiko sendo batzuen bilaketaren zeinua da.

Beste puntu nabarmena, eta urrutirago eramaten duena, zera da, adimenaren edo oro har berezkotasunaren azpimarraketa sakonago bat aurkitzen dugula. Hautematea ez da nahikoa, noski, eta apertzepzioa edo subjektuaren alde aktiboa berehala agertzen da⁶⁸⁴. Hori **motto** batean gauzatuko da: konposatua ez, baizik konposatzea aztertu behar da⁶⁸⁵. Hemen, harmena eta berezkotasuna lotzeko egitasmoa zehazten da⁶⁸⁶. Testuinguru honetan subjektuaren ekintzaren garrantzia ere espreski zehazten du Kantek⁶⁸⁷. Honek funtsean indar higitzaileen bilaketa subjektua beraren gaitasunen ikerketa bihurtzea dakar⁶⁸⁸. Hor gogamena eta kontzientzia berriro zuzenki arazoaren erdian agertzen dira⁶⁸⁹. Horrela, berehala indar higitzaileek zentzumenarekin duten harremana gai bihurtzen da⁶⁹⁰, horrek espazioa ere barneratzen duen eskematika

⁶⁸²1796-8 inguruan eskematismoa Beck berak ulertzea lortu ez zuen puntu oso zailtzat zuen: "Überhaupt ist der Schematism einer der Schwierigsten Punkte. - Selbst Hr. Beck kann sich nicht darein finden", Refl. 6359, AA XVIII 685.

⁶⁸³"Man thut am besten hiebey die Ordnung der categorien zu befolgen etc. und die Quantität etc. derselben d. i. die Prädicamente zusammt denen ihnen anhängenden Prädicabilien hiebey aufzustellen", AA XXI 165, 11-3. Martin-en arabera predikagarrien arazoak konpondiberik ez duela litzateke Igarobidearen ondorioa.

⁶⁸⁴"Der Übergang enthält die subjective Bedingungen der Apprehension (empirisch) verbunden mit der Apperception (Synthetisch a priori) im Begriffe der Physik als System", AA XXII 243, 27-244, 1.

⁶⁸⁵Hitza iadanik Kritikan erabili zuen: B200/A161oh.; B262/A215; B443/B416; B446/A418.

⁶⁸⁶"Nicht Anschauung des Zusammengesetzten als eines solchen denn das ist ein Widerspruch sondern Bewusstseyn des Zusammensetzens des Mannigfaltigen im Gegenstande der Anschauung also nicht Bestimmung des Subjects in Ansehung der Receptivität sondern ein Act der Spontaneität als worinn der Übergang...", AA XXI 173, 2-6.

⁶⁸⁷"Es ist nicht das Z u s a m e n g e s e t z t e (compositum) was zuerst gedacht werden muß um die Vorstellung von einem Gantzen gleich als durch Anschauung heraus zu bringen sondern die Z u s a m m e n s e t z u n g ist es und der Begriff von dieser Handlung welcher Vorausgehen muß", AA XXI 633, 22-25. Antzera: AA XXI 162, 14-8; AA XXII 172, 13-21; AA XXII 174, 27-30.

⁶⁸⁸"Die Lehre von den bewegenden Kräfte der Materie nach subjectiven Principien a priori", AA XXI 180, 24-5. Eta argiago: "Man kann sich die bewegende Kräfte der Materie die ihrer Natur anhängen a priori nach gewissen thätigen Bestimmungen (functiones) modificirt denken nach welchen sie im Raume bewegend sind ohne daß noch ausgemacht wird ob sie wirklich in der Welt angetroffen werden möchten oder nicht und sie in einer logischen Eintheilung aufstellen von der man es allenfalls ob sie vollständig sey oder nicht unausgemacht lassen kann", AA XXI 530, 26-31; "Es ist nur noch die Frage zu beantworten warum die Lehre dieses Theils der Naturwissenschaft welcher das System der bewegenden Kräfte der Materie seiner Form nach aufstellt an statt die Objecte wovon darinn gehandelt wird (die bewegende Kräfte) zu benennen das Verfahren des Subjects nämlich des Lehrers wie und durch welche Schritte er von einem Theil der Wissenschaft zu dem Anderen übergehen soll zur Betitelung schicklicher und nöthig finden...", AA XXI 640, 6-13; "... ich den Übergang von der Met. d. N. nenne welche Betitelung freylich etwas unbequem ist indem sie nicht so wohl den Gegenstand der Erkenntnis welcher zwey Disciplinen verknüpft als vielmehr die Verknüpfung und Nothwendigkeit derselben zur Vollendung eines Systems bezeichnet und das Subjective des Principis der Beschäftigung mit gewissen Erkenntnissen zum Object zu machen scheint", AA XXI 361, 10-15.

⁶⁸⁹"Es ist aber wegen der Tendenz der metaphysischen Anfangs. Gr. zur Physik -welche an sich etwas Subjectives nämlich nicht selbst einen Inbegriff von Kräften sondern den Act des Gemüths vorstellt die Begriffe von den bewegenden Kräften der Materie in einem System zu verknüpfen- ... ", AA XXI 631, 4-8.

⁶⁹⁰"Die bewegenden Kräfte der Materie stehen unter den Formen von Raum und Zeit", AA XXII 187, 8-9; "Die mathematische E i n h e i t d e s R a u m e s u n d d e r Z e i t welche a priori die formale Bedingungen der Möglichkeit der Erfahrung als eines Systems der Wahrnehmungen enthalten mithin nicht t h e i l w e i s e (sparsim) sondern als zu Einem G a n z e n gehörend (coniunctim) verbunden gedacht werden müssen begründen den Begriff eines Elementarsystems der bewegenden Kräfte der Materie", AA XXII 193, 17-194, 3; "Physiologie im A l l g e m e i n e n (physiologia generalis) nach den Verhältnissen derselben im Raume und der Zeit", AA XXI 629, 2-3.

nabarmentzen duelarik, eta honek gainera, zera ekarriko du, berezkotasuna eta zentzumenaren arteko harreman arazotsua berriro ere sakonki jorratzea. Horrela, Kantek iadanik adimena bitarteko espazioaren eta denboraren determinazioaz hitz egiten du⁶⁹¹.

Hau dena irakurketa arretatsu batean "Übergang 1-14" zatiaren aurretik aurki daiteke eta honek esaten diguna zera da, Igarobidearen arazoan Filosofia transzendentaleko arazo nagusiak daudela jokoan⁶⁹². Horregatik, eskuizkribuak aurrera egitean hauek argiago azaltzeak ez luke harridurarik sortu behar. Subjektuaren ikerketa kritiko baten beharra berehala espreski azaltzen du Kantek:

"Ez da objektutik hasi behar, baizik subjektuaren esperientziatik eta honek bere baitan daukanetik"⁶⁹³.

Badakigu "Übergang 1-14" zatian espazioaren eta denboraren beteketa dela gai nagusia, indar higitzaileen esperientziaren baldintza gisa⁶⁹⁴. Horrela, higidurak afekzioarekin duen harremana orain berriro agertuko da⁶⁹⁵. Hemen erabat nabarmena egiten da harmenaz gain berezkotasuna behar dela, hau eterrak oinarritu beharreko higiduraren hasierak eskatzen baitu⁶⁹⁶. Era berean, Kantek argi dauka Fisikak sistema bat izan behar badu, hori ez dela indar higitzaile beraietatik etorriko, subjektuak ezartzen duen batasunetik baizik⁶⁹⁷. Honekin batera, berehala, afekzioaren eta autoafekzioaren gaia agertzen da, barnekoa eta kanpoko, eta argiki indar higitzaileei zuzenki lotuta:

"Kanpoko esperientzia bera subjektuak bere burua afektatzeko erabiltzen dituen materiaren indar higitzaileetan oinarritzen da"⁶⁹⁸.

⁶⁹¹"Die Bestimmbarkeit des Raumes und der Zeit durch den Verstand a priori in Ansehung der bewegenden Kräfte der Materie ist die Tendenz der metaph. A.Gr. der NW. zu Physik", AA XXII 193, 8-10.

⁶⁹²"Schon in den frühesten Phasen des o.p. ist das erkenntnistheoretische Interesse, wie bei Kant nicht anders zu erwarten, deutlich erkennbar", Tuschling 1971, 9.

⁶⁹³"Man muß nicht vom Object sondern der Erfahrung des Subjects u. was sie enthalten kann anfangen", AA XXII 614, 20-1. Antzera: "Denn es wird hier nicht nach dem gegebenen Gegenstande sondern nur nach unserer Erkenntnis des Gegenstandes gefragt", AA XXI 581, 20-22; "Es kommt nicht darauf an auszumachen welche Objecte uns für die Erfahrung gegeben sind sondern wie die Erfahrungen beschaffen seyn müssen um diese Objecte zu geben", AA XXI 586, 25-7.

⁶⁹⁴"Durch den leeren Raum kann keine Wirkung der bewegenden Kräfte der Materie zu unseren Sinnen gelangen", AA XXI 220, 2-3; "Denn wenn von dem Gegenstande im Raum zu mir nicht eine Empfindung als Wirkung der bewegenden Kraft von dem Punkte aus auf meinen Sinn gar nicht wirkte so würde ich von seiner Anwesenheit gar nicht benachrichtigt werden", AA XXI 537, 28-31.

⁶⁹⁵"Denn selbst die Existenz der Vorstellung eines Sinnenobjects durch welches das Subject afficirt wird ist die Wirkung der bewegenden Kräfte einer Materie welche zuerst bewegt ist", AA XXI 575, 5-8.

⁶⁹⁶"Der erste Anfang der Bewegung als Spontaneität", AA XXI 222, 8; "Dieser Raum kann nicht durch Körper erfüllet werden wenn sie nicht vorher einen sensibelen Raum aus selbstthätigkeit erfüllet hat", AA XXI 551, 1-3.

⁶⁹⁷"Die Gesammteinheit (omnitudo collectiva) der Erfahrung ist nicht das was eine äußere wirkende Ursache aus allen Gegenständen möglicher Erfahrung objectiv aus den bewegenden Kräften macht sondern was der Verstand subjectiv zur Einheit derselben aus sich selbst macht ist die Basis worauf alle besondere Erfahrung aus allen möglichen Wahrnehmungen (omnitudo distributiva) beruht", AA XXI 589, 9-14.

⁶⁹⁸"Äußere Erfahrung selbst beruht auf den das Subject selbst afficirenden bewegenden Kräften der Materie", AA XXI 573, 20-21. Antzera: "Denn die bewegende Kräfte der Materie können zur collectiv//allgemeinen Einheit der Wahrnehmungen in einer möglichen Erfahrung nur zusammenstimmen in sofern das Subject durch sie äußerlich und innerlich in Einen Begriff vereinigt sich selbst afficirt", AA XXI 572, 20-24.

Aurreko zatian argi ikusi dugu Filosofia transzendentaleko edukietara itzultzeko eta hauek birplanteiatzeko joera. Oraingo zatian, X/XI. sortetan, alegia, hori gaia bera bihurtuko da: Nola da Fisika ahalgarri zientzia gisa? Nola da esperientzia ahalgarri?, galdetuko du Kantek, eta apriorizko printzipio sintetikoak eta Filosofia transzentalaren definizio bati lotzen dizkio galdera horiek. Honelako galderekin Filosofia transzentalera itzulia osatu ezezik, itzuli hau bertan konpondu gabe zeuden arazoek sortzen dutela ere argitzen da. Sistemaren osotasunaren lorpena Filosofia transzentalaren egitekotzat agertzen da⁶⁹⁹. Eta horregatik, Metafisikaren egikaritzapena Filosofia transzentalala beraren osaketa besterik ez dela esan daiteke⁷⁰⁰.

Itzuli honen oinarria garbi dago: Kantek indar higitzaileak objektiboki aztertzea agortu duenean, eta hortik irtenbide zehatzik ikusten ez duenean, bere ikerketa subjektiboari, hau da, transzentalari ekiten dio. Indar horien ezagutzaren baldintzak subjektuak esperientziarako jarri behar duen horretan aztertzen ditu⁷⁰¹.

"MArekiko diferentzia metodikoa garbi lantzen da hemen: ez enpirikoki emandako objektuen gaineko apriorizko printzipioen aplikazioa, baizik subjektuaren ezagutza baldintzen ikerketa da hemen Kantek aurkitzen duen arazoa"⁷⁰².

⁶⁹⁹"Das System empirischer Vorstellungen (in Einer Erfahrung) aber ist selbst nicht empirisch sondern gründet sich auf einem formalen Princip welches aus einem synthetischen Grundsatz a priori (also einem transcendentalen Princip) hervorgeht", AA XXII 460, 11-4.

⁷⁰⁰"Auf dieser letzten Entwicklungsstufe fällt die Tr. ph. oder reine Philosophie mit der Metaphysik im weiteren Sinn zusammen und umfaßt also die ganze Metaphysik der Natur wie die der Sitten", Adickes 1920, 753. Hau une askotan agertzen da Kantengan. Horrela, garai aurrekritikoan iadanik Metafisika arrazoimenaren mugapen batekin elkartzten du ("In so fern ist die Metaphysik eine Wissenschaft von den Grenzen der menschlichen Vernunft", Träume, AA II 368). 60ko hamarkadaren bukaera argi duela dirudi: "Die Metaphysik ist eine Critik der reinen Vernunft und keine doctrin", Refl. 3964, AA XVII 368; "Die Eigentliche metaphysic oder die reine philosophie besteht aus der ontologie", Refl. 3931, AA XVII 353. Eta gainera garai bereko aurreko erreflexioak higidura jasotzen du ontologia horren gai gisa: "Bewegung gehört zur Ontologie", Refl. 3930, AA XVII 352. Geroago, 70eko hamarkadaren erdialdean Metafisika baten ezintasuna argi geratuko da: "Die Metaphysik ist zwar auch eine Wissenschaft von den Gesetzen der Vernunft, aber nur der reinen Vernunft, die mit der Sinnlichkeit nicht vermischt ist und ihre Principia blos aus der Vernunft und nicht aus Erfahrungen hernimmt. Sie betrachtet daher unsre Erkenntniße so, wie wir sie haben würden, wenn wir keinen Körper hätten", AA XXIV-1, 313. Soinak hartuko duen garrantzia ikusita Metafisikak zentzu oro galtzen du. Kritika bera idaztean, Herz bere lagunari bere sistemak Metafisikaren Metafisika eraiki duela aipatzen dio (AA X 269). Horrela, 80ko hamarkadaren erdialdera Metafisikaren egitasmoa kritikarekin batzen du ("Die Critic muß also ein System der Selbst-Erkenntniß unsrer Vernunft hervorbringen, und in diesem System der Metaphysic...", AA XXVIII-1, 389). Eta 1790 inguruan asmo sistematiko horiek indartuta agertzen dira: "Die Philosophie ist eine Wissenschaft und muß ein System ausmachen", AA XXIV-2, 614.

⁷⁰¹"Nicht was wir aus der Erfahrung und durch dieselbe von den bewegenden Kräften der Materie ausheben sondern was wir für dieselbe (zum Behuf derselben) hineinlegen, ist das wovon der Verstand anhebt die bewegende Kräfte der Materie mobil zu machen", AA XXII 487, 8-11; "Alle Materie enthält einen Inbegriff bewegender Kräfte und das Subject was durch sie afficirt wird und an ihm die Erfahrung macht bestimmt selbst diese Kräfte welche zur Erfahrung den Stoff hergeben", AA XXII 474, 26-8; "Wir können in der Natur nichts anders forschen als nur wir hineinlegen nämlich das Verhältnis unserer Kräfte der Form nach", AA XXII 286, 10-11.

⁷⁰²"Die methodische Differenz gegenüber den MA wird hier deutlich herausgearbeitet: nicht Anwendung apriorischen Prinzipien auf empirisch gegebene Objekte, sondern Untersuchung der Bedingungen der Erkenntnis a priori des Subjekts ist das Problem, vor das sich Kant nunmehr gestellt sieht", Tuschling 1971, 159.

Honek berezkotasuna eta harmenaren arteko harremanen inguruko gogoeten sakonketa eragingo du, beti ere indar higitzaileen oinarritzapen bati lotuta⁷⁰³. Ez da nahikoa indar higitzaileen eragina, zeren esperientzia ez baita jasotzen, egin behar da⁷⁰⁴.

Eta horrek autoafekzioaren ideia eskatzen du, bere burua afektatzen duen subjektuaren berezkotasuna: **"Subjektuak bere burua hautemapenean afektatzeko behar duen ekintzak esperientziaren ahalgarritasunaren printzipioa dauka bere baitan"**⁷⁰⁵. Eta Kantek aurretik aipatu zuen gisa, orain honek kanpoko objektuak ere jasotzen ditu: **"Kanpoko objektuen hautemapena subjektuak bere burua afektatzen dueneko ekintza besterik ez da"**⁷⁰⁶. Bere burua afektatuz kanpotik afektatzen da⁷⁰⁷. Honekin **"Idealismoaren errefusapenaren"** luzapenaren emaitzak sistematikoki jasotzen ditu.

Autoafekzioaren gaiak sentimenarekin duen lotura ere agertzen da⁷⁰⁸. Hala ere, lehenago Juzgamenaren Kritikan gaia agertu zenean gertatu zen modura, orain ere norabide honetan ez du sakontzen, Kanti interesatzen zaiona ezagutzaren objektibitatea finkatzea baita.

Asmo honi jarraiki, autoafekzioak indar higitzaileekin duen lotura 'fenomenoaren fenomeno' gaian nabaria egiten da, harreman hori aztertzeko agertzen baita berritasun hau. **"Fisikak fenomenoaren fenomenoarekin du zerikusia"**⁷⁰⁹. Lerro batzuk geroago zentzuen objektuak metafisikoki fenomenoak badira ere, fisikoarentzat gauza berak direla dio⁷¹⁰, baina horrekin zeharkako fenomeno baina ez ulertuz, bere baitango gauza kontzeptutik bereiziz⁷¹¹. Hemen, beraz, geroagoko bere baitango gauza kontzeptuaren kritikaren oinarriak jartzen dira. Arrazoimen Hutsaren Kritikan **"Erscheinung"** eta **"Phänomenon"** hitzek ñabardura ezberdinak

⁷⁰³"Die Physik ist das Princip das Subjective der Wahrnehmung der bewegenden Kräfte zugleich als das Objective der Verknüpfung derselben zur Gründung der Erfahrung enthalte und die Spontaneität der Zusammensetzung, der Form nach a priori vor der Receptivität der bewegenden Kräfte vorhergehe", AA XXII 297, 17-21.

⁷⁰⁴"Die Erfahrung wird gemacht", AA XXII 366, 22; "die Erfahrung (...) muß gemacht werden wenn einer sie haben soll (experiri u. experimentum)", AA XXII 486, 4-6. Eta horrek adimena eskatzen du: "Das Vermögen eine Erfahrung zu machen ist der Verstand", AA XXII 497, 16-7.

⁷⁰⁵"Der Act durch welchen das Subject sich selbst in der Wahrnehmung afficirt enthält das Princip der Möglichkeit der Erfahrung", AA XXII 387, 26-7; "Die Affectabilität des Subjects als Erscheinung ist mit der Incitabilität der correspondierenden bewegenden Kräfte als Correlat in der Wahrnehmung verbunden d. i. die Erscheinungen werden aufgefaßt durch die Spontaneität des sich afficirenden Subjects", AA XXII 396, 15-8; "Nicht darin daß Subject vom Object empirisch (per receptivitate) afficirt wird sondern daß es sich selbst (per spontaneitate) afficirt besteht die Möglichkeit des Überganges von den metaph. A. Gr. der NW. zr Physik", AA XXII 405, 14-7.

⁷⁰⁶"Die Wahrnehmung äußerer Gegenstände nichts anders ist als der Actus des Subjects durch welchen dieses sich selbst afficirt", AA XXII 392, 3-5.

⁷⁰⁷"Sich selbst afficirend äußerlich afficirt", AA XXII 401, 30.

⁷⁰⁸"... das Subject sich afficirt fühlt", AA XXII 468, 21; eta lerro batzuk ondoren: "Der Übergang zur Physik (des äußeren so wohl als des inneren Sinnes wozu auch Lust und Unlust gehören)", AA XXII 469, 7-8; "Wahrnehmung kan äußere oder innere (d. i.) Empfindung seyn; die letztere (in Beziehung aufs Object) Gefühl der Lust oder Unlust...", AA XXII 500, 17-8; "Denn auch Empfindungen und Gefühle gehören zur Physik", AA XXII 514, 11-12.

⁷⁰⁹"Die Physik hat es hier mit Erscheinungen von Erscheinungen zu thun", AA XXII 319, 29-30.

⁷¹⁰"Die Objecte der Sinne metaphysisch betrachtet sind Erscheinungen für die Physik aber sind es die Sachen an sich selbst die den Sinn afficiren, oder wie das Subject sich selbst afficirt", AA XXII 320, 3-5.

⁷¹¹"Von directen u. indirecten Erscheinungen in Vergleichung mit Dingen an sich selbst", AA XXII 320, 9-10.

dituzte: batean zentzu enpiriko-subjektiboa nagusitzen da, bestean horrek duen egitura azpimarratzen da⁷¹². Orain, egitura hori, ordea, subjektuak ezartzen du. Fisikak zerarekin lan egin behar du, fenomeno hartzeko subjektuak ezartzen duenarekin. Hori bere produktua⁷¹³ eta aldi berean bere objektua da⁷¹⁴. Hau da objektibitatea lortzeko bide bakarra: subjektuak berak egiten duena soilik ezagut dezake⁷¹⁵.

Berehala ikusten da honek espazioa eta denborarekin duela zerikusia. Subjektuak ezarri behar duena espazioa eta denbora bera dira, baina ez forma huts modura, objektu gisa baizik⁷¹⁶. Honek ez du bere filosofiako edukirik desegiten, hauetan sakondu besterik ez du egiten, eta zentzu horretan, Kantek behin eta berriz errepikatzen du espazioa eta denbora berez begiespenaren formak direla.

Honek zuzenean subjektibitatearen inguruko gogoetetara darama. Espazioa eta denbora objektu gisa, subjektua bera fenomeno gisa agertzeko moduak besterik ez dira⁷¹⁷. Hemen, beraz, fenomenoaren arteko harremana besterik ez dago⁷¹⁸, denboran subjektuak bere burua fenomeno gisa ezagutzen du⁷¹⁹, iadanik Kritikan agertzen zen eran. Beraz, hor denboraren gaia jasotzen da, berria ez dena⁷²⁰. Hala ere, orain espazioa eta denbora batera doaz:

⁷¹²"Erscheinungen, so fern sie als Gegenstände nach der Einheit der Kategorien gedacht werden, heißen Phaenomena", AA XXII 340, 30-341, 2;

⁷¹³"Der Gegenstand einer indirecten Erscheinung ist die Sache selbst d. i. ein solcher den wir nur in so fern aus der Anschauung heraus heben als wir sie selbst haben d. i. in so fern sie unser eigenes Erkenntnisproduct ist", AA XXII 340, 30-341, 2; "Erscheinung ist die subjective Modification der Wirkung welche ein Sinnengegenstand auf das Subject thut. Die Kraft des Subjects jenen Gegenstand zu modificieren ist die Sache selbst (metaphysisch betrachtet zwar auch immer Erscheinung physisch aber als Substanz die immer dieselbe bleibt)", AA XXII 328, 22-26.

⁷¹⁴"Die Erscheinung von der Erscheinung in der Verknüpfung des Mannigfaltigen gedacht ist der Begriff des Gegenstandes selbst", AA XXII 325, 21-3.

⁷¹⁵"Erscheinung von der Erscheinung ist das wodurch das subjective objectiv gemacht wird weil es a priori vorgestellt wird", AA XXII 363, 24-5.

⁷¹⁶"Wenn nicht Erscheinungen in Raum u. Zeit sondern Raum u. Zeit selbst als Erscheinungen u. Sinnenobjecte gedacht werden u. bewegende Kräfte der Materie als Wirkung dieser Kräfte aufs S u b j e c t . Erscheinung von der Erscheinung", AA XXII 339, 22-25; "Subjective Erscheinung die vor der objectiven, die indirecte die vor der directen vorhergeht, und den Raum zum Gegenstande der Erfahrung macht", AA XXII 339, 22-28; "Der e m p f i n b a r e Raum (spatium sensibile) (...) mithin Erscheinung einer Erscheinung", AA XXII 332, 6.

⁷¹⁷"Die subjective indirecte Erscheinung da das Subject ihm selbst ein Gegenstand der empirischen Erkenntnis ist u. doch zugleich sich selbst zum Gegenstande der Erfahrung macht indem es sich selbst afficierend das phaenomenon eines Phaenomens ist", AA XXII 373, 30-33.

⁷¹⁸"Das erste Princip der Vorstellung der bewegenden Kräfte der Materie sie nicht als Dinge an sich sondern als Phänomene zu betrachten nach dem Verhältnisse welches sie zum Subject haben wie es unseren Sinn afficirt oder wie wir unsern Sinn selbst afficiren und das Formale der Sinnenvorstellungen in das Subject hineinragen", AA XXII 300, 10-14.

⁷¹⁹"Das Subject afficirt sich selbst in der Synthesis als Erscheinung", AA XXII 323, 20-1; "Diese empirisch//gegebene Kräfte sind Actus wodurch das Subject sich selbst afficirt d. i. sich erkennt als Phänomen (wie es ihm selbst erscheint)", AA XXII 390, 22-4.

⁷²⁰"Das Verhältnis der bewegenden Kräfte gegen sich selbst in der Vorstellung des inneren Sinnes", AA XXII 358, 12-3; "Sich innerlich selbst afficiren", AA XXII 458, 5-6; "Diese gerade b e w e g e n d e (äußerlich) oder auf Empfindung dem inneren Sinn in der Empfindung wirkende Kräfte", AA XXII 458, 17-9; "Es sind nicht blos äußerlich bewegende sondern auch innerlich sinnafficirende Kräfte der Materie welche doch durch äußere Erscheinungen (der Bewegung) begleitet werden", AA XXII 459, 14-16.

"Bere burua afektatzen duen subjektua fenomeno gisa ezagutzen da eta bere izatea determinatzen du oharmenaren bitartez esperientzian halabeharrez aldi berean espazioan eta denboran"⁷²¹.

Eta horrekin batera, hedadura eta intentsitatearen arabera autoafekzioaz hitz egiten du Kantek⁷²². Beraz, alde batetik, espazioa eta denboraren lotura, bestetik, kantitatea eta kalitatearena ditugu: nabarmena da funtsean higiduraren arazoa dagoela jokoan.

Jarrai dezagun, bada, aurrera. Subjektua objektu gisa agertze hori ez da berez emana, baizik subjektua berak egin behar du⁷²³, eta honek arazoan sakontzera garamatza. Zati honetan bertan, harmena eta berezkotasunaren arazoa autoafekzioarekin soilik ez dela konpontzen garbi geratzen zaio Kanti. Subjektuak bere burua denbora eta espazioaren arabera afektatzen badu, horretara nola iristen den sakonkiago argitu beharko du, - lehenago horren ezintasunaz zuen ideia gaintuz-, eta horrela iristen da autoezarpenaren gaira.

Iadanik 1797-XI-5ean Tieftrunki idatzitako eskutitzean autokontzientzia kalitatearen kategoriaren arabera "ezarpen" batean datzala aipatzen zuen Kantek⁷²⁴. Beraz, badirudi kalitatearen gaia lantzen duen dinamikak azkenean ezarpenaren gaira bidaltzen duela Kant.

Eskuizkribu bertan, hasiera batean adimenak zentzumenaren elementuak sartu ("**hineinlegen**") behar dituela soilik aipatzen du⁷²⁵. Hala ere, Kant ezarpenaz hitz egitera igarotzen da berehala.

"Ezarpena eta hautemapena, berezkotasuna eta harmena, harreman objektiboa eta subjektiboa aldi berekoak dira, denboraren arabera berberak baitira"⁷²⁶.

⁷²¹"Das Subject welches sich selbst afficirt erkennt sich selbst als Phänomenon und bestimmt sein Daseyn in der Erfahrung durch Apprehension in Raum und Zeit zugleich als nothwendig", AA XXII 465, 17-19; "Der Einfluss der bewegenden Kräfte der Materie auf das Subject in Ansehung seines inneren Sinnes in der Action und Reaction derselben welche gewisse Phänomene für den äusseren Sinn als Wirkungen von jenen zur Folge haben...", AA XXII 499, 9-12.

⁷²²"Die erste der bewegenden Kräfte welche die Existenz des sensibelen Raumes constituirt ist die Anschauung extensiv in der Möglichkeit der Wahrnehmung von dem was im Object äußerlich ist empirisch zu geben die zweyte in der Empfindung intensiv in der sensibelen Zeit dem Grade nach beydes subjectiv d. i. in der Erscheinung nach der Form wie das Subject afficirt wird", AA XXII 518, 5-10.

⁷²³"Die Erscheinung der Erscheinung, wie nämlich das Subject mittelbar afficirt wird ist metaphysisch wie das Subject sich selbst zum Object macht (sich seiner selbst als bestimmbar in der Anschauung bewusst ist)", AA XXII 326, 5-7; "Nichts weiter als Erscheinung von der Erscheinung d. i. Vorstellung des Formalen wie das Subject sich selbst nach einem Princip afficirt und sich als selbstthätig Object ist", AA XXII 333, 29-334, 1; "Das Subject afficirt sich selbst und wird ihm selbst Gegenstand in der Erscheinung", AA XXII 364, 24; "Ein Act synthetischer Erkenntnis a priori (transscendental) welcher subjectiv Erfahrung möglich macht wodurch das zusammensetzende Subject sich selbst zum Object wird", AA XXII 364, 29-365, 2; "Selbstbestimmung des Subjects gleich als Objects. Der Verstand m a c h t das cogitabile zum dabile", AA XXII 385, 13-4.

⁷²⁴"Die Function des Selbstbewußtseins unter dem Titel der Qualität besteht im Setzen", AA XII 213. Hemen berezkotasuna eta harmena, biak era berean jatorrizkoak direla dio.

⁷²⁵"Der Verstand muß daher die Elemente der Sinneserkenntnis synthetisch zu einem System der bewegenden Kräfte hineinlegen um eine Erfahrung zu machen", AA XXII 316, 27-317, 1; "Was der Verstand für die Erfahrung und ihre Möglichkeit in die Sinnenvorstellungen h i n e i n l e g t ", AA XXII 379, 3-6; "Der erste Act geschieht durch den Verstand durch den das Subject sich selbst in Ansehung der Gegenstände im Raume und der Zeit sich selbst als einem Object bestimmt", AA XXII 507, 12-14.

⁷²⁶"Die Setzung und Wahrnehmung die Spontaneität und Receptivität das objective u. subjective Verhältnis sind zugleich weil sie identisch sind der Zeit nach", AA XXII 466, 13-15.

Baina ondoren ez aldi berekoak gisa, baizik bata bestearen oinarri moduan agertzen dira. Ondorioz, ezarria denak ezarpenaren berezkotasunaren ezaugarrien zati bat jasotzen du, hau da, zentzumena ezin da harmen soila izan berezkotasunaren ezarpen modua den neurrian⁷²⁷. Horrela, "**subjektuak bere burua objektu egiten du**"⁷²⁸, esaten bazuen aurretik, orain "**subjektua bera ezartzen da begiespen hutsean eta objektu egiten da**"⁷²⁹ argipena gaineratzen du. Batera-ezartzeak ("**Zusammensetzen**") ezarpen bat ("**Setzen**") eskatzen du⁷³⁰. Kantek ekintza hau aldi berean analitikoa eta sintetikoa dela esaten du⁷³¹; egitan, analitikotasun antzua utzi eta sintetikotasun oren oinarriaren bila iritsi baita honeraino⁷³².

Honek idealismoaren indartze batera daramala ezin da ukatu. Kantek subjektuaren autoegiteaz hitz egiten du Beck bera aipatuz: "**gu geu egin behar gara**"⁷³³. Hor idealismo oso batetara igarotzea baino, gehienbat gaitasunen hiztegi psikologikoaren gaintzea legoke: ezagutzaren baldintzen arazo guztia harmena eta berezkotasunaren arteko harreman gisa aurkezten da⁷³⁴.

Ondoren, zazpigarren sortako "Beilage 1-8" datoz eta izenak dioen bezala aurrekoari egindako gehiketak dira. Igarobidearen jatorrizko egitasmoari erreferentzia ahuldu baina mantendu egiten da, lehenago Filosofia transzendental bera argitu behar baita⁷³⁵. Honek sistema bat eratu ahal dezakeen neurrian egin ahal izango da Fisikara igarobidea⁷³⁶.

⁷²⁷"Raum und Zeit sind nicht Gegenstände der Anschauung sondern die reine Anschauung selbst und das Formale der synthetischen Einheit des Mannigfaltigen derselben als Erscheinungen unter dem Princip ihrer Zusammensetzung ist nicht Receptivität sondern Spontaneität", AA XXII 439, 6-9.

⁷²⁸"Das Subject macht sich zum Object", AA XXII 443, 27.

⁷²⁹"Das Subject s e t z t sich selbst in der reinen Anschauung und macht sich zum Object", AA XXII 452, 23-4. Gainera: "Raum und Zeit sind keine Dinge sondern bloße Vorstellungsarten der Dinge in der Erscheinung und objective Anschauung in der subjectiven als Erscheinung a priori enthalten. Die Setzung beyder vereinigt enthält nicht etwas was g e g e b e n sondern g e m a c h t i s t", AA XXII 439, 17-20.

⁷³⁰"Die Zusammensetzung nicht das Zusammengesetzte sondern die Setzung", AA XXII 441, 20.

⁷³¹"Selbstanschauung (sich zum Sinnengegenstande zu machen) gehört zur transsc. Philosophie u. ist synthetisch zugleich aber analytisch", AA XXII 442, 10-11.

⁷³²"Der Raum (...) enthält bloß das Formale der Anschauung was unser eigenes Dekungsprincip synthetisch setzt", AA XXII 444, 25-7; "Der erste Act des Vorstellungsvermögens wodurch das Subject das Manigfaltige seiner Anschauung s e t z t und sich selbst zum Sinnen Gegenstande macht ist ein synthetisches Erkenntnis a priori", AA XXII 452, 1-3.

⁷³³"Das wir nichts einsehen als was wir selbst machen können. Wir müssen uns aber selbst vorher machen. Becks ursprüngliches Vorstellen", AA XXII 353, 21-22. Antzera: "Das Subject also sich selbst nach Principien afficirt", AA XXII 372, 2-3.

⁷³⁴"Die Receptivität Sinnenvorstellungen zu haben setzt also eine relative Spontaneität voraus indirect Warnehmungen in sich selbst zu wirken", AA XXII 493, 13-14; "Die Receptivität der Erscheinungen beruht auf der Spontaneität des Zusammensetzens in der Anschauung seiner selbst", AA XXII 535, 16-7.

⁷³⁵"Bestimmungen a priori in Raum und Zeit führen nothwendig zu der Ausgabe der Transsc. : Phil. 'Wie sind synthetische Erk. a priori möglich' und die Lösung dieser Aufgabe führt endlich zum Übergange von den metaph. A Gr der N W zur Physik", AA XXII 45, 14-7.

⁷³⁶"T r a n s s c : P h i l o s o p h i e aber ist die Wissenschaft eines Systems s y n t h e t i s c h e r Erkenntnis a priori aus Begriffen", AA XXII 80, 12-3.

Horrek, berriz, espazioa eta denboraren statusa oraindik birpentsatzera zuzentzen gaitu, "**espazioa eta denboraren idealtasunaren printzipioa Filosofia transzendentalerako giltza**"⁷³⁷ baita. Hasteko, aurretik agertu den espazioa eta denboraren arteko beharrezko elkarrekotasuna argiki azpimarratzen du Kantek: "**Espazioa e[ta]. denborak elkarrekin bateratuta eratzen dute begiespen hutsa**"⁷³⁸. Baina gehiago ere irakurtzen dugu, a ez da gehiago harmen soila izango, orain "**funtzio**" hitza ere erabiltzen du Kant beretzat, aurrerago kontzeptuentzako soilik gordetzen zuena⁷³⁹. Hori, noski, orain harmenaren argibidean honek berezkotasunarekin duen harreman estutik dator⁷⁴⁰. Espazioa eta denbora errepresentamenaren produktu edo sorkari gisa ere agertzen dira⁷⁴¹. Orain, biak era berean berezkotasunak ezarriak izateak, bien arteko harreman estu hori eragiten du⁷⁴². Eta ikusi dugu hori orain subjektuaren autoezarpen gisa ulertzekoa dela, honek bere burua objektu bihurtzen duen heinean⁷⁴³. Subjektuaren bi ekimen modu daude jokoan. Kantek nia bikoitzaz hitz egiten badu ere⁷⁴⁴, benetan batasuna gordetzen duten bi une dira, subjektua bere ezarpenean harmenerako ezartzen baita esperientziaren alde⁷⁴⁵. Hau ikusita, ezin zaio inolaz ere Adickes-i jarraitu, honek espazioa eta denboraren teoria berriak Arrazoimen Hutsaren Kritika-rekin alderatuz ekarpen berririk ez duela dionean⁷⁴⁶.

⁷³⁷"Das Princip der Idealität des Raumes u. der Zeit ist der Schlüssel der Transscendentalphilosophie", AA XXII 33, 30-34, 1.

⁷³⁸"Raum u. Zeit machen zusammen vereinigt die reine Anschauung", AA XXII 85, 31-2. Zentzu berdinean: "Raum und Zeit sind Formen der äußeren und inneren Anschauung in Einer synthetischen Vorstellung a priori gegeben d. i. sind unzertrenliche von einander wechselseitig abhängige Vorstellungen so daß die Begriffe der Zusammensetzung unter einander in wechselseitiger Abhängigkeit stehen", AA XXII 98, 7-11; "Es ist ein Raum und Eine Zeit und Einheit der Erfahrung um Raum u. der Zeit, beyde in Einem Bewustseyn einander wechselseitig bestimmend", AA XXII 99, 15-7.

⁷³⁹"Raum u. Zeit sind Anschauungen mit der dynamischen Function ein Manigfaltiges der Anschauung als Erscheinung zu setzen", AA XXII 44, 11-12; "Raum u. Zeit sind einerseits Actus der Spontaneität des Subjects in der Anschauung andererseits affectionen der Receptivität", AA XXII 42, 29-30; "Die reine Anschauung a priori enthält die actus der Spontaneität und Receptivität und durch Verbindung derselben zur Einheit der Act der Reciprocität und zwar in dem Subject", AA XXII 28, 21-3.

⁷⁴⁰"Das Vorstellungsvermögen (facultas repraesentativa) ist Anschauung oder Begriff; aber beyde mit einander synthetisch verbunden d. i. nicht nach der Regel der Identität logisch sondern transscendental verbunden", AA XXII 92, 7-10.

⁷⁴¹"Raum und Zeit (...) Producte unserer eigenen Vorstellungskraft", AA XXII 15, 13-18; "Raum und Zeit sind Producte (aber primitive Producte) unserer eigenen Einbildungskraft mithin selbst geschaffene Anschauungen indem das Subject sich selbst afficirt und dadurch Erscheinung nicht Sache an sich ist", AA XXII 37, 7-10; "Raum und Zeit sind keine spürbare (apprehensibele) Gegenstände die ausser meiner Vorstellung existiren sondern selbst Geschöpfe meines Vorstellungsvermögens", AA XXII 45, 22-4; "Die Vorstellung derselben (Raum und Zeit) ist ein Act des Subjects selbst und ein Product der Einbildungskraft für den Sinn des Subjects", AA XXII 76, 18-20.

⁷⁴²"Die intussusception u. extraposition. Von welcher von beyden geht man aus? - Die erst ist Raum die zweyte die Zeit [alderantziz beharko luke, I.U.] so doch daß die innere Composition des Manigfaltigen der Anschauung vorhergeht oder vielmehr die eine mit der andern in wechselseitigem Verhältnis steht. Was ihre composition wechselseitig in Einer Anschauung bestimmt ist der Verstand in so fern er den Sinn überhaupt afficirt und das Sinnesobject als Erscheinung darstellt", AA XXII 69, 22-28.

⁷⁴³"Raum u. Zeit in der Anschauung sind nicht Dinge sondern actus der Vorstellungskraft sich selbst zu setzen, wodurch sich das Subject selbst zum Object macht", AA XXII 88, 21-23; "Nicht der Raum als Object wird angeschaut sondern er ist die Synthesis des Manigfaltigen im vorstelleden Subject selbst In dieser Vorstellungsart wodurch das Subject sich selbst constituirt", AA XXII 12, 28-30; "Die Vorstellung von Raum und Zeit (...) machen eine reine a priori gegebene Vorstellung aus wodurch das Subject sich selbst setzt und zum Object der Sinne macht aber nur in der Erscheinung = X nicht als Ding an sich (ens per se) und zwar nicht blos analytisch nach Begriffen sondern synthetisch durch Construction derselben in dem Complexus des Manigfaltigen der Anschauung als wahres Object", AA XXII 25, 4-10.

⁷⁴⁴"Doppeltes Ich", AA XXII 413, 5.

⁷⁴⁵"Die Vorstellung der Apperception die sich selbst zum Gegenstande der Anschauung macht enthält einen zwiefachen Act: erstlich den sich selbst zu setzen (der Spontaneität) und den von Gegenständen afficirt zu werden und das Manigfaltige in der Vorstellung zur Einheit a priori zusammen zu fassen (den der Receptivität)", AA XXII 31, 10-14.

Honekin batera, subjektua berak bere buruaz duen ezagutza argitu nahi du Kantek. Orain garbiago dago subjektuak bere burua fenomeno gisa soilik ezagutzearen arrazoia: bera ezartzen da espaziozko eta denborazko subjektu gisa⁷⁴⁷. Horrek cogitoaren inguruko eztabaida dakar berriro. Hau ez da ondorioztapen bat, Descartesek esaten duen gisa (hori horrela ez dela kritikatzeko diotenean soilik argitzen du⁷⁴⁸), eta batez ere, cogito hutsarekin ez daukagu inora joaterik, ez baita oraindik judiziorik⁷⁴⁹, ez da ezeren oinarria, printzipio analitiko hutsa baita. Urrats sintetikoa emanez gero soilik, espazio eta denbora gisa ezarri, igarotzen gara Metafisika hutsetik Filosofia transzendentalerara⁷⁵⁰. "Ob-jektua" "sub-jektuaren" ezarpenik gabe ezinezkoa da. Eta hau dena, urrutira joan garela uste badugu ere, beti Igarobidearen jatorrizko egitasmoaren ahalgarritasunari begira pentsatutakoa da⁷⁵¹. Horregatik, Lachièze-Rey-k egiten duen moduan subjektuaren Filosofia soil batez hitz egiteari desegokia deritzot⁷⁵². Kanten gaia objektibitatea da eta hori lortzeko bidea subjektuaren autonomia da noski, ez heteronomia⁷⁵³. Hala ere, autonomia hori ez da bere baitango helburu bat, ezagutza eta ekintza etikoa oinarritzeko printzipioa baizik. Kantek bere Filosofian sakondu besterik ez du egiten azken une honetan, bere funtsa hobeto zehaztearren⁷⁵⁴.

⁷⁴⁶"Über die Lehren der Krit. d. rein. Vern. führen die Raum und Zeit betreffenden Aeußerungen des VII. Konv. jedenfalls nirgends hinaus", Adickes 1920, 599.

⁷⁴⁷"Ich setze mich selbst als Gegenstand der Anschauung nach dem formalen Princip der Bestimmung des Subjects des Selbstbewusstseyns und des Zusammensetzens zur Einheit des Objects (Raum u. Zeit) aber eben dadurch als etwas E x i s t i r e n d e s in Verhältnis auf mich folglich als E r s c h e i n u n g", AA XXII 32, 6-10.

⁷⁴⁸Descartes 1974hh. VII 140.

⁷⁴⁹"Dieser Act der Apperception (sum cogitans) ist noch kein U r t h e i l (iudicium)", AA XXII 89, 25-6.

⁷⁵⁰"Es wird mir also in dem Satz ich bin denkend weil er gantz identisch ist gar kein Fortschritt kein synthetisches Urtheil gegeben denn er ist tautologisch und der vermeynte Schluß: Ich denke d a r u m bin ich ist kein Schluß; sondern der erste Act des Erkenntnisses ist: ich bin mir selbst ein Gegenstand des Denkens (cogitabile) und der Anschauung (dabile)", AA XXII 79, 21-5; "Das B e w u s t s e y n meiner selbst ist blos logisch und führt auf kein Object sondern ist eine bloße Bestimmung des Subjects nach der Regel der Identität. Allein ein synthetisches Erkenntnis a priori welches von der Metaphysik zur Transsc. Phil. fortschreitet eröffnet die Aussicht zur Transsc. Phil.", AA XXII 82, 3-7; "Erstlich das Bewusstseyn meiner selbst (sum) welches logisch ist (cogito) nicht als ein Schluß (ergo sum) sondern nach der Regel der Identität (sum cogitans) in welchem Act der Vorstellung d. i. des Denkens noch keine Synthesis das Mannigfaltigen der Anschauung angetroffen wird sondern der blos ein analytisches Urtheil enthält. - Der erste Fortschritt des Vorstellungsvermögens (facult. repraes.) ist der vom reinen Denken überhaupt zur reinen Anschauung Raum und Zeit welche ein synthetisches Erkenntnis a priori enthalten", AA XXII 83, 18-25.

⁷⁵¹"Ich bin: ist der logische Act der vor aller Vorstellung des Objects vorhergeht ist ein Verbum wodurch ich nicht selbst setze. Ich existire im Raume und der Zeit und bestimme mein Daseyn im Raume und der Zeit durchgängig (omnimoda determinatio est existentia) als Erscheinung nach den formalen Bedingungen der Verknüpfung des Mannigfaltigen der Anschauung und bin mir selbst ein äußerer u. innerer Gegenstand. Das Subjective der Bestimmung meiner selbst ist zugleich objectiv nach der Regel der Identität nach einem Princip der synthetischen Erkenntnis a priori u. es ist nur Ein Raum u. Eine Zeit welche jede ein unbedingtes Ganze der Anschauung in der Anschauung d. i. als unendlich vorgestellt werden und mein synthetisches Erkenntnis a priori ist als Transc:Phil. ein Überschritt von den metaphysischen A. Gr. der N. W. zur Physik d. i. zur Möglichkeit der E r f a h r u n g", AA XXII 85, 11-23; "Das Subject macht sich selbst Nicht Apprehension sondern Apperception begründet a priori das Erkenntnis in seinem Princip des Bewusstseyns seiner selbst welches logisch (analytisch) ist, aber zur Transsc. Philos. fortschreitend synthetisch ist und ein besonderes System für die Physik bildend ist", AA XXII 94, 23-27.

⁷⁵²"La philosophie du sujet prendra une valeur autonome et cessera d'être simplement un moyen pour la philosophie de l'objet", Lachièze-Rey 1950, 58. Hau esateko oinarria: "Die Transsc. Phil. beschäftigt sich nicht mit etwas was als existierend angenommen wird sondern blos mit dem Geist des Menschen der sein eigenes denkendes Subject", AA XXI 78, 16-9. Baina hemen ideien sistemaz hitz egiten du Kantek. Gainera, horrelako testu bakan batzuk hartzea, aurreko lanketa osoa ahaztuz, interpretazio egoki baterako irizpide kaskarra da.

⁷⁵³"Il faut bien observer ceci: l'autonomie est objective tandis que l'hétéronomie est subjective", Philonenko 1981, 131.

⁷⁵⁴"Kant modifiziert die Grundstruktur des transzendentalen Idealismus, um seine Substanz zu erhalten", Tuschling 1991, 112.

Zati honetan, gainera, bere baitango gauza kontzeptuaren argiketa gauzaten du Kantek. Bere baitango gauza fenomenotik kanpo dagoen beste ezer ez dela garbi uzten du, objektuarekin dugun beste harreman mota besterik ez da⁷⁵⁵. Beraz, bere baitango gauza eta fenomenoaren arteko bereizketa subjektiboa besterik ez da⁷⁵⁶. Kritikako dialektikan kontzeptu honek oraindik funtzio bat zuen askatasuna eta Jainkoaren kontzeptuen ahalgarritasuna oinarrituz etikara igarobidea legeztatzeko. Baina eranskinean ikusiko dugu 90eko hamarkada osoan etika osagai heteronomoetatik garbitu zuela Kantek, eta subjektuaren askatasuna izango dela salbatuko duen oinarritzko kontzeptu bakarra. Ondorioz, ez da harrizkeoa, orain bere baitango gauza kontzeptua subjektuaz hitz egiteko gordetzea⁷⁵⁷. Egia esan, Kanten interpretazio garaikideak pisu izugarria eman zion kontzeptu honi, adibidez Jacobik⁷⁵⁸. Kanten Filosofia ikuspegi honetatik behatzeak idealismo alemaniar guztia kutsatu zuen, ondorio sakonekin⁷⁵⁹. Kant bera ere ez da argia puntu honetan hasieran⁷⁶⁰, eta gaia ez zuen zuzenean aztertu, ez baitzen bere arazo nagusienetako bat⁷⁶¹. Kantek nahi zuena objektibitatea zehaztea zen, eta horrek bere Filosofiaren aztarna dogmatikoak garbitzera bultzatu zuen⁷⁶², azken emaitzak azken eskuizkribu honetan argitzen direlarik.

Badirudi oraingoan aurreko zatian baino oraindik indartsuago hurbildu garelako idealismo oso batera. Benetan, testu isolatu batzuk hartuz gero, halako iritzia bildu beharko genuke⁷⁶³. Baina testuak beren

⁷⁵⁵"Das Object aber an sich= X ist nicht ein besonderer Gegenstand sondern das bloße Princip der synthetischen Erkenntnis a priori welches das Formale der Einheit dieses Mannfaltigen der Anschauung in sich enthält (nicht ein besonderes Object)", AA XXII 20, 9-13; "... das letztere aber = x ist nicht ein besonders ausser meiner Vorstellung existirendes Object sondern lediglich die Idee der Abstraction vom Sinnlichen", AA XXII 23, 23-25; "Die Unterscheidung des so genannten Gegenstandes a n s i c h im Gegensatz mit dem in der Erscheinung (phaenomenon adversus noumenon) bedeutet nicht ein wirkliches Ding was dem Sinnengegenstande gegenüber steht sondern als = x nur das Princip daß es nichts Empirisches sey was den Bestimmungsgrund der Möglichkeit der Erfahrung enthält", AA XXII 24, 21-5; "Das Ding an sich (ens per se) ist nicht ein Anderes Object sondern eine andere Beziehung (respectus) der Vorstellung auf dasselbe Object", AA XXII 26, 28-29; "Das D i n g a n s i c h ist ein Gedankenwesen (ens rationis)", AA XXII 27, 25; "Wobey das Ding a n s i c h gar kein existirendes Wesen sondern = x blos ein Princip ist", AA XXII 34, 3-4; "Das Ding an sich = x ist blos Gedankending ens rationis ratiocinantis", AA XXII 421, 14-5.

⁷⁵⁶"Der Unterschied der Begriffe von einem Dinge an sich und dem in der Erscheinung ist nicht objectiv sondern blos subjectiv", AA XXII 26, 26-7.

⁷⁵⁷AA XXII 28, 23. Baina A358an antzeko zerbait aipatzen zuen iadanik.

⁷⁵⁸Jacobi 1815, 304.

⁷⁵⁹"Und trotz alledem hat keiner von den Nachfolgern Kants eingesehen, daß dieses **'Ding an sich'** ein fremder Tropfen Bluts in Kriticismus ist, der bei consequenter Entwicklung der gegebenen Principien nicht einmal erwähnt worden wäre", Liebmann 1865, 35-6.

⁷⁶⁰Kritikan batzuetan bere baitango gauza zentzu errealista batetan ulertzen duela dirudi: B61/A44; B72; B235/A190; B344/A288; B380/A358; A393; B522/A494; B566; B641-2/A613-14. Baina hau analogia baten arabera ulertu behar da (Prol., AA IV, 357-358).

⁷⁶¹"Lo que de verdad "interesa" al pensador de Königsberg no es el problema de las relaciones entre el *fenómeno* y la *cosa en sí* -no lo aborda nunca temáticamente-, sino el de las relaciones entre el *fenómeno* y el *sujeto trascendental*; el proceso de construcción objetivante", Llano 1973, 266-7. Eta emaitza garbia da: "La cosa transcendente -al menos, a la altura del Opus postumum- no es un elemento imprescindible en el análisis kantiano del conocimiento", Llano 1972, 113.

⁷⁶²"Gagner l'objectivité c'est perdre la chose en soi", Daval 1951, 296.

⁷⁶³"Man fangt da nicht von Objecten an sondern von dem System der Möglichkeit sein eigenes denkendes Subject zu constituiren und ist selbst Urheber seiner Denkkraft", AA XXII 79, 6-8; "Ich bin ein Gegenstand von mir selbst und meiner Vorstellungen. Daß noch etwas außer mir sey ist ein Product von mir selbst. Ich mache mich selbst (...). Wir machen alles selbst", AA XXII 82, 17-21.

bilakaeraren testuinguruan ikusten baditugu, bestela ere uler daitezke. Kantek "**mundua nigan besterik ez dago (idealismo transzendentala)**"⁷⁶⁴ esaten duenean, berehala horrela azaltzen du:

"Zerbaiten posizio bera, nigandik at, nigandik dator espazioa eta denboraren formetan, non neuk kanpoko eta barneko zentzuko objektuak ezartzen ditudan, eta hauek horregatik ezarpen amaigabeak dira"⁷⁶⁵.

Ez da ari, beraz, ezagutzaren edukia bera ezartzeari buruz, betiko moduan egitura formalari buruz baizik, esperientziaren ahalgarritasun baldintzei buruz. Objektuaren edukia bera ezartzen duen subjektua arrotza zaio Kanti⁷⁶⁶.

Bestalde, subjektuaren izaera bera argitzeko asmoen barnean subjektu hau ideia dela aipatzen du. "**Subjektua ez da gauza berezi bat, ideia baizik**"⁷⁶⁷. Ikusi dugu ideia bat behar dela sistemaren batasuna osatzeko eta orain badirudi aurkitu duela, nahiz oraindik argiki esaten ez duen. Hala ere, honi zera lotzen badiogu, zazpigarren sorta honetako "Beylage V" eta markatu gabeko IX-X orrietan etikarekin zerikusia duten gaiak jasotzen direla, orduan hor ditugu berehala datorren ideien sistemaren hastapenak⁷⁶⁸. Ideien sistemara igarobidea subjektuaren autoezarpenak irekitzen duela nabaria da:

"Arrazoimen praktiko hutsaren axioma da norbera ekintzen printzipio gisa ezartzea"⁷⁶⁹.

Subjektua ezagutzarako espazio-denborazko gisa ezarri behar bazen, ekintza etikorako gainera inperatiboaren bidez pertsona gisa ezarri behar da⁷⁷⁰. Eta zentzu honetan soilik da egia begiespena eta

⁷⁶⁴"Die Welt ist blos in mir (transscendentaler Idealismus)", AA XXII 97, 2.

⁷⁶⁵"Die position von etwas ausser mir geht selbst zuerst von mir aus in den Formen von Raum u. Zeit in welche ich selbst die Gegenstände der äußeren u. des inneren Sinnes setze und welche darum unendliche Setzungen sind", AA XXII 97, 12-5.

⁷⁶⁶"La tendencia a la génesis es profundamente antikantiana", Martínez 1992, 27. Beraz, Zahnek "La pensée kantienne s'arrête à la différence de l'identité et de la synthèse. Elle n'essaie pas de comprendre génétiquement la synthèse à partir de l'action de l'identité elle-même" (Zahn 1964, 174) kritika egitean kantiarra ez den beste eredu batetik ari da hitz egiten. Baina, gustora entzungo nuke identitateak diferentzia nola sortzen duen genetikoki. Ipuin polita dirudi, baina horretan geratzen da. Horrek eskatuko lukeen arrazoimen begiesleari buruz Kantek zorrozki hitz egin zuen. Horrela, 1774-IV-6an Hamanni zera idazten dio, zerbait esan nahi badio gizakien hizkuntzean egiteko: "Denn ich armer Erdensohn bin zu der Göttersprache der Anschauenden Vernunft gar nicht organisirt. Was man mir aus den gemeinen Begriffen nach logischer Regel vorbuchstabiren kan das erreiche ich nach wohl", AA X 156.

⁷⁶⁷"Das Subject ist nicht ein besonders Ding sondern idee", AA XXII 33, 29-30.

⁷⁶⁸"Man muß von der technisch//practischen zur moralisch//practischen Vernunft, und vom Subject als Naturwesen zum Subject als Person d. i. als reinem Verstandeswesen Gott, fortschreiten", AA XXII 49, 16-20.

⁷⁶⁹"Es ist ein Axiom der reinen praktischen Vernunft sich selbst als princip der Handlungen zu setzen", AA XXII 108, 17-8. Antzera: "Das Erkenntnis seiner Selbst als einer Person die sich selbst zum Princip constituirt und ihres Selbst Urheberin ist. (...) Die transc. Idealität des sich selbst denkenden Subjectts macht sich selbst zu einer Person. Die Göttlichkeit derselben", AA XXII 54, 3-7; "Ich bin mir selbst nicht blos nach einem Gesetz der Receptivität der Natur sondern auch nach einem Princip der Spontanität der Freyheit ein Princip der synthetischen Selbstbestimmung", AA XXII 131, 1-3.

⁷⁷⁰"Das Selbstbewustseyn der Anschauung und des Denkens zusammen vereinigt in einer Vorstellung ist das Erkenntnis und der Imperativ dem der Verstand sich selbst unterwirft (nosce te ipsum) ist das Princip sein Subject als Object der Anschauung zu einem Begriffe zu machen oder jenes diesem unterzuordnen", AA XXII 22, 5-11.

kontzeptuaren erro amankomuna eta ezagutza eta etikarena berdina dela⁷⁷¹. Ez da hirugarren osagai sakonagorik bilatu behar, subjektuaren ezarpen modu ezberdinek ematen dute hori ulertzeko oinarri irmoa.

Lehen papersortako azken testuetan Filosofia transzendentala ideien sistema gisa agertzen da. Ez da pentsatu behar, ordea, Kantek Igarobidearen arazoa ahaztu duenik, hamar aldiz inguru aipatzen du oraindik eta hartzen ari den bidez erabat jabe da⁷⁷². Hasieratik, lehenago aurkeztu dugun autoezarpenaren ideia etikarekin harremanean jartzen saiatzen da⁷⁷³. Berehala, subjektuak, bere autoezarpenaren bi moduen bidez, bere bi objektuak, arrazoimen tekniko-praktikoa eta etiko-praktikoa lotuz, hau da, mundua eta Jainkoa lotuz ideien sistema bat osatzen du⁷⁷⁴. Eta hemen bilatu behar da Filosofia transzentalaren sistemaren egikaritzapena⁷⁷⁵.

Autokontzientzia berean iadanik hor daude subjektuaren bi objektu nagusiak, hau ezagutzara eta ekintzara zuzentzen den neurrian. Ezagutzan guk sortzen ez dugun zerbait behar dugu, ekintza etikoan gure menpean ez dauden besteekin dugu harremana. Subjektua harreman horiek landuz garatzen da:

"Filosofia arrazoimenak bere buruari emandako egitekoa da, bere burua zentzu teorikoa eta praktikoan Objektu bihurtzeko"⁷⁷⁶.

Beraz, harmena eta erreferentzia objektiboa beharrezkoak izanik ere, berezkotasunik gabe ez dago ezer egiterik⁷⁷⁷. Horregatik, subjektuaren autonomia teoria mailan ere printzipio nagusia da, teoria subjektuaren ekimen orokorraren atal bat den heinean. Ideia hau arrazoimen praktikoaren gailentasunaren ondorioa da noski⁷⁷⁸.

⁷⁷¹"Resulta entonces que la raíz común de intuición y concepto será a la vez la raíz común de conocimiento y decisión", Martínez 1992, 36.

⁷⁷²"Transsc Philos. ist das Princip synthet. Erkennt. a priori aus Begriffen 1.) Übergang von den metaphysischen Anf. Gr. der N. W. zur Physik. 2) Übergang von der Physik zur Transsc: Philos. 3. Übergang von der Transsc: Phil. zum System zwischen Natur und Freyheit", AA XXI 17, 19-24. Eta argipen gehiagorako: "Von den metaphys. Anf. Gr. der NW. ist nun der Rückschritt zur Transsc. Philos. zu thun als einem System der Ideen der reinen Vernunft", AA XXI 80, 20-1.

⁷⁷³"Unter allen Eigenschaften die einem denkenden Wesen zukommen ist die erste die seiner selbst als einer P e r s o n bewusst zu seyn nach welcher das Subject nach dem transcendentalen Idealism sich selbst a priori zum Objecte constituirt nicht als in der Erscheinung gegeben im Ü b e r g a n g v o n m e t a p h y s i s c h e n A n f . G r . d e r N . W . zur Physik sondern als Wesen das seiner Selbst Begründer und Urheber ist nach der Qualität der Personlichkeit Das ich bin. - Ich als Mensch bin mir Sinnenobject im Raum u. der Zeit und zugleich Verstandesobject - Bin eine P e r s o n : folglich ein moralisches W e s e n d a s R e c h t e hat", AA XXI 14, 8-16.

⁷⁷⁴"Beyde in einem Begriffe vereinigt Naturanschauung im Raum u. der Zeit, Gefühl und Spontaneität der Verknüpfung beyder zu einem System der technisch//und moralisch//practischen Vernunft durch Freyheit (spontaneität u. receptivitaet, beyde in einem System verbunden). Gott, die Welt, und Ich der Beyde Objecte in Einem Subjecte Verbindet", AA XXI 22, 4-8.

⁷⁷⁵"Gott und die Welt. Ein System der Transscendentalphilosophie von Technisch theoretischer und moralisch//practischer Vernunft", AA XXI 19, 18-19. Zentzu honetan landu beharreko testuarentzat izenburua ere idazten du: "Die reine Philosophie in der Vollständigkeit ihres Systems dargestellt von IK", AA XXI 95, 25-6.

⁷⁷⁶"Philosophie ist die ihr selbst gegebene Aufgabe der Vernunft sich selbst in theoretischer und practischer Absicht zum Object zu machen", AA XXI 127, 5-6.

⁷⁷⁷"Die Empfänglichkeit fürs Erkenntnis (receptivit.) gründet sich auf die Facultat sie in sich selbst zu schaffen", AA XXI 52, 1-3.

⁷⁷⁸"Ich muß Gegenstände meines Denkens haben und sie apprehendiren denn sonst bin ich meiner selbst u n b e w u s t (cogito, sum: es darf nicht ergo lauten). Es ist autonomia rationis purae denn ohne das wäre ich gedankenlos selbst bey einer

Azken zati honetan ere idealismo sakon baten aztarnak daude. Horrela uler daiteke Kantek subjektua bera Spinozaren Jainkoarekin bateratzea⁷⁷⁹. Baina orain ere hau ezin da aldebakarki ulertu. Kantek garbi esaten du bere idealismoa alde formalean geratzen dela⁷⁸⁰. Ezin da pentsatu subjektua berezkotasun hutsa denik, izaki mugatu batez ari gara. Hartu beharrak bultzatzen du ekitera, eta mugek absolutua bilatzera⁷⁸¹.

"Neure buruaren kontzientziaren batasuna ezin da zertu niretik kanpoko objektuen kontzientziarik gabe"⁷⁸².

Subjektua ere munduaren zatia da eta berari lotuta soilik uler dezakegu. Bere buruaren garapena munduarekin eta beste subjektuekin duen harremana orokortuz soilik lor dezake:

"Berea bestearenarekin bateratzen duen nahimen askeak du bizitza gorena"⁷⁸³.

Bukaeran, behin eta berriz Filosofia transzendentalaren sistemaren definizio zehatz bat ematen saiatzen da Kant, alderdi hauek denak jasotzen saiatuz. Batetik, subjektuan oinarria finkatu nahi du, bere objektuak aintzat hartuz⁷⁸⁴. Bestetik, Filosofia transzendentalaren muina ere finkatzen saiatzen da⁷⁸⁵. Eta hemen Filosofiaren metodoa eta sistema bateratzen dituela dirudi. Filosofia zeregin bat den neurrian, bere sistematizazioa ezin da kanpotik metafisikoki zehaztu, bere jatorrian izan behar du sistematikoa, gauzekin eta pertsonekin izan beharreko jokabidea batasun batean ongi tratatua dagoen neurrian. Horregatik, esperientziarako ("**Er-fahrung**") bidea metodoa ("**Ver-fahren**") berak ezartzen du.

gegebenen Anschauung wie ein Thier ohne zu wissen das ich bin", AA XXI 82, 28-32. Hemen ere Fisikarekin harremana gordetzen da: "Ich bin denkend ist ein analytischer Satz der nicht einen Schluß (cogito ergo sum) enthält sondern nur die Autonomie der synthetischen Erkenntnis a priori mich selbst nach Principien zu bestimmen und zur Erfahrung als einem System (Physik) fortzuschreiten", AA XXI 102, 33-103, 3.

⁷⁷⁹"Der Geist des Menschen ist Spinozens Gott (was das Formale aller Sinnengegenstände betrifft) und der Transscendentale Idealism ist Realism in absoluter Bedeutung", AA XXI 99, 20-22.

⁷⁸⁰"Der erste Act des Denkens enthält ein Princip der Idealität des Objects in mir und außer mir als Erscheinung d. i. des mich selbst afficirenden Subjects in einem System der Ideen welche blos das Formale des Fortschreitens zur Erfahrung überhaupt enthalten (...) d. i. die Transsc: Phil. ist ein Idealism", AA XXI 99, 5-9.

⁷⁸¹"Hier müssen wir uns nun erinnern daß wir den e n d l i c h e n nicht den unendlichen Geist vor uns haben. Der Endliche Geist ist derjenige der nicht anders als nur durch Leiden thätig wird, nur durch Schranken zum Absoluten gelangt; nur in sofern er Stoff empfängt handelt und bildet", AA XXI 76, 1-4. Schiller-en testua da.

⁷⁸²"Die Einheit des Bewusstseyns meiner selbst kann nicht ohne ein Bewusstseyn der Objecte ausser mir statt finden", AA XXI 149, 29-150, 1.

⁷⁸³"Der freye Wille, der zugleich den anderer mit dem seinigen Vereinigt, hat das größte Leben", Refl. 567, AA XV 246.

⁷⁸⁴"Transsc. Phil. ist nicht blos ein Vermögen des analytischen Bewusstseyn seiner selbst sondern ein Vermögen sich selbst synthetisch in seiner durchgängigen Bestimmung als in einem System der Ideen als a priori gegeben vorzustellen", AA XXI 75, 18-21; "Transsc: Phil. ist der Act des Bewusstseyns dadurch das Subject seiner selbst Urheber wird und dadurch auch von dem ganzen Gegenstände der technisch//practischen und moralisch//practischen Vernunft in Einem System", AA XXI 78, 9-12.

⁷⁸⁵"Transsc. Philosophie ist nicht Erkenntnisart irgend eines Objects der Philosophie sondern nur eine gewisse Methode oder (formales) Princip zu philosophiren", AA XXI 85, 31-86, 2; "Die Transsc. Phil ist nicht ein besonderer Zweig der Phil. sondern ihre Begründung durch ihre allgemeine erste Principien", AA XXI 115, 3-4; "Transsc: Philos. ist die Philosophie von der Philosophie", AA XXI 135, 1.

"Dans le système critique, la pensée du mouvement commande le mouvement de la pensée", Vuillemin 1987, 41.

3. Higiduraren teoria kritikoaren azken forma

Bigarren zatian egin dugun azterketaren ondorio zehatza zera izan zen, Kantek higiduraren kontzeptuaren garrantzia ikusi bai, baina bere ikerketa transzendental zehatzik ez zuela egin. Ondoren, ordea, indar higitzaileen ikerketak hartzen duen norabideak bide hori irekitzen du azkenean. Eta hau arakatu behar dugu orain zehatz-mehatz.

Ikerketa berriaren hasiera-hasieratik bi joerak batzen dira, ikerketa subjektiboa eta objektiboa. Horrela, Kantek **"kanpoko sentazioak higidurek baino ezin ahal dituzte sortu"**⁷⁸⁶ esaten duenean, horrek iadanik subjektua bertan bilatu behar den oinarria adierazten du. Hasiera honetan ere **"higiduraren eraiketa"** aipatzen du⁷⁸⁷. Hala ere, nabarmena da hasiera batean interesa ikerketa objektiboan zentratua zegoela: **"indar fisiko guztiak higiduraren kontzeptuaren baitan daude kausa eragile gisa"**⁷⁸⁸. Eta hasieratik ematen duen Fisikaren definizioa ere ezin da argiagoa izan:

"Fisika higitariaren teoria da indar higitzaileak dituen heinean, bere higidura besteei emanaz eta bere higiduran beste guztiarekiko erlatiboki soilik determinatua"⁷⁸⁹.

Eta gainera, ikusi dugun moduan, eterrean aurkitzen du indar horien higikortasunaren sorrera, hau da, jatorrizko higikortasuna. **"Berogaia, materia baten zati guztien higikortasunaren oinarria bere baitan daukana"**⁷⁹⁰. Materiaren funtsezko ezaugarria higikortasuna dela behin eta berriz agertzen da era ezberdinetan⁷⁹¹, eta hortik dator baita ere iadanik aipatu dugun energia kontzeptuaren erabilera testuinguru honetan.

⁷⁸⁶"Äußere Empfindungen können nicht anderes als Bewegungen aufgelöset werden", AA XXI 452, 2-3.

⁷⁸⁷"Construction der Bewegung", AA XXI 431, 22.

⁷⁸⁸"Alle physische Kräfte aber sind in dem Begriff der Bewegung als wirkender Ursache enthalten", AA XXI 387, 9-10.

⁷⁸⁹"Die Physik ist eine Theorie des Beweglichen mit bewegenden Kräften versehen, seine Bewegung ändern mittheilend und in seiner Bewegung gegen alles übrige Bewegliche nur relativ bestimmt", AA XXI 419, 11-13.

⁷⁹⁰"Der Wärmestoff der den Grund der Beweglichkeit aller Theile einer Materie enthält", AA XXI 257, 16-7.

⁷⁹¹"Ob die Wägbarkeit (ponderabilitas) als allgemeine Eigenschaft aller Materie angesehen werden müsse, eben so wie die Beweglichkeit, ist eine Frage deren Beantwortung wir noch aussetzen", AA XXI 313, 17-9; "Die Wägbarkeit macht den Begriff einer Materie nämlich der Bewegbarkeit (mobilität) aus", AA XXI 337, 3-4.

Higiduraren kontzeptuaren garrantzi honek higikortasunaren ikerketa berezia beharrezkoa egiten du. Eta Kantek pixkanaka norabide horretan sakontzen du. Berehala, higidura berak apriorizko ezaugarriak dituela zuzenki onartzen du. Batetik, higiduraren baldintzak a priori emanak direla onartzen du Kantek⁷⁹²; bestetik, horretantxe oinarritzen du indar higitzaileak kategorien arabera aztertzeo ahalbidea⁷⁹³. Horregatik, eta oraindik 1798ko udara bukaeran gaudela, horrela aurreratzen du egitasmo osoaren edukia:

"N[atur]Z[ientzien]. H[astapen]. metafis[iko].ak eta Fisikaren artean bete beharreko zuloa dago oraindik, eta beteketa hori batetik besterako igarobidea deituko da

1.) Indar higitzaileak materiaren kantitatearen arabera etab. hau da kategorien arabera

2.) Higidura horren baldintza formalak bera apriorizko printzipioetan oinarritzen den neurrian⁷⁹⁴.

Alde batetik, garbi dago indar higitzaileak higiduraren kausa direla eta a priori beren harreman formalak aztertu behar direla. Honek higikortasun objektiboarekin batera subjektiboaren oinarriak bilatzea ekarriko du berekin⁷⁹⁵. Vuilleminek aipatu zuen iadanik, Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en oinarrituta, higidurak espazioa eta denbora zentzu objektiboan eta subjektiboan bateratzen dituela⁷⁹⁶. Orain soilik beteko da hori benetan.

Eterraren agerpenak besterik ez diren ekaiak ez dira materia ezberdinak, higidura era ezberdinak baizik⁷⁹⁷. Hortik dator, Matematika hutsean geratu gabe, energia eta eterrari buruz hitz egitea jatorrizko oinarri higikor horren bila⁷⁹⁸. Horrek, ordea, berezkotasunaren eta askatasunaren ezaugarriak izan beharko lituzke.

⁷⁹²"Daher können Bewegungen und bewegende Kräfte im Raum nach transscendentalen Principien a priori dem Princip der Möglichkeit eines Systems der Wahrnehmungen zum Behuf der Erfahrung vorhergehen", AA XXII 434, 4-7; "Da dann die Bedingungen der Bewegung überhaupt und auch ihre Kräfte welche ihrer Bewegung zum Grunde liegen a priori anzugeben sind", AA XXI 478, 6-7.

⁷⁹³"Weil aber Bewegung als Veränderung der Ortsverhältnisse im Raum überhaupt auch Principien a priori unterworfen ist so werden die bewegende Kräfte der Materie auch nach der von der Metaphysik vorgezeichneten Classification ihrer Functionen der Ordnung der Categorien gemäs am besten aufgestellt werden um sie dem Formalen der Zusammensetzung nach in ein Ganzes des Systems selbst empirischer Principien zu bringen", AA XXI 527, 19-25; "Weil diese Eintheilung das Formale der Bewegung zur Basis hat als welches auf Begriffen a priori gegründet werden kann", AA XXI 629, 10-11; "Die Eintheilung der beweglichen Stoffe in so fern ihre wirkliche Bewegung a priori erkennbar ist", AA XXI 207, 3-4.

⁷⁹⁴"Es ist also zwischen den metaphys. Anfangs. Gr. d. N. W. u. der Physik noch eine Lücke auszufüllen deren Ausfüllung ein Ubergang von der einen zur anderen genannt wird.

1.) Die bewegende Kräfte der Materie nach der Quantität der Materie etc. summa nach den categorien

2.) Die formale Bedingungen dieser Bewegung so fern sie auf Principien a priori beruht", AA XXI 482, 25-31.

⁷⁹⁵"Subjectives Bewegungsvermögen und objective Bewegbarkeit sind principien a priori welche tendenz auf Physik haben aber noch nicht zu ihrem System gehören", AA XXII 140, 24-6.

⁷⁹⁶"Le mouvement est synthèse de l'espace et du temps en deux sens, au sens objectif et au sens subjétif", Vuillemin 1987, 41.

⁷⁹⁷"Die phaenomena von Licht und Wärme (...) afficirt zu seyn geben also a priori zweyerley nicht Materie sondern Bewegung an die Hand", AA XXII 81, 16-8.

⁷⁹⁸"Die bewegende Kräfte der Materie und mit dieser auch der Körper können nach dem F ö r m l i c h e n den Gesetzen der Bewegung derselben als Veränderung ihrer Örter im Raum (phoronomisch) oder auch nach ihrer Energie als wirkende Ursachen dieser Veränderungen d. i. ihrem G e h a l t e nach erwogen werden", AA XXI 352, 4-8; "Der Elementarstoff in strikter Bedeutung des Worts enthält den Begriff eines activen Principis der inneren Bewegung der Materie durch Anziehung

Bestela ez dago higiduraren hasiera bat ulertzerik. Horrela, Jainkoaz ere hitz egitera iristen da Aristoteleren antzera⁷⁹⁹, baina bide hori ez du jarraituko eta berezkitasun hori subjektuan bertan aurkitzen saiatuko da⁸⁰⁰. Egitasmo osoaren asmoa zehazten duen une batean horrela dio Kantek:

"Zeregina hauxe da: Zer da lehenik eta bere osotasunean materiaren indar higitzaileak higiduran ezartzen dituen?"⁸⁰¹.

Ikerketaren norabidean aldaketa bat gertatu dela argi dago. Indar higitzaileak a priori aztertzeke modu bakarria subjektuak sintetikoki egiten duen higiduraren baldintzak aztertzea da:

"A priori ezagugarriak diren materiaren indar higitzaileak ez dira guk materiaren higidura analitikoki pentsatzean erabiltzen ditugun materiaren higiduraren printzipioak, baizik guk sintetikoki kausa gisa egiten ditugunak, zeren Besteek materiaren indar enpirikoak soilik ematen dituzte eta Fisikari dagozkie, ez Metafisikatik abiatzen den Igarobideari eta Naturaren Metafisikatik Fisikarako joerari"⁸⁰².

Abiapuntua zera da, indar higitzaileek gure zentzuak afektatzen dituztela⁸⁰³. Beraz, hortik abiatuta nabarmenki espazioa eta denborarekin harremana finkatzen da⁸⁰⁴, higiduraren baldintza formal gisa⁸⁰⁵. Baina zentzumena ez daukagu besterik gabe, orain adimenaren "funtzio" gisa agertzen da espazioa eta denbora

und Abstoßung d. i. als *a g i t i r e n d* vermittelt deren der Raum durch Bewegung erfüllt wird", AA XXI 537, 3-6; "*L e i t e n d e* Stoff als bloße Qualität der Bewegung", AA XXII 526, 2-4.

⁷⁹⁹"Wo dann der erste Bewegter nicht um der Künstlichkeit der Ursache sondern weil er ursprünglich bewegend ist nicht mehr als materielle Ursache sondern als in Freyheit durch einen Willen wirkend d. i. als Gott vorgestellt wird", AA XXI 193, 26-9.

⁸⁰⁰"Dieser Raum kann nicht durch Körper erfüllet werden wenn sie nicht vorher einen sensibelen Raum aus selbstthätigkeit erfüllet hat", AA XXI 551, 1-3; "Ein jeder erste Anfang der Bewegung setzt eine erste bewegende Kraft (*primum movens*) und einen ersten Bewegter (*primus motor*) voraus der nicht anders als einer der Idee dieser Bewegung folglich nur mit Freyheit bewegend (*libere movens*) gedacht werden kann", AA XXII 272, 4-7; "Einem ersten Bewegter (*primus motor*) müßte man Spontaneität d. i. ein Wollen beylegen", AA XXI 218, 5-6; "Der erste Anfang der Bewegung als Spontaneität", AA XXI 222, 8. Beste une batean jatorrizko higitzaile hau modu aski zuzen eta fisiologikoan topatuko du subjektuan: "Das Nervensystem ist das *primum mobile*, die Muskelfaser das erste organon der Bewegung des Lebens. In beyden ist ein *principium des Lebens*", Refl. 1132, AA XV 503.

⁸⁰¹"Die Aufgabe ist: Was ists was die bewegende Kräfte der Materie zuerst und zwar dieser ihr Ganzes in Bewegung setzt?", AA XXII 200, 8-9.

⁸⁰²"Die a priori erkennbaren bewegende Krafte der Materie sind diejenige Principien der Bewegung derselben nach denen wir die Bewegung derselben nicht analytisch denken sondern synthetisch selbst als Ursache machen denn die Andern geben nur empirische Gesetze derselben und gehören zur Physik, nicht zum Übergange von der Metaphysik und der Tendenz der Metaphysik [der Natur] zur Physik", Waschkies 1993, 197 (lehen orrialdeko 19. lerroitik 27.era).

⁸⁰³"Die Theorie von dem System der bewegenden Kräfte der Materie so fern sie auch unseren Sinn bewegen", AA XXI 508, 27-8; "Was ein Gegenstand äußerer Wahrnehmung ist, ein jeder Körper der auf unsere Sinne wirkt giebt uns irgend eine bewegende Kraft der Materie -diese also empirisch- zu erkennen", AA XXII 189, 6-8.

⁸⁰⁴"Die bewegenden Kräfte der Materie stehen unter den Formen von Raum und Zeit", AA XXII 187, 8-9; "Indessen muß doch in der Naturwissenschaft Mathematik mit der Philosophie nothwendig verbunden werden weil wenn es um die Gesetze der bewegenden Kräfte der Materie zu thun ist *B e w e g u n g* mithin Bestimmung der ersteren im Raum und der Zeit welche zur reinen Anschauung gehörende Formen sind ein Begriff ist welcher jene Kräfte unvermeidlich begleitet", AA XXI 191, 13-18.

⁸⁰⁵"*F o r m a l e* Bedingungen der Bewegung", AA XXI 531, 21-2.

determinatuz⁸⁰⁶, edo gogamenaren "ekintza" gisa ere bai, sistema osatzeko baldintza gisa⁸⁰⁷. Subjektuak bere ekintzetan duen higiduraren kontzientzia dago oinarrian, eta horrek berezkitasuna eta zentzumenaren arteko harremana ikerketa-gai bihurtzea dakar, beti ere higiduraren oinarritzapenari begira:

"Jatorrizko indar higitzaileen kontzeptua ez da esperientziatik jasotzen, aitzitik honek a priori gogamenaren ekimenean egon behar du, eta gure higiduran gara honen jabe"⁸⁰⁸.

Eta subjektuan bilatu behar den oinarri honek soilik ezar dezake eterraren objektibitatearen funtsa⁸⁰⁹. Horrela, "Übergang 1-14" zatian honela formulatzen du bere egitasmoaren bigarren fasea irekitzen duen beharra:

"Ez noiztik hasten den higidura, baizik nik noiztik hasten dudana higidura (...) galdetu behar da"⁸¹⁰.

Eta programa hau betetzen hasten denean, garbi esaten du Kantek Fisikak sistema izan behar badu, aniztasuna guk sartu eta bateratu behar dugula, eta hori higiduraren kontzeptuaren bitartez gertatzen dela⁸¹¹. Baina bateratze hori orain subjektua bertan aurkitu behar da, subjektua berak eratzen du higikortasuna⁸¹². Subjektuak bere burua mugitzeko erabiltzen dituen indarrez hitz egiten du Kantek⁸¹³, eta hori bere burua afektatzen duenean gertatzen da⁸¹⁴. Beraz, subjektuak berez higikorra izan behar badu, afektagarria izanez gain,

⁸⁰⁶"Die Bestimmbarkeit des Raumes und der Zeit durch den Verstand a priori in Ansehung der bewegenden Kräfte der Materie ist die Tendenz der Metaph. A.Gr. der NW. zur Physik und der Übergang zu ihr ist die Erfüllung des Leeren durch die Formen welche alle mögliche Gegenstände der Erfahrung in ihrer Einheit betrachten", AA XXII 193, 8-12.

⁸⁰⁷"... den Act des Gemüths vorstellt die Begriffe von den bewegenden Kräften der Materie in einem System zu verknüpfen", AA XXI 631, 7-8.

⁸⁰⁸"Wir würden die bewegende Kräfte der Materie selbst nicht durch Erfahrung an Körpern erkennen wenn wir nicht unserer Tätigkeit uns bewusst wären die actus der Abstoßung Annäherung etc. selbst auszuüben wodurch wir diese Erscheinung apprehendiren/ Der Begriff ursprünglich//bewegender Kräfte ist nicht aus der Erfahrung genommen sondern muß a priori in der Thätigkeit des Gemüths liegen deren wir uns im Bewegen bewusst sind denn sonst könnten wir sie auch nicht durch die Erfahrung bekommen denn das *Z u s a m m e n g e s e t z t e* als ein solches kann nicht wargenommen werden sondern nur das *Z u s a m m e n s e t z e n* in Raum u. Zeit dessen man sich als eines Acts a priori bewusst ist", AA XXI 490, 24-491, 4.

⁸⁰⁹"Diese Basis liegt in dem Vorstellungsvermögen des Subjects; weil dieses aber auf die Einheit des Ganzen möglicher Erfahrung überhaupt zuerst bezogen wird und die Erfahrungsvorstellungen nicht anders als in dieser Form ins Gemüth kommen können so hat der Begriff von dieser Einheit (des Wärmestoffs als Basis der Vereinigung der bewegenden Kräfte der Materie) auch objective Realität", AA XXI 574, 29-575, 4.

⁸¹⁰"Nicht von wann an die Bewegung anhebt sondern von wann an ich die Bewegung anfangen (...) muß gefragt werden", AA XXI 221, 19-22.

⁸¹¹"Da Physik ein System ist wir aber ein System als ein solches nicht erkennen können als nur so fern wir das Mannigfaltige eines Aggregats selbst nach Principien a priori hineinlegen und es zusammensetzen welches durch den Begriff der Bewegung geschieht", AA XXII 299, 5-8.

⁸¹²"Nicht was wir aus der Erfahrung und durch dieselbe von den bewegenden Kräften der Materie aufheben sondern was wir für dieselbe (zum Behuf derselben) hineinlegen, ist das wovon der Verstand anhebt die bewegende Kräfte der Materie mobil zu machen", AA XXII 487, 8-11.

⁸¹³"Das Subject sich selbst bewegenden Kräfte", AA XXII 383, 28-9.

⁸¹⁴"Erscheinung von der Erscheinung da das Subject vom Object afficirt wird und sich selbst afficirt und ihr selbst eine Bewegung in der Erscheinung ist. Die indirecte bewegende Kraft des äußeren Sinnes in der Naturforschung da das Subject diejenige Bewegung selbst macht und verursacht durch welche sie afficirt wird und a priori in das Subject hineinlegt was es von aussen empfängt und sich selbst/bewegend ist", AA XXII 321, 18-23.

berezkotasun bat izan behar du⁸¹⁵. Arazoa zera da, bi alderdi hauen harremana modu egokian finkatzea. Espazioa eta denbora errepresentamenaren aldakuntzak direla esatean⁸¹⁶, higidurako baldintzak direla argitzen da. Hala ere, hori lortzeko errepresentamenak ezarri egin behar ditu⁸¹⁷, edo bestela esanda, subjektua ezarri behar da zentzumenen gisa⁸¹⁸. Subjektuaren ezarpen hori espazioa eta denboraren arteko loturaren ezarpena den neurrian, subjektuaren higikortasunaren oinarritzapena besterik ez da: "**Bien (espazioa eta denbora) ezarpen bateratua ez da bere baitan emana den ezer, egina baizik**"⁸¹⁹. Honi esker soilik hitz egin daiteke higiduraren gaitasunari buruz⁸²⁰. Azken finean, subjektua espazio-denborazko gisa ezartzean, bere higikortasunaren baldintzak ezartzen ditu aldi berean.

Eskuizkribuaren amaierako testuetan kontzeptu nagusien laburpen baten antza duen sekuentzia errepikatzen du behin eta berriz Kantek: espazioa, denbora, eta higidura, aurreko biak lotuz⁸²¹. Batzutan serie honi laugarren osagaia gehitzen dio, izpiritua edo azken helburua, eta horrekin etikako kontzeptuak ere aipatzen ditu⁸²². Horrela, ideien sistemaren bi eremuak hemen iadanik zedarrituta ditugu.

Higidura berezi bat: Organismoaren gaia

"A. Elem. Syst. 1-6" zatira arte Kantek organismoaren gaia Igarobidearen egitasmotik kanpo geratzen dela azpimarratzen du. Zati honetan, ordea, iritzia aldatuz, gaia jaso eta sakonki aztertzen du, eta ondoren behin eta

⁸¹⁵"Der Einfluss des Subjects auf den äußeren Gegenstand und die Reaction des letzteren aufs Subject machen es möglich die bewegende Kräfte der Materie", AA XXII 494, 10-12.

⁸¹⁶"Raum u. Zeit sind ursprüngliche Modificationen der Anschauung", AA XXII 437, 1; "Raum und Zeit sind (...) bloß Modification der Vorstellungskraft", AA XXII 37, 24-5.

⁸¹⁷"Ich setze einen Raum (eben so die Zeit)", AA XXII 442, 16-7; "Raum und Zeit sind Producte (aber primitive Producte) unserer eigenen Einbildungskraft mithin selbst geschaffene Anschauungen", AA XXII 37, 7-9; "Das Vorstellungsvermögen (facultas repraesentiva) geht von innen hinaus mit etwas was sie selbst setzt (dabile) dem Raum u. der Zeit der Anschauung", AA XXII 73, 22-4; "Die position von etwas ausser mir geht selbst zuerst von mir aus in den Formen von Raum u. Zeit in welche ich selbst die Gegenstände der äußeren u. des inneren Sinnes setze und welche darum unendliche Setzungen sind", AA XXII 97, 12-5.

⁸¹⁸"Das Subject setzt sich selbst in der reinen Anschauung und macht sich zum Object", AA XXII 452, 23-4.

⁸¹⁹"Die Setzung beyder (Raum und Zeit) vereinigt enthält nicht etwas was g e g e b e n sondern g e m a c h t i s t", AA XXII 439, 19-20; "Gesetze der vereinigten Raumes// und Zeitbestimmungen der bewegenden Kräfte", AA XXII 56, 16-7.

⁸²⁰"Die Capacität der Bewegung", AA XXI 89, 18.

⁸²¹"R a u m , Z e i t und was beyde Anschauungen die äußere u. innere, in Einer verbindet B e w e g u n g d. i. der Act der Beschreibung des Raumes in einer gewissen Zeit", AA XXII 440, 16-8; "Raum, Zeit (als Anschauungen) Bewegung", AA XXII 442, 12; "Raum, Zeit und die Bewegung in der Beschreibung derselben", AA XXII 16, 3; "Raum, Zeit, Beschreibung eines Raumes in einer gegebenen Zeit und Bewegung nach den Categorien", AA XXII 68, 20-1; "R a u m , Z e i t und B e w e g u n g im Raume eines Körpers (Materie) im R a u m e u. der Z e i t", AA XXI 129, 1; "Raum, Zeit, Bewegung", AA XXI 136, 25; "R a u m , Z e i t , und B e w e g u n g der Materie im Raum und der Zeit", AA XXI 138, 7-8; "R a u m , Z e i t u. (beyder ihr verhältnis) B e w e g u n g i m R a u m u. der Zeit", AA XXI 156, 23-4; "R a u m , Z e i t und K r a f t", AA XXI 129, 16.

⁸²²"Raum, Zeit und Bewegung und Endzweck", (1etik-4era zenbatuak), AA XXI 128, 24; "Raum, Zeit, Bewegung und Geist", AA XXI 136, 2.

berriz tarteka ukitzen du. Orain organismoak higidurarekin duen zerikusia izango da erdigunea, hor subjektuak bere soinarekin duen harremana argitzen baita.

"Higidura zentzu transzendentalean bizitza da"⁸²³.

Indar higitzaileen gaiari lotuta agertzen da organismoaren arazoa⁸²⁴, eskuizkribuaren egitasmo orokorrean kokatzen da, beraz, ez da kanpotik sartzen den gai arrotza. Lehen une honetan iadanik subjektua organismo gisa ulertzeko beharra agertzen da⁸²⁵. Eta ez hori soilik, autoafekzioaren subjektua ere organikotzat jotzen du Kantek⁸²⁶, hori beharrezkoa izanik Igarobidearen egitasmorako⁸²⁷. Horregatik da organismoarean ezagutza berezia: organismoa ez dago a priori pentsaterik, esperientzian aurkitzen da. Aurkitu ondoren soilik pentsa daitezke bere baldintzak⁸²⁸. Hala ere, beste esperientziekin gertatzen ez den bezala, organismoaren esperientzia berezi bat daukagu geure soinean:

"Gorputz organikoak: gizakien hautemapenak bere organu propioetan ematen du adibidea"⁸²⁹.

Eta autoezagutza hori Igarobidearen egitasmoa burutzeko beharrezko baldintza da⁸³⁰.

Organismoa pentsatzeko azken neurrian hori ahalgarri egin duen izaki inmaterial batera jotzeko ideia behin eta berriz agertzen da Juzgamenaren Kritikan, baina ideia beraz jarrera kritikoa ere badu Kantek bertan⁸³¹,

⁸²³"Bewegung im transzendentalen Verstand ist Leben", Refl. 4786, AA XVII 728.

⁸²⁴"Die bewegende Kräfte der Materie sind das was das bewegende Subject selbst thut mit seinem Körper an Körpern", AA XXII 326, 30-1. Zenbaitetan grabitazioa, beroa eta argiaren esperientzian gorputzak duen bitartekaritza azpimarratzen du: AA XXI 79, 14-7.

⁸²⁵"Er setzt aber auch eine stetige Bewegung aller Materie voraus welche aufs Subject als Sinnengegenstand wirkt denn ohne diese Bewegung d. i. ohne Erregung der Sinnenorgane als jener ihre Wirkung findet keine Wahrnehmung irgend eines Sinnesobjectes mithin auch keine Erfahrung statt als welche nur die zu jener gehörende Form enthält", AA XXI 573, 1-6; "Denn dich sinnenbewegende Kraft in den Organen des Subjects bewegt", AA XXI 573, 13-4; "Der Einfluss auf den organisirten Körper und dessen Vorstellungsvermögen ist auch eine von den bewegenden Kräfte der Materie", AA XXI 605, 16-8; "Physik ist Erfahrungswissenschaft von dem Inbegriff (complexus) der bewegenden Kräfte der Materie. Diese Kräfte afficiren auch das Subject den Menschen und seine Organe weil dieser auch ein körperliches Wesen ist. Die innere dadurch in ihm bewirkte Veränderung mit Bewusstseyn sind Wahrnehmungen: die Reaction auf die Materie und äußere Veränderung derselben ist Bewegung", AA XXII 298, 23-8.

⁸²⁶"Sich selbst als physisches oder auch als organisches Wesen zu afficiren", AA XXII 376, 20-1.

⁸²⁷"Der Begriff von organisirten Körpern gehört zum Fortschreiten im System der Wahrnehmungen des Subjects das sich selbst afficirt", AA XXII 398, 17-9. Eterrarekin harremana ere aipatzen du: "Diese Materie wird man sich eben darum auch als imperceptibel denken weil die Organen der Wahrnehmung selbst auf ihren Kräften beruhen", AA XXII 588, 5-7.

⁸²⁸"Die Möglichkeit Organisirter Körper läßt sich nicht a priori erkennen und daher kann der Begriff von ihnen nur durch Erfahrung in die Physik übergehen", AA XXII 356, 3-5.

⁸²⁹"Organische Körper: die Wahrnehmung des Menschen an seinen eigenen Organen das Beyspiel abgiebt", AA XXII 407, 1-2; "Wir erfahren die organische Kräfte an unserem eigenen Körper", AA XXII 373, 19-20; "Organische Körper. Aber diese erkennen wir an unseren eigenen", AA XXII 393, 3-4; "Sich selbst als organischen Körper in der Erfahrung zu erkennen", AA XXII 481, 9-10.

⁸³⁰"Das Bewusstseyn unserer eigenen Organisation als einer bewegenden Kraft der Materie macht uns den Begriff des organischen Stoffs und die Tendenz zur Physik als organischen System möglich", AA XXI 190, 1-3; "Das Bewusstseyn seiner eigenen Organen im Gebrauch seiner bewegenden Kräfte als Erscheinung eines Körpers überhaupt als subjectiver Überschritt zur Physik", AA XXII 358, 26-8.

⁸³¹"Also kann nur eine immaterielle Substanz den Grund der Möglichkeit organischer Körper enthalten d. i. die Materie organisirt sich nicht selbst sondern wird durchs Immaterielle organisirt. - Deshalb aber ist man nicht berechtigt diese

eta oraindik gehiago, ideia hau zuzenki ere kritikatzan du⁸³², azken neurrian ideia hori gainditzeko bidea jarri baitu autoezagutzaren behar horrekin. Honi esker 1760ko hamarkadako ideia emakorra jasotzen du Filosofia kritikoaren barnean:

"Soina nirea da, nire niaren zatia baita eta nire hautamenak higitzen du"⁸³³.

Kanten ideia sakona da bizitzak higidura eta ekimenarekin duen lotura⁸³⁴. Bizitza ekimenaren maila gorena litzateke. Nabarmena da organismoak berezkotasun bat eskatzen duela, ekile den neurrian⁸³⁵, baina orain hori gorpuztasunari estuki lotua dator, ez kanpotik datorkion zerbait bezala ulertua⁸³⁶. Jainkoaren ideia joz, organismoa artefaktu gisa baino ezin da ulertu. Baina organismoan bi aldeak izan behar dira kontuan. Materia inerteza denez, ezin da materia organikoaz hitz egin, baizik gorputz organikoaz, Kantek errepikatuko duen gisa. Hala ere, horren atzean berezkotasun bat pentsatu behar da. Testuinguru honetan Kantek **"energia"** hitza erabiltzen du gorputz organikoari zuzenki lotuta⁸³⁷.

Diogunez, soinen arazoak ez du konponketa transzendentetik eskatzen⁸³⁸. Autoezarpenaren ideiarekin higiduraren ahalgarritasuna jartzen bazen, hemen ere testuinguru berdinean gaude. **"Gorputz bizia bere bere higiduran beti sortzen den gorputza da"**⁸³⁹. Subjektuaren gorpuztasunak bere higitortasuna egikaritzen du⁸⁴⁰,

wirkende Ursache als eine dem Körper einwohnende Seele anzunehmen oder zum Aggregat der Materie überhaupt gehörende Weltseele anzunehmen sondern es ist nur eine wirkende Ursache nach der Analogie einer Intelligenz", AA XXII 507, 1-7.

⁸³²"Die Organisation gehört auch zu den bewegenden Kräften der Materie nicht daß etwa ein immaterielles Wesen ein reiner Verstand dazu erfordert werde", AA XXI 190, 7-9.

⁸³³"Der Leib ist mein, denn er ist ein Teil meines Ichs und wird durch meine Willkühr bewegt", Bemerkungen, AA XX 66.

⁸³⁴"L e b e n heißt das Vermögen einer S u b s t a n z , sich aus inneren P r i n c i p zum Handeln, einer e n d l i c h e n S u b s t a n z , sich zur Veränderung, und einer m a t e r i e l l e n S u b s t a n z , sich zur Bewegung, sich zur Veränderung ihres Zustandes zu bestimmen", MA, AA IV 544; "Vermögen eines Wesens, nach Gesetzen des Begehungsvermögens zu handeln", KpV, AA V 90h.

⁸³⁵"L e b e n in stricter Bedeutung des Worts ist das Vermögen der Spontaneität eines körperlichen Wesens gewissen ihm zugehörigen Vorstellungen gemäß zu wirken", AA XXI 566, 2-4; "Die Körper, als Maschinen, setzen dynamisch bewegende Kräfte voraus und setzen einen Verstand voraus der die Bewegung durch dieselbe möglich macht", AA XXII 365, 17-9; "Dennoch aber da der Mensch an seinem eignen Körper nicht bloß ein Gefühl sondern auch eine mit Verstand verbundene Sinnenvorstellung der Form sich selbst von diesem Objecte abstrahiren und so im allgemeinen Begriffe darstellen kann, so kann er sich selbst durch Erfahrung in demjenigen erkennen was er ohne dies bloß als leeres Hirngespinnst von seinen Begriffen abweisen müßte", AA XXII 383, 16-21.

⁸³⁶"Das Princip der Spontaneität der Bewegung der Theile unseres eignen Körpers als Gliedmaßen indem wir diesen als unser eigenes Selbst betrachten ist ein Maschinenwesen", AA XXI 212, 1-3.

⁸³⁷AA XXIII 483, 32.

⁸³⁸"Organischer Körper ist ein solcher der nur durch Zweck möglich ist. Enthält ein Lebensprinzip: also auch Spontaneität, nicht bloß Receptivität", AA XXI 60, 28-30.

⁸³⁹"Der lebende Körper ist ein sich selbst immer in seiner Bewegung herstellender Körper", AA XXII 411, 17-8. Aristotelereiztat ere izaki organikoak higiduraren printzipioa bere baitan dutenak dira (Fisika II 1, 192b 13hh.).

⁸⁴⁰"Lebendige Kraft ist die welche ohne äußere wirkende Kräfte für sich selbst accelerirend ist", AA XXII 576, 10-1; "Der Gehirnmark in seinen Scheiden verrichtet keine sichtbare eigene Bewegung für sich selbst aber der G e d a n k e , oder beym sinnlosen Thier das bloße V o r s t e l l u n g s vermögen (...), indem er sich selbst in Bewegung setzt ist zugleich der U r h e b e r der Gedanken die das Subject physisch beleben", AA XXI 137, 16-22.

gorputzari esker bera esperientziako objektu gisa ezartzen den neurrian⁸⁴¹. Eta subjektu soindunaren higidura hori, organizatua izateaz gain organizatzailea den neurrian⁸⁴², subjektuaren helburuak betetzeko bidea da⁸⁴³. Lehenago azpimarratu dugu soinean espazioa eta denboraren elkarlotura adierazten dela, hau da, kanpoko eta barnekoaren artekoa. Eta honen bitartez subjektuak beretik at ekiteko duen ahalmenaren oinarria ezartzen da.

Hau onartuz gero, teleologia transzendentearekin bukatzen da, horren ordeztu erabat inmanentea den teoria eraikiz. Juzgamenaren Kritikan organismoa helburu gabeko helburutzat jotzen zuen Kantek. Orain helburu gabe izate horretatik norberaren helburu ("**Selbstzweck**") izatera igarotzen da. Geure burua helburutzat ulertu ahal izateko, gorputza eta natura helburudun gisa pentsatu behar ditugu⁸⁴⁴. Geure organismoan nabaritzen dugun berezkotasuna nahimenarekin lotua dago, nahimenaren egikaritzapenerako bidea baita⁸⁴⁵.

"Organismoa bera norberaren kontzientzian jaso dago. Subjektuak bere forma apriorizko helburuen arabera sortzen du"⁸⁴⁶.

Beraz, subjektuak bere burua izaki organiko gisa ezarri behar du, helburu etiko batzuk egikaritu behar baititu. Kanten aspaldiko ideia da bizitza higidura eta ekimenari lotua dagoela.

Geroago Schopenhauer-ek landuko duen soinen teoriarekin alderaketa bat egitea interesgarria litzateke. Honek Satz vom Grundeko 21. paragrafoan, hasieratik beraz, nahimenaren eta soinen arteko lotura azpimarratzen du⁸⁴⁷. Gainera, hurrengo paragrafoan soina bitartegabeko objektu deitzen du, eta hau ere Kanten

⁸⁴¹"So können wir uns durch Bewegung es sey der Betastung unseres eigenen Körpers oder auch der Hände Bewegung im Raume um uns selbst zum Erfahrungsgegenstande und zwar diesen a priori machen ohne seine Existenz von der Wahrnehmung zu entlehnen", AA XXI 594, 18-21.

⁸⁴²"Organische Körper die nicht bloß organisirt sondern auch die Materie organisirend sind", AA XXIII 484, 31-2.

⁸⁴³"Organismus ist die Form eines Körpers als Maschine betrachtet d. i. als Werkzeug (instrumentum) der Bewegung zu einer gewissen Absicht", AA XXI 185, 20-2; "Bis dann das System der Natur nach ihren mechanischen Kräften einen Überschritt zu dem der organischen (physica specialissima) unternimmt deren Form aber und Gesetz über die Grenze der bewegenden Kräfte der bloßen Materie hinaus liegt indem die bewegende Kraft in einer nach Zwecken wirkenden Ursache gesetzt werden muß", AA XXI 293, 15-20.

⁸⁴⁴"So finden wir an unserem eigenen Körper und der Natur Beschaffenheiten derentwegen wir sie organisirt d. i. als zu Zwecken geformt ansehen müssen weil wir sonst selbst nicht als solche verstehen würden", AA XXII 291, 14-7.

⁸⁴⁵"Weil der Mensch sich seiner als einer sich selbst bewegenden Maschine bewusst ist ohne die Möglichkeit einer solchen weiter einsehen zu können so kann er, und darf obgleich er hiezu den Begriff der Lebenskraft und der Erregbarkeit der Materie in ihm selbst durchs Begehungsvermögen generalisiren", AA XXI 213, 10-4.

⁸⁴⁶"Selbst der Organismus ist im Bewusstseyn seiner selbst enthalten Das Subject macht seine eigene Form nach Zwecken a priori", AA XXII 78, 22-3.

⁸⁴⁷"Zwischen dem Willensakt und der Leibesaktion ist gar kein Kausalzusammenhang; sondern Beide sind unmittelbar Eins und Dasselbe, welches doppelt wargenommen wird: ein Mal im Selbstbewußtseyn, oder innerm Sinn, als Willensakt; und zugleich in der äußern, räumlichen Gehirnanschauung, als Leibesaktion", Schopenhauer 1991 § 21, III 88. Gero bere lan nagusian soina nahimenaren objektibitate dela esango du (Schopenhauer 1991 § 18, I 152). Hau Wille in der Natur liburuan zahutzen du. Niak nahimena ezartzen du, hau soinean objektibatzen da eta horrela ezagutza soinen funtzio bat litzateke: "Ich setze also erstlich den WILLEN, ALS DING AN SICH, völlig Ursprüngliches; zweitens seine bloße Sichtbarkeit, Objektivation, den Leib; und drittens die Erkenntniß, als bloße Funktion eines Theils dieses Leibes", Schopenhauer 1991 III 208.

eskuizkribuko teoriari lot diezaiokegu⁸⁴⁸. Harrigarria da bestalde, bere lan nagusian soinak ezagutzaren egikaritzapenerako duen funtzio hau aztertzean, hori adimenak begiespena ahalbidetzearekin lotzen duela⁸⁴⁹. Hala ere, azkenean bereizketa nabarmena topatzen da bi pentsalarien artean. Kantek subjektuaren sointze hori ekintzarako eta objektibitaterako baldintza ahalbidetzailatzat bazuen, Schopenhauer-ek nahimenaren agerpen hori mingarritzat zuen eta bere desagerpena nahi zuen⁸⁵⁰. Honela, bada, erabat Kanten aurkakoa den ikuspegia hartu zuen.

⁸⁴⁸"Insofern nun der organische Leib der Ausgangspunkt für die Anschauung aller andern Objekte, also das diese Vermittelnde ist, hatte ich ihn, in der ersten Auflage dieser Abhandlung, das UNMITTELBARE OBJEKT genannt", Schopenhauer 1991 § 22, III 93.

⁸⁴⁹"Der Leib ist uns also hier unmittelbares Objekt, d. h. diejenige Vorstellung, welche den Ausgangspunkt der Erkenntniß des Subjekts macht, indem sie selbst, mit ihren unmittelbar erkannten Veränderungen, der Anwendung des Gesetzes der Kausalität vorhergeht und so zu dieser die ersten Data liefert. (...) Der Verstand vor Allem macht die Anschauung möglich", Schopenhauer 1991 § 6, I 151.

⁸⁵⁰"Die Auflösung des Leibes, das Ende des Individuums und dadurch die größte Hemmung des natürlichen Willens, ist willkommen und erwünscht", Schopenhauer 1991 § 70, I 518.

III. Sistematizazio saiakera

"Seule une philosophie morte peut être absolument systématique", Philonenko I 13.

1. Philosophia naturalis

Kantek Fisikarekin izan zuen harremana modu aski kaskarrean aurkeztu izan da. Kant Newtoni guztiz lotuta ulertzea oraindik arrunta da, eta ondorioz, Newtonen zientzia gainditua izan denez, Kanten Filosofiaren balio eza azpimarratzen da⁸⁵¹. Adickesen ustez, Kant, Descartes eta Leibniz ez bezala, zientzia gaitan diletante hutsa zen⁸⁵². Egia da Kanten ekarpena ez dela zientziaren aldetik ematen, baina berak ere ez zuen hor bilatu. Bestalde, zientziaren emaitzak kontuan izatea, Kantek beti egin zuen modura, jarrera zuzen bakarra iruditzen zait. Horretaz gain, zientziaren teoria bat zientzia beraren aurrerapenak erabiliz kritikatzeko maila ezberdinen nahasketa iruditzen zait⁸⁵³. Zenbait pertsona Kanti buruzko aurreritzi faltsu hau Igarobidean ziurtatzen saiatu da⁸⁵⁴. Ni Kanten asmoetatik hurbilago dagoen ikuspegi irekiago bat aurkeztera noa orain⁸⁵⁵.

Fisikarako sarrerek hartzen badira, normalean Mekanika (klasikoa eta erlatibista), Elektrodinamika (optika barne), Termodinamika eta Mekanika kuantikoa aurki daitezke. Zati hauen arteko bateratzea, edo harremanen determinazioa eremu bakarraren ideiarekin izendatzen da, eta lortzeko den gauza da oraindik. Kantek, noski, ez zuen arazoa horrela ezagutu, baina bere garaian Mekanika klasikoa prest zegoen eta beroa, elektrizitatea eta magnetismoa bezalako gaiak pil-pilean zeuden, determinazio matematikoa lortu ez bazuten ere.

Kantek Fisikako oinarrizko indarren batasunaren ideia indartsuki azpimarratu zuen garai aurrekritikotik aurrera⁸⁵⁶. Bereziki argia eta beroaren arteko harreman estua azpimarratuz⁸⁵⁷, fenomeno hauen guztien batasuna

⁸⁵¹"Para Kant la Ciencia es, ni más ni menos, la mecánica celeste de Newton. El corolario es que el sistema kantiano está desfasado", Verneaux 1982, 10.

⁸⁵²"Ein bloßer Dilettant", Adickes 1924, 5.

⁸⁵³"Eine Philosophie wie die Kantische, die die Ergebnisse der naturwissenschaftlichen Forschung ernstlich zur Kenntnis nimmt, setzt sich dadurch nicht nur einer immanenten philosophischen Kritik, sondern auch Einwänden aus, die der wissenschaftlichen Forschung entstammen", Körner 1965, 463.

⁸⁵⁴"En la última etapa de su vida, finalmente, este proceso de creciente apriorismo no hace sino acentuarse. En el Opus Postumum, que recoge los escritos de Kant sobre este tema entre 1795 y 1804, año de su muerte, vemos a Kant pretendiendo deducir a priori a varias leyes concretas de la física. La constitución de la mente humana determina los tipos de posibilidad física, así como la presencia de ciertas fuerzas y de un éter omnipresente. En este Kant ya senil se aprecia una tendencia a hacer que sea el sujeto quien pone el mundo, como en Fichte. El contacto con la experiencia y con la ciencia viva se ha roto y el idealismo especulativo hace su aparición", Mosterín 1982, 21.

⁸⁵⁵Noizbehinka Kantek jarrera aurrerakorra hasieratik zuela azpimarratzen da. Honela dio Aranak AA I 23an dagoen Hamberger-en aipamenari buruz: "La doctrina de Hamberger representa en resumidas cuentas una prefiguración de una concepción que posteriormente tendrá un gran desarrollo en la física, esto es, el campo de fuerzas. Kant reelaborará y hará suya la idea con la teoría de las fuerzas repulsivas, explicitada en la *Monadología física*, y conservada luego en los *Principios metafísicos de la ciencia natural* y en el *Opus postumum* (XXII 430ss.)", Arana 1988, 347.

⁸⁵⁶"Überhaupt scheinen die magnetische Kraft, die Electricität und die Wärme durch einerlei Mittelmaterie zu geschehen", Neg., AA II 187.

⁸⁵⁷"Wärme ist gebundenes Licht und Licht plötzlich entbundene Wärme", AA XXI 86, 16-7; "Mit einem Worte Licht ist auch zugleich Wärme", AA XXI 381, 24-5; "Die Polarität der Chemie, Electricität, des Galvanisms, Magnetisms, Wärme. - Dies Eins und Alles in seiner reinsten, freyesten Erscheinung ist das Licht", AA XXI 88, 23-5.

biltzen duen eter bat onartzen du: hau ekai ezberdin horien oinarria litzateke⁸⁵⁸. Testuinguru honetan energia kontzeptua erabiltzen duela ikusi dugu⁸⁵⁹. Fenomeno horiek denak honen agerpen modu ezberdinak lirateke: gaur egun ere horrela onartzen da, energia ez da zuzenean ezagutzen, bere aldaketetan baizik⁸⁶⁰. Jarrera honekin bere garaiko Fisikatik haruntzago joateko kontzientzia nabarmena du Kantek, gutxienez bi aldiz etorkizuneko Fisika batez idazten baitu⁸⁶¹. Eta hori nolabait serio hartzekoa dela azteketa xeheagoan sartzean nabaritutako da.

Kantek Newtonen grabitazioaz duen jarrera 1786tik aurrera onarpen kritiko batena da. Hala ere, azken garaian bere jarrera kritika argian bihurtuko da. Ikusi dugu Newton berari ere **actio in distans**-en ulertezintasuna nabari zitzaiola eta hutsunea eter fisiko batekin konpontzen saiatu zela. Kantek arazoa era berean ikusten du eta Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en aurkeztutako jarrera dinamikoa Newtonen Fisika hobeto oinarritzeko saiakeratzen ulertu behar da. Ikusi dugu Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en eragina eskasa izan zela hasieran, baina ondoren ordea bere fruituak ematen hasi zen. Newton gaintzen zuen ikuspegi dinamista honek Oersted eta Faradayren gain izan zuen eragina dokumentatua dago⁸⁶². Bi zientzilari hauek fenomeno elektriko eta magnetikoen arteko harremanak zehaztu zituzten XIX. mendeko lehen erdian, Kantek eskatzen zuen modura⁸⁶³. Horrela, Faradayk materiaren kontzeptua indarren ekintza eremuagatik aldatzen duenean, erabat Kanten zentzuan ari dela eztaba daezina da⁸⁶⁴.

Berksonek Kantek testuinguru honetan izan zuen eragina baikorki juzgatzen badu ere, bere ikuspegia Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en soilik oinarritzean, Igarobidea ezagutu gabe, Kanten jarrera okerki interpretatzen du funtsean. Horrela, bere ustez Faradayk bukatu zuen, Kantek oraindik defendatzen omen zuen erakarpenaren **actio in distans**-ekin⁸⁶⁵. Hau ez da horrela Igarobidean. Bertan **actio in distans**-en kritika

⁸⁵⁸Baina Adam Walker-ek ere 1799an A system of familiar philosophy liburuan sua, argia, elektrizitatea eta flogistoa oinarritzeko eterraren aldaketa gisa ulertzen ditu. Berria ez da eterra onartzea, baizik fenomeno guztien batasuna bertan bilatzea. Kantengan, ordea, hori ez da maila fisiko hutsean geratuko.

⁸⁵⁹"So gesehen reiht sich Kant durchaus in die Entwicklungslinie ein, die von Newton bis zur Robert Mayer, Joule, Helmholtz und dem Energieerhaltungssatz führt", Tuschling 1971, 187.

⁸⁶⁰"Die naturwissenschaftliche quantitative Energie-Auffassung geht davon aus, daß die Energie selbst nicht meßbar ist, sondern nur ihre Differenzen", Tharakan 1992, 111oh. (106).

⁸⁶¹"Zum Behuf einer künftigen Physik", AA XXI 510, 4; "Worin die künftige Physik durch eine allgemeine Topik der Naturwissenschaft den wissenschaftlichen Gang zu der letzteren antreten könne", AA XXII 256, 23-5. Honela zehazten du hau Duquek: "En O.p. Kant se orienta decididamente hacia una concepción dinamicista, en la que el concepto de fuerza va a dominar sobre el de sustancia. Kant alumbra un mundo nuevo: la física del campo. Pero, falto del entramado matemático y experimental que soporte esa nueva concepción, las partes propiamente filosófico-científicas del O.p. se destruyen en un intento siempre renovado y siempre infructuoso por comprender a priori una teoría que aún no puede aplicarse sobre nada. Parece como si la filosofía de Kant hubiera ido más allá de la ciencia de su tiempo", Duque 1988, 53.

⁸⁶²Oersted, directamente influido por Kant, era un pensador encuadrado en la tradición anti-newtoniana. Su línea de trabajo giraba en torno a la idea de la unidad de las fuerzas, es decir, de que todas las fuerzas son simplemente manifestaciones de las fuerzas atractivas y repulsivas fundamentales", Berkson 1985, 56; "Las concepciones del mundo que se desarrollaron después y que influyeron más directamente a Faraday, fueron las de Boscovich y Kant", Berkson 1985, 46. Boscovich-ek atomoen aurka eremu jarraien lehentasuna azpimarratu zuen.

⁸⁶³"Ob nicht die Elektrizität zugleich einen Magnetismus enthalte...", Adickes 1920, 468oh. (Kantblatt 18).

⁸⁶⁴"It is held that Faraday was the 'father of the field theory' and that the seeds for this fathering came from Kant and Boscovich", Cantor, G. N./Hodge, M. J. S. 1981, 188.

⁸⁶⁵"[Faraday] suprime la idea de Kant de la acción a distancia de la fuerza atractiva", Berkson 1985, 78.

sakondu egiten baitu Kantek. Eta hau elektrizitatea eta magnetismoa gisako fenomenoek kontsiderazioak bultzatuta gerta izan zitekeen⁸⁶⁶. Kantek Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en espazioaren hustasuna eta atomistika kritikatu zituen, horrela berak Monadologia Physican zuen jarrera bera ere kritikatu, baina hori Newtonen emaitzekin batzen saiatu zuen oraindik. Igarobidean bere konbentzimenduak zuzenki Newton kritikatzera bultzatuko du. Espazio hutsa ez da ezer⁸⁶⁷, espazio eta denbora hutsak matematikoak dira soilik⁸⁶⁸. Baina hauek ez dira indarren oinarri gisa egokiak⁸⁶⁹, ezin baitaitezke hauteman⁸⁷⁰. Esplikazio saiakerak ere baditu Kantek: espazio erlatiboki hutsa pentsa daiteke, urrutiko eraginean espazioak ekingo ez balu bezala baita⁸⁷¹. Hala ere, sortzen diren kontraesanak ezin ditu gainditu nabarmenki⁸⁷² eta horrek eterraren onarpen batera hurbiltzen du⁸⁷³. Gainera, zientziaren ahalgarritasun bateragarria bideratzeko halako onarpena egitea ez da batere gauza bitxia⁸⁷⁴.

Kantek bere garaiko zientziaren aurrerapenaz arreta bukaera arte mantendu zuen, eta azkenengo urtetan Kimika eta magnetismoari buruzko irakurketak anitzak ziren. Kimikari buruzko iritzi aldaketa nabarmena da.

⁸⁶⁶"Beym Magnetism u. der Electricität geschieht eine Anziehung in die Ferne aber doch durch eine Zwischenmaterie", AA XXII 215, 15-6.

⁸⁶⁷"Der leere Raum ein unendliches Nichts", AA XXI 41, 15.

⁸⁶⁸"Der leere Raum und die leere Zeit sind mathematisch", AA XXI 47, 25-6.

⁸⁶⁹"Newton's Anziehungskräfte durch den leeren Raum Wie wird der leere Raum selbst wargenommen denn die Kräfte können ja nicht ohne physische Realität für sich seyn", AA XXI 19, 1-3; "Es würde kein Raum seyn welcher den newtonischen Kräfte der Anziehung zum Grunde läge wenn nicht Stoff gegeben wäre welcher bewegende Kräfte der Abstoßung gegeben wären welche dieser Realität gäben", AA XXI 124, 21-4. Baita ere lehenagoko erreflexioetan: "Die Newtonische Anziehung oder Zurückstoßung ist die durch den leeren Raum, folglich unmittelbar. Die letztere ist Berührung, also Widerspruch", Refl. 44, AA XIV 323.

⁸⁷⁰"Wirkung durch den l e e r e n Raum (actio in distans). Kann denn der Raum wargenommen werden?", AA XXI 39, 1-2.

⁸⁷¹"Wenn man von der Anziehung durch den leeren Raum spricht so ist das bloß Idee (...) Obgleich die Weltattraction (der Gravitation) durch den leeren Raum anzieht so bedeutet das nur so viel als sie zieht Körper ohne Vermittelung einer Zwischen Materie an actio immediata in distans so daß die Zwischenmaterie dazu nichts thut und der Raum wird respective als leer betrachtet", AA XXI 228, 24-32; "Die Anziehung im leeren Raum ist unmöglich wohl aber eine Wirkung g l e i c h als durch den leeren Raum", AA XXII 538, 19-20.

⁸⁷²"Nach Newton ist der leere Raum Etwas wenn nur Ein Körper existirt; denn die Anziehung wirkt durch das Leere", AA XXI 151, 1-2.

⁸⁷³"Selbst die Gravitationsanziehung der in allen Weiten unmittelbar auf einander einfließenden Körper wenn sie ein Gegenstand möglicher Erfahrung seyn soll setzt doch stillschweigend eine dazwischen liegende und in stetiger Verbindung der Raumentheile unter einander stehenden Materie voraus; denn ohne eine ihr zugleich entgegenwirkende Abstoßung würde diese als in einen Punct zusammenfließend gar keinen Körper oder Stoff desselben ausmachen. Denn der durch Wahrnehmungen den Sinnen darzustellende Abstand kann nur vermittelt dazwischen liegender Materie ein Gegenstand möglicher Erfahrung seyn für welchen der absolut/leere Raum schlechterdings kein Object ist: so daß selbst der Gedanke davon weil er die E x i s t e n z eines räumlichen Gegenstandes in seinem Begriffe enthält unvermeidlich auf Materie stoßen muß die den Raum erfüllet", AA XXI 562, 28-563, 10.

⁸⁷⁴"The investigations of theoretical physicist are concerned partly with events which can actually be observed -these will be called phenomena- and partly also with events which cannot be detected in themselves, but which are assumed to exist in order to set up continuity between separated events that are in fact observed; continuity is felt to be necessary if the picture of the world is to be logically coherent. The hypothetical events are called by modern writers inter-phenomena. An illustration may be drawn from optics: light cannot be perceived except when it impinges on matter; these impacts are phenomena; but since the velocity of light is finite, there are intervals of time between successive encounters with matter; and if we adopt the belief that the luminous disturbance continues to exist in some form between its leaving one point and appearing at another, then during this intermediate state it is classified as an inter-phenomenon. Another illustration is provided by gravity: assuming (what is in fact now established) that its speed of propagation is finite, the question as to what is happening while it is in course of propagation belongs to the realm of inter-phenomena", Whittaker 1987 I 30.

Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak-en oraindik bertan Matematika ezin zela aplikatu uste zuen eta Kritikaren bigarren argitalpenaren hitzaurrean (BXII-XIII) oraindik flogistoaren teoria defendatzen zuen Stahl zientzilari eredugarritzat jotzen du. Hala ere, 90eko hamarkadaren lehen erdian Lavoisier-en sistemaren jarraitzaile bihurtu zen Kant⁸⁷⁵, eta hortik Kimikaz erakusten duen jarrera baikor berria. Baina, horrez gain, Igarobideko azken orrietan, beraz, Kantek 78-9 urte zituela, orduantxe Olbersek begizatutako Pallas planetari buruzko oharra topatzen dugu⁸⁷⁶. Zientzia konkretuan zuen interes hau azpimarratu behar da aurreritziak ekiditzeko⁸⁷⁷.

Interes horren puntu konkretu bat aukeratzeko badugu, gauza interesgarriak topatzen ditugu. Zenbaitetan Römer-en "**aberratio luminis**" aipatzen du Kantek. Römer-ek Jupiter-en Io ilargiaren azterketan ari zela argiaren abiadura mugatu baten ideia bildu zuen. Hau Kantek behin eta berriz aipatzen du eskuizkribuan⁸⁷⁸. Eta ez hori soilik, batzutan orokorkiago ideia erakarpenari aplikatzen diola dirudi, eta horrek elkarreraginaren legearekin sortzen duen kontraesana ere ikusten duela nabarmena da⁸⁷⁹. Jakina da Newtonen hirugarren legea elkarreraginaren aldi berekotasunaren oinarriarekin soilik dela posible, baina Newtonen formulak, $F=G \frac{Mm}{d^2}$, ez zuen denbora jasotzen. Elektrodinamikaren garapenak honi behin betiko kolpea eman zion, argiaren abiadura mugatua dela-eta, aldi berekotasun hori ezinezkoa zela frogatzean. Kant berak ideia bera nabarmenki azaltzen du:

"Argia eta soinuaren higidurak distantziak neurtu ahal izateko bitartekoak dira indar higitzaileen bitartez. Biek sentsazioaren kualitate (subjektibo) propioak dituzte./ Ezin da beste edozein gorputzen distantzia espazio hutsean inongo esperientziaz determinatu, zeren materiaren kantitatearen absolutua ez

⁸⁷⁵"Between 1790-95 he has completed the conversion to Lavoisier's system of chemistry", Friedman 1992, 289.

⁸⁷⁶AA XXI 3, 8.

⁸⁷⁷"The absolutely astonishing penetration, dedication, and scope of his effort philosophically to comprehend the development of the exact sciences -which effort, as we have seen, continued undiminished almost to his death", Friedman 1992, 290.

⁸⁷⁸"Das Sehen wie das Abstoßen durch Licht (in 7 1/2 Min. von der Sonne zur Erde) macht die Materie und ihre Wirkungen möglich, nicht umgekehrt/ Das Sehen scheint actio immediata in distans zu seyn gleichsam **A u g e n s t r a l e n** eben so wie die Anziehung (in allen Weiten ohne daß zu der Anziehung eine Zeit erfordert würde) aberratio luminis. Das Sehen bedarf **Z e i t** ", AA XXI 71, 2-8; "... Zeit die das Licht nöthig hat", AA XXI 235, 1-2.

⁸⁷⁹Folglich gehört zum Raumeserkentnis auch die Idee von einem Allerfüllenden Expansum vermittelt welcher Wahrnehmung der Körper in der Ferne möglich seyn muß auch als actio in distans in allen Weiten verbreitet und auf den Sinn durch bewegende Kräfte nach dem umgekehrten Verhältnis der Quadrate der Entfernung wenn sie auch nur durch Herumtappen vorgestellt würde und **Z e i t** gebraucht (nach Römers Entdeckung der Lichts//Aberration)", AA XXI 60, 9-15; "Von der wechselseitigen im vollen Raum doch ohne Verspreitung wirkenden Lichtsbewegung da die Divergenz der Strahlen und zugleich die Römesche Zeitbedingung ihrer Bewegung einander wechselseitig entgegen wirken", AA XXII 56, 19-22; "Es muß also Materie in der Berührung gegeben seyn damit sie in der Entfernung als eine solche anerkannt werde d. i. nicht als ein Fortrücken durch den sachleeren Raum (denn dieser kann nicht wargenommen werden) sondern darunter wird nur verstanden daß ein Körper auf andere auch ohne Vermittelung einer dazwischen liegenden Materie Kraftausübend seyn könne und dieses durch Anziehung die für sich allein nichts der Wahrnehmung fähiges ist aber doch ohne den Raum in Substanz einzunehmen durch Kräfte zur Bewegung bestimmt und den leeren Raum indirect spührbar macht. Dergleichen kann nur die Bewegung einer Materie seyn welche in gerader Linie und in einer gewissen Zeit in die Ferne wirkt", AA XXII 529, 16-26.

da berez determinagarria, beraz (goiko moduan) bitartekoen bidez izango da, zeintzuk beren higidurarako denbora behar duten"⁸⁸⁰.

Distantzien neurketak ere dinamika eskatzen du. Hori argia (edo soinuaren) bitartekotzan ikusten da, hauek denbora eskatzen baitute. Ondorioetako bat izango da, hor inplikatura dauden denbora eta espazioak hutsak ezin dutela izan.

Egia da XIX. mendean zehar fenomeno elektrodinamiko guztiak Mekanikarekin bateragarri ziren modu batean esplikatzea saiatu zela, Faraday-ri jarraitu beharrean, baina hau azkenean ezinezkotzat gertatu zen. Maxwell berak 1860ko hamarkada hasieran elektrodinamikaren sistematizazioa burutzean argiaren izaera elektromagnetikoa aurreratu zuen⁸⁸¹ eta 1887an Hertz-ek hau enpirikoki frogatu zuen. Paraleloki, uhin grabitatorioez hitz egiten da, oraindik enpirikoki frogarik ez badago ere. Faraday izan zen elektromagnetismoa eta grabitatearen arteko lotura bilatzen hasi zena, eta emaitza konkretuetara iritsi ez bazen ere, begirada zorrotzeko aitzindaritzat jotzen da. Kantek, ordea, lehenago norabide berdinean harreman hau zehazki formulatu zuen. Oraindik gehiago, Kantek zehazki somatzen du argi izpia erakarpinak okertu dezakeela⁸⁸², eta honekin grabitazioa eta elektrodinamikaren arteko harremana ezartzen du. Newton gaingitu beharreko kontzientzia argia zuen Kantek eta orain dakigunez, hauxe izan zen Einsteinek bere erlatibitatearen teoria frogatzeko erabili zuen fenomenoak: eguzkiaren eremu grabitatorioak bere ingurutik igarotzen diren izpietan eragiten du.

Maxwellek oraindik ere Mekanikarekin lotura bilatzen jarraitu zuen eta horretarako eter mekaniko baten hipotesia erabiltzen zuen. Einstein-ek bukatu zuen egoera honekin, Mekanikarekin harreman hori uztean: Elektrodinamikaren oinarrien aldakaiztasuna sakonagoa da, eta beraz, Mekanikarena baino funtsezkoagoa⁸⁸³. Michelson-en saiakuntzaren porrotean oinarrituta, eter mekaniko baten hipotesia desagertzen da, grabitazioa materiaren presentziak sortzen duen espazioaren tolesdura besterik ez litzateke. Hemen, espazioa eta denborari

⁸⁸⁰"Die Bewegungen des Lichts und Schalls sind media durch welche Distanzen bestimmt werden können durch bewegende Kräfte. Beyde haben auch eigenthümliche Qualitäten (subiectiv) der Empfindung. /Es kann auch die Distanz keines anderen Körpers im leeren Raum durch keine Erfahrung bestimmt werden weil das Absolute der Quantität der Materie für sich nicht bestimmbar ist also nur (wie oben) durch media welche zu ihrer Bewegung eine Zeit bedürfen", AA XXII 537, 18-24.

⁸⁸¹Argia eremu elektromagnetiko baten espazio-denborazko aldakuntza da. Horrela, uhin batean espaziozko eta denborazko periodikotasun bikoitza ikusten dugu: $\xi(x, t) = \xi_0 \sin K(x - vt)$. Eta uhin elektromagnetikoak hutsaren konstante dielektrikoa eta hutsaren iragazkortasunaz gain espazioa eta denborazko ekuazio diferentzialak besterik ez dira: $\frac{1}{\epsilon_0 \mu_0} \cdot \frac{1}{c^2} = \frac{1}{\epsilon_0 \mu_0} \cdot \frac{1}{c^2}$. Ez da harrizkoa, beraz, argiaren abiadura bi konstante hauen arteko harreman hutsak definitzea: $c = 1/\sqrt{\epsilon_0 \mu_0}$.

⁸⁸²"Ob der Lichtstrahl durch die allgemeine Attraction könne zurückkehren", AA XXI 404, 3. Datorren espekulazioak aurrekoarekin batera zulo beltzekin lotura ahal duen, irekita utziko nuke: "Ob es nicht auch dunkle Körper im Weltraum gebe die sich durch andere Mittel als Licht communicieren", AA XXI 339, 2-3. Jakina denez, zulo beltzak ezin dira ikusi, eremu grabitatorioa hain handia izatean argia bertatik kanporatzea ezinezkoa baita, baina era berean erakarpen indartsu horren bidez detektatu ahal izango lirarteke.

⁸⁸³"Einstein izan zen, Maxwellen legeak nolabait Newtonenak baino funtsezkoagoak direla konturatu zena eta haietan finkatu zen Erlatibitate Bereziaren oinarriak ezartzeko", Fisika II 1986, EHU, 309.

buruzko gogoeta erabakigarria da, eta Einstein horren jabe zen⁸⁸⁴, eta benetan bere Fisika eta gogoeta transzendentalaren arteko lotura erabat estua da⁸⁸⁵.

Igarobidean, ordea, Kantek eterraren frogapen bat ematen du; beraz, alderantzizko norabidea dirudi erabat. Baina ezin da hori esan besterik gabe. Kantek eter fisiko bati buruz ez du ezer jakin nahi⁸⁸⁶, behin eta berriz errepikatzen du eterra fenomeno fisikoen esplikaziorako materia berezi bat ez dela⁸⁸⁷. Eterra materia prima gisa ezaugarri positiborik gabekoa da, ez da inoiz agertzen, ekaien ahalgarritasun baldintza mailan soilik existitzen baita⁸⁸⁸. Eterra espazioaren beteketaren baldintzatzat jartzean, espazioa betetze honetan iadanik indarrak jarrita daudela esatean⁸⁸⁹, ez gaude Einstein-en argibidetik oso urruti: materia-energia espazioaren akzidentea da⁸⁹⁰.

Bestalde, Einsteinen eterraren bazterketa ere ez da hain argia. Zenbaiten ustez Einstein-ek '**eter**' hitza erabili beharrean espazio-denbora erabiltzen du besterik gabe⁸⁹¹. Baina espazio-denbora hau hutsa bailitz ulertzea ez da oso egokia⁸⁹². Horregatik, 1951ean Fisika garaikidean eragin handia izan duen Dirac-ek oraindik

⁸⁸⁴"Die Relativitätstheorie ist aufs engste verbunden mit der Theorie von Raum und Zeit. Deshalb soll mit einer kurzen Untersuchung des Ursprungs unserer Ideen von Raum und Zeit begonnen werden, obwohl ich weiß, daß ich mich dabei auf strittiges Gebiet begeben", Einstein 1979, 5.

⁸⁸⁵"Die allgemeine Relativitätstheorie scheint hierin nur der letzte konsequente Abschluß einer gedanklichen Bewegung zu sein, die ihre entscheidenden Antriebe gleich sehr durch erkenntnis-theoretische, wie durch physikalische Erwägungen erhielt", Cassirer 1921, 10.

⁸⁸⁶"Gantz etwas anderes wäre ein problematisches Wesen wie etwa der Wärmestoff der nur ein Lückenbüßer ist um sich und andere durch Hypothesen hinzuhalten dergleichen man sich nicht erlauben muß", AA XXI 36, 9-12.

⁸⁸⁷"Dieser Aether darf darum nicht als ein hypothetischer Stoff von irgend einer Art bewegender Kräfte (z. B. als Wärme// oder Lichtmaterie) in die Physik willkürlich eingeschoben werden wohin er wirklich nicht gehört indem er bloß zum *Ü b e r g a n g e* von den metaphys. A. Gr. d. N. W. zur Physik gehört sondern ist von allen positiven Eigenschaften entkleidet die Agitation einer imponderablen incoercibelen incohäribelen und inexhaustibelen in continuirlichem Wechsel der Anziehung und Abstoßung an ebendemselben Ort begriffenen Materie welche als Princip der Möglichkeit der Erfahrung des Raum und der Zeit in dem absoluten *G a n z e n* der bewegenden Kräfte der Materie in ihrer Bewegung so wie sie nachdem sie angefangen hat sich forthin unvermindert erhält, postuliert wird", AA XXII 605, 22-606, 2.

⁸⁸⁸"Towards the close of the nineteenth century, chiefly under the influence of Larmor, it came to be generally recognised that the aether is an immaterial medium, sui generis, not composed of identifiable elements having definite locations in absolute space", Whittaker 1987 I 303.

⁸⁸⁹"Die Kräfte liegen hier schon in der Raumesvorstellung", AA XXII 84, 8-9; "Der Raum ist nicht bloß wie in der reinen Anschauung ein mathematischer Gegenstand (4 Kegelschnitte) sondern auch für die Physik als einem *s e n s i b e l e n* Raum mit Kräften angefüllt und die Materie durch Anziehung u. Abstoßung geschichtet (Stratificirt)", AA XXII 107, 16-9.

⁸⁹⁰"La materia corresponde a una *contaminación* del espacio-tiempo", Prigogine 1983b 72.

⁸⁹¹"... and since its non-Euclidean qualities determine the gravitational field, we may say that gravitational theory is reduced to geometry, in accordance with an idea expressed by FitzGerald in 1894 in the words 'Gravity is probably due to a change of structure of the aether, produced by the presence of matter'. The 'aether' of FitzGerald was called by Einstein simply 'space' or 'space-time': and FitzGerald's somewhat vague term 'structure' became with Einstein the most precise 'curvature'. Thus we obtain the central proposition of the Einsteinian theory: 'Gravity is due to a change in the curvature of space-time, produced by the presence of matter'", Whittaker 1987 II 157.

⁸⁹²"As everyone knows, the aether played a great part in the physics of the nineteenth century; but in the first decade of the twentieth, chiefly as a result of the failure of attempts to observe the earth's motion relative to the aether, and the acceptance of the principle that such attempts must always fail, the word 'aether' fell out of favour, and it became customary to refer to the interplanetary spaces as 'vacuous'; the vacuum being conceived as mere emptiness, having no properties except that of propagating electromagnetic waves. But with the development of quantum electrodynamics, the vacuum has come to be regarded as the seat of the 'zero-point' oscillations of the electromagnetic field, of the 'zero-point' fluctuations of electric charge and current, and of a 'polarisation' corresponding to a dielectric constant different from unity. It seems absurd to retain

eterra postulatzeko arrazoi onak ikusten zituen⁸⁹³. Gainera, Einsteinen teorian bertan ere egoera ez da hain argia. Bere teorian nagusia den $\cdot 1 - v^2/c^2$ faktorea gorputzek eterrarekiko duten higidura aztertzean agertu zen. Zuzenkiago, ordea, "Ether and relativity" 1920ko artikulua idatzi zuen bere jarrera argitzeko. Bertan eterrik gabeko espazioa ezinezkotzat jotzen du, espazioak ezaugarri fisikoak izan behar dituen neurrian. Orain materiaren ordeaz eremuek jasotzen dute pisu ontologikoa. Ezin da materia pisagarri gisa pentsatu- Kantek **'imponderabilis'** dio-, baina bera gabe argiaren igorpena, espazioa eta denboraren patroiak, eta beraz, espazio-denborazko distantziak ezinezkoak lirateke⁸⁹⁴. Beraz, Kanten antzeko argumentuak ematen ditu. Zientzia garaikideak Newtonengan zegoen espazioa eta materiaren arteko zuloa gainditzen duela aipatzen denean, beraz, horrela Kanten ideiak egikaritzen dituela esan daiteke⁸⁹⁵.

Termodinamikara igarotzen bagara, berehala esan behar da, Kantek berogai batez hitz egiten badu ere, berari buruzko jarrera substantzialista utzi duela Mayer eta Jouleren ikerketen aurretik: beroa eta argia higidura erak besterik ez dira⁸⁹⁶. Eta hori bere Fisikaren ulermen orokorrekiko bat dator, berak indar higitzailea duen higitzailea eta higiduraren elkarrekiko hartuemanak besterik ez ditu aztertzen. Termodinamikako lehen legeak energiaren kontserbazioa definitzen badu, bigarrenak zera dio, sistema isolatu bateko aldaketak ezin duela entropiaren gutxitzea ekarri. Beste hitzekin esanda, "**perpetuum mobile**" baten hipotesia ezinezkoa da. Honek denboraren anisotropia edo simetria eza finkatzen du. Denbora desordena hasten den neurrian neurtzen dugu. Eta hau unibertsoaren historia markatzen duen denboraren gezi kosmologikoa baino hurbilagoa zaigu, honek sistemen barneko denborazkotasuna finkatzen duen neurrian. Hor dagoen atzeraezintasunak materiari berezkotasunaren ezaugarriak ematen dizkiola uste du Prigoginek⁸⁹⁷. Kantek berdina dioela ikusi dugu, eta argia da beregan beroaren fenomenoak bizitzarekin duen harremana ere. Bizitza horixe litzateke, materiari sartutako

the name 'vacuum' for an entity so rich in physical properties, and the historical word 'aether' may fitly be retained", Whittaker 1987 I v.

⁸⁹³"Good reasons can now be advanced for postulating an ether", Cantor, G. N./Hodge, M. J. S. 1981, 54 (Nature 168 (1951), 906-7).

⁸⁹⁴Einstenek honela dio zehazki: "A modo de resumen, podemos decir que según la teoría de la relatividad, el espacio posee cualidades físicas; en este sentido, por lo tanto, existe un éter. De acuerdo con la teoría general de la relatividad es impensable un espacio sin éter: porque en tal espacio no sólo no se propagaría la luz, sino que sería imposible la existencia de patrones de espacio y tiempo (varillas y relojes de medida), y no habría por lo tanto, intervalos espacio-temporales en sentido físico. Pero este éter no puede concebirse dotado de la cualidad característica de los medios ponderables, como si estuviera constituido por partes que podemos seguir a través del tiempo. La idea de movimiento no puede aplicarse a él", Berkson 1985, 369.

⁸⁹⁵Orain esan dugun guztiaren ondoren, datorrenaren antzeko aipamenak ezjakintasun sakonenetik soilik etor daitezkeela pentsatu behar da: "Während nach Kant die Zeit eine Sonderstellung gegenüber dem Raum einnimmt, sind in Fichtes Konzeption Raum und Zeit untereinander gleichrangig und ihrerseits untrennbar mit einem 'Erfüllenden' (dem Empfindbaren, Dingen außer uns, 'Materiellen' verbunden); ist es -im Gegensatz zu Kant- nicht denkbar, 'keine Gegenstände im Raum anzutreffen' und 'die Erscheinungen aus der Zeit wegzunehmen'. In dieser Hinsicht kommt Fichte unseren heutigen Auffassungen von der Raum-Zeit-Union, der Einheit und Wechselwirkung von Materie, Raum und Zeit näher als Kant", Horstmann 1989, 6-7.

⁸⁹⁶"Wärme ist innigste oscillatorische Bewegung", AA XXI 392, 16; "Die phaenomena von Licht und Wärme (...) afficirt zu seyn geben also a priori zweyerley nicht Materie sondern Bewegung an die Hand", AA XXII 81, 16-8.

⁸⁹⁷"Lo artificial es determinista y reversible. Lo natural contiene elementos esenciales de azar e irreversibilidad. Esto llama a una nueva visión de la materia en la que esta ya no es pasiva como la descrita en el mundo del concepto mecánico sino asociada a actividad espontánea", Prigogine 1983a 22.

denbora⁸⁹⁸. Horrela, "**etengabe termodinamikako bigarren legearen aurka borrokatzen ari garela**"⁸⁹⁹, esan daiteke. Aristotele berak dio denborak deuseztapenaren kausa dirudiela (Fisika, IV, 12). Auto-organizazioa horri aurka egiteko egituratzat har daiteke. Dena den, Prigogine berak denboraren atzeraezintasun horren oinarria subjektuan jartzen du, sistema beraren ezaugarri baino bere ezagutzaren ezaugarria baita. Eta zentzu horretan, lehenaldia eta etorkizuna kontzeptu aurrezientifikotzat ditu⁹⁰⁰.

Une honetan Igarobidean agertzen den biologiaren ulermenari buruz zerbait esan behar da. Organismoak makina naturala izateak neurketa tresnen baldintza dinamiko berdinpetan egotea ekartzen du berekin: "**Materia baten organizazioaren kontzeptuaren autonomia bera gabe guk ez genuke organorik izango**"⁹⁰¹. Esan dugu Gehler-en hiztegian palanka gisako tresnek organismoarekin duten lotura aztertzen dela eta horrek Kantengan eragin zuela⁹⁰². Kantek ideia hori jasotzen du eta horrek organismoaren zientzia baten oinarriak jartzeko aukera ematen dio. Judizio erreflexionatzaile hutsaren eremua gainditu⁹⁰³, eta benetako zientzia matematikoa egiteko aukera ikusten duela dirudi. Hau nabarmena da organismoaren gaia Fisikako zatia, eta beraz, matematikoki lantzekoa dela esaten duenean⁹⁰⁴. Gai hau Brown-en sistemaren eraginpean garatzen du Kantek: honek bizitzaren indar higitzaileen apriorizko kontzeptu teorikoa eraikitzea ahalbide lezake Kanten arabera⁹⁰⁵.

Hauze litzateke, Thom-i jarraiki, Petitot-ek aldarrikatzen duena: forma bizidunen Matematika, edo Morfodinamika. Horrela, organizazioaz "erreflexioa" organismoaren "determinazioa" bihurtzen da⁹⁰⁶. Katastrofearen kategoriak ez-jarraitasun kualitatiboa finkatzen du eta horrek aurreko egitasmoa eraikitzeko funtsa ematen du⁹⁰⁷.

⁸⁹⁸"En definitiva esto es la vida, es el tiempo que se inscribe en la materia", Prigogine 1991, 40.

⁸⁹⁹"Estamos luchando continuamente contra la segunda ley de la termodinámica", Penrose 1991, 399.

⁹⁰⁰"La diferencia entre el pasado y el futuro es un concepto precientífico", Prigogine 1983b 246.

⁹⁰¹"Von der Autonomie des Begriffs der Organisation einer Materie ohne welchen wir selbst keine Organe hätten", AA XXII 86, 4-5.

⁹⁰²"Im thierischen Körper sind Knochen so wohl als Sehnen (und Muskelfasern) starr und steif", AA XXII 596, 24-5; "Das Spiel des Aethers kann auch allein die bewegende Kraft der Maschinen möglich machen Von der Starrheit des Biegsamen (Knochen und Muskelfasern)", AA XXII 600, 18-20; "Alle organischen Körper sind Maschinen und starr (rigidae)", AA XXII 285, 24.

⁹⁰³Idea hau era ezberdinetan aurkeztua izan da: "La difficoltà rappresentata dalla 'tecnica della natura', che nella redazione definitiva della Critica viene superata con la soluzione del 'come se', nell'*Opus* è affrontata più direttamente, oggettivamente senz'altro la tecnica del Giudizio, e dando valore costitutivo, e non più soltanto regolativo, ai concetti adoperati per giudicare della natura", Mathieu 1958, 160; "Der Begriff von der als Synthesis geschehenden Analysis, von der Unbezuglichkeit, die ihr Sich-sich-selbst-zugegenmachen ist, scheint jene Deduktion zu ermöglichen, die die Induktion sich nicht mehr entgegengesetzt, sondern sie schon in sich beschließt", Kopper 1964, 68.

⁹⁰⁴AA XXII 398, 23.

⁹⁰⁵"Man kann einräumen: das Brown den Begriff von dem System der bewegende Kräfte des Lebens im Menschen, was das Formale betrifft, untadelhaft vorgestellt habe; denn er ist ein Begriff a p r i o r i und bloß theoretisch", Refl. 1539, AA XV 963. 1798 ondoren idatzitako orri soltean dago pasarte hau, eta, beraz, Igarobidearen garai berekoa da.

⁹⁰⁶"La critique réfléchissante sur l'organisation s'y a convertit en une physique déterminante de l'organisme", Petitot 1991, 104.

⁹⁰⁷Kantek Matematikaren izaera kualitatiboa espreski onartu du: "Die Mathematik beschäftigt sich auch mit dem Unterschiede der Linien und Flächen, als Räumen, von verschiedener Qualität, mit der Kontinuität der Ausdehnung, als einer Qualität derselben", B743/A715.

Mekanika kuantikoan sartuz, zera esan behar da, hau grabitazioaren teoriarekin ezin dela bateratu, eta egoera honek sortzen duen egonezina askotan aipatu izan da⁹⁰⁸. Horregatik, eremu honetan oraindik maila deskriptibo eta espekulatibo batean gaude, ez dago kontzepturik. Energiaren zatiketa kuantikoak eremuen araberako esplikazioa oztopatzen du, Einsteinengan ezinbestekoa den jarraitasuna ukatzean⁹⁰⁹. Gainera, maila kuantikoan partikulak energia eremuen materializazioak besterik ez direnez, hauen aniztasunean batasuna lortzeko asmoa Kanten asmoekin ondo lot daiteke⁹¹⁰. Eremu honetan eztabaida gnoseologiko sakonak eman dira Heisenbergen printzipioaren inguruan, bertan subjektuak zientzia egitean objektuaren gain duen eragina nabarmena egin baita⁹¹¹. Oso ideia kantiarra, zalantzarik gabe. Kant berak, psikologiaz hitz egitean, bertan denborarekin zerikusia dugulako, subjektuak behaketan bere objektua aldatzen duela dio. Fisikan denboraz gain espazioa daukagu, baina lehenengoak bere eragina berdin izaten jarraitzen duela pentsa genezake⁹¹². Maila kuantikoan, beraz, esaten da, ez omen da gauza beraiezin hitz egiten, fenomenoez baizik. Eta fenomenoa zera omen da, behaketa baldintza ondo definituetan jarritako errealitate fisikoa⁹¹³. Baina, orduan, galdera zera litzateke: nola esan daiteke hau orain Mekanika kuantikoan soilik gertatzen dela? Alderantziz, definizio horren arabera Mekanikako gertaera sinpleenak ere fenomeno hutsak dira nabarmenki.

Hau dena ikusi ondoren, Kanti kritika diezaiokeguna zera da, kategorien arabera fenomeno fisiko konkretuak a priori sailkatu nahi izatea. Baina maila honetan ere bere zalantzak nabariak ziren⁹¹⁴. Azkenean jarrera autokritiko bat hartu zuen⁹¹⁵, horrela maila metodologikora zuzentzen den bide batean sartuz, deskribatu

⁹⁰⁸"Mi opinión personal es que incluso la teoría cuántica es un callejón sin salida, inadecuado en ciertos puntos esenciales para proporcionar una imagen completa del mundo en que realmente vivimos", Penrose 1991, 288. Honek eragingo luke bere ustez kontzientziaren denborazkotasunaren ulertezintasuna. Eta organismoarekin lotura ere ikusten du: "Es probable que los fenómenos cuánticos sean importantes en el modo de operar del cerebro", idem, 196.

⁹⁰⁹"In the theory of relativity the material sources cannot be described in terms of solids, and as a consequence their description appeals to and generate a theory of the continuum", Lichnerowicks 1979, 408.

⁹¹⁰Honela dio Plaasek Igarobideari buruz: "Ein Blick in die heutige Physik mit ihrer Bestrebung, das Aggregat verschiedener Sorten von Elementarteilchen, die wir kennen und die wesentlich durch Kräfte charakterisiert gedacht werden, als ein System zu begreifen, mag dem Kenner Hinweis genug darauf geben, daß diese Überlegungen Kants nicht eben ganz ohne Beziehung zu aktuellen Problemen sind", Plaas 1965, 109.

⁹¹¹"En las escalas extremas, la materia, el espacio y el tiempo son indisolubles. Llamemos categorial esta unificación para significar que materia, espacio y tiempo no se tratan ya como conceptos científicos, sino más bien como categorías gnoseológicas. Esta ampliación se ha hecho necesaria por la consideración del cuanto de acción, que, en definitiva, manifiesta el carácter indivisible de la relación entre el objeto y el sujeto", Cohen-Tannoudji, G./Spiro, M. 1988, 327.

⁹¹²"Selbst die Beobachtung an sich schon den Zustand des beobachteten Gegenstandes alteriert und verstellt", MA, AA IV 471.

⁹¹³"Los conceptos cuánticos ya no se refieren al objeto en sí, sino que se refieren a fenómenos. Un fenómeno es una realidad física colocada en condiciones bien definidas de observación", Cohen-Tannoudji, G./Spiro, M. 1988, 133.

⁹¹⁴"Es scheint schwer es scheint gar unmöglich zu seyn die verschiedenen Grundstoffe (bases) der Materie und das die Kräfte derselben leitende Princip (substantia deferens) durch Eintheilung in Classen, Gattungen Arten und Unterarten a priori zu specificiren gleichwohl aber ist dieses ein rechtmäßiger Anspruch des Physikers und dennoch ist dieser Anspruch an den Physiker der hierin durchaus Philosoph seyn und systematisch nicht fragmentarisch aufsammelnd seyn muß unerläßlich", AA XXII 337, 21-27.

⁹¹⁵"Die Stoffe (bases) in der gegebenen Materie überhaupt lassen sich nicht a priori specificiren und classificiren Aber die bewegenden Kräfte dieser Stoffe lassen sich in einer Eintheilung der mannigfaltigen Bewegungsart wohl aufzählen", AA XXII 358, 22-5.

dugun gisa⁹¹⁶. Azken finean, ezinezkoa zen bere oinarri filosofikoekin bat ez zetorren Fisika baten oinarriak eta probak bilatzea. Berak, funtsean zera nahi zuen: indar higitzaileen azterketan enpiria hutsa gainditu eta beharrezko eskema sistematikoa eraiki. Hau hemendik eta hura handik jasoz eta bilduz ez dago sistema bat sortzerik, halako sistema enpirikoa (gaur eguneko disziplinar tekotasuna berdina litzateke) kontraesankorra da. Enpiriak ahalgarri izan behar badu, aurretik sistema teoriko bat behar du.

"Fisika indar higitzaileen hautemapenaren alde subjektiboa aldi berean beraien loturaren alde objektibo gisa esperientziaren oinarritzapenerako jasotzen duen printzipioa da, konposizioaren berezkotasuna formaren arabera a priori indar higitzaileen harmena aurretik doala eta honi erregela gisa zerbitzatzen dio, zeina ezagutza enpirikoaren sistema batekin harremanean den ahalgarri, ez ordea sistema enpirikoa (contrad. in adjecto)"⁹¹⁷.

Hortik aurrera, materiaren ikuspegi dinamikoa eta subjektuaren parte hartze aktiboa ideia erabat egokiak eta aurrerakorrak ziren, oraindik zehaztuko dugun moduan. Horregatik, Prigogine bezalako zientzilariak, Kantek zientziaren objektua Newtonen objektu mekanikoarekin berdindu zuela eta honekin zientziaren aurrerapena oztopatu zuela esaten duenean⁹¹⁸, Nobel saridun honek ez daki zertaz ari den hitz egiten. Zientzilariak filosofoak zientzian sartzen direnean, hauekin hain zorrotzak badira, alderantziz ere berdin jokatu beharko litzateke. Prigogineri errazagoa zaio, bere teoriei oinarritzapen filosofiko bat ematea saiatzean, Bergsonen Filosofia intuitiboan materiale 'erabilgarriagoak' bilatzea, baina Kanten faltsuketa hori onartezina da.

2. Philosophia mathematica

Fisikarako sarreretan ikusten ez den beste puntua zera da, Fisikan Matematikak duen erabileraren legeztapen bat: zenbaki errealak, analisiaren erabilera edo oro har Matematika Fisikan aplikatzeko legeztapena ez dira inondik agertzen.

⁹¹⁶"Der Verstand a n t i c i p i r t die Wahrnehmung nach den einzig//möglichen Formen der Bewegung", AA XXII 502, 6-7.

⁹¹⁷"Die Physik ist das Princip das Subjective der Wahrnehmung der bewegenden Kräfte zugleich als das Objective der Verknüpfung derselben zur Gründung der Erfahrung enthalte und die Spontaneität der Zusammensetzung, der Form nach a priori vor der Receptivität der bewegenden Kräfte vorhergehe und dieser zur Regel diene welches nur durch Beziehung auf ein S y s t e m d e s E m p i r i s c h e n der Erkenntnis, nicht aber ein e m p i r i s c h e s S y s t e m (contrad. in adjecto) möglich ist", AA XXII 297, 17-24.

⁹¹⁸"Desde el punto de vista que nos interesa, lo esencial es que la crítica kantiana ha identificado al objeto científico en general con el objeto newtoniano; ha definido así como imposible una oposición al mecanismo que no sea oposición a la ciencia misma, y por consiguiente, que sea una devaluación del trabajo del entendimiento en provecho de un tipo de conocimiento radicalmente diferente", Prigogine 1983b 91.

Kantengan Matematikaren erabileraren beharra betitik argia izan da, eta hori defendatzen jarraitzen du bukaeran ere:

"Filosofia transzendentala Matematikarekin loturan soilik ahalgarria den Filosofia da"⁹¹⁹.

Hemen garbi esan behar da, batzutan aipatzen denaren aurka⁹²⁰, Matematika euklidearrak ez duela hor ezinbesteko presentziarik⁹²¹. Kantek Matematikaren gain pentsatzen duenean gehienbat Matematika euklidearra buruan izateak ez du esan nahi Matematika era berezi hau legeztatzea denik bere helburua. Hiru dimentsio baino gehiagoko espazioak ere aipatzen ditu, adibidez⁹²².

Kanten azkenengo eskuizkribuan berriro ere Matematika eta Filosofiaren arteko harremanak aztetzen ditu. Hau Newton eta Kästner-ekin darabilen polemikan kokatzen da. Fisika Matematika hutsera murriztea ezinezkotzat du Kantek. Horixe da Kästner-i leporatzen diona. Honek palankaren legeak matematikoki zehaztu dituela eta horrekin nahikoa litzatekeela uste du, baina ez da horrela. Palankak loditasun bat izan behar du eta zurruna izan behar du tolesketaren aurka⁹²³. Horregatik, indar higitzaileak behar dira, dinamikara jo behar da⁹²⁴.

Eta ikusi dugu kantitatearen eta kualitatearen arteko harremanak, eta beraz, kalkulu infinitesimalaren oinarriak jartzen duela horren oinarria. Aurretik aztertu dugun kantitatea eta kualitatearen arteko loturak hemen bere baieztapena jasotzen du.

"Ez da e z a u g a r r i kuantitatibo edo kualitatiboez hitz egin behar, baizik hauen elkarrekiko erlazioez"⁹²⁵.

⁹¹⁹"Transscendental-Philosophie ist diejenige Philosophie die nicht anders als in Verbindung mit Mathematik möglich ist", AA XXIII 488, 2-3. Matematikaren erabilpenari buruz: "Die Physik als Erfahrungs Wissenschaft (objectiv nicht subjectiv betrachtet) ist Mathem.//dynamisch", AA XXI 48, 14-5; "Mathematische u. dynamische Principien der Wissenschaft a priori", AA XXII 225, 6. Emaizta argia da: "Naturwissenschaft ist für Kant also mathematische Naturwissenschaft", Hoppe 1969, 52.

⁹²⁰"La filosofía kantiana de la matemática es una defensa de la tesis de que la geometría euclídea es necesaria y la única posible", Mosterín 1982, 16.

⁹²¹"Die Behauptung aber, die euklidische Geometrie sei irgendwie konstitutiv für das kantische Apriori der reinen Anschauung des Raumes, gehört in den Bereich der Legende", Gall 1981-2, 1072.

⁹²²"... auch eine Ausdehnung von andern Eigenschaften und Abmessungen geflossen wäre. Eine Wissenschaft von allen diesen möglichen Raumesarten wäre unfehlbar die höchste Geometrie, die ein endlicher Verstand untersuchen könnte. (...) Räume von dieser Art könnten nun unmöglich mit solchen in Verbindung stehen, die von ganz anderm Wesen sind; daher würden dergleichen Räume zu unserer Welt gar nicht gehören, sondern eigene Welten ausmachen müssen", Gedanken, AA I 24-5. Eta askoz geroago, 1792-4 inguruan hiru dimentsio baino gehiagoko espazioen ahalbidea onartzen du (Refl. 6323, AA XVIII 643).

⁹²³"Die Theorie des Hebels läßt sich so schön sie auch Hr. Kästner entwickelt hat nicht bloß m a t h e m a t i s c h erklären indem man den Hebel bloß als eine unbiegsame gerade Linie a n n i m t denn diese Annahme ist p h y s i c h unmöglich", AA XXI 607, 24-7.

⁹²⁴"Die hiezu erforderliche bewegende Kräfte ignorirte Hr. K. als Mathematiker", AA XXII 229, 1-2.

⁹²⁵"Man muß nicht von der Quantitativen u. qualitativen B e s c h a f f e n h e i t sondern beyderseitigen relationen sprechen", AA XXI 65, 27-9.

Kantek puntu hau zehazten du beste unetan, kantitatearen kualitateaz ere hitz eginez⁹²⁶. Honi estuki lotzen zaio Newtonen atomismoa behin eta berriz kritikatzeari⁹²⁷, Kantek bere dinamismoa fluxioaren oinarri gisa ezartzen baitu⁹²⁸. Eta hau espazioaren beteketari lotzen zaio⁹²⁹. Newtonek besterik gabe azelerazioa sartzean arazoa ekiditen du, baina ezin da azelerazioaz hitz egin abiadurern aldaketa jarrai baten oinarri gabe⁹³⁰. Kantengan dinamikak du lehentasuna, eta bera oinarritzeko aurreko mailak ongi zehazten saiatzen da. Horrela, fluxioen gaia abiaduratik espaziora eta denborara luzatzen da, hauek haren oinarrian dauden heinean⁹³¹. Une batean kantitatearen axioma Matematikari lotzen dio Kantek, kualitatearen aitzinapena fisiologiari, honetatik abiatuta erlazioaren dinamikara igaroz, eta azkenik, modalitatean Fisikaren sistematizazioa oinarritzen du⁹³².

Hala ere, Newtonek erakarpenarekin dinamikari ekarpen garrantzitsua egin diola onartzen du Kantek. Bere saioaren enpirikotasuna soilik kritikatzeko dio⁹³³, baina hemen arazo nagusia beste bat litzateke, zuzenki Matematikaren erabilerari buruzkoa. Newtonen liburuaren izenburuak, Philosophiae Naturalis Principia Mathematica, Natur Zientziaren printzipio matematikoez hitz egiten du, eta hori ezinezkoa da. Matematikak ezin dio printzipiorik eman Natur Zientziari⁹³⁴, Matematika tresna beharrezkoa besterik ez baita⁹³⁵. Printzipioak Filosofiak soilik eman ditzake. Horrela, Newtonek bere ekarpen handia matematikari gisa ez, baizik filosofo gisa

⁹²⁶"Wer kan nun hieraus begreiflich machen daß die Quantität der Materie nicht blos extensiv durch Mengen sondern auch extensiv durch Grade geschätzt werden müsse wenn die Räume Zweyer Körper gleich sind. Das ist Quantitas qualitatis", AA XXI 447, 6-9; "Die Quantität der Materie ist also so wohl extensiv als intensiv zu schätzen", AA XXI 436, 9-10. Eta lerro batzuk aurrerago kualitatea energia kontzeptuari lotzen dio. Jarraitasuna kualitatea dela ere aipatzen du: "Continuitat ist qualitat", AA XXI 459, 15. Hau abiaduraren izaera jarraikorra intentsitatearekin lotzean esaten du. Gainera AA XXI 460-1 orrietan jarraitasunaren lege geometrikoa, dinamikoa, mekanikoa, kosmologikoa eta transzendental aipatzen ditu.

⁹²⁷"Die A t o m i s t i k , welche blos mechanische Principien (philosophiae naturalis principia mathematica), (...)", AA XXII 91, 19-20.

⁹²⁸"Nach dem atomistischen Princip besteht jede Materie aus vesten Theilen. Nach dem Fluxionsprincip (da die physische Theilung bis zur Differentialgröße gehen kann) giebt es wahre flüßige Materie. - E i n e Flüßigkeit ist eine Materie welche nach dem Fluxionsprincip in Ansehung aller ihrer Theile innerlich bewegbar ist", AA XXI 201, 3-7; "Das Reale kann ins Unendliche kleiner werden ohne zu verschwinden z. B. attraction der Schweere", AA XXI 231, 24-5; "Vom atomistischen u. fluxionistischen System", AA XXII 193, 1; "Alle Materie ist ins unendliche theilbar also giebt's keine Atomistik sondern Fluxion", AA XXII 269, 9-10. Eta orri honen bukaeran eta hurrengoan handiera diferentzialak fluxioarekin eta jarraitasunarekin lotzen ditu.

⁹²⁹"Nicht nach dem atomistischen sondern dem Fluxionistischen Princip der Theilung der Materie muß die E r f ü l l u n g des Raumes...", AA XXII 194, 5-7.

⁹³⁰"Die Definition von 'Kraft' als Produkt aus träger Masse und Beschleunigung ist nur verstehbar, wenn bereits ein Kontinuum von Geschwindigkeiten als definiert vorausgesetzt wird. Anders kann 'Beschleunigung' nicht als Änderung der Geschwindigkeit eingeführt werden", Janich 1980, 169.

⁹³¹"Wenn eben so, wie eine gegebene Geschwindigkeit durch ein Moment der sollicitation entspringt, ein bestimmter Raum durch das (Element) differential des Raumes erzeugt wird", AA XXI 449, 9-12; "Momentum virium acceleratricium est quantum continuum", AA XXI 460, 19-20.

⁹³²AA XXII 293, 24-294, 4. Anlisi matematikoa zientzia enpirikoaren apriorizat ulertzen du Kambartel-ek: "Insofern das physikalische Messen von Zählhandlungen und darauf bezogenen Einsichten Gebrauch machen muß, gehört sicher die *Arithmetik* und in ihrer Erweiterung die mathematische *Analysis* zum apriorischen Fundament der empirischen Physik", Böhme 1976, 358.

⁹³³"Es ist merkwürdig daß die Sätze des Newtons in seinen Princ. Phil: Mathem. nicht aus einem Princip systematisch aufgestellt sondern empirisch und rhapsodistisch aufgelesen werden mußten folglich immer noch neue Zusätze erwarten ließen mithin sein Buch kein philosophisches System enthalten konnte", AA XXII 518, 21-5.

⁹³⁴"Denn man kann zwar auch über die Mathematik aber nicht in und mit derselben philosophiren. Sie ist ein I n s t r u m e n t der Naturwissenschaft, nicht diese selbst", AA XXI 205, 21-3.

⁹³⁵"Der αγωμετρητος kann in der Naturwissenschaft keine Fortschritte thun", AA XXII 486, 27-8.

egin duela esaten du Kantek⁹³⁶. Honek bi eremuen beharra azpimarratzen badu ere⁹³⁷, Filosofiak gailentasuna gordetzen du: "**Matematika Fisikara aplikatzeko Filosofia behar da**"⁹³⁸. Filosofia eta Matematikaren arteko harremanean Filosofiak duen gailentasun honen oinarria etikan dago; Matematikan soilik geratzea, Kästner-en adibidea erabiltzen du, berriz, inmorala litzateke⁹³⁹. Hau guztian 'philosophy of nature/philosophia naturalis' hitzaren inguruko gaizkiulertzea soilik dagoela ezin da pentsatu. Kantek hizkuntza inglesa ongi ezagutzea zalantzarria bada ere, horrelako hitz teknikoaren benetako zentzua garbi zuela testuan zehar argitzen da⁹⁴⁰.

3. Philosophia experimentalis

Esperientzia konkretua izatekotan, aurretik bere ahalgarritasun baldintzek batasuna eskatzen dute, baina gero horren egikaritzapena hurbilketa moduan egiten da, asintotikoki, hiperbola baten antzera⁹⁴¹. Hau lortzeko bidea behaketa eta saiakuntza dira⁹⁴². Baina esperientzia egin behar denez⁹⁴³, benetan erabakigarria dena saiakuntzak egitea da⁹⁴⁴. Ideia hau 1787ko hitzaurre berritik ezaguna zaigu, non Kantek Galileo, Torricelli eta

⁹³⁶"Durch Philosophie also nicht durch Mathematik hat Newton die wichtigste Eroberung gemacht", AA XXII 513, 24-5.

⁹³⁷"Die in E i n e m Erkenntnisact, philosophisch und mathematisch wechselseitig sich bestimmende Philosophie ist t r a n s s c : P h i l o s o : ", AA XXI 137, 28-9; "Indessen muß doch in der Naturwissenschaft Mathematik mit der Philosophie nothwendig verbunden werden weil wenn es um die Gesetze der bewegenden Kräfte der Materie zu thun ist B e w e g u n g mithin Bestimmung der ersteren in Raum und der Zeit welche zur reinen Anschauung gehörende Formen sind ein Begrif ist welcher jene Kräfte unvermeidlich begleitet", AA XXI 191, 13-21; "Die Naturwissenschaft welche aus Principien a priori hervorgehen soll ohne das sie keine Wissenschaft seyn würde drehet sich ein zwey Angeln oder Flügeln dem einen der Philosophie dem andern der Mathematik", AA XXII 430, 18-20.

⁹³⁸"Es gehört aber auch Philosophie dazu die Mathematik auf Physik anzuwenden", AA XXII 486, 30-1. Horregatik, dinamika eta kalkulua soilik nahikoak ez direla azpimarratzen du: "Selbst die phaenome der Schweere mit der großen mathematischen Erfindung des Fluxioncalculus in Verbindung gebracht bewirkten nichts für die Philosophie", AA XXII 519, 15-18.

⁹³⁹"Es ist möglich: es ist nothwendig wenigstens im Felde der Wissensch. auch über den G e b r a u c h der Mathematik zu philosophieren. Der Charakter des bloßen Mathematikers der hiemit prahlt kann dichterisch spötisch u. hiemit unmoralisch seyn - wie Kaestner", AA XXI 98, 16-9.

⁹⁴⁰"Philosophia naturalis ist die Physik", AA XXI 134, 28; "Die Naturphilosophie ist Physik", AA XXI 139, 19. Gainera, 'Danziger Physik' deritzaten lekzioetan: "Dieser Name philosophia naturalis ist zu weitläufig denn er begreift auch die Kentniß der denkenden Naturen in sich. Eigentlich versteht man also itzt unter dem Namen der Natur Philosophie blos die Kentniß der körperlichen Natur. - Auch weil die Physik einen weitläufigern Umkreis hat so heißt sie daher schlechthin philosophia naturalis", AA XXIX-1.1, 100.

⁹⁴¹"Die Erfahrung ist auch nur Eine u. die Annäherung zu ihr durch Warnehmungen ist asymptotisch (unendlich)", AA XXI 46, 18-20; "Erfahrung ist asymptotische Annäherung zur empirischen Vollständigkeit der Warnehmungen", AA XXI 53, 21-2; "Approximatio experientiae est asymptotica", AA XXII 103, 8.

⁹⁴²"Es giebt Principien a priori der Annäherung zur Erfahrung, Observation und Experiment aber sie selbst ist Asymptotisch wie die in der Hyperbel", AA XXI 76, 28-30; "... Physik die nie als vollendet angesehen werden kann sondern im Fortschreiten bleibt durch Observationen und Experimente zu gelangen", AA XXII 298, 3-5; "Man kann observationes u. Versuche zum Behuf der möglichen Erfahrung anstellen und der Natur gleichsam ihre Geheimnisse abfragen tortur", AA XXII 317, 17-9.

⁹⁴³"Eine Erfahrung m a c h e n (durch Observation u. Experiment) ist ein asymptotischer versuch", AA XXI 93, 16-7; "E r f a h r u n g kan man nicht h a b e n (empfangen) ohne sie zu m a c h e n ", AA XXII 497, 9-10; "Das Vermögen eine Erfahrung zu machen ist der Verstand", AA XXII 497, 16-7.

⁹⁴⁴"Nicht observiren sondern Experimentiren ist das Mittel die Natur und ihre Kräfte aufzudecken", AA XXII 504, 25-6.

Stahl aipatzen baititu⁹⁴⁵. Zientziak Galileorekin aldaketa erabakigarria jaso bazuen, ez zen izan bi ideia genial izan zituelako, baizik saiakuntzak egiten hasi zelako. Juzgamenaren Kritikan ere Kantek teknika teoriako zatitzat du eta saiakuntzaz hitz egiten du⁹⁴⁶. Horrela, esperientzia eta saiakuntza lotzen dira. Gai honek Igarobidean duen garrantzi berria iadanik azpimarratua izan da⁹⁴⁷.

Egia esan Igarobidea bera esperientziak egin ahal izateko baldintzak jartzea gisa ulertzen du Kantek: **"Honek [Metafisikatik Fisikarako Igarobideak] esperientziak egiteko ahalgarritasun baldintzak besterik ez ditu jasotzen bere baitan"**⁹⁴⁸. Saikuntzaren ahalbidea jarri ahal izateko antolatzen du Kantek bere teoria osoa⁹⁴⁹. Eta horrela, Igarobidea naturaren araketaren doktrina bihurtzen da⁹⁵⁰.

Sistema osatu nahi bada, Fisika egiten hasi aurretik legeak nola bilatzen diren arakatu behar da⁹⁵¹; horrela, guk aurretik ezarri duguna soilik jaso dezakegu⁹⁵². Honekin zer esan nahi duen garbi dago: ez da nahikoa indar higitzaileak jasotzea, baizik hori guk aurretik ezarri dugun eskema sistematiko baten eremuan gertatu behar da.

Eskema sistematiko hori egin ahal izateko unean subjektuaren higikortasunak funtsezko puntua biltzen duela nabarmena da. Subjektuak naturari galdera bat egiten dio, hau da, natura mugituz testuinguru berezi batean kokatzen du eta erantzun batera behartzen du. Horrela jokatzuz soilik jaso dezake berari buruzko ezagutza.

⁹⁴⁵BXIII-XIV.

⁹⁴⁶KU, AA V 172.

⁹⁴⁷"Hier ist es nun wichtig, sich klar zu machen, daß das Verfahren der im op. post. untersuchten Physik, zu empirischen und objektiven Erkenntnissen zu gelangen, tatsächlich der Versuch, das Experiment ist, deren Bedeutung für die Physik Kant im op. post. immer wieder hervorhebt", Hoppe 1969, 87; "The specific moving forces of matter therefore include those responsible for chemical phenomena (for example, chemical affinities), cohesion (of liquids and solids), solidification (that is crystallization), and magnetism. They appear, in other words, to be just those forces comprising what is standardly called 'experimental physics' in the eighteenth century", Friedman 1992, 239.

⁹⁴⁸"Dieser [Übergang von der Metaph. zur Physik] enthält bloß die Bedingungen der Möglichkeit Erfahrungen anzustellen", AA XXI 316, 21-2.

⁹⁴⁹"In allem diesen gründet sich die Theorie keineswegs auf Erfahrung und entlehnt nichts aus der Physik sondern bloß auf Begriffe der Möglichkeit gewisser wirkenden Ursachen nach Bewerbungsgesetzen in so weit sie a priori die Erfahrung möglich machen und als nothwendige Voraussetzungen zum Behuf des Experiments vorhergehen", AA XXII 595, 14-18.

⁹⁵⁰"Der Übergang ist eigentlich eine doctrien der Naturforschung", AA XXI 478, 25-6.

⁹⁵¹"Ich muß vorher forschen wie ich die Naturgesetze aufsuchen und in einem System a priori denken soll ehe ich zur Physik schreite um sie nach der Erfahrung zu betrachten", AA XXI 486, 25-7; "Denn bey allem empirischen Aufsuchen welches man im eigentlichen Sinne Naturforschung nennt, ist doch zuvordest nöthig belehrt zu werden wie u n d n a c h w e l c h e m P r i n c i p man die mannigfaltigen bewegenden Kräfte der Materie a u f s u c h e n soll", AA XXI 168, 21-4.

⁹⁵²"Observation so wohl als Experiment sind nur Methoden das aus der Sinnenvorstellung heraus zu heben was wir versuchsweise heineingelegt haben", AA XXII 318, 8-10; "Wir können in der Natur nichts anders forschen als was wir hineinlegen nämlich das Verhältnis unserer Kräfte der Form nach", AA XXII 286, 10-11.

"Fisika naturaren ikerketa enpirikoaren sistema da, zeina behaketa eta saiakuntza bitartez gertatzen den, lehenean Objektuak fisikaria eta bigarrenean fisikariak Objektua mugitzen duela eta hautemapenaren beste egoera batean ezartzen duela"⁹⁵³.

Hautemapenaren beste egoera hori subjektuaren ekimenaren ondorioz sortutakoa da. Eta gainera, Kantek oso modu interesgarrian saiakuntzen subjektuak subjektu organikoa izan behar duela aipatzen du:

"Naturaren araketarako alde doktrinalak indar higitzaileen printzipio organikoa auresuposatzen du subjektuan esperientziaren ahalgarritasunaren printzipio orokorretan"⁹⁵⁴.

Saiakuntzaren baldintzen azterketa izan da azken finean Kant bere garaiko Fisikako sistematizazio antzu bat bilatzetik urundu zuena. Fisiologiak fisikala denera igarotzeko duen beharraren jabe da Kant:

"Fisikak fisiologia eta fisikala jasotzen ditu bere baitan. Lehena indar higitzaileen osotasunaren alde teorikoa da. II. Bera elkarlotzeko alde praktikoa"⁹⁵⁵.

Horregatik, zeharkako fenomenoak, autoafekzioa edo autoezarpenaren ideietara zuzentzen du ikerketa osoaren oinarriak⁹⁵⁶. Zeharkako fenomenoak saiakuntzan agertzen dena da, subjektuak bertan ezartzen dituen baldintzek jasotzen duten erantzun gisa⁹⁵⁷. Autoafekzioa ere behaketa eta saiakuntzen baldintza gisa agertzen da, ezagutzaren baldintza baita oro har⁹⁵⁸. Bestalde, era oso interesgarrian, gorputzen baldintza dinamiko hauei adimena gehitu behar zaie higikortasuna benetan esplikatzeko, horrela higidura helburuduna ahalbidetuz⁹⁵⁹. Beraz, saiakuntzak egiteko baldintzak aldi berean ekintza etikoarenak direla esan daiteke.

⁹⁵³"Die Physik ist ein System der empirischen Naturforschung welche nicht anders als durch Observation oder Experiment geschehen im ersten Fall wo das Object den Physiker in zweyten wo der Physiker das Object bewegt und in einen andern Zustand der Wahrnehmung versetzt", AA XXII 299, 1-4.

⁹⁵⁴"Das Doctrinale in der Naturforschung überhaupt setzt ein organisches Princip der bewegenden Kräfte in allgemeinen Principien der Möglichkeit der Erfahrung im Subjecte voraus", AA XXII 373, 1-4.

⁹⁵⁵"Die Physik enthält in sich Physiologie und das Physikalische. Das erste das Theoretische des Ganzen der bewegenden Kräfte. II. das Practische es zu verknüpfen", AA XXII 323, 16-8. Beraz, Mathieu-rekin zera esan daiteke: "Pensare una proprietà della materia, infatti, implica che si pensi un modo per sperimentarla", Mathieu 1958, 207.

⁹⁵⁶"Es ist nicht so, daß Kant im op. post. einfach das experimentelle Verfahren der Physik beschreibt, er will vielmehr zeigen, wie durch das Experiment eine objektive empirische Naturerkenntnis möglich ist, und hierauf muß man die Frage nach der Möglichkeit der Physik reduzieren, um zu sehen, weshalb die Begriffe der indirekten Erscheinung und der Selbstaffizierung im op. post. von Kant behandelt werden. Es geht Kant dabei schließlich auch nicht um die Aufstellung des tatsächlichen Systems der Physik als eines ein für alle Mal geschlossenen, sondern um die Systembedingungen, das Förmliche des Systems der bew. Kr. auch nach jeder Erweiterung der Physik um neue Objektbereiche", Hoppe 1969, 137.

⁹⁵⁷"Es läßt sich dann auch leicht sagen, was die Erscheinung von der Erscheinung ist: nicht einfach nur der Gegenstand der Erfahrung, sondern der durch das Experiment erkannte Gegenstand", Hoppe 1969, 119.

⁹⁵⁸"Sich selbst zu afficiren und so durch Observation u. Experiment von dem Object Kenntnis zu erhalten", AA XXII 350, 22-3.

⁹⁵⁹"Die Körper, als Maschinen, setzen dynamisch bewegende Kräfte voraus (4 potentiae mechanicae) und setzen einen Verstand voraus der die Bewegung durch dieselbe möglich macht denn Zweckmäßigkeit (absichtliche Bewegung) setzt Einheit des Princ. voraus", AA XXII 365, 17-20.

4. Philosophia instrumentalis

Saiakuntzaren erabilketari estuki lotua dagoen gaia ere ukitzen du Kantek, hau da, horretarako beharrezkoa den teknika baten premia. Iadanik Juzgamenaren Kritikaren lehen sarreran geometria berak tresnak behar dituela aipatu zuen, erregela eta konpasa hain zuzen⁹⁶⁰. Gainera, saiakuntza tresnak aipatuz, teknika eta teoriaren arteko harremani buruz hitz egiten du bertan⁹⁶¹. Subjektuak naturari galdetu behar badio, bertan higidura batzuk sortuz eta erantzunak jasoz, horrek baldintza dinamiko-tekniko batzuk dituela garbi dago. Fisikari egoki erantzun ahal izateko, Kantek Metafisika bazterten du honek arrazoimen hutsa nahikoa dela uste duelako, Hipofisika ere bai enpiria soila nahikoa dela uste duelako, eta Hiperfisika noski Fisika maila transzendente batera eraman nahi duelako⁹⁶². Beste une batean aipatzen duen Protofisika soilik geratzen zaigu. Hitz honek gaur egun duen zentzuarekin alderaketa bat oso interesgarria gertatzen da. Dinger eta Lorenzen-etik datorren Natur Zientzien Filosofia honek neurketa tresnen oinarritzko teoria metodikoa egiten du⁹⁶³.

Arazoa Kästner-i egindako kritikatik dator. Palanka ezin da matematikoki esplikatuz, propietate dinamikoak ere auresuposatu behar dira benetan funtzionatu behar badu⁹⁶⁴. Kant palankan zentratzen bada ere, ideia hau hiru oinarritzko makineta zabaltzen da zenbait pasartetan. Palankaz gain, polea eta zirria aipatzen ditu gehienetan, presioa, trakzioa eta bultzadaz jokatzeko dutenak. Hauek materia zurrun, kohesionatuak eta tolesgarriki kohesionatuak eskatzen dituzte⁹⁶⁵.

Hala ere, garrantzitsuena zera da, palanka pisuaren oinarri gisa materiaren pisagarritasuna ikertzeko oinarritzko tresna dela, eta beraz, hau gabe ezin dela materiaren kantitateaz hitz egin⁹⁶⁶. Antzera, lehenago Newtonen espazio hutsa eterragatik aldatzeko argumentu nagusia zera zen, espazio huts batean, espazio-denbora errealik ez izatean, neurketa erabat ezinezkoa dela⁹⁶⁷. Kantek mekanikaren oinarrian dinamika dagoela esaten

⁹⁶⁰EE, AA XX 198oh.

⁹⁶¹"So ist die Auflösung des Problems der Mechanik: zu einer gegebenen Kraft, die mit einer gegebenen Last im Gleichgewichte seyn soll, das Verhältnis der respectiven Hebelarme zu finden, zwar als practische Formel ausgedruckt, die aber nichts anders enthält als den theoretischen Satz: daß die Länge der letztern sich umgekehrt wie die erstern verhalten, wenn sie im Gleichgewichte sind", EE, AA XX 196.

⁹⁶²AA XXII 399, 13-8.

⁹⁶³"Mit 'Protophysik' wird die der messenden Physik methodisch zugrundeliegende Theorie der Meßgeräteeigenschaften bezeichnet", Janich 1992, 53.

⁹⁶⁴"Denn selbst zur Möglichkeit einer Maschine z. B. Hebel wird Dynamik der Cohäsion erfordert", AA XXII 10, 5-7.

⁹⁶⁵"Zur Maschine werden 1. starre 2 zusammenhängende 3. biegsam zusammenhängende Materien erfordert a) der Hebel, b) Seil u. Kloben. c. Keil", AA XXII 259, 6-8. Antzera, Bayerer 1967, 283, 20-23.

⁹⁶⁶"Nimmt man nun den Hebel als Maschine der Erforschung des Gewichts mithin der Quantität der Materie so ist zu sehen daß das Wägen den Beytritt noch einer anderen bewegenden Kraft nämlich des *Z u s a m m e n h a n g e s* als Gegenwirkung gegen die bewegende Kräfte des Abtrennens so wohl als des Verschiebens seiner Theile voraussetze ohne welche sich keine Wägbarkeit denken läßt und daß man von jener Kraft nicht abstrahiren kann ohne selbst den Begriff der Wägbarkeit zu verlieren und sich selbst zu widersprechen", AA XXI 294, 19-26.

⁹⁶⁷"(Wodurch aber werden die Entfernungen wargenommen wenn die bewegende Kräfte im leeren Raum wirksam seyn sollen?) Um die Distanzen durch Warnehmung zu bestimmen muß der Raum warnehmbar, als kann er nicht leer seyn", AA

duenean⁹⁶⁸, azken finean, oinarria subjektuaren higikortasunean jartzen du, honek makina bat erabili behar duen neurrian⁹⁶⁹. Materiaren kantitatea subjektuak materia mugiarazten duen neurrian soilik ezagut daiteke, pisatzearen ekintzaren bitartez, beraz, subjektiboki⁹⁷⁰.

"Pisagarritasun objektiboa materiaren kontzeptuan dago iadanik (munduko gorputz erakartzaile batekin harremanean). Baina pisagarritasun subjektiboak tresnen bitartez indar higitzaile bereziak behar ditu pisaketa ahalbidetzen duten tresnak egiteko"⁹⁷¹.

Eta beraz, garbi esaten du hor ez dagoela a priori jokaterik, ekintza bera ere fisikoki determinatua baitago⁹⁷². Determinazio hori higiduran bihurtzen da konkretua. Makinak eta hauek erabiltzen dituen soinak higidura horren baldintzak dira⁹⁷³. Beraz, tresnen baldintzak arakatu behar dira⁹⁷⁴.

Tresnek eta saiakuntzak Kantengan zeresanik ez dutela dioen ideia bitxia⁹⁷⁵ erabat errefusatu dudalakoan nago. Egitan, Kant berak Filosofia tekniko batez hitz egiten du⁹⁷⁶. Esperientzia **egin** beharrak ekintza hori teknikarekin lotzen du derrigorrez⁹⁷⁷.

XXII 524, 27-30; "Wodurch wird die Distanz des Puncts der Anziehung von dem bewegenden Körper im leeren Raume wargenommen oder überhaupt bestimmbar?", AA XXII 537, 13-5.

⁹⁶⁸"Die Möglichkeit eine Maschine selbst setzt bewegende Kräfte Voraus", AA XXII 139, 20-1.

⁹⁶⁹"Diese M a s c h i n e n aber (...) bedürfen zu ihrer Wirkung nach Gesetzen der Mechanik noch der bewegenden natürlichen Kräfte ihrer Hebezeuge nach Gesetzen der Dynamik so daß z. B. die Wägbarkeit objectiv genommen noch einer subjectiv verstandenen bedarf um Bewegung zu bewirken", AA XXII 235, 20-24; "Subjective Wägbarkeit ist die Möglichkeit, die Quantität der Materie durch eine Maschine zu erforschen", AA XXII 260, 14-5; "Die subjective Wägbarkeit der Materie d. i. Bestimmbarkeit der Quantität derselben durch das Experiment des Wägens", AA XXII 585, 16-7; "Aber der Begriff der Ponderabilität setzt doch ein Instrument der Messung dieser bewegenden Kraft (des Gewichts) an einem Hebelarm voraus", AA XXII 138, 3-5; "Aber Wägbarkeit subjectiv//betrachtet, d. i. als Vermögen einer Maschine diese bewegende Kraft zu messen und darzustellen", AA XXII 157, 31-158, 2.

⁹⁷⁰"Alle Materie kann als eine solche durch Erfahrung nur erkannt werden (und zwar als ein Quantum im Raum) wenn sie von einer äußeren Kraft eines Körpers dessen Einfluß sie durchdringt bewegt wird d. i. durchs wägen", AA XXI 387, 26-29.

⁹⁷¹"Die objective Wägbarkeit liegt schon im Begriff der Materie (in Verhältnis auf einen anziehenden Weltkörper) Aber die subjective Wägbarkeit durch Instrumente bedarf noch ein besonderer bewegender Kräfte um die Instrumente zu machen welche das Wägen möglich machen", AA XXII 140, 1-4.

⁹⁷²"Also ist die Wägbarkeit der Materie nicht eine mit der Erforschung ihrer Quantität bloß dem Begriffe nach und a priori erkennbare Eigenschaft derselben sondern sie ist physisch bedingt", AA XXII 138, 16-9.

⁹⁷³"Das Subjective Princip der Bewegung der Materie ist die Maschine. Das objective ist die Beschaffenheit des Körpers durch welche die Maschine selbst möglich wird", AA XXIII 480, 4-6.

⁹⁷⁴"Allein die Lösung derselben war durch Mathematik allein nicht möglich; es mußte ein p h y s i s c h e s Princip bewegender Kräfte hier so wohl als bey den übrigen Maschinen beytreten um die Möglichkeit der Bewegung durch ein solches Werkzeug als der Hebel ist erklärlich zu machen", AA XXII 558, 11-5.

⁹⁷⁵"Kant n'a jamais étudié le rôle des instruments dans le progrès des sciences. L'eût-il fait, il aurait aperçu des rapports entre expérience et expérimentation; il aurait pris conscience de la connaissance comme d'une histoire", Vuillemin 1987, 360.

⁹⁷⁶"Der Philosophia naturalis ist eigentlich die artificialis gegensprechend. Aber...", AA XXI 73, 17-8. Lehenago Fisika naturala eta ez artifizia zela aipatu zuen, indar higitzaileen sistema naturan bertan oinarritzen delako (AA XXII 342, 9-14). Baina, ikusi dugu iritzi hau aldatu duela eta indar higitzaileak subjektuan bertan bilatzea izango dela bide berria. Aurrelanen hasieran ere "Fabricate der Natur" aipatzen ditu (AA XXI 407, 7). 'Danziger Physik' lekzioetan esperientzia artifiziaiaz hitz egiten du, hori behaketa eta saiakuntzei lotuz: "Künstliche Erfahrung (esperientia artificialis) - Beobachtungen (Observationes)/ Versuche (Experimentum)", AA XXIX-1.1, 102. Beste iritzi bat aipatzekotan: "Die dargestellten Ausführungen des 1. Konvoluts zur Mathematik als Instrument können daher als Leistungen einer neuen 'philosophie instrumentalis' verstanden werden", Büchel 1987, 130.

⁹⁷⁷"Erfahrung ist nicht eine bloß natürliche sondern künstliche Aggregation der Wahrnehmungen. - Erfahrung ist nicht durch Sinne g e g e b e n sondern wird für das sinnliche Erkenntnis g e m a c h t", AA XXII 498, 20-2.

Protofisikara igaroz, honek Natur Zientzien oinarriak enpirikoki ezin direla finkatu uste du eta eszeptizismoan erori beharrean finkapen sendo bat bilatzen du. Hori behaketa eta saiakuntza oinarritzen duten teknikaren oinarri normatiboa aztertuz lortzen saiatzen da. Adibideetara joz, erlojua dena ezin da erloju batek ematen dituen neurriekin finkatu⁹⁷⁸. Gaizki doan erloju batean naturaren lege berdinak jokatzten dute, eta beraz, gaizki (edo ondo) joate hori aurretik metodikoki finkatu den zerbait da⁹⁷⁹. Horregatik, tresnen erabilerak egiten ditu naturaren legeak ahalgarri, eta ez alderantziz⁹⁸⁰. Teknika, beraz, Natur Zientziarentzat eratzaila da⁹⁸¹, ez nolabaiteko bigarren mailako emaitza⁹⁸².

Horrela, bada, zientziaren ikuspegi naturalista garaileari aurkakotzen zaio protofisika, eta bereziki ezagutzaren zientzia eboluzionistari⁹⁸³. Honi guztiz aurkakotuz, zientzia giza ekintza eta tresnekin zerikusia duen egitekotzat ulertzean, natura kulturaren produktutzat ulertzen du Janichek⁹⁸⁴. Ea natura bere baitan zer ote den galdetzeak, gizakiak berekin duen harremana kontuan hartu gabe, ez dauka zentzurik⁹⁸⁵. Naturarekin dugun

⁹⁷⁸"Was eine Uhr ist, kann aber nicht selbst wieder durch eine quantitative Beobachtung mit Hilfe einer Uhr festgestellt werden", Janich 1992, 17.

⁹⁷⁹"Das Resultat einer Messung ist empirisch. Die Intersubjektivität des Meßresultats jedoch basiert auf der nicht-empirischen, d. h. nicht auf Meßresultaten beruhenden, sondern von Menschen normativ gesicherten Ungestörtheit von Meßgeräten", Janich 1980, 105; "Die Fallbewegung eines *physischen* Körpers kann nur im *physikalischen* Experiment erforscht werden, das physikalische *Experiment* als methodisches Mittel selbst nicht wieder physikalisch oder experimentell, sondern nur *methodologisch, kulturwissenschaftlich oder philosophisch*", Janich 1992, 77. Einstein berak ere: "Der Inbegriff dieser Uhrangaben liefert uns aber gleichwohl noch keine 'Zeit', wie wir sie für physikalische Zwecke nötig haben. Wir bedürfen vielmehr hierzu noch einer Vorschrift, nach welcher diese Uhren zueinander eingestellt werden sollen", Einstein 1907, 437.

⁹⁸⁰"Was eine Uhr, genauer, wie der richtige Gang einer Uhr zu bestimmen und und zu erkennen sei, lehrt uns nicht die Natur. Vielmehr erfindet, baut und verbessert der Mensch Uhren, um an deren technisch reproduzierten Abläufen, die sich in ihrer Gleichheit seiner Handwerkskunst verdanken, natürliche Vorgänge zu vermessen. Nicht Naturgesetze machen die Meßkunst möglich, sondern die Meßkunst macht Naturgesetze möglich", Janich 1992, 233. Kantengan antzeko ideia aurki daiteke 'Danziger Physik' deritzaten lekzioetan: "Eine gerade Linie kann nicht anders gemeßen werden als daß ich schon eine gerade Linie voraus setze. Man macht eine grade Linie mit einer geraden Schnur. Der Feld Meßer mißt durch Licht, aber da setzt er voraus, daß das Licht in gerader Linie fortgeht. Ginge es in krummer Linie, so könnte er auch den Stab der vom ersten bedeckt wird, sehen. Aber es wird nach einem Lineal usw. gemeßen welches wieder eine gerade Linie ist. Diese kann nicht nach einem Princip sondern nur nach einem Modell gemacht werden. Indem durch den Hobel die Ungleichheiten von der Fläche weggenommen werden, entsteht so eine gerade Linie", AA XXIX-1.1, 152-3.

⁹⁸¹"Technik ist für die moderne Naturwissenschaft konstitutiv", Janich 1992, 208; "Naturgesetze' sind demnach nur Aussagen über funktionierende Maschinen, ja, sie können ohne Umformulierung auch als Konstruktionsanweisungen für Maschinen gelesen werden", Janich 1992, 207.

⁹⁸²"Technik ist also nicht die Folgelast der Naturwissenschaft, sondern Naturwissenschaft ist eine Folgelast der Technik", Janich 1992, 213.

⁹⁸³"Der Biologe setzt eine Erkenntnistheorie voraus, bevor er eine formulieren kann", Janich 1992, 224. Kant berak honela dio, berak ere naturalismoa zorrozki kritikatu: "Naturalisten in der Metaphysik und Moral sind Schwätzer", Refl. 3486, AA XVI 867.

⁹⁸⁴"Im Unterschied zur Natur ist die Naturwissenschaft ein Kulturprodukt", Janich 1992, 12; "So paradox es klingt: Dem Menschen ist die Natur nie natürlich, sondern immer kulturell, sofern man nur von einer erkannten Natur spricht", Janich 1992, 236.

⁹⁸⁵"Die Natur 'an sich', d. h. abgelöst von der unverzichtbaren sprachlichen Form der Naturerkenntnis, zu erkennen, ist dagegen eine völlig sinnlose Vorstellung", Janich 1992, 232; "..., gibt es keine Natur an sich, keine vom Menschen unabhängige Natur", Janich 1992, 236; "Es ist logisch unsinnig, 'Natur' definieren zu wollen als das, was unabhängig von Wechselwirkung mit dem Menschen existiert", Janich 1992, 237.

harreman oro fenomenala da⁹⁸⁶. Honen bidez natura eta kulturaren zientzien arteko etena gainditzeko oinarriak jartzen dira, ekintza praktikoaren nagusigoak jokatu luke zubi gisa⁹⁸⁷.

Hau guztiak Kantekin duen harremana nabarmena da, eta neurri batean profotifikaren bultzatzaileek onartzen dute beren ahalegina Kanten funtsezko egitasmoaren berritze baten saiakera dela. Natur Zientzien oinarri irmo bat bilatzen dute, a priori den oinarria, ez enpirikoa, eta enpiriak, beraz, atzera bota ezin dezakeena⁹⁸⁸. Onartu ezin dena zera da, espazioa eta denbora edo antzeko oinarrizko kontzeptuak zientzia berak oinarritu ahal dituela pentsatzea⁹⁸⁹. Janich berak a priori sintetiko terminoa bera ere erabiltzen du, orain horrekin neurketen bidez kontraesanazina dena ulertzen badu ere⁹⁹⁰. Erabat alderantzizkoa da Adickesen jarrera. Honek Natur Zientzien a priori bat aurkitzeko Kanten ahalegina erabat gutxiesten du⁹⁹¹.

Kant eta profotifikaren arteko funtsezko antzekotasun nabarmena ezagutza ekintza gisa ulertzea da. Profotifikak horri tresnen beharra gaineratzen dio, Kant berak Igarobidean neurri batean egiten duen zentzu berdinean. Saiakuntzak sortu du Natur Zientzia modernoa eta horren baldintzak aztertu behar dira⁹⁹². Horrela, filosofoaren gaia ez da gehiago natura izango, naturaren ikerketa bera baizik⁹⁹³. Hauxe da zehazki Kanten bidea, ikusi dugunez⁹⁹⁴.

⁹⁸⁶"Insofern sind Phänomene immer Phänomene für jemanden, d. h. sie sind, was sie sind, immer nur relativ zu einer vorgängigen Kenntnis. Sie sind also unter keinen Umständen 'rein natürlich', sondern sie sind begrifflich und, soweit die modernen Naturwissenschaften betroffen sind, meistens künstlich, d. h. technisch, hergestellt", Janich 1992, 112-3.

⁹⁸⁷"Der *Primat der Technik von der Naturwissenschaft*, der ersichtlich eine spezielle Form des Primats der Praxis vor der Theorie und des Primats der Handlung vor der Rede über Handlungen ist,...", Janich 1992, 204.

⁹⁸⁸Honela dio Böhme: "In der Protophysik soll unter veränderten Bedingungen für die Naturwissenschaft dasselbe geleistet werden, was Kant in seinen Metaphysischen Anfangsgründen der Naturwissenschaft leistete: Nämlich der Aufweis eines rationalen Teils innerhalb der Naturwissenschaft, eines Teils, der von der Erfahrung unabhängig und durch Erfahrung nicht zu widerlegen ist", Böhme 1976, 221. Eta Janich: "Die Grundlagen der Naturerkenntnis sind nicht empirisch, d. h. beruhen nicht auf Erfahrung, sondern gelten, wie die Philosophen seit Christian Wolff sagen, *apriorisch*, d. h. vor aller Erfahrung", Janich 1992, 234.

⁹⁸⁹Reichenbach-en asmo hau Böhme-k zehazki kritikatu du: "Ich bin zufrieden, wenn ich gezeigt habe, daß die zeitlichen Strukturen nicht erst aus der Wissenschaft, speziell aus der Physik, gewonnen werden, sondern zu den Bedingungen der Möglichkeit dieser Wissenschaft gehören", Böhme 1966, 10.

⁹⁹⁰"Apriorisch (ganauer ja synthetisch apriorisch) heißt in diesem Zusammenhang 'durch Messungen nicht widerlegbar', und empirisch sind nur die auf Messungen beruhenden Aussagen", Janich 1992, 344.

⁹⁹¹"Kant wälzt den Stein des Sisyphus: er fordert und such Apriorität da, wo sie nun einmal unerreichbar ist", Adickes 1924, 378.

⁹⁹²"Nachdem sich mit der Keplerschen Theorie der Ellipseform von Planetenbahnen eine erste Abkehr von theologischen Resten der Aristotelischen Naturwissenschaft vollzogen hatte, die wegen der Göttlichkeit der Gestirne diesen nur Kreisbahnen zuschreiben wollte, und nachdem sich darin eine auf Meßgeräte gestützte *Beobachtungskunst* von Astronomen wie Tycho Brahe erfolgreich durchgesetzt hatte, gewann in der klassischen Physik des 17. Jahrhunderts die Naturerkenntnis durch Einführung des *Experiments* bei Galilei wiederum eine neue Form. Naturerkenntnis war *theorie- und empiriefähig* geworden", Janich 1992, 9.

⁹⁹³"Die Naturerkenntnis wurde philosophiefähig in dem Sinne, als Naturforscher und mit Naturforschung vertraute Philosophen nun nicht mehr die Natur, sondern die *Naturforschung* zum Gegenstand von Erkenntnisbemühungen machten", Janich 1992, 9.

⁹⁹⁴"Jener Übergang ist die Lehre welche das Subjective der Naturlehre in allgemeinen Principien d. i. die Begriffe a priori von der Naturforschung enthält", AA XXI 169, 19-22; "Diese systematische Nachforschung ist Subjectiv a priori gegeben ob sie gleich objectiv empirisch ist", AA XXI 172, 27-8.

Janichek, tresnen baldintzak ikertzen hasi aurretik, behaketa beraren analisis azterna kantiarrak erakusten ditu. Hautemapena ez da pasiboa, behaketak egin behar dira, ez dira berez gertatzen, baizik eta asmo batek zuzendutako ekintzak dira⁹⁹⁵, eta horregatik, deskribapen batek ezin ditu inoiz agortu. Ikuspegi fisikalista batentzako sentsazioa erantzun kausal automatikoa besterik ez litzateke. Baina egitan ez da horrela, sentsazioa subjektuaren itxaropen batzutan kokatzen da eta oraindik hor ez dagoen helburu batera zuzentzen da, eta beraz, denborazkotasan berezia du bere baitan⁹⁹⁶. Behaketan aurkitu nahi dena, ez du beste behaketa batek erabaki⁹⁹⁷, zeren naturak ez baitu berez hitz egiten, ikertzaile hizlari eta ekileak erakutsi behar dio hitz egiten⁹⁹⁸.

Protofisikari zera kritikatu zaio, Matematika eta zientzia klasikoan geratzea, eta erlatibitatea eta Mekanika kuantikoa bigarren mailan uztea. Hau ez litzateke kritika egokia izango, zientziaren emaitzekin benetan jarrera metodikoa dena kritikatzeko ez baita egokia. Bestalde, protofisikak zientzia garaikidearen oinarritzapena kritikatzeko du bere aldetik. Bai erlatibitatean, bai Mekanika kuantikoan subjektu behatzailea teoria barnean jasotzea litzateke ezaugarri nagusia, hau zientzia klasikoarekin alderatuz gero⁹⁹⁹. Baina ondoren, zientziaren teoriko beraiek ez dute hori serio hartzeko eta ikuspegi klasikoekin jarraitzen dute¹⁰⁰⁰. Ezinegon hau beste jarretetan ere nabarmentzen da. Horrela, Prigoginek zentzu berdinean hitz egiten du, Einsteini gizakiatik

⁹⁹⁵"Menschliche Sinneswahrnehmung ist kein bloß passives Ereignis, sondern eine Aktivität, ein Handeln. Das wahrnehmende Subjekt tritt in eine von Absichten geleitete Beziehung mit dem wahrgenommenen Objekt ein, und zwar in einem freien Willensakt", Janich 1992, 106; "Menschliche Sinneswahrnehmung ist eine Art des Handelns", Janich 1992, 113-4; "Jede Beobachtung in den Naturwissenschaften ist eine Zweckhandlung", Janich 1992, 182.

⁹⁹⁶"Während der Physikalismus versucht, Sinneswahrnehmung zu beschreiben und zu erklären als eine Kette von Kausalereignisse, die ausgeht von einem Reiz und deshalb von einem früheren Zeitpunkt, hat Wahrnehmung nach meinem Verständnis eine ganz andere zeitliche Struktur. Zu handeln heißt, einen Zustand oder einen Sachverhalt herbeizuführen, der andernfalls nicht auftreten würde. Dieser Zustand oder dieser Sachverhalt ist als das Ziel oder der Zweck unserer Handlung zu bezeichnen und tritt selbstverständlich später ein als die Handlung selbst. Zu handeln zielt also ab auf etwas, was noch nicht der Fall ist. Ob eine Handlung erfolgreich ist oder nicht, ist immer erst am Ende der Handlung zu ersehen./ (...). Dies aber gilt auch für Sinneswahrnehmungen, die, grob gesprochen, in einer Prüfung bestehen, ob sich unsere Wahrnehmungserwartungen erfüllen, Erwartungen, die sich, aus der Vergangenheit gebildet, auf für uns zukünftige Zustände oder Zwecke richten./ Die große Herausforderung an naturwissenschaftliche Wahrnehmungstheorien ist es, dieser -der zeitlichen Ordnung in Kausalketten nicht entsprechenden- Tatsache Rechnung zu tragen", Janich 1992, 117-8.

⁹⁹⁷"Die Naturwissenschaften finden immer nur das durch Beobachtung, was sie suchen, aber nichts darüber hinaus. Insbesondere finden sie durch Beobachtung niemals, wonach sie suchen könnten oder suchen sollten", Janich 1992, 182.

⁹⁹⁸"Die Natur spricht von sich aus überhaupt nicht, sondern muß durch den sprechenden und handelnden Naturforscher zur Sprache gebracht werden" Janich 1992, 21.

⁹⁹⁹"Den Übergang von der klassischen zur modernen Physik unseres Jahrhunderts findet man gelegentlich so gekennzeichnet, daß sich die Physik -im Rahmen empirischer Forschung immer mehr in Konflikt mit den Grundannahmen Newtons geratend- auf ihre Grundlagen besinnt und dabei die Rolle des Beobachters entdeckt", Janich 1992, 165; "Auch der vielleicht für die Physik noch wichtigere Umbruch von der deterministischen zur Quantenphysik kann als Berücksichtigung des Beobachters in der experimentellen Forschung interpretiert werden", Janich 1992, 166.

¹⁰⁰⁰"Die in dieser Hinsicht naive Klassische Physik wird dadurch 'überwunden', daß die Relativistische Physik den physikalischen Beobachter, der z. B. Länge und Dauer mißt, in die Theorie selbst einbezieht./ Ich übergehe hier, daß Einstein in diesem Ansatz gleichsam auf halbem Weg stehengeblieben ist, denn sein 'Beobachter' kann seiner Funktion nach durch eine Maschine ersetzt werden, die Meßdaten sammelt, und ist damit keineswegs konzipiert als ein Mensch, der nach Zwecken handelt. Dies aber muß jeder Physiker sein, der seine Instrumente kompetent benützt und dabei stets zu unterscheiden hat zwischen Meßdaten, die empirische Resultate darstellen, und solchen, die lediglich eine Fehlfunktion seines Meßinstrumentes sind", Janich 1992, 87; "Zusammenfassend muß man dem verbreiteten, an die Physik unseres Jahrhunderts anschließenden Wissenschaftsverständnis den Vorwurf machen, daß es das Niveau selbst in der Alltagssprache vorfindlichen Differenzierungen des Beobachtungsbegriffs nicht erreicht hat, sondern durch unbegründete philosophische Reduktionismusprogramme zur empiristischen Einäugigkeit gelangt ist", Janich 1992, 167.

independente litzatekeen jakintza baten bilaketa asmo teologiko gisa egotziz¹⁰⁰¹, eta aurkako bere jarrera defendatzean Kantengana joz gainera¹⁰⁰². Profotifikaren kritika asko gizakiatik independente den zientzia baten asmo horretatik sortzen dira¹⁰⁰³, baina aurrerago kritika hauen desegokitasuna nabarmenduko dela uste dut.

Profotifika teoria emakorra den arren, nik beste alde batetik kritikatu nuke. Tresnen base metodikoarekin jokatzeko duen teoria batek ez du apenas ezer aipatzen tresna horiek egiten eta erabiltzen dituen subjektuari buruz. Zientzia ekimen bat bada, zientzilari ekile horren ekimenaren baldintzak aztertu beharko dira. Bestela, hutsune bat uzten dugu oinarritzapenean. Eta baldintza nagusienetakoa bere higikortasuna da, Kantengan ikusi dugun gisa¹⁰⁰⁴. Horregatik, honera arte esandakoa azterketa transzendental batekin osatu behar dugu, oinarri irmo bat lortu nahi badugu.

5. Philosophia transcendentalis

Fisikarako sarreretan espazioaren hiru dimentsio eta denbora aurreuposatzen dira higiduraren deskribapena egin ahal izateko (erlatibitatean azken honen erabilpen matematikoak beste hirurekin berdintzen badu ere, argi dago denbora ezin dela espazioaren laugarren dimentsio batera murriztu). Oinarritzko kontzeptu fisikoen artean, bestetatik deribatu ezin daitezkeen artean, alegia, bi hauek leku berezia dute, oro har higidurarekin zerikusia dutelako; masa, elektrizitatea, tenperatura eta argiaren intentsitatea, berriz, ezaugarri fisiko konkretuei dagozkie. Fisikarako sarrera hauetan bi oinarritzko kontzeptuen definizioz bilatzea alperrikakoa da. Ematen dena, beren neurria eta estandarrak dira, orain gainera maila atomikoko prozeduretaraz joz.

¹⁰⁰¹"Para la ciencia de Laplace, que sigue siendo en muchos aspectos nuestra ciencia, una descripción es tanto más objetiva cuanto más elimina al observador, cuanto más se realiza desde un punto de vista exterior al mundo - es decir, de hecho, desde un punto de vista divino al cual el alma humana, creada a la imagen de Dios, tiene acceso desde los primeros tiempos", Prigogine 1983b 55-6.

¹⁰⁰²"Nuestro diálogo con la naturaleza sólo logrará éxito si se prosigue desde dentro de la naturaleza", Prigogine 1983a 28; "El punto de partida de Kant, la tesis del papel activo representado por el hombre en la descripción científica, lo aceptamos sin ninguna reserva", Prigogine 1983b 94.

¹⁰⁰³Horrela, Böhmek: "Seit dem 19. Jahrhundert hat es sich aber herausgestellt, daß die Naturwissenschaft sich im zunehmenden Maße auf Phänomenenbereiche bezog, die den menschlichen Sinnen überhaupt nicht zugänglich sind. Eine durch diese Erfahrung angeregte Reflexion auf das Wesen der Naturwissenschaft zeigt, daß naturwissenschaftliche Erfahrung sich von anderer gerade dadurch unterscheidet, daß, was ihr als gegeben gilt (als Daten), von der menschlichen Sinnlichkeit unabhängig sein muß. Ihre Objektivität gründet gerade darin, daß man das Urteil, ob ein Phänomen (ein Effekt) vorliegt oder nicht, einem Apparat überlassen kann. Sicherlich ist es auch für die Naturwissenschaft immer noch nötig, schließlich mit Hilfe der menschlichen Sinne den Apparat abzulesen; d. h. man muß feststellen, ob der Apparat anzeigt oder nicht. Die Art von Sinnlichkeit, die zur Ablesung eines Apparats notwendig ist, hat aber nichts mit einer sinnlichen Erfahrung des in Frage stehenden Phänomenbereichs zu tun", Böhme 1976, 222.

¹⁰⁰⁴Janich-ek behin aipatzen du higiduraren arazoa. Hau substantzia bihurtu beharrean subjektuarekin harremanean ulertu behar dela modu egokian aipatzen du, baina analisis ez du gehiago sakontzen: "Hierfür ein simples Beispiel: Wer in definitorischer Absicht bei den Fragen ansetzt, was 'Bewegung' sei, und ob Bewegung 'existiere', hat schon übersehen, daß er sich selbst und Dinge in der Welt bewegen kann", Janich 1992, 150.

Era berean, ez da ematen koordinatu kartesiarren esplikaziorik. Horrela, nabarmena da honek suposatzen duen ardatzen jarraitasunean zenbaki errealean egitura iadanik inongo arrazoiketarik gabe onartzen dela.

Janichek, aitzitik, hiru-dimentsiotasunaren froga bat ematen du, prototipoetatik aske den erreproduktzio-garritasunean oinarrituz: gorputz bakoitza era jarraian zehazki hiru aldiz erdibi daiteke¹⁰⁰⁵. Horrela, hiru-dimentsiotasuna ez litzateke munduaren berezko ezaugarri bat, baizik bere ezagutza objektiboaren baldintza bat, ezagutza hori teknika batez baliatuz zehatzagoa eta ziurragoa bihurtzen den neurrian¹⁰⁰⁶. Ideia hau nolabait Aristotelen iadanik ikusten du Janich-ek, honek ere subjektu baten beharra ikusten duen neurrian¹⁰⁰⁷. Horrela, Janich-ek behin eta berriz dio angelu zuzena asmapen kulturala dela.

Matematikan gauzak gehiago zehazten dira espazio metrikoa eratzeko asmoa dela-eta, hau da, neurketak egitea ahalbidetzen duen espazioa. Horretarako distantziaren kontzeptua sartu behar da, edo bestela esanda Pitagorasen teorema: $pp' = \sqrt{(x-x')^2 + (y-y')^2 + (z-z')^2}$. Baina hau ere ez da nahikoa. Gauzak zehazkiago oinarritzen saiatzen direnak bektoreak sartzen dituzte, higiduraz hitz egitean magnitude eskalarrak nahikoa ez baitira. Bektoreek magnitudeaz gain norabidea jasotzen dute bere baitan. Horren bidez espazio bektorialak defini daitezke. Hau oinarri ortogonaleko espazioa da: magnitudez unitatea duten hiru bektore independenteko oinarria ezartzen da, horrela beste edozein beren konbinazio gisa definitua geratzen dela. Honek koordinatu kartesiarren finkatzen ditu, perpendikularrak diren hiru ardatzekin, baina bertan neurketa eta norabidea definitzeko oinarriak gaineratuz¹⁰⁰⁸. Eremita grabitatorioa edo elektromagnetikoaz hitz egin nahi bada, erabat beharrezkoa da puntu bakoitzari bektore bat ezartzen dion eremu bektoriala.

Aipatutako guztia higiduraren deskribapenaren mesedetan finkatua izan bada, honen norabidea, intentsitatea, eta abar determinatzeko, geratzen den galdera zera da: nork determinatzen ditu norabideak eta egiten ditu neurketak? Erantzunaren azterna bat ere aurkitu dugu:

"Higidura aztertzea, azken batez, aldiune desberdinetan gorputz batek erreferentzia sistema batean dituen posizioak adieraztea da. Beraz, oinarri-oinarrian bi neurketa-motaren beharra ageri da: denboraren neurketa (aldiunea) eta distantziaren neurketa (posizioa). Eta noski, neurketa horiek egiten

¹⁰⁰⁵"Hauptsatz der Dimensionslehre: Jeder Körper kann genau dreimal strikt fortgesetzt halbiert werden", Janich 1989, 166.

¹⁰⁰⁶"Dabei kann aber gerade das diffuse, hier noch ungeklärte Gefühl, die Dreidimensionalität des Raumes gelte mit Notwendigkeit, einem ersten Fingerzeig geben, daß es gerade nicht *Eigenschaften der Außenwelt*, sondern in der menschlichen Disposition und Praxis liegende *Bedingungen des Erkennens* der Außenwelt sind, die hier eine Lösung versprechen", Janich 1989, 205; "Die Dreidimensionalität des Raumes ist mit anderen Worten die Kulturleistung des Menschen, die Welt durch Erfindung und technische Herstellung von Ebenen und rechten Winkeln auf eine höhere Stufe der Erkennbarkeit zu heben", Janich 1989, 218; "Die Dreidimensionalität des Erfahrungsraumes ist also ein Resultat der Bemühung, eine eindeutige, jederzeit begrifflich und technisch verfügbare Beschreibungsmöglichkeit der Form, der Größe und der Lage von Körpern verfügbar zu machen", Janich 1989, 220.

¹⁰⁰⁷"Wenn Aristoteles von der Teilbarkeit spricht, so ist damit immer auch eine teilende Instanz ins Auge gefaßt; der Mensch teilt Längen, Dauern und Bewegungen", Janich 1980, 251.

¹⁰⁰⁸"Auf äußere Erscheinungen läßt sich Mathematik deshalb anwenden, weil äußere Erscheinungen denselben Gesetzen ihrer Verbindung gehorchen wie Vektoren", Hoppe 1969, 54.

dituen pertsonai hipotetiko eta ideal bat egon beharko da, behatzailea, alegia. Osagai hauen multzoa da erreferentzi sistema"¹⁰⁰⁹.

'Pertsonai hipotetiko eta ideal' hori nik subjektu transzendentala deituko nuke, eta koordinatuen jatorrizko (0,0,0,0) puntuan jartzen dut¹⁰¹⁰. Transzendentalki hitz eginez, harmena espazioa eta denboraren idealtasunak osatzen dute, hau da, subjektua ez da lehendik nolabait dagoen espazio-denbora batean kokatzen, baizik eta berak ezartzen ditu objektuekin ditugun hartuemanen baldintza subjektibo gisa¹⁰¹¹. Nolabait esateko, subjektuak harmen den aldetik eremu konkretu bat sortzen du espazioa eta denboraren bitartez, eta bera koordenatu kartesiar horien jatorria da¹⁰¹².

Eremu horretan fenomenoak agertzen dira puntu gisa. Baina noski, hor agertzen dena ez dira puntuak soilik, baizik aldatzen dihoazen formak, eta hauek funtzio jarraien bidez definitzen dira. Hauek zenbaki puntualetatik forma jarraikorretara igarotzea ahalbidetzen dute¹⁰¹³. Kantengan kategoriak dira funtzioak, kontzeptu hau Euler-engandik jaso eta Filosofiara ekarri zuen. Horregatik esan daiteke espazio-denboran agertzen diren puntuak adimenak bere funtzioen bidez forma konkretuetan biltzen dituela.

Lerro baten definizioa eta bere marrazketa ez da puntuen ilada hutsa, subjektuak puntuak lotu eta lerroa egin behar du, forma hori eraiki behar du, eta hori egin badezake, subjektu bera puntu soil hutsa ez delako izango da. Horrela, bada, pentsatzean datu enpiriko hutsa gainditzen da, hau ekintza baita¹⁰¹⁴. Datu hutsa gainditzea subjektua higitzea da, ekintzan jartzea. Subjektua jatorriz sintetikoa dela esatea zera zehaztea da, ardatzen erdigunea higitzea dela eta beti aukera dezakeela datuekiko duen kokalekua. Esperientziaren izen bertan dago esanahi sakon hau, '**Erfahrung**', bere jatorrizko aditzak, '**er-fahren**', bidaian jartzea adierazten baitu, higiduran jartzea¹⁰¹⁵. Hemen Kantek bere liburu nagusiari buruz behin idatzi zuena ere aipa daiteke:

¹⁰⁰⁹Fisika I, EUE, 1984, 41.

¹⁰¹⁰"Daher ist der Raum nicht ein Act der Apprehension des Gegenstandes der Anschauung denn er ist an sich kein Ding oder Sache und die Stellen in demselben als Punkte können nicht coacervirt werden: sie fließen alle in Einen Punct zusammen", AA XXII 36, 30-37, 3.

¹⁰¹¹"Die Gesetze des Geschehens *ohne* alle Relation zu irgend einem Bezugssystem erkennen zu wollen, ist ein unvollziehbares und widerspruchvolles Verlangen: - nur das kann gefordert werden, daß der Inhalt dieser Gesetze von der Individualität des Bezugssystems nicht abhängig ist", Cassirer 1921, 42.

¹⁰¹²"On voit immédiatement en quoi consiste l'hypothèse particulière de l'intuition géométrique telle que la conçoit Kant: elle suppose un espace vectoriel, où la base est formée de 3 vecteurs arbitraires non coplanaires. Et la définition analytique est simple: il définit l'ensemble des vecteurs que forment un système linéaire indépendant d'ordre 3", Vuillemin 1987, 54.

¹⁰⁹¹"Das Individuum soll sich nicht ganz vervollkommen, sondern die ganze Menschengattung. Das hat die Natur gewollt", AA XXVIII-2.2, 1288. Aurrekoari lotuz: "Die Moral ist also eine abgesonderte Wissenschaft, eine praktische und reine Vernunftwissenschaft, die keinen principien von Gott und von einer anderen Welt voraussetzt", AA XXVIII-1, 383. Gainera, ezin du erantzun, jaioberri edo ergelen kasuan hilezkortasunak zer esanahi izan ote dezakeen.

¹⁰⁹²"Das Princip des Moralischen Gefühls. Dieses ist null und nichtig", AA XXIX-1.1, 625.

¹⁰⁹³"Das moralische Gefühl ist die innere Achtung fürs Gesetz", AA XXIX-1.1, 626.

legeari beste bultzatzailerik gabe jarraitu behar zai¹⁰⁹⁴. Eta zehaztu egiten du legemailea ez dela beste norbait, baizik gure nahimenaren orokortzea bera¹⁰⁹⁵, inperatiboak duen zentzu berdinean.

Kritikako bigarren argitalpenean, etikako bi lan handien tartean burutua, zera esango du Kantek, ezagutza gaintitu behar izan zuela fedeari lekua egiteko¹⁰⁹⁶. Hala ere, sarri erabiltzen den esaldi honen azpian zer gordetzen den ikusi beharko dugu, hitzetan geratu beharrean¹⁰⁹⁷.

Juzgamenaren kritikako azken zati osoa, 85. paragrafotik aurrera, Jainkoaren arazoaren inguruan dabil. Hemen argumentu ontologikoa laburki aipatzen du Kantek eta jarrera berdina du beraz. Hala ere, teologia fisikoa eta moralaren bereizketa da arretagune nagusia orain¹⁰⁹⁸. Teologia fisikoaren emaitza da, helburuen kontsiderazioak munduaren azken sortzaile bat frogatzen duela, baina hau ezin daitekeela Jainkoarekin berdindu. Honekin arazoak sortzen dira berehala. Alde batetik, lehenengo Kritikan iadanik aipatu zuen sorkuntzaren esperientziarik ezin daitekeela egin¹⁰⁹⁹. Gainera, frogapen honetan funtsezkoa da azken helburu hori adimendua izatea¹¹⁰⁰, baina badirudi ahaztu egin duela orri batzuk lehenago hori antropomorfismo hustzat atzera bota duela¹¹⁰¹. Kant berak, gainera, ez du bide honen estima handirik, teologia etikoa ere geratzen zaiolako.

Honen edukia bigarren Kritikako dialektikan aurkeztutakoaren berdina da. Baina hemen postulatuez hitz egiten duen une bakarrean inongo koherentziarik gabeko pentsamendua aurkezten du, etikaren oinarria bera postulatutzat baitu¹¹⁰²; "**postulieren**" aditza zentzu oso orokorrean pare bat aldiz besterik ez du erabiltzen, askatasuna, hilezkortasuna eta Jainkoa batera hartzean ere¹¹⁰³ ez du erabiltzen bere zentzu sistematikoan. Jainkoaren izateaz hitz egiterik ez dagoela ere aipatzen du¹¹⁰⁴. Hau eragiten duen arazoa ere aurreko berdina da:

¹⁰⁹⁴"Der Geist des Gesetzes ist, wenn die Pflicht selber den Bewegungsgrund unsrer Handlungen ausmacht. (...) Achtung fürs Gesetz ist der Bewegungs Grund zur Pflicht", AA XXIX-1.1, 629; "Der menschliche Wille als frei, kann nicht von Triebfedern bestimmt werden, denn alsdann wäre es nicht frei...", AA XXVII-2.2, 1326.

¹⁰⁹⁵"Es scheint, als ob in der Pflicht der Wille eines Gesetzgebers zum Grunde liege nichts was man thut nach seinem eigenen Willen, sondern nach dem Willen eines andern. Des andern Wille ist aber nicht der Wille eines andern Wesens; sondern nur unser eigener Wille, sofern wir ihn allgemein machen und als allgemeine Regel ansehen. Ein solcher Wille verfährt als allgemeiner Wille, nicht als Privatwille", AA XXIX-1.1, 627.

¹⁰⁹⁶"Ich mußte also das W i s s e n aufheben, um zum G l a u b e n Platz zu bekommen", B XXX. Ideia hori aurreko urtean aurreratu zuen: MA, AA IV 477.

¹⁰⁹⁷"¿Tiene la crítica verdaderamente como objetivo el hacer lugar a la fe? No, sin ninguna duda. La crítica tiene como objetivo determinar la posibilidad, la extensión, los límites del conocimiento a priori. Hacer lugar a la fe puede ser el objetivo de Kant, pero no es el objetivo de su obra", Verneaux 1978, 257.

¹⁰⁹⁸Bereizketa hau lehen Kritikan iadanik egin zuen, A632/B660.

¹⁰⁹⁹"...Schopfung, welche als Begebenheit unter den Erscheinungen nicht zugelassen werden kann, indem ihre Möglichkeit allein schon die Einheit der Erfahrung aufheben würde", B251/A206.

¹¹⁰⁰"Die Natur (...) als das Produkt eines Verstandes", KU, AA V 441, edo "Das Dasein einer verständigen Weltursache", KU, AA V 447.

¹¹⁰¹"So ist alle unsere Erkenntniß von Gott bloß symbolisch, und der, welcher sie mit den Eigenschaften Verstand, Wille u. s. w., die allein an Weltwesen ihre objective Realität beweisen, für schematisch nimmt, geräth in den Anthropomorphism", KU, AA V 353.

¹¹⁰²KU, AA V 470. Horren aurka, arrazoiz, KpV, AA V 132 orrian espreski esaten du moralaren printzipioa legea dela eta ez postulatu bat.

¹¹⁰³KU, AA V 474.

¹¹⁰⁴KU, AA V 456.

betebarra egiten badugu soilik izango gara zoriontsu, eta beraz, betebeharrara egin behar dugu. Zorionaren emaitza benetan lortuko dela ziurtatzeko kanpoko bideak ez dute etikan baliorik, aurreko oinarri autonomia apurtzen baitute. Batzutan hori garbi azaltzen du Kantek (bere Filosofiaren muin indartsuak bultzatzen du azterna dogmatikoak uztera), baina gero berehala bide faltsutik ere jotzen du¹¹⁰⁵.

Urte batzuk lehenago hasi zen gizakia erdigunean jartzeko prozesua ezin gelditzekoa da eta pixkanaka bere leku sistematikoa ere irabazten ari da:

"Naturak nahi izan du gizakiak bere ordena mekanikotik gora doan guztia berak sortzea eta beste zorion edo betegintzarrereren partaide ez egitea, berak instintuetatik aske bere arrazoimen propioz sortutakoarena baino"¹¹⁰⁶.

Gainera, bukatzeko, bigarren Kritikan iadanik aipatutako¹¹⁰⁷ eta ondoren hainbatetan errepikatzen duen erlijioaren definizioa ematen du: **"Era honetara teologiak erlijioara darama, hau da, gure betebeharrak Jainkoaren agindu gisa ezagutzera"**¹¹⁰⁸. Beste une batzutan azpimarratuko duen eran, honek ez du esan nahi Jainkoak sortzen eta ematen digula legea, garbi dago hori, baina orduan zer zentzu izan dezake erlijioaren definizio horrek? Kant berak iadanik erlijioa moralaren eremura murrizten dituen testuak idazten ditu¹¹⁰⁹.

1790eko hamarkadako lehen urtetako lekzioetan eduki zaharren ondoan Jainkoa gauzatzat ("**Ding**") hartzea topatzen dugu, baina aldi berean Jainkoa lege moralaren pertsonifikazio soil gisa aurkezten du Kantek¹¹¹⁰. Bestalde, erlijioa etikoki hobetzearekin berdintzen jarraitzen du¹¹¹¹.

¹¹⁰⁵"... weil, obzwar die Nothwendigkeit der Pflicht für die praktische Vernunft wohl klar ist, doch die Erreichung des Endzweckes derselben, sofern er nicht ganz in unserer Gewalt ist, nur zum Behuf des praktischen Gebrauchs der Vernunft angenommen, also nicht so, wie die Pflicht selbst, praktisch nothwendig ist", KU, AA V 470-1; "... weil Gesetze, die nicht die Vernunft ursprünglich selbst giebt, und deren Befolgung sie als reines praktisches Vermögen auch bewirkt, nicht moralisch sein können", KU, AA V 485, azken orrian. Baina berriro, era ulergaitzean: "Allein die Absicht, den Endzweck aller vernünftigen Wesen (...) zu befördern, ist doch eben durch das Gesetz der Pflicht auferlegt", KU, AA V 471oh.(1).

¹¹⁰⁶"Die Natur hat gewollt: daß der Mensch alles, was über die mechanische Anordnung seines thierischen Daseins geht, gänzlich aus sich selbst herausbringe und keiner anderen Glückseligkeit oder Vollkommenheit theilhaftig werde, als die er sich selbst frei von Instinct, durch eigene Vernunft, verschafft hat", Idee, AA VIII 19. Beste instantziarik behar ez duen gizakiaren erdikotasun hori Juzgamenaren Kritika berako Grundatzean, KU, V 448, azken helburua gizakiarekin berdinduz, eta ondoren Theodicee, AA VIII 258 oh. ere bai.

¹¹⁰⁷KpV, AA V 129.

¹¹⁰⁸"Auf solche Weise führt eine Theologie auch unmittelbar zur Religion, d. i. der Erkenntniß unserer Pflichten als göttlicher Gebote", KU, AA V 481. Erlijio kristauaren eredutza aipatzen du (KU, AA V 472 oharra), baina beti ere arrazoimenaren nagusitzapean hurrengo lanetan oraindik indartsuago azpimarratuko duen modura.

¹¹⁰⁹"Religion, wo gewiß ein jeder die Regel seines Verhaltens aus sich selbst hernehmen muß, weil er dafür auch selbst verantwortlich bleibt", KU, AA V 283. Baita ere KU, AA V 460.

¹¹¹⁰"Denn er[Gott] ist gleichsam das moralische Gesetz selbst, aber personificirt gedacht", AA XXVIII-2.2, 1076; "Denn Gott ist gleichsam das personifizierte moralische Gesetz selbst", AA XXVIII-2.2, 1185.

¹¹¹¹"Unsere Relation, in der wir zu Gott stehen, wird geändert, wenn wir uns bessern", AA XXVIII-2.2, 1039.

Erlijioa arrazoimen soilaren mugapean liburuaren osaketa eragin zuen zentsurarekin izandako arazoak ez du baliorik zuzenean eztabaidatzen ari naizen gairako¹¹¹². Hala ere, testu honen jaiotzaren testuinguruak Kantek hitzaurrea modu sarkorrean hastea esplikatu dezake:

"Moralak, gizakia, hau da, askea izateagatik bere arrazoimenaren bitartez baldintzagabeko legeri lotuta dagoen izakiaren kontzeptuaren gainean oinarritzen den heinean, ez du behar ez bere gaineko beste izaki baten ideia, bere betebeharra ezagutzeko, ezta legea bera ez den beste bultzatzaile ere, hura betetzeko. (...) Bere baitan, beraz, ez du erlijiorik behar, baizik arrazoimen huts praktikoari esker, bera bakarrik nahikoa da"¹¹¹³.

Hala ere, Kantek berehala murrizten du jatorri erradikal hau. Piska bat aurrerago horrela dio:

"Baina moraletik helburu bat sortzen da; bada, ezinezkoa da arrazoimenari berdina izatea datorren galdera nola erantzuten den: z e r e m a i t z a d u e n g u r e j o k a b i d e z u z e n a k e t a z e i n h e l b u r u t a r a z u z e n d u a h a l i z a n g o d u g u n g u r e e k i m e n a, h a u g u r e e s k u e t a n e z d a g o e l a s u p o s a t u z, h a r e k i n g u t x i e n e z b a t e t o r t z e k o"¹¹¹⁴.

Ez dut ulertzen nondik datorren helburu horren beharra legearen orokortasuna eta gizakia bera helburutzat izatea lege gisa baditugu iadanik. Hau dena etikaren oinarria kontraesaten duen zabalpen ez kritikoaren emaitza dela argitzen da zera esaten duenean: **"lege moralak nahi baitu, guretzat ongi gorena dena lortzea"**¹¹¹⁵.

Gainera, sarrerako lehen zati hau erlijioaren beharra azpimarratuz bukatzen du, noski beti moralaren nagusigoaren menpe, baina luzapen hori ulertu ezin daitekeelarik:

"Moralak, beraz, halabeharrez zuzentzen du erlijiora, honen bidez gizakitik kanpo dagoen legemaile moral boteretsu baten ideia zabaltzen da, eta honen nahimenean era berean gizakiaren azken helburua izan daitekeen eta izan behar duena (munduaren sorkuntza) dago"¹¹¹⁶.

¹¹¹²Baina Kantengan izan zuen eragina, ondorengo lekzio batetik hartutako testuan ikus daiteke: "Es ist demnach Unrecht, im Staate zu verbiethen, daß Menschen Bücher schreiben, und etwa Z.B. über Religionssachen urtheilen sollen. Denn da wird ihnen das einzige Mittel genommen, das ihnen die Natur gegeben, nämlich ihr Urtheil an fremder Vernunft zu prüfen. Die Freyheit im Stillen zu denken geben die Leute, die so despotisch tyrannisiren. Aber das ist nur das Schlimmste, daß Sie das Niemand wehren können. Denken kann ich immer, was ich will", AA XXIV-2, 874-5.

¹¹¹³"Die Moral, so fern die auf dem Begriffe des Menschen, als eines freien, eben darum aber auch sich selbst durch seine Vernunft an unbedingte Gesetze bindenden Wesens, gegründet ist, bedarf weder der Idee eines andern Wesens über ihm, um seine Pflicht zu erkennen, noch einer andern Triebfeder als des Gesetzes selbst, um sie zu beobachten. (...) Sie bedarf also zum Behuf ihrer selbst (...) keineswegs der Religion, sondern, vermöge der reinen praktischen Vernunft, ist sie selbst genug", Rel., AA VI 3.

¹¹¹⁴"Aber aus der Moral geht doch ein Zweck hervor; denn es kann der Vernunft doch unmöglich gleichgültig sein, wie die Beantwortung der Frage ausfallen möge: w a s d a n n a u s d i e s e m u n s e r m R e c h t h a n d e l n h e r a u s k o m m e , und worauf wir, gesetzt auch, wir hätten dieses nicht völlig in unserer Gewalt, doch als auf einen Zweck unser Thun und Lassen richten könnten, um damit wenigstens zusammen zu stimmen", Rel., AA VI 5. Ideia hori oharrean defendatzen du, AA VI 7oh.

¹¹¹⁵"... weil das moralische Gesetz will, daß das höchste durch uns mögliche Gut bewirkt werde", Rel., AA VI 5.

Erljioaren hirugarren zatian zenbait ideia interesgarri eta gehigarri topatzen ditugu, aurreko arazoak erabat gainditzen ez badituzte ere. Hemen gizakiak lor dezakeen goren askatasuna, legeari maitasuna eta bere hobekuntza dira¹¹¹⁷. Eta hau lortzeko bidea politika izango da: ongi goren soziala edo errepublika unibertsala lortu behar da¹¹¹⁸. Ideia hau oinarri etikoekin erraz elkargarri gisa azaltzen bada ere, gero azken unean horrek ere Jainko bat eskatzen duela gaineratzen du Kantek, banakakoak dena ezin duelako lortu. Eta arrazoiketa honekin batera berriro oinarri etikoaren autonomiaren aurkako ideiak agertzen dira¹¹¹⁹.

Liburu honen laugarren zatiaren hasieran Jainkoaren transzendentzia onartzeko itxura duten testu batzuk daude, baina berehala erlijioa moralaren ezaugarria zen unibertsaltasunarekin lotzen du eta honela dio: "**Egin ezazu betebeharrekoa bere balioaren estimagatik eta ez beste edozein bultzatzailegatik, hau da, maita ezazu Jainkoa (betebehar oren legemailea) denaren gainetik**"¹¹²⁰. Beraz, betebeharra egitea eta Jainkoan sinistea gauza bera bada, nahikoa garbi dago bigarrena hitz egiteko era bat besterik ez dela, baina ez etikaren gainean dagoen zerbait gehigarria¹¹²¹. Hori, ondoren esaten duen beste gauza batek indartsuki baieztatzen du, hau da, "**guk guretzako Jainkoa egiten dugula**"¹¹²². Han hemenka, azken finean, erlijioa etikara murrizten duten testu ugari daude¹¹²³. Oso interesgarria da apaiz europar eta amerikarrak txaman eta indiarrek berdintzen dituen pasarteak. Forman oso ezberdinak badira ere, edukia bera da, Jainkoa gizakia hobeago egiten ez duen zerbaiten zerbitzuan jartzen baitute¹¹²⁴. Aurrerago pietatea eta bertutea bereizten ditu: bigarrenak ez du Jainkoaren ideiarik behar, lehenengoan soilik agertzen da bigarrenak arrakasta izango duela ziurtatzeko ideia gisa¹¹²⁵.

¹¹¹⁶"Moral also führt unumgänglich zur Religion, wodurch sie sich zur Idee eines machthabenden moralischen Gesetzgebers außer dem Menschen erweitert, in dessen Willen dasjenige Endzweck (der Weltschöpfung) ist, was zugleich der Endzweck des Menschen sein kann und soll", Rel., AA VI 6.

¹¹¹⁷"Daß er f r e i , daß er 'der Knechtigkeit unter dem Sündegesetz ent schlagen wird, um der Gerechtigkeit zu leben', das ist der höchste Gewinn, den er erringen kann", Rel., AA VI 93; "Das höchste, für Menschen nie völlig erreichbare Ziel der moralischen Vollkommenheit endlicher Geschöpfe ist aber die Liebe des Gesetzes", Rel., AA VI 145; "... nämlich die moralische Besserung des Menschen, den eigentlichen Zweck aller Vernunftreligion ausmacht", Rel., AA VI 112.

¹¹¹⁸"Hier haben wir nun eine Pflicht von ihrer eignen Art nicht der Menschen gegen Menschen, sondern des menschlichen Geschlechts gegen sich selbst. Jede Gattung vernünftiger Wesen ist nämlich objectiv, in der Idee der Vernunft, zu einem gemeinschaftlichen Zwecke, nämlich der Beförderung des höchsten als eines gemeinschaftlichen Guts, bestimmt", Rel., AA VI 97.

¹¹¹⁹Rel., AA VI 98.

¹¹²⁰"Thue deine Pflicht aus keiner andern Triebfeder, als der unmittelbaren Werthschätzung derselben, d. i. liebe Gott (den Gesetzgeber aller Pflichten) über alles", Rel., AA VI 160. Baina aurrerago AA VI 119ko pasarteak berriz ere Jainkoa "**Triebfeder**" gisa agertzen da.

¹¹²¹"Es giebt keine besondere Pflichten gegen Gott in einer allgemeinen Religion", Rel., AA VI 154oh.; "Dieser Gott in uns ist der vor dem sich alle Kniee beugen", Vor. Rel., AA XXIII 108; "Religion ist nichts anders als Tugend", idem, 122. Eta behin betikoa: "Würden wir von aller Religion abstrahiren so würde die Moral ihren sichern Gang gehen. Wir würden wissen was wir zu thun haben ohne uns ums Schicksal zu bekümmern. Jetzt da wir um dieses besorgt sind u. deshalb einen Gott annehmen kommen wir in neue Schwierigkeiten", idem, 119.

¹¹²²"... denn da m a c h e n w i r u n s e i n e n G o t t", Rel., AA VI 168. Oharreen ideia hau argitzen du. Hau lehenago idatzi duen ideia bati ondo dagokio: "Wir begreifen nur, was wir selbst machen können", Refl. 2398, AA XVI 345.

¹¹²³Rel., AA VI 104; 157; "Die wahre, alleinige Religion enthält nichts als Gesetze, d. i. solche praktische Principien, deren unbedingter Nothwendigkeit wir uns bewußt werden können", Rel., AA VI 167.

¹¹²⁴Rel., AA VI 176.

¹¹²⁵"Die Tugendlehre aber besteht durch sich selbst (selbst ohne den Begriff von Gott), die Gottseligkeitslehre enthält den Begriff von einem Gegenstande, den wir uns in Beziehung auf unsere Moralität, als ergänzende Ursache unseres

Garaiko lekzioetan bultzatzaileen beharrik ezaz, Jainkoa legea berarekin lotzeaz eta **forum divinum** den **forum internum** batez hitz egiten du Kantek¹¹²⁶.

Garai honetan idatzitako baina bukatu gabe geratu zen eta hil ondoren soilik agertu zen Metafisikaren Aurrerabideak eskuizkribuan Jainkoa eta hilezkortasunaren ideiak geuk sortzen ditugula aipatzen du berriro¹¹²⁷.

Erlijioa testuaren inguruan zentsurarekin arazoak izan zituen arren, ondoren oraindik beste artikulua bat idatzi zuen Kantek, "Gauza guztien bukaera", probokazio hutsa agintarientzako. Erantzuna erlijioari buruzko idatziak sortzeko eta erlijioaz irakasteko debekua izan zen. Artikuluan puntu garrantzitsu bat dago: denboraren bukaerak beste mundu baten ahalbidea ere badakar, baina hor ez dago aldaketarik, denborarik ez baitago. Baina, orduan, denbora gabeko hilezkortasunak ezin du izan ongi gorena lortzeko baldintza, ez baitu hobekuntza moralerako aukerarik ematen. Eta gainera, zera esaten du zuzenki: "**P e n t s a t z e a k , ordea, erreflexionatze bat jasotzen du, zeina denboran soilik gerta daitekeen**"¹¹²⁸. Beraz, hilezkortasunaz hitz egiteko biderik ez da geratzen. Hemen zehazten hasten den gai honek 1784ko artikuluan bere aurrekaria izan zuen. Bertan hobekuntza sozio-politikoak gizataldeari lotzen zion Kantek, inolaz ere ez gizabanakoari¹¹²⁹.

1795eko pakeari buruzko testuan 1793tik aurrera landuko duen ongi gorenaren zentzu berria agertzen da, Erlijioan eta urte berdineko beste testu laburrean argitzen zen ideia¹¹³⁰. Orain ongi gorenak ez du transzendentziarako bidea irekitzen, baizik gizartean lortu behar den helburua da. Horregatik, "**ongi goren politikorantz, betiereko pakerantz hurbilketa jarraikorrantz**"¹¹³¹ hitz egiten du orain.

Unvermögens in Ansehung des moralischen Endzweck vorstellen", Rel., AA VI 183. Harrigarria benetan Jainkoa aipatzeko "**Gegenstand**" hitza erabiltzea!

¹¹²⁶"Handle nicht nur nach dem Imperativ des Gesetzes, sondern übe die Handlung auch bloß deshalb aus, weil die Triebfeder deiner Handlung das Gesetz selbst ist", AA XXVII-2.1, 541; "Es ist nothwendig, daß ein solches Wesen über alle Verbindlichkeit, mithin über alle Pflichtgesetze erhoben gedacht wird, das selbst nicht unterm Gesetz steht, mithin kann er nur das Gesetz selbst seyn, und da das moralische Gesetz unter der Idee von Gott personificirt wird, nur dieser als höchster moralischer Gesetzgeber aller Gesetze", idem, 581; "Gott ist das Gesetz selbst", idem, 713; "Dies forum ist internum sive conscientia, da die inneren Handlungen keinem äußerlichen Richter bekannt werden können, und auch keinen äußerlichen Richter haben, sondern nur vom Handelnden selbst beurtheilt werden können", idem, 572.

¹¹²⁷"In praktischer Rücksicht aber machen wir uns diese Gegenstände selbst", AA XX 299. "**Gegenstand**" hitzaren erabilera harrigarria berriro! Aurrerago, AA XX 296-7 antzeko testuan "**Ding**" erabiltzen du, eta benetan existitzen ote den galdetzen du.

¹¹²⁸"... D e n k e n aber ein Reflectiren enthält, welches selbst nur in der Zeit geschehen kann", Ende, AA VIII 334.

¹¹²⁹"A m M e n s c h e n s o l l t e n s i c h d i e j e n i g e n N a t u r a n l a g e n , d i e a u f d e n G e b r a u c h s e i n e r V e r n u n f t a b g e z i e l t s i n d , n u r i n d e r G a t t u n g , n i c h t a b e r i m I n d i v i d u u m v o l l s t ä n d i g e n t w i c k e l n " , I d e e , A A V I I I 1 8 .

¹¹³⁰"Ich werde also annehmen dürfen: daß das menschliche Geschlecht (...) im Fortschreiten zum Besseren in Ansehung des moralischen Zweckes seines Daseins begriffen sei, und daß dieses zwar bisweilen u n t e r b r o c h e n , aber n i e a b g e b r o c h e n s e i n w e r d e " , G e m e i n s p r u c h , A A V I I I 3 0 8 - 9 .

¹¹³¹"... in continuirlicher Annäherung zum höchsten politischen Gut, zum ewigen Frieden", Frieden, AA VI 355.

1796ko artikuluan berri labur interesgarriak daude. Jainkoaren ideia norberaren ekintzaren menpe dagoela garbi azaltzen du Kantek¹¹³² eta ondoren lege morala jainkotzen du:

"Bere aurrean belaunikatzen gareneko Jainkosa gugan dagoen lege morala da bere maiestate kaltezinean"¹¹³³.

Gainera, arrazoimenaren lana aipatzen du, honek bere indarren bidez soilik lortu behar du bere egikaritzapena¹¹³⁴.

Orain Ohituren Metafisika aztertu nahi dut laburki, garai honetan Igarobideko lanak hasi baitira eta edukiek bi testuetan lotura oso estua izango baitute. Hasteko, gizakiak Jainkoarekin duen harremana daukagu, hura eskubide baina betebeharririk ez duen izakia izanik. Horri buruz hitz egitean, Jainkoa guk geuk sortzen dugun pentsamen-gauza emankortzat du¹¹³⁵. Azken saiakuntzetan berriro azalduko den gaia ere aurreratzen da hemen: Semeen jaiotzaz hitz egitean, askatasuna duen izaki baten sorkuntza ulertezina dela aipatzen du eta oharrean Jainkoak izaki askeak era berean nola sor ote ditzakeen galdetzen du, hori kontraesankorra ez litzatekeela argitzen saiatzen bada ere¹¹³⁶. Bestalde, Jainkoa inmanenteki ulertzeko prozesua aurrera doa. Une batean, oraindik gugandik ezberdina, nahiz barnekoa dela aipatzen badu ere¹¹³⁷, hurrengo orrian jainkotzearen bidea autoezagutzan dagoela zehazten du¹¹³⁸. Postulatuen arrastorik ez dago, eta alderantziz, etikaren objektibazio soziala azpimarratzen da. Gizakiak beste gizakienganako betebeharrak ditu soilik¹¹³⁹, Jainkoaren ideia geuk

¹¹³²"Aus dem moralischen Gesetz, welches uns unsere eigene Vernunft mit Autorität vorschreibt, nicht aus der Theorie der Natur der Dinge an sich selbst, geht nun der Begriff von Gott hervor, welchen uns s e l b s t z u m a c h e n die praktische reine Vernunft nöthigt", Ton, AA VIII 401oh.

¹¹³³"Die verschleierte Göttin, von der wir beiderseits unsere Kniee beugen, ist das moralische Gesetz in uns, in seiner unverletzlichen Majestät", Ton, AA VIII 405.

¹¹³⁴"Das Gesetz der Vernunft, durch Arbeit sich einen Besitz zu erwerben", Ton, AA VIII 393.

¹¹³⁵"... weil es eine t r a n s c e n d e n t e Pflicht sein würde, d. i. eine solche, der kein äußeres verpflichtendes Subject correspondirend g e g e b e n w e r d e n kann, mithin das Verhältniß in theoretischer Rücksicht hier nur i d e a l , d. i. zu einem Gedankendinge ist, was wir uns selbst, aber doch nicht durch seinen ganzen l e r e n , sondern in Beziehung auf uns selbst und die Maximen der inneren Sittlichkeit, mithin in praktischer innerer Absicht fruchtbaren Begriff m a c h e n , worin denn auch unsere ganze i m m a n e n t e (ausführbare) Pflicht in diesem bloß gedachten Verhältnisse allein bestrebt", MS, AA VI 241-242.

¹¹³⁶MS, AA VI 280 eta 280-1oh. Beste batzutan esplikaezintasunean geratzen da, Refl. 5535, AA XVIII 211 edo Refl. 5550, AA XVIII 215, eta bestalde Refl. 6128, AA XVIII 463 testuan oro har sorkuntza frogatzeko zailtasuna azaltzen da.

¹¹³⁷MS, AA VI 440.

¹¹³⁸MS, AA VI 441. Hamann-engandik hartzen duen ideia hau, bere jatorria aipatuz, Streit, AA VII 55ean berriro errepikatzen du.

¹¹³⁹"Nach der bloßen Vernunft zu urtheilen, hat der Mensch sonst keine Pflicht, als blos gegen den Menschen", MS, AA VI 442.

sortzen baitugu¹¹⁴⁰. Zentzu honetan laneko azken esaldia aipagarria da guztiz, moraletik erlijiorako 'ezinbesteko' bidea behin betiko izten baitu, Erljioa testuan oraindik gertatzen ez zen bezala¹¹⁴¹.

Kanten azken lanetara igaro aurretik, testu berezi batzuei buruz zerbait esan behar dut. Ohituren Metafisikarako Kantek idatzitako aurrelalanak ezagunak dira, nahiko luzeak dira eta edukiak puntu batzutan nahiko interesgarriak ere bai. Bestalde, tarteka gero Igarobidean Jainkoari buruz idatziko dituen antzeko ideiak aurkitzen dira bertan. Alde batetik, geuk Jainkoa egiten dugula esaten du, ez bere ideia aurretik gisa, baizik bera¹¹⁴². Norabide berdinean aurrerago zera dio, "**guregan dagoen arrazoimen moral praktikoa da gizatasuna (homo noumenon), guri legeak ematen diguna**"¹¹⁴³. Eta erlijio erabat inmanentea egiten duten esaldiak ere badaude: "**Erljioa izatea norberarekiko betebeharra da**"¹¹⁴⁴; eta oraindik gehiago, Jainkoak legemaile gisa zuen lekua gizatasunari ematen zaio zuzenki orain: "**Gizatasuna da, ordea, guregan legemaile, gizakia betetzaila, eta gurekiko betebeharra guregan dagoen arrazoimen legemailearen begirunea da**"¹¹⁴⁵. Eta gainera, jarraian Jainkoarekiko betebeharra uztearen arrazoia legezatzaten du Kantek, horrek kanpoko kulto batera daramalako. Hau aurreko ideia tradizionalagoekin nahastuta agertzen dela onartu behar da, baina testuinguru honetan Jainkoari buruz hitz egiten duenean, garbi geratzen da bere Filosofiaren barnean soilik uler diatekeen kontzeptu batez ari dela:

"Ez dago inongo betebeharririk izaki idealekiko, halakoak existitu edo etorkizuneko bizitza bat izatekotan soilik bete beharko nituelarik. Ezta halako izakietan sinesteko betebeharririk ere"¹¹⁴⁶.

¹¹⁴⁰... diese Idee [Gott] ganz aus unserer eigenen Vernunft hervorgeht und von uns (...) selbst gemacht wird", MS, AA VI 443-4; "Das Formale aller Religion, wenn man sie so erklärt: sie sei 'der Inbegriff aller Pflichten als (instar) göttlicher Geböte', gehört zur philosophischen Moral, indem dadurch nur die Beziehung der Vernunft auf die Idee von Gott, welche sie sich selber macht, ausgedrückt wird", idem, 487; "Pflicht in Ansehung Gottes (eigentlich der Idee, welche mir uns von einem solchen Wesen machen)", idem.

¹¹⁴¹"Man sieht hieraus: daß in der Ethik, als reiner praktischer Philosophie der inneren Gesetzgebung, nur die moralischen Verhältnisse des Menschen gegen des Menschen für uns begreiflich sind: was aber zwischen Gott und dem Menschen hierüber für ein Verhältniß obwalte, die Grenzen derselben gänzlich übersteigt und uns schlechterdings unbegreiflich ist; wodurch dann bestätigt wird, was oben behauptet ward: daß die Ethik sich nicht über die Grenzen der wechselseitigen Menschenpflichten erweitern könne", MS, AA VI 491.

¹¹⁴²"Man kann sich nur aus seinen moralischen Begriffen und Grundsätzen einen Gott machen dessen Wille diese sind", Vor. MS, AA XXIII 342.

¹¹⁴³"Die moralisch praktische Vernunft in uns das ist die Menschheit (homo noumenon) die uns Gesetze giebt", Vor. MS, XXIII 398.

¹¹⁴⁴"Religion zu haben ist Pflicht gegen sich selbst", Vor. MS, AA XXIII 399. Egia esan hau gero liburuan ere jasotzen du: "Religion zu haben ist Pflicht des Menschen gegen sich selbst", MS, AA VI 444.

¹¹⁴⁵"Niemand hat eine Pflicht gegen sich selbst wenn der Verpflichtende und der Verpflichtete in einer und derselben Person gedacht werden: denn weil einer der Gesetzgebende ist und der demselben Gehorchende eben dieselbe Person in demselben Sinne des Worts seyn soll so kann der erstere den Andern mithin er sich selbst von der Verbindlichkeit lossprechen oder überhaupt das Gesetz aufheben: Aber die Menschheit in unserer Person ist gesetzgebend, der Mensch gehorchend und Pflicht gegen sich selbst ist die Achtung vor dem Ansehen der gesetzgebenden Vernunft in mir", Vor. MS, AA XXIII 399-400.

¹¹⁴⁶"Es giebt keine Pflichten gegen idealische Wesen die man nur auf den Fall daß solche Existirten oder seines künftigen Lebens ausüben solle. Auch keine Pflicht solche Wesen zu glauben", Vor. MS, AA XXIII 402; "Religionspflichten kann man a priori nicht erkennen aber wohl daß natürliche Pflichten zugleich eine übernatürliche Gesetzgebung zum Grunde haben können und da ist die Pflicht so zu verfahren als ob eine solche moralische äußere Gesetzgebung sey nicht ein Beweis vom Daseyn derselben auch nicht eine Pflicht ein solches Wesen zu glauben sondern eine Pflicht diesem unvermeidlichen Ideal der Vernunft angemessen sich zu verhalten", Vor. MS, AA XXIII 385. Beste testu argigarriak ere badaude: "So haben wir

Ondoren, 1797ko artikuluan postulatuen teoria jasotzen da berriro, hiru ideiak jasoz. Baina postulatu hitza argitzeko oharrean horrela dio:

"P o s t u l a t u a a priori emandako, argibide ahalgarrirako ezgai den (ezta beraz frogarako ere) inperatibo praktikoa da. Ez dira, beraz gauzak, edo oro har objektu baten i z a t e a , baizik subjektu baten ekintzaren maxima (erregela) soilik baizik"¹¹⁴⁷.

Postulatu era honetara inperatiboarekin berdintzeak hasiera batean ez du zentzu gehiegirik. Baina aurreko testuak ikusi ondoren, zera esan behar da, honekin hilezkortasuna eta Jainkoaren postulatu batzuen aukera deusezten dela.

1798an, erregea hiltzean, Kantek horrekin erlijioaz aritzeko debekua bukatu dela erabakitzen du eta berehala idazten du erlijioari buruz, eta gainera norabide berdinean, hau da, erlijioa inmanente bihurtzen du eta moralera murrizten du testu nabarmenetan: "**Jainkoaren esentzia gure arrazoimen huts soilaren produktua da**"¹¹⁴⁸. Bibliaren teologoen aurka egiten du, edozer interpretaziorako aurretik arrazoimenaren legea behar dela aipatuz¹¹⁴⁹. 1798ko Fakultateen gatazka honen bigarren zatian hobera doan giza leinuaren galdera aztertzen du, 1784ko ideiak berriro jasoz¹¹⁵⁰, eta hor bide benetan kritikoa topatzen du. Nik hau hilezkortasunaren postulatuaren ordezkapen kritikotzat jotzen dut. Gizatasunaren aurrerapen etiko eta legala da gure lana, eta jakina da gizabanakoak ez duela hori bere kaxa lortuko.

zwar Pflichten gegen uns in Ansehung unserer Seele aber nicht gegen sie weil ob es ein solches besondere Subject im Menschen gebe wissen wir nicht. Wir machen uns aber die Idee von einem solchen Wesen und unsere Pflicht in Ansehung unserer Selbst zu einer Pflicht gegen eine ideale Person (den Geist in uns) welche auf diese Art als wirklich angenommen ein übermenschliches Wesen seyn würde", Vor. MS, AA XXIII 416.

¹¹⁴⁷Postulat ist ein a priori gegebener, keiner Erklärung seiner Möglichkeit (mithin auch keinen Beweis) fähiger, praktischer Imperativ. Man postuliert also nicht Sachen, oder überhaupt das D a s e i n irgend eines Gegenstandes, sondern nur eine Maxime (Regel) der Handlung eines Subjekts", Traktat, AA VIII 418oh.

¹¹⁴⁸"Das W e s e n G o t t e s (...) ist ein Product unserer bloß reinen Vernunft", Vor. Streit, AA XXIII 438; "Religion unterscheidet sich nicht der Materie, d.i. dem Object, nach in irgendeinem Stücke von der Moral, denn sie geht auf Pflichten überhaupt, sondern ihr Unterschied von dieser ist bloß formal, d.i. eine Gesetzgebung der Vernunft, um der Moral durch die aus dieser selbst erzeugte Idee von Gott auf den menschlichen Willen zur Erfüllung aller seiner Pflichten Einfluß zu geben. Darum ist sie aber auch nur eine einzige, und es giebt nicht nur verschiedene Religionen", Streit, AA VII 36; "... weil wir niemand verstehen als den, der durch unsern eigenen Verstand und unsere eigene Vernunft mit uns redet, die Göttlichkeit einer an uns ergangenen Lehre also durch nichts als durch Begriffe u n s e r e r Vernunft, sofern sie rein-moralisch und hiemit untrüglich sind, erkannt werden kann", Streit, AA VII 48; "Denn wenn Gott zum Menschen wirklich spräche, so kann dieser doch niemals w i s s e n , daß es Gott sei, der zu ihm spricht", Streit, AA VII 63; "Der Gott, der durch unsere eigene (moralisch-praktische) Vernunft spricht, ist ein untrüglicher, allgemein verständlicher Ausleger dieses seines Worts, und es kann auch schlechterdings keinen anderen (etwa auf historische Art) beglaubigten Ausleger seines Worts geben: weil Religion eine reine Vernunftsache ist", Streit, AA VII 67. Hemen "**Gottmensch**"-i buruz hitz egiten du gizatasunaren ideia gisa: "In einem wirklichen Menschen 'leibhaftig wohnende' und als zweite Natur in ihm wirkende Gottheit", Streit, AA VII 39.

¹¹⁴⁹Wäre keine Bibel so würde die Moral als eine Religion. Wäre aber keine Moral so würde auch bey dem Glauben an eine Bibel doch keine Religion seyn", Vor. Streit, AA XXIII 435.

¹¹⁵⁰Egia esan 80ko hamarkadan iadanik ideia hau topa daiteke. Hamarkada hasierako erreflexio batek zera dio: "Das Materiale der Religion ist: ein besserer Mensch zu seyn", Refl. 6309, AA XVIII 604. Eta Kritikako bigarren edizioan hobekuntzarako joera hori aipatzen du (B425-6).

Bide berdina jarraitzen du urte bereko Antropologian, nabarmenki Jainkoaren kontzeptuaren bidez bete zituen lekuak orain gizatasunaren esku jarritz: "**Bizitza ona eta bertutea batzearen pentsakera gizatasuna da**"¹¹⁵¹. Lanaren azken esaldian laburtzen du ideia hori, helburua gizakiak espeziearen sistema kosmopolita batera hurbiltzen den hoberanzko bidean lan egin behar duela azpimarratuz¹¹⁵². Beraz, ongi gorenaren gaiak egikaritzapen erabat inmanentea eta soilik inmanentea du¹¹⁵³.

Igarobidean orain arte ikusi dugun garapenak bere zentzu garbia hartzen du: ez dago moraletik erlijiorako biderik, Jainkoaren transzendentzia nabarmenki ukatzen da, eta puntu konketuagoak ere argitzen dira: izaki askeen sorketa zalantzasua orain azkenik argi ukatzen da. Testu guztietan zehar aipamen solte eskas batzuk egin ondoren, VII. sortako 5, 9 eta 10 eta lehen sorta osoa gai honetaz beteak daude. Ez dago gogoeta luzerik, ohar motz ugari baizik, batzutan kontraesankorrak, bestetan ñabardura txikietan ezberdinak. Beraz, zehazki aztertu behar dira esaldi guztiak.

Kantek testuetan zehar Jainkoaren definizio ortodoxoak errepikatzen ditu, bere osotasuna, adimen eta ongi gorena, bere batasuna azpimarratuz, baina dialektikan sortzen den ideia mailan, bere izatea onartu edo ukatu gabe¹¹⁵⁴. Postulatuaren ideia apenas agertzen da, eta azaltzen den gutxitan gainera zalantzan jartzen du¹¹⁵⁵. Zalantzez garbi ez dauden testu gutxi hauez gain, arazoak besterik ez dira topatzen. Orrialde guztietan zehar Jainkoa substantziatzat jotzen du¹¹⁵⁶, batzutan ñabardurekin bada ere¹¹⁵⁷. Substantziatasun hau noizbehin ukatzen badu ere¹¹⁵⁸, lehenago eta ondoren hitz hori erabiltzen du berriro. Bestalde, Jainkoari pertsona izaera egotzi behar zaiola aipatzen du, baina hau ere ez da problemarik gabekoa, eta behin zuzenki ukatzen du hori¹¹⁵⁹. Jainkoak eskubideak bai, baina betebeharrak ez du, gizakiak biak dituen bitartean. Eta hau ezin da lotu aurrerago Kantek emandako pertsonaren definizioarekin: "**bere ekintzak juzagarriak diren subjektua da**"¹¹⁶⁰. Behin eta

¹¹⁵¹"Die Denkungsart der Vereinigung des Wohllebens mit der Tugend im U m g a n g e ist die H u m a n i t ä t ", Anthr., AA VII 277. Eta zentzu sistematiko bera zabalago aipatuz: "Übrigens soll und k a n n die Menschengattung selbst Schöpferin ihres Glücks sein; nur daß sie es sein w i r d , läßt sich nicht a priori, aus den uns von ihr bekannten Naturanlagen, sondern nur aus der Erfahrung und Geschichte, mit so weit gegründeter Erwartung schließen, als nöthig ist, an diesem ihrem Fortschreiten zum Besseren nicht zu zweifeln, sondern, mit aller Klugheit und moralischer Vorleuchtung, die Annäherung zu diesem Ziele (ein jeder, so viel an ihm ist) zu befördern", Anthr., AA VII 328-9.

¹¹⁵²Anthr., AA VII 333.

¹¹⁵³Garai honetako erreflexioak honela dio: "Die Erkenntnis Gottes als m o r a l i s c h e n W e s e n s i s t i m m a n e n t ", Refl. 640, AA XVIII 713.

¹¹⁵⁴"Was denke ich unter dem Begriff von Gott. Ein Wesen von der größten Vollkommenheit ein Wesen was alles Weiß u. alles Vermag und in seinem Selbstbewustseyen Personlichkeit enthält (Ens sumum, suma intelligentia, sumum bonum) und aller andern Dinge Urheber ist", AA XXI 50, 8-12; "Der höchste Wille constituirt sich zum höchsten Wesen als ens sumum, summa intelligentia, summum bonum", AA XXI 143, 22-23.

¹¹⁵⁵AA XXI 147, 15-19; AA XXII 116, 20-26; AA XXI 140, 7-12.

¹¹⁵⁶"Unter dem Begriffe von Gott denkt man sich eine Substanz", AA XXII 48, 13.

¹¹⁵⁷"Der Begriff von Gott ist der Begriff von einer Person aber nicht für sich einer Substanz sondern die Idee der Bestimmung einer Substanz", AA XXI 61, 5-6.

¹¹⁵⁸"Die I d e e (nicht Begriff) von Gott ist nicht der B e g r i f f von einer S u b s t a n z ", AA XXI 151, 18-19.

¹¹⁵⁹"Aber Persönlichkeit kann der Gottheit nicht beygelegt werden", AA XXII 48, 23-25.

¹¹⁶⁰" P e r s o n ist dasjenige Subject, dessen Handlungen einer Z u r e c h n u n g fähig sind", MS, AA VI 223.

berriz errepikatzen du Jainkoa ez dela munduaren arima¹¹⁶¹, munduaren izpiritua, ezta ere demiurgos edo munduaren sortzailea ere ("**Weltschöpfer**", "**Welturheber**"). Honi lotuta gai ezagun bat azaltzen da, baina zentzu berrian: Jainkoak materia soila sor balezake ere, inoiz ezingo lukeena, gizaki askeak sortzea litzateke, hain da oinarritzkoa giza askatasuna. Lehen legezkatzen saiatu dena, orain ukatu egiten du besterik gabe¹¹⁶².

Jainkoa eta berogaiaren arteko harremana argi eta garbi aipatzen du¹¹⁶³, hau bezala izaki edo gauza hipotetikoa ez ote den izango galdetzen duenean. Eterrak espazioa egikaritzen duen moduan, inperatiboak Jainkoaren kontzeptua egikaritzen du¹¹⁶⁴. Baina oraindik interesgarriago dena, bere betiko ideiarri jarraituz, Jainkoaren kasurako argumentu ontologikoa espreski ukatzen du¹¹⁶⁵, eta horrela, berogaiaren existentzia frogatzeko ibili duen formula bera, Jainkoaren existentziaren aurka erabiltzen du!

Testu hauen guztien oinarrian aurrerago azaldu dugun ideien sistema dago eta Jainkoa ideia soila dela askotan azaltzen den pentsamendua da. Ideia horri lotuta "**maximum**", "**Ideal**", eta antzeko espresioak datoz, aurreko eskemetan jaso daitezkeenak, baina hauekin batera berritasuna eta harridura sortzen duten espresio erradikalagoak ere erabiltzen ditu Kantek: "**selbstgeschaffene**", "**selbstgeschöpf**", "**Gedankending (ens rationis)**", Jainkoaren izate independente batez hitz egiteko aukera ukatuz¹¹⁶⁶.

Jainkoa eta mundua ideien parekotasun batez hitz egiten badu ere, gehienetan subordinazioa dagoela esaten du, mundua Jainkoaren menpean dago. Hau erraz uler daiteke sarritan Jainko-mundu pare hori natura-askatasuna parearekin berdintzen duela badakigu. Beraz, arrazoimen tekniko-praktikoaren aurrean etiko-praktikoak duen gailentasuna, hau da, ideia kritiko nagusi horren islada besterik ez dugu hemen. Jainkoaren inguruko gogoeta guztiak honen menpe daude, arrazoi moral-praktikoa eta inperatiboaren inguruan mugitzen dira¹¹⁶⁷.

¹¹⁶¹Newtonek ere bai Optics liburuan (Newton 1779hh. IV 262-3).

¹¹⁶²"Gott kann einen Menschen erschaffen als Naturwesen (demiurgus) aber nicht als moralisches Wesen mit Principien der Gerechtigkeit Gütigkeit u. Heiligkeit -Er muß es Ursprünglich selbst seyn", AA XXI 66, 19-21.

¹¹⁶³AA XXII 109; 126 adibidez.

¹¹⁶⁴"Der categorische Imperativ realisirt den Begriff von Gott", AA XXI 51, 2.

¹¹⁶⁵"Die E x i s t e n z eines solchen aber d i r e c t beweisen zu wollen enthält einen Widerspruch denn a posse ad esse non valet consequentia", AA XXII 121, 15-17.

¹¹⁶⁶"Von uns selbst geschaffenen Idee des höchsten Wesens", AA XXI 17, 8-9; "Das Ideal einer Substanz welches wir uns selbst schaffen", AA XXII 130, 29; "Die Vernunft schafft sich unvermeidlich selbst objecte. Daher jedes Denkende einen Gott hat", AA XXI 83, 1-2; "Es müssen Wesen gedacht werden die, ob sie gleich nur in den Gedanken des Philosophen existiren, doch in diesen moralisch//practische Realität haben", AA XXI 94, 15-17; "Die Begriffe von einem Geist, von Gott etc. sind Dichtungen, die zwar an sich gegründet aber nicht real sondern immer nur ideal seyn", AA XXI 105, 11-12; "G o t t ist nicht ein ausser mir bestehendes Ding, sondern mein eigener G e d a n k e . Es ist ungereimt zu fragen ob ein G o t t sey", AA XXI 153, 11-12.

¹¹⁶⁷"Nicht technisch//practische sondern moralisch//practische Vernunft enthält das Princip Gottes", AA XXII 60, 4-6; "Die Frage ob ein Gott sey muß bloß aus Principien der moralisch practischen Vernunft abgeleitet werden", AA XXII 62, 14-15; "Es ist ein Gott nämlich in der Idee der moralisch-practischen Vernunft", AA XXI 4, 10-11; "Ob ein Gott in der Natur sey (gleichsam als Weltseele) kann nicht gefragt werden denn dieser Begriff ist contradictorisch; aber in der moralisch//practischen Vernunft und dem categorischen Imperativ offenbart er sich", AA XXI 92, 13-16; "Gott muß nicht als Substanz ausser mir vorgestellt werden, sondern als das höchste moralische Princip in mir", AA XXI 144, 25-26; "Der Satz: es ist ein Gott ist eine nothwendige Hypothese der reinen practischen Vernunft Er ist auch der höchste Grundsatz der

Hala ere, batzutan ideia nabarmenki ez-kritikoak ere agertzen dira eskuizkribuan, Jainkoa lege moralaren egilea¹¹⁶⁸, edo inperatiboaren subjektu gisa¹¹⁶⁹ agertzen baita. Horrelako esanak ulertu nahi badira, hemen Jainkoaren kontzeptuak Katengan eduki oso berezia duela pentsatu behar da. Gainera, Jainkoa lege moral-praktikoaren faktuma dela aipatzen badu¹¹⁷⁰, hau nabarmenki askatasuna denean, ideia hori baieztatua geratzen da: subjektu morala jainkotu da, eta Jainkoa hitzak ez du beste esanahirik hortik kanpo¹¹⁷¹.

Erljioari buruz hitz egiten duen askotan ere, honek Jainkoaren izatea gabe izan dezakeen zentzua aztertzen du, eta beraz, erlijioaren ohiko ideia ez den beste zerbaitez ari dela nabarmena da¹¹⁷². Honekin garbi geratuko da transzendentziaren ukapena¹¹⁷³, gehienbat inperatiboaren oinarritzotasunari lotuta, baina bestela era

Transcendentalphilosophie", AA XXI 151, 11-13; "Es ist ein Gott denn es ist ein categ. Imperativ", AA XXII 106, 19; "Also ist die Idee der moralisch//practischen Vernunft im categorischen Imperativ das Ideal von Gott", AA XXII 54, 21-22.

¹¹⁶⁸"Der Autor (der mit Autoritaet spricht) des Pflichtgesetzes ist Gott", AA XXI 118, 16; "Der A u t o r (der mit Autoritaet spricht) des Pflichtgesetzes ist Gott (eine bloße Idee ist Gott)", AA XXI 113, 9-11.

¹¹⁶⁹"Gott ist das Subject des categorischen Imperativs der Pflichten", AA XXI 22, 30; "Das Subject des categorischen Imperativ (...) ist Gott", AA XXII 55, 6-9.

¹¹⁷⁰"Es ist ein Factum der moralisch//practischen Vernunft", AA XXI 21, 12.

¹¹⁷¹"Der Begriff von Gott ist die Idee von einem moralischen Wesen welches als ein solches richtend allgemein gebietend. Dieses ist nicht ein hypothetisches Ding sondern die reine practische Vernunft selbst in ihrer Persönlichkeit", AA XXII 118, 14-18; "Man muß von der technisch//practischen zur moralisch//practischen Vernunft und von Subject als Naturwesen zum Subject als Person d.i. als reinem Verstandeswesen Gott, fortschreiten", AA XXII 49, 17-20; "Der Satz: es ist ein Gott sagt nicht mehr als: Es ist in der menschlichen sich selbst moralisch bestimmenden Vernunft ein höchstes Princip welches sich bestimmt u. genöthigt sich nach solchen Princip unnachlaslich zu handeln", AA XXI 146, 25-28; "Gott ist also k e i n e a u s s e r m i r b e f i n d l i c h e S u b s t a n z sondern bloß ein moralisch Verhältnis in Mir", AA XXI 149, 10-12.

¹¹⁷²"Ob Religion ohne Voraussetzung des Daseyns Gottes möglich ist", AA XXII 130, 4-5; "Die X Gebote sind insgesamt negativ. Der categorische Imperativ ist nur das Princip der Freyheit", AA XXI 36, 21-22; "**Religion ist Gewissenhaftigkeit** (mihi hoc religioni) Die Heiligkeit der Zusage u. Warhaftigkeit dessen was der Mensch sich selbst bekennen muß. Bekenne dir selbst. Diese zu haben wird nicht der Begriff von Gott noch weniger das Postulat: 'es ist ein Gott' gefordert", AA XXI 81, 19-22; "Man kann bey Gott schwören ohne sein Daseyn einzuräumen/Bey Gott schwören ohne sein Daseyn einzuräumen (zu behaupten) bedenkt nur G e w i s s e n h a f t i g k e i t", AA XXI 153, 14-16. Eta erlijioaz oro har testu nabarmenki zakarrak ere topa daitezke: "Der Glaube an das Daseyn gottes entspringt beym Menschen nicht aus den großen Wohlthätigkeit der Naturgaben sondern ist ein heuchlerisches Vorgeben der Erkenntnis der Bewunderung seiner Vollkommenheit etc.", AA XXI 154, 4-6.

¹¹⁷³"Der categorische Imperativ setzt nicht eine zu oberst gebietende Substanz voraus die ausser mir wäre sondern ist ein gebot oder Verbot meiner eigenen Vernunft", AA XXII 51, 2-4; "Es ist ein Gott in der moralisch//practischen Vernunft d.i. in der Idee der Beziehung des Menschen auf Recht und Pflicht. Aber nicht als ein Wesen ausser dem Menschen", AA XXII 60, 14-16; "Zum categorischen Imperativ wird aber keinesweges erfordert daß eine Substanz existire deren Pflichten auch jener ihre Gebote sind, sondern nur die Heiligkeit und Unverletzlichkeit derselben verstanden", AA XXII 119, 16-18; "Es ist ein Gott: denn es ist in der moralisch practischen Vernunft ein categ. Imperativ, der auf alle Vernunftige Weltwesen ausgebreitet und wodurch alle Weltwesen vereinigt werden", AA XXII 104, 31-105, 3; "Der categorische Imperativ setzt nicht eine höchst gebietende Substanz voraus die ausser mir ist sondern in meiner Vernunft liegt", AA XXII 56, 14-15; "Der moralische Freyheits/begriff des Menschen führt auf den Begrif von Gott durch den moralischen Imperativ; beweiset aber nicht sein Daseyn als einer besonderen Substanz", AA XXI 49, 3-5; "Es ist nicht eine S u b s t a n z ausser mir deren Existenz ich zum Behuf der Erklärung gewisser Phänomene in der Welt als hypothetisches Wesen postuliere sondern der Pflichtbegriff eines allgemeinen practischen Principis ist identisch im Begriffe eines Göttlichen Wesens als Ideals der menschlichen Vernunft enthalten...", AA XXII 123, 1-5.

bai¹¹⁷⁴. Hainbat aldiz errepikatzen duen ideia honen aurkako zenbait esaldi badaude, baina gutxi dira eta gehien esanahia ere ez da arazorik gabekoa¹¹⁷⁵.

Beste gogoeta kopuru handian Jainkoaren ideia gizakia edo subjektuari zuzenean lotzen zaio¹¹⁷⁶. Eta azken finean, autoezarpen teorikoa zegoen bezalaxe, etikoa ere badagoela ulertu behar da, eta honekin konpontzen da gizaki-Jainko harremanaren arazo guztia:

"Jainkoa dagoela esaldiak ez du esan nahi substantzia hautemagarri batean sinestea edo berogaia gisa fenomenoaren argibiderako gauza hipotekoa onartzea, bada, ez da zentzuen objektua, baizik bere ekintzen printzipio gisa bera ezartzeko arrazoimen praktiko hutsaren axioma"¹¹⁷⁷.

Idea hau lehen Kritikatik dator iadanik nolabait, han Kantek filosofoaz naturaren eta askatasunaren legea ezartzen duen subjektu gisa hitz egiten duen neurrian¹¹⁷⁸. Hemen, ideia haren azken emaitzak jasotzen dira.

Testu nagusi batekin itxi nahiko nuke ikerketa hau, eta honekin zera garbi geratuko dela uste dut, Igarobidean aurreko garapen guztia biltzen dela, eta orokorrean honek esanahi argi bat jasotzen duela autoezarpen fisiko bati etikoa eranstean.

"Jainkoa ez da izaki bat nire kanpoan, baizik pentsamendu huts bat nigan/Jainkoa norberaren legemaile den arrazoimen moral//praktikoa da - Horregatik Jainko bakarra nigan, nire inguruan eta nire gain"¹¹⁷⁹.

¹¹⁷⁴"Dieses gebietende Wesen ist nicht ausser dem Menschen als vom Menschen unterschiedene Substanz", AA XXI 21, 15-16; "Ist ein Gott? Man kann ein solches Object des Denkens nicht als Substanz ausser dem Subject beweisen: sondern Gedanke", AA XXI 23, 13-14; "Schwärmerisch ist der Begriff wenn das was im Menschen ist als etwas was ausser ihm ist sein Gedankenwerk für Sache an sich (substantz) vorgestellt wird", AA XXI 26, 23-25.

¹¹⁷⁵"Das Verpflichtete ist außer mir und zwar als vernünftiges Subject was doch zur Welt gehört", AA XXI 14, 28-29; "Der Begriff von Gott ist der Begriff von einem verpflichtenden Subject außer mir", AA XXI 15, 26-27; "Eine besondere ausser dem Menschen existirende Substanz", AA XXI 17, 14-15; "Es ist ein Gott - Denn es ist ein categorisches Pflichtimperativ vor dem sich alle Knie beugen die im Himmel auf Erden etc. sind und dessen Nahme heilig ist ohne daß eine Substanz angenommen darf welche dieses Wesen für die Sinne repräsentiert", AA XXI 64, 8-11.

¹¹⁷⁶"Das gebietende Subject ist Gott", AA XXI 21, 14; "... und ich der Mensch bin selbst dieses Wesen und dieses nicht etwa eine Substanz ausser mir und was das befremdlichste ist", AA XXI 25, 7-8; "Gott, der innere LebensGeist des Menschen in der Welt", AA XXI 41, 27; "Wir uns Gott machen", AA XXI 51, 17.

¹¹⁷⁷"Der Satz: es ist ein Gott bedeutet nicht den Glauben an das Daseyn einer Substanz als ein apprehensibles Wesen oder auch wie der Wärmestoff ein hypothetisches Ding zu Erklärung der Phänomene angenommen denn es ist nicht ein Sinnengegenstand sondern es ist ein Axiom der reinen practischen Vernunft sich selbst als princip der Handlungen zu setzen", AA XXII 108, 14-18. Antzera: "Das Formale der Darstellung des Absoluten Ganzen aller Wesen in Einen System derselben nach dem Princip der sich selbst nicht bloß analytisch sondern auch synthetisch bestimmenden Vernunft ist nicht Gott als Wesen in der Welt sondern die reine Idee der Selbstkonstruktion gleich die reine Intelligenz des Subject selbst", AA XXI 152, 8-12.

¹¹⁷⁸"Der Philosoph ist nicht ein Vernunftkünstler, sondern der Gesetzgeber der menschlicher Vernunft", B867/A839. Eta hurrengo orrialdean hau zehazten du: "Die Gesetzgebung der menschlichen Vernunft (Philosophie) hat nun zwei Gegenstände, Natur und Freiheit". Hemen, nabarmenki legea ezartzea subjektuaren gauza da, ez da Jainkoa inondik agertzen.

¹¹⁷⁹"Gott ist nicht ein Wesen außer Mir sondern bloß ein Gedanke in Mir/Gott ist die moralische//practische sich selbst gesetzgebende Vernunft - Daher nur ein Gott in mir um mich und über Mir", AA XXI 145, 3-5.

Hau ideien azken teoriarekin loturan jartzen bada, oraindik inork aipatu ez duen lotura nabarmena sortzen da, eta hain zuzen, Kanten aski ezaguna den testu batekin: "**Zeru izarratua nire gain eta lege morala nigan**"¹¹⁸⁰. Hemen iadanik nahiko argi dago, ez zerua, ezta legea ere ez direla nagusi hemen, biak elkarlotzen dituen nia baizik, eta Igarobidean ideia berdin hori garatzen da bere sakonera guztian¹¹⁸¹.

*

*

*

